



EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (2. MAILA)

derrigorrezko bigarren h.

65
Euskal Hizkuntza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA BAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskal hizkuntza eta literatura (2. maila)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1.999

CIP FITXA

EUSKAL hizkuntza eta literatura (2. maila) / [egileak, Imanol Ugarte Murua ... et al.]. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1999
p. ; cm. – (Bilduma "curriculum-materialak" = Colección materiales curriculares ; 65)
ISBN 84-457-1385-X
1. Lengua vasca-Programación. 2. Literatura vasca-Programación. I. Ugarte Murua, Imanol. II. Euskadi. Departamento de Educación, Universidades e Investigación. III. Serie
809.169:373.512.14
891.69.09:373.512.14

BILDUMA "CURRICULUM-MATERIALAK"

COLECCIÓN "MATERIALES CURRICULARES"

65. EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (2.maila)

Egileak: Imanol Ugarte Murua
Itziar Agirre Iturrioz
Eli Agirre Narbaiza
Reme Arrondo Begiristain
Miguel Altunako
Mertxe Laskurain Barrutia
Agustín Garagarza Askorbe
Koldo Zubizarreta Etxabe
Pello Arrondo Sukia

Hezkuntza Sailak curriculum-materialak asmoz antolatu duen deialdian parte hartutako irakasle-taldeen artean honako material hauek izan dira aukeratuak (Agindua 1996ko uztailaren 17koa, EHAA abuztuak 8; Erabakia: abenduak 11) E.H.A.E.ko Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan gelarako material bezala erabiltzeko baimena luzatzen dute edizio honetarako.

Argitaldia: 1.a, 1999ko apirila

Ale-kopurua: 330

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Duque de Wellington, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Argitaldiaren
arduraduna:** Euskal Herriko Curriculum Eratzeko Institutoa
Andaluzia, 1 Kalea - 48015 Bilbao

Inprimaketa: Lankopi, S.A.
Colón de Larreategui, 16 - 48001 Bilbao

ISBN: 84-457-1385-X

**Legezko
Gordailua:** VI-324/99



**EUSKAL HIZKUNTZA
ETA LITERATURA
(2. maila)**



SARRERA

Ondoren duzun materiale hau Euskal Hizkuntza eta Literatura HSAOL 2. maila duzu. Iazkoan HSAOL 1. maila ikusi eta ikasi zenuen, aurtengo hau haren jarraipena da eta honekin Batxilergo Oinarrizko Curriculum Diseinua garatzen dugu.

HSAOL 2. maila hau 6 unitatetan banatu dugu, unitate bakoitza hasieran bertan landuko diren kontzeptu, prozedura eta jarrerazko edukinak emanda azalduko zaizu; ondoren gai horri buruzko testu, ariketa eta teoria eskaintzen da, eta, azkenik, gai bakoitza autoebaluapen orri batez osaturik daukazu.

6. unitatea taldelanean egiteko prestaturik dago, hasieran gida orientagarria azalduko da eta irakaslearekin taldean horri buruzko zehaztasunak beteko dituzu.

Liburu hau egiten ari garenok asmo bat izan dugu beti gure ipar orratz: Euskara komunikagai, ikasgai, aztergai, gozagarri izan dadin geure ahaleginak egin ditugu eta guztion artean eguneroko ihardunean hori lortzearren ikasturte oso bat daukagu; beraz, besterik gabe, ekin diezaiogun lanari eta disfruta bedi, hala bedi.

Bergaran, 1996ko iraila

AURKIBIDEA

I. UNITATEA: DISKURTSOA

- 1.- Diskurtso motak
- 2.- Koherentzia ko-testuala edo kohesioa:
 - 2.1. Maila makrotestuala
 - 2.2. Maila mikrotestuala:
 - 2.2.1. Esaldiaz gaineko esparrua
 - 2.2.2. Esaldiaren esparrua

II. UNITATEA: HIZKUNTZA INSTITUZIOEKIKO HARREMANETAN

1. Aurkezpenerako gutunak:
 - 1.1. Lan eskaera: curriculum-a
 - 1.2. Eskaera gutunak

III. UNITATEA: LITERATURA-EUSKALKIAK

- 3.1. Fonologia- fonetika
- 3.2. Dialektologia
- 3.3. XVI. mendea. Etxepare. Leizarraga
- 3.4. Lapurtera
- 3.5. Axular eta Sarako eskola
- 3.6. Zuberera
- 3.7. XVII. mendea. Oihenart. Tartas
- 3.8. Gipuzkera
- 3.9. XVII.mendea. Larramendi. Gipuzkera Klasikoa
- 3.10. Bizkaiera
- 3.11. Mogel
- 3.12. Ohitur nobela

IV. UNITATEA: LIRIKA XX. MENDEAN

- 1.- Bertsopaperak eta olerkariak XX. mendean
- 2.- Literatur baliabideak

V. UNITATEA: LEHEN TEATRO LANAK

- 1.- Antzerkia

6.- VI. UNITATEA: HIZKUNTZA ETA HIZTUNAK

- 1.- Taldelanerako gida
- 2.- Hizkuntza eta hiztunak
- 3.- Eleaniztasuna eta diglosia
- 4.- Euskararen hedadura mendez mende
- 5.- Normalkuntza prozesua, hizkuntza estandarra

7.- VII. BIBLIOGRAFIA

I. UNITATEA: DISKURTSOA

* Kontzeptuak:

- Koherentzia ko-testuala eta kohesioa
- Maila makrotestuala
- Maila mikrotestuala
- Diskurtso motak:
 - Deskribapena
 - Narrazioa
 - Azalpena
 - Argudioa

* Prozedurak:

- Hizkuntz unitateen eskapena eta sailkapena
- Hizkuntz unitateen manipulazioa, esanahiarekiko ondorioak aztertuz
- Hizkuntz unitateak testuetan: euren antolaketa eta erlazioak eskemen bitartez

* Jarrerak:

- Hizkuntzarekiko hausnarketak norberaren ekoizpenak zuzentasunez gauzatzearren duen garrantziaz jabetzea
- Hizkuntz arautegia erabili eta onartzea

1. DISKURTSOA MOTAK

2. KOHERENTZIA KO-TESTUALA EDO KOHESIOA

2.1. Maila makrotestuala

2.1.1. Gaia

2.1.2. Testu motak

Deskribapena

Narrazioa

Azalpena

Argudioa

Instrukzioa

Elkarriketa

2.2. Maila mikrotestuala

2.2.1. Esaldiaz gaineko esparrua

Errepikapenerako mekanismoak

Lokailuak

Progresio tematikoa

2.2.2. Esaldiaren esparrua

Deklinabideko kasu-markak

Posposizioak

1. DISKURTSOA

Gaitasun diskurtsiboa, komunikazio-egoerarekin bat datozen enuntziatu koherente eta egituratuak sortzeko hiztunak duen ahalmena da.

Zerrendatutako ahalmen guzti hauen artikulazioaren emaitzak **testuak** dira.

Batxilergoko curriculumak lau diskurtso (testu) mota esanguratsu hautatzen ditu:

- **Diskurtso akademikoa**: ikasketa-gai bati buruzko azalpenak eman + gertakari edo bestelako fenomeno baten inguruko informazioa eman.
- **Iritzi edo portaera orientatzen duten diskurtsoak**: komunikabideetako eta publizitate edo politika-munduari lotutako jeneroak.
- **Erakundeetako diskurtsoak**: gizonen arteko erlazioak erregulatzen dituzten arau sozialak.
- **Diskurtso literarioa**: aurrekoen aldean apartekoa dugu tesu-mota hau funtzionalitate aldetik (enuntziatuaren kontestua ezabatuago dago, asmo komunikatiboa legez).

Testu motak eta testu-jeneroak (*)

TESTU MOTAK	ERABILERA ESPARRUA	TESTU JENEROAK dokumentu-motak
Berri emateko testuak	Ikasketa esparrua	- testu teknikoak, zabalkunde zientifikokoak, kulturalak, saiakerak - memoriak, txosten monografikoak, ahozko azalpenak
	Komunikabideetako esparrua	- kazetaritza jeneroak: albisteak, erreportaia, elkarrizketa... (ahozkoak eta idatziak)
Iritzia eta portaera orientatzen duten testuak	Komunikabideetako esparrua	- iritzi jeneroak: editorialak, kronikak, zuzendariaganako eskutitzak
	Bestelako esparruak: politikoa, publizitarioa...	- hauteskunde programak, manifestoak; mitinak - kultur, merkatal eta erakundeen publizitatea (soporte ezberdinetan)
Gizarte-bizitza erregulatzen duten testuak	Erakundeetako esparrua	- legeak, aginduak, dekretuak, ebatziak... - elkarte-estatutuak, ikastetxe edo lantegien barne-araudiak
Literatur testuak	Literatur esparrua	- narratiba - antzerkia - olerkia - saiakerak

(*) Eskema hau Valencian Komunitaterako “*Proposta de Programació de Valencia*” liburuxkatik hartua dago.

2. KOHERENTZIA KO-TESTUALA EDO KOHESIOA

Testuaren ikuspegitik, unitate bat osatzen duten testu barruko elementuen konexiorako prozedurak aztertuko dira. Azterketa hau maila bitan egingo da: maila makrotestualean eta mikrotestualean.

2.1. Maila makrotestuala

2.1.1. Gaia

Testuak kohesioa behar du bere esanahi globalari dagokionean, hartzaileak erraz antzeman, laburtu edo birproduzi dezakeen gai bat garatu behar du testuak. Gainera, testuan esanahi globala testu mota diferenteei (deskribapena, narrazioa, azalpena...) dagozkien eskema konbentzionalen arabera antolatzen da (eta berregiten da testua irakurri edo entzuten denean).

2.1.2. Testu motak

Hizkuntzaren bidez sor daitezkeen testuak oso heterogeneoak dira. Hala eta guztiz ere, badira oso era desberdinetako testuek modu batera ala bestera konpartitzen dituzten zenbait ezaugarri, mota batekoak direla esateko bide ematen digutenak. Egunkari batek dakarren gertakarien kronika, gertatutako zerbaiten kontaera eta haurrentzako ipuin bat, esate baterako. Ustez oso desberdinak izan arren, testu mota batekoak dira, zeren egitura bera erakusten baitute; oinarritzko eskema bakar baten arabera antolatzen dira: sarrera, korapiloa eta konponbidea, lokailu logiko eta denborazkoen bidez garatzen da istorioa, eta abar. Honako testu mota hauek bereizten dira.

Deskribapena

Narrazioa

Azalpena

Argudioa

Instrukzioa

Elkarriketa

DESKRIBAPENA

Zer den

Gauza bat nolakoa den erakusten duten testuak dira. Sekuentzia deskriptiboak eskuarki bestelako testuen barruan agertzen dira txertatuta, bigarren mailako funtzioa betetzen dutelarik. Honela, azalpenetan, testu-liburuetan kasu, sarri agertzen dira; narrazioetan oso arrunta da narrazioaren markoaren deskribapena (denbora, espazioa, pertsonaien deskribapen fisiko eta psikologikoa, beren pentsamoldearena...), elkarrizketetan maiz agertzen dira gauzen edo espazioen deskribapenak, prozesuenak...

Egitura

Deskribapen testua ematen den informazio guztia bilatzen duen titulu edo gai nagusi baten inguruan multzotutako zenbait elementuz osatuta egoten da. Izan ere, testu hauen ezaugarri nagusienetako bat horixe da, hain zuzen: deskribapenaren espantsioa nahi adina luza daitekeen arren, informazio guztia titulu batera laburtu eta bil daitekeela. Informazio berriak -edo gai nagusiaren espantsioa- deskribatutakoa -gaia- erlazionatzen du gai horri dagozkion propietate, parte edota kualitate zenbaitekin.

Deskribapenak honela sailka daitezke:

Egoeren deskribapena:

Fisikoa/paisaia

-gauzak

-animaliak

-pertsonak...

Barne egoerak:

-egoera psikologikoa

-izaera

-sentipenak...

Prozesuen deskribapena:

-nola egiten den

-nola funtzionatzen...

-nola erabiltzen den

-ideien garapena

Gehienetan espazioaren ardatzean eratutako testuak izan arren (ikus Sailkapenean egoeren deskribapena), badira denboraren progresioan ematen diren ekintza edo prozesuen deskribapenak. Deskribapenetan ordena bat segitu ohi da, gehienetan honako dimentsio hauen arabera:

goitik beherako dimentsioa: goi/behe; azpi; ipar/hego

zeharkako dimentsioa: ezker/eskubi; alde bat/beste alde; mendebalde/ekialde...

hirugarren dimentsioa: gertu/urrun; aurre/atze; barru/kanpo

denboraren dimentsioa: ordua, egunak, hilabeteak...

EGUNERO HASTEN DELAKO

Durkehim-eko estazioa beltza da. Hamar anden ditu. Kontroleko, etxea, ez dakit nola, lehendabizikotik hamargarrenera, tren bideen gainetik, zero beltzetik zintzilikatua bezala dago... Altabozak hiru hizkuntzatan ematen ditu abisuak.

“The train to Riemmes with first class carriage and sleeping-car...”.

“Messieurs les voyageurs le tren destination...”

Estazioak hamar irteera ditu bideetako aldera eta hamarretatik jendeek hamar ibai osatzen dituzte, bakoitza anden batera. Ibai bati jarraitu behar diozu; egokiago: ibai batek zaitu bultzatzen... Maletak, jendea, paketeak. Jendea. “Messieurs les voyageurs...” The train to Riemmes,... destination Riemmes.” Hamar minutu, ibaiak zure lekutik oso urruti ez bazaitu uzten eman ditzakezu eskerrak... P.T.T.-ren karro elektrikoak. Kontu! Ez dago gehiago ibairik, itsaso bat da. Lehen klasea, bigarrena, couchettes. Bokadiluen karroak. Emigranteen haurrak nigarrez. Jendea. Kontroleko etxean, aparatuek argi gorriak eta berdeak piztu eta itzaltzen dituzte...

Hamargarren bagoia, lehen klasea. Tren bat gelditu da. Beste itsaso bat. Besarkadak. Ondo?

Giselé Sergier, hogeitabi urte, kirrua, begi urdinak, luzea eta mehea... Dena. Bonboi bat. Lehen klasea, bigarrena. Salle d’ attente deuxieme classe.

Aulkiak herrenkan. Lurra kolilaz betea. Hautsa, paperak, jendea. Jende asko, denak periodikuak leitzen...

Giselé: neska bat eserita maleta batekin, estazioan, jende artean. Bakarrik.

(R. Saizarbitoria: Egunero hasten delako).

ARIKETAK:

- 1.- Jar ezazu testua lehenaldian.
- 2.- Osa ezazu aditzez “ Aulkiak... leitzen...” parrafoa.
- 3.- Eman itzazu ondorengo hitzen sinonimoak:
 - estazioa:
 - kontrola:
 - altaboza:
 - bidea:
 - bokadilua:
 - aulkia:
- 4.- Deklina ezazu “bat” zenbakia.

JOANES ARTZAIA

Ura zan gizona, ura!

Zazpi oin ta erdi bat luze, makal zugatzaren irudira zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera zimel.

Orrela zan Joanes nik ezagutu nuanean.

Sendoak zeuden oraindik artzai zarraren beso zaintsuak, txit azkarrak bere oñak, zindoak bere bular auspoak.

Irurogeita amabi aldiz ikusia zuan, Aloña mendiko ariztietan, ostro berdea berriz jaiotzen; baña etzion eramango emeretzi urteko mutil batek ez aizkora jolasean, ez burni astuna jaurtitzen, ez mendietan gora edo ibarretan zear laisterka.

Kaiku andi bat esne goizean jan, azpantarrez izterrak estaldu ta makilla bat eskuan artu ezkerro, prest zegoan egun osoan, zein ariñago bezela beorren atzetik ibiltzeko edo, neke askorik gabe, ardi galdu gaixoaren billa gau guztia igarotzeko.

Argiak ziran Joanesen begi gozoak. oitua zegoan Joanes zerura ta lurrera, gabaz ta egunez, arreta andiz begiratzen; ta iñork lenago ikusiko zuan, goi aldetik, odei tarteko arranoaren ibillera

apaña edi ia gizon danentzat estaldurik zegoan izarren kiñua, ta lur aldean, lokatz bigunetako abere oñatza, bide ondolik joan ziran eperren aztarna, sasi mardularen ertzeko erdi-oi zapal arkaitz zuloetako egazti arraparien kabia, ta an bebeian agiri zan urlia erriko orduari zar ta illun samarra.

Ernaiaik ziren Joanesen belarriak. oso egiña zegoen Joanes mendi-oiarzun guztietara. Milla aldiz bai entzun zituan, bakartasunaren erdian jarrita zegoala, urritiko trumoiaren orrua, ekaitz aizearen durundia, artzaiaren deadar luzea, egurgillearen aizkorakada neurtua, basaurdearen aranasotsa, otsoaren alarua, azeriaren zaunka, beorren irrintzia, mozoloaren oiua, basautz bildurtiaren zalaparta; abere arranen dulunduluna, ardien bee negartia, suge zarraren txistua, belien garraxi latza, xoxoaren txortxorra, txori kantari askoren txio-txio alaia, errekaen poll-polla, zugatz ostroen pir-pir biguna, eltxo gogaikarren zunburruntxoa... itz gutxitan esateko, izakiak berez dituan ta mendi basoetan diran abere, pizti ta sortutako gauza guztien amaigabeko soñu txiki ta andi, ixil ta bizi, garratz ta gozo, mingarri ta eztitsu, pozkor ta ikaragarritzko danak. Berialaxe antzematen zion Joanesek nondik zetorren soñua, ta baita ere esango zukean garbiro ta zuzen zer zan ta non zegoan soñu bakoitzaren jatorri ezkutua.

Etzan Joanes jakituri andikoa, baña bai asko ikusia, ta asko ikusi duan gizonak beti daki zerbait, eta sarri jakintsu usteko askok baño geiago.

Bazekian non ta noiz jaoitzen ziran gibelurdiñik gozoenak eta zein tokitan zeuden kamamila belatxeta, karraskilla ta beste orrelako belar mota gizonarentzat osasungarriak.

Bazekian non idoro zituan artaldearentzat behar ziran janaririk on eta egokienak.

Bazekian nola sendatu behar ziran beor, bei ta ardien zauri ta gaixotasun ezgutuenak.

Bazekizkian baso guztietako laster bideak eta bost ordu bide inguruko arkaitz zulo ta aterpe denak.

Bazekizkian zer leku zeuzkaten goi urdinean izarrik nagusienak eta artizarrak batez ere. Eguzkian bertan ikusten zituan, geinbat egunaren orduak; illargiaren jiran, aizeak zeraman bidean ta laño ta odeien egoetan irakurtzen zuan urrengo egunerako giro ona edo giro txarra.

Txomin Agirre, Garoa, 4. argital. Arantzazu.

ARIKETAK

- 1.- Pasa itzazu euskara batura 5., 6. eta 7. parrafoak.
- 2.- Zein dira testu honetan aipatzen diren animalia desberdinen “hizkuntzak”?
- 3.- Bihur ezazu 6. parrafoa baldintzazkoa.
- 4.- Eman itzazu 5. parrafoan agertzen diren adjetiboen sinonimoak.

NARRAZIOA

Zer den

Narratzea denbora tarte jakin batean gertatzen diren ekintzak kontatzea da. Narrazioaren ardatza denbora da eta gertakarien arteko erlazioa denborazko konektoreen bidez gauzatzen da nagusiki. Era askotako testua izan daiteke narrazioa: ipuina, biografia, kronika, akta, gutuna, erreportaia, pasadizoen kontaketa..., baina denek daukate ezaugarri amankomuna: zenbait ekoizten diren kontestuekiko erlazioa ez da estua, ez dute hartzailearen interbentzioa eskatzen, gertakarien denborazko ordena eta euren artean sortzen den kausa/ondorio harremana da garrantzitsua, polifonia agertzen dute sarri.... Azken batean denek daukate testu egitura berdintsua.

Egitura

Hiru zati hauek ikus daitezke oro har narrazioetan:

- A. Markoa** edo hasierako egoera. Gertakarien markoa ezartzen du: pertsonaien aurkezpena, lekua eta denborari buruzko zehaztapenak, aurretik gertatutakoen kontaketa... Hasieran agertzen da generalean, nahiz inplizitua izan edo beste atalen batean txertatuta ere ager daitekeen.
- B. Korapiloa.** Hasierako egoeraren oreka aldarazten duten eta gatazka bat eragiten duten gertakarien multzoa. Narrazioaren gunea izanik nahitaez esplizitua izan behar du testuan.
- C. Konponbidea.** Oreka berri batera itzultzea.

Polifonia eta diskurtso moduak

Literatura narraziorik gabe ezin uler litekeela esateraionoko pisua du testu mota honek. Baina lan honen mugetatik at dago literatur testuen azterketa eta, beraz, ez gara horretan sartuko. Narrazio ez literarioetan polifoniak aparteko garrantzia du. Alde batetik, istorioa kontatzen duen pertsona dago, narratzailea, “ni” batez aurkezten dena (beherago eskaintzen den testuko “*nik ez dakit*”); beste aldetik, narrazioaren jasotzailea, “zu” batez ordezkaturia (testuko “*badakizu*”), eta azkenik, narratzaileak aipatzen dituen bestelako pertsonen edo enuntziatzaileen ahotsak (testuko “*gure mutila*” edo “*biajantea*”).

(...) nik ez dakit nola, baina bere kotxearen parean, bigarren filan, beste kotxe bat zegoen aparkatuta. Sutan jarri zen. Badakizu gainera, nolakoa den bera. Hasi zen, ba, bozina jotzen eta, halako batean, hara non datorren taberna batetik morroi bat, biajantea antza, esaten ez zela hainbesterako eta ia hainbeste zarata zergatik. Gure mutilak, orduan: “ez baduzu kotxea berehala hortik kentzen, ikusiko duzu”(…)

Honek **diskurtso modu** desberdinak sortarazten ditu. Narratzaileak istorioa azaltzeko, bestelako enuntziatzaileek esaten dutena testualki erreproduzi dezake ala narratzaileak berak mediatizaturik agertarazi. Honela, **estilo zuzenean**, narratzaileak enuntziatzaile berriaren hitzak testualki jasotzen ditu, ahotsaren tonua aldatuz: *gure mutilak*, orduan: “ez baduzu kotxea berehala hortik kentzen, ikusiko duzu”...

Testu idatzietan enuntziatzaile aldatu dela zeinu tipografikoen bidez adierazten da (gidoiak, komatxoak-”...”-) eta askotan, *esan*, *galdetu*, *erantzun*, *gaineratu* bezalako aditzen batek markatzen du enuntziatuaren hasiera ala bukaera.

Zehar estiloan narratzaileak bere mintzora inkorporatzen du enuntziatzaile berriak adierazitakoa, “... hara non datorren... morroi bat..., esaten ez zela hainbesterako eta ia

hainbeste zarata zergatik”. Zehar estiloaren hasieran ala bukaeran aurrekoan zehaztu direnen antzeko aditz nagusi bat egoten da ia beti eta, -ela, -n, -tzeko, -tzea, etab. bezalako menderagailuak daramatza menpeko esaldiak. Pertsonak eta aditz denborak ere aldatzen dira.

Zehar estilo librea aurreko bien arteko zerbait da. Zehar estiloaren ezaugarriak dauzka (1. pertsona > 3. Pertsona, orainaldia> lehenaldia), baina estilo zuzenaren zenbait ezaugarri ere mantentzen ditu; narratzaileak enuntziatzailearen hitzak errespetatzen ditu eta bere deiktikoak. Ez da, bestaldetik, aditz nagusirik agertzen eta testu idatzietan ez da gidoirik, ez komatxorik, ez eta menperagailurik agertzen.

Estilo zuzena. Norbaitek esandakoa hitzez hitz jasotzen da. Idatzitako testuetan gidoiak edo komatxoak erabiltzen dira. Adibidez: *Gaur arratsaldean zinera joan nahi dut- esan zuen Andonik.*

Zehar estiloa. Hiztunaren hitzak aditz nagusi baten menpeko esaldietan txertatzen dira. Aditz denborak eta pertsonak aldatzen dira. Aditz nagusiak honelakoak izaten dira: esan, erantzun, galdetu, agindu, gaineratu, proposatu... Adibidez: *Andonik arratsalde hartan zinera joan nahi zuela esan zuen.*

Zehar estilo librea. Norbaitek esandakoa zehar estiloan bezala erreproduzitzen da, baina aditz nagusi, menperagailu edo komatxorik gabe. Adibidez: *Andoni ez zen etorri. Arratsalde horretan zinera joan nahi zuen.*

Narrazio testuetan deskribapen eta elkarrizketa testuak txertatuta egoten dira. Nahitaezkoa izaten da narrazioan osagarri deskriptiboa eta oso ohikoa elkarrizketan erabilera, sinesgarritasuna eta hurbiltasuna lortzeko.

ZUGARRAMURDIKO KONTESA (51-52) I. Bernaola 1989

Hurrengo egunean, mozkorra arindua, bide berari ekin nion eta hantxe zegoen, lurrerantz makurturik, bezperako soroan. Eta ardoaren lurrinak desagertuak, eta behin nire burua bere onera itzuli ondoren, nekazari arrunt bat besterik ez nuen ikusi. Eta hurbildu nintzenean, ikustez gain usaindu ere egin nuen, soroetako langileek barreiatzen duten izerdi, lur heze, pekorotz eta zikinkeriarekin egindako nahasketaren kiratsa. Eta hala ere, oraindik zergatik ondo jakin gabe, gelditu egin nuen kotxea haren ondoan. Goizeko hamaikak izango ziren, eta aspalditik eguzkia berotzen hasia. Motorra entzun bezain laster, altxatu eta niri begira jarri zen, aurpegira zuzentzen jotzen zuten eguzki izpiek lehenengo momentuan nire nortasunaz ohartzea galeraziz.

Horregatik zalantzakor gelditu zen lipar batez, zer esan ez zekiela. Azkenean, neuk eman nuen lehenengo pausua:

-Zugatik izan ez balitz, oraindik ere kotxea bide ertzean atera ezinik legoke.

-Ah, egunon! Lehenengoz ez zintudan ezagutu. Urik nahi? Txongila eskaini zidan. Eta arrotz egin zitzaidan txongila erabiltzen zuen ebakera arraroko baserritarra aurkitzea. Horrek kanpotik etorria zela suposarazi zidan.

Hango lurjabea, ordea, aitaren aspaldidaniko ezaguna zen, eta horregatik morroiaren aurrean nengoelako ondorioa atera nuen. Gauzak askorik aldatu ez baziren behintzat. Eta hango jabea - pentsatu nuen - nire aitarekin beti zorretan eta eskerrak eman beharrean ibili izandakoa, morroirik izateko bezain inportantea baldin bazen, neuk, berriz, sekulan ez nuen aukerarik neure zebitzurako gau eta egun zegoen inortaz harrotzeko. Eta berehala sentitu nuen haren beharra, eta horrekin batera urdailetik hankatarteraino sekulako ziztada. Eta aukera hura galduko ez nuelako agindua ere neure buruari eginik, onartu egin nion korkoila, eta ura edan nuen.

ARIKETAK

- 1.- Zein da adierazpide nagusia?
- 2.- Testuan dagoen adierazpide bakarra al da?
Zein?
- 3.- Deklinabidea
Hitz hauen kasu eta numeroa bereiz itzazu:

lipar batez	nahastearen	aitarekin
makurturik	ardoaren	agindua
eguzki-izpiek	burua	buruari
- 4.- Hitz hauen sinonimoak bila itzazu:

jabea	arrotz	eguzkia	itzuli
berehala	morroi	soro	aurkitzea
berriz	pausua	altxatu	
- 5.- Datozen adizkiak hikan jarri:

zidan	ikusi nuen	jarri zen	ekin nion
-------	------------	-----------	-----------
- 6.- Gertatutako zerbait kontatzen al digu? Zein da darabilen aspektua?
Bakarra al da?
Zein-zeintzuk?
- 7.- Zeintzuk dira nagusitzen diren estiloak? Zein da 13. lerrokoa?
- 8.- 14. lerroan bi estilo daude, zeintzuk eta zergatik?
- 9.- Ondorengo pasartean azpiko galderak erantzun itzazu:

“ (...), neuk eman nuen lehenengo pausua:

- Zugatik izan ez balitz, oraindik ere kotxea bide ertzean legoke”

a.- Zehar estilora bihurtu.

b.- Nola izango litzateke zehar estilo librean?

c.- Zeintzu dira desberdintasunak?

AZALPENEA

Zer den. Testu desberdin asko izan daitezke azalpenekoak: definizioak, testu-liburuak, hitzaldia, entsaioak, egunkariko zenbait artikulua mota... Azalpen eta argudiozko testuen arteko deberdintasunak ez daude oso argi. Argudioak hartzailea pertsuaditzea du helburu eta jasotzailearen usteak eta pentsaera aldarazteko behar diren estrategiak erabiltzen ditu horretarako, haren ezagupenen maila jasotzea bere xedetik urrun geratzen delarik. Azalpenak, berriz, informatzeko xedea bete nahi du eta hartzailearen ezagupen maila aberasteko estrategia proposak erabiltzen ditu.

Hala eta guztiz ere, testu errealean bereizkuntza hau ez da hain nabarmena izaten. Azalpen testu batek argudiozko osagai handiago ala txikiago bat izaten du ia beti. Askotan zerbait azaltzea informazioa eman eta berau egiaztatzean datza; baina egiaztatzeko, argudiozko estrategiak erabili behar dira. Informatzea eta sinistartzaren arteko mugak, beraz ez daude hain definiturik. Beste aldetik, argudio testuek azalpenezko pasarteak izaten dituzte, argumentu “objektibo” hauek eraginkorragoa egiten baitute argudioa.

Azalpen testua, beraz, edozein gairi buruz ezer ere zerbait edo asko dakien jasotzaile bati informazioa ematen diona da, helburua informatze hutsa edo bere ezagupen maila jasotzea, ala, aitzitik, argumentatzea edo bere usteak aldaraztea delarik.

Azalpen testuen ezaugarrietako bat beren zailtasunarena da; sortu eta ulertuak izateko bestelako testuak baino zailagoak dira, alegia, ez baitute besteek bezain testu egitura egonkorra eta informazio berri asko aportatzen baitute. Narrazioetan ere informazio berria ematen da, baina aurrikuspenak eta inferentziak egitea errazago gertatzen da (beti dago ingurune bat, pertsonaiak, modu bateko ala besteko gertakariak...). Azalpenetan, ordea, -eta argudioetan ere bai- ez dago zertan egon ez pertsonaia jakinik, ez ingurune erreferentziarik; alderantziz, askotan egitura logiko batez loturiko proposizio katea bat baino ez dugu aurkituko.

Egitura

A. Sarrera. Bertan testuko ideia nagusia ezagutarazten da, helburuak, hipotesiak, nola garatuko den gaia, etab. Ongi egituratua eta zuzena ezezik, interesgarria eta erakargarria ere izan behar du. Horretarako ohiko baliabideetako batzuk ondoko hauek dira: galdera erretorikoak, norbaiten aipuak egitea, gaiaren garrantzia azpimarratzea...

b. Garapena. Ematen den informazioa biltzen duen testuaren atala. Gaiari nola heldu, hartzaileak noraino dakien eta azalpen zehatz eta bete egin behar baldintzatzen dute testuak dakarren informazioaren hautaketa lana, bere progresioa eta enuntziatuen modalizazioa. Atal honetan funtsezkoa da, beraz, beharago zehazten diren koherentziarako mekanismoak (azalpenaren egokiera, progresio tematikoa...) duten garrantzia aitortzea.

Garapena edo gorputzak gai-motaren arabera desberdina izan daiteke. Hemen eredu batzuk proposatzen ditugu:

A. GAI KEZKAGARRIAK	B. GARAPEN KRONOLOGICOA	C. DESKRIBAPENA OINARRI DUENA
1. SARRERA 2. KAUSAK 3. ONDORIOAK 4. SOLUZIOBIDEAK 5. AMAIERA	1.SARRERA 2.HARI KRONOLOGIKOA 3.AMAIERA	1.SARRERA 2.DESKRIBAPEN ATALAK. 3.AMAIERA

D. GAI GATAZKATSUAK

1. EREDUA	2. EREDUA	3. EREDUA
1.SARRERA 2.ABANTAILAK/ALDE POSITIBOAK 3.DESABANTAILAK/ ALDE NEGATIBOAK. 4.KONTRASTEIA 5.KONKLUSIOA. 6.AMAIERA	1.SARRERA 2.ALDEKO IRITZIAK. 3.KONTRAKO IRITZIAK. 4.BESTE IRITZIAK. 5.KONTRASTEIA. 6.KONKLUSIOA 7.AMAIERA	1.SARRERA 2.ALDEKO ETA AURKAKOAK 2.1. A.ARGUMENTUA. 2.2. B.ARGUMENTUA 2.3. C.ARGUMENTUA ... 3.LABURPENA 4.KONKLUSIOA 5.AMAIERA

C. Ondorioa. Testuak bete nahi zuen helburuaren azalpena. Era askotakoa izan daiteke; azaldutakoaren puntu nagusiak azpimarratu, ondorioak atera, garapenean ikuspegi diferenteak eman ondoren norberaren iritzia agertu, irtenbide argirik azaldu gabe...

Azalpenaren egokiera. Munduaren ezaguera

Azalpen testuaren ekoizleak hartzailearen balorazioa egiten du zenbait faktore kontutan hartuz (adina, ikasketa-maila, noraino ezagutzen duen gaia...). Hartzaile motaren arabera, beraz, informazioa hautatu eta era batera ala bestera azalduko du (termino teknikoak ala ez hain teknikoak erabiliz, zenbait kontzeptu argituz edo adibideen bidez azalduz, egin ditzakeen inferentziak aurikusiz...).

Progresio tematikoa

Testuak informazio berria eman behar du etengabe testuaren batasuna mantenduz eta, aldi berean, gaiari lotuz. Testuak dakarren informazio berriaren (irazkina edo “tema”) eta jadanik ezaguna den informazioaren (mintzagaia) arteko oreka eta haien arteko erlazioa koherentzia faktorerik garrantzitsuenetakoa da era honetako testuetan. Testu hauek progresio tematikoaren funtzioan banatutako parrafoetan artikulatzen dira eta parrafo horietako bakoitzak gai nagusiarekin zerikusia duen azpigai edo aspektoren bat garatzen du. Azkenik, bai parrafo barruko esaldi kateatuen arteko erlazioa, bai gainontzeko beste parrafoekiko lotura hainbat konektoreen bidez ezartzen da: leku-denborazkoak, aurreko edo ondoko parrafoaren gaiei erreferentzia egiten dieten erreferente anaforikoak, azalpenaren etapa desberdinak determinatzen dituzten konektore logikoak, ...

ODOLKIAREN URREZKO GARAIA SARTU GARA

Hemengoa ez den baten bati kontatu ezker, nazka emango dio seguru aski odolkiak edo mondejuak nola egiten diren jakiteak. Gaurko pentsamoldetik begiratuta ez bait da oso lojiko heste batean odola, seboa eta zenbait berdura sartzea, hura egosi eta gero jatea. Erosle gazteen eraginez xerra nagusitu den honetan, bada jenero asko eta asko harategietako apaletatik ia-ia desagertu dena, konparazio baterako arkume-burua, txerri-burua, urdaia eta txerri-gibela. Baina odolki eta buzkantzei ez zaie oraindik krisirik ailegatu; areago, esan liteke gora doan gauza dela. Ikusi besterik ez dago nola ugaltu diren azken urteotan txapelketak. Hasiak gara odolkiari merezi duen estimazioa ematen.

Denetan famatuena Beasaingo Odolki Txapelketa da. Iaz hasi zen eta urtarilaren azkeneko astean egiten da. Gero, otsailaren 5ean, Tours-eko San Martin egunean, hango Odolkiaren Kofradiakoak biltzen dira elizatarian eta irabazleak egindako odolkiak jaten dituzte. 130 lagun badira kofradia horretan. Aurreneko urtean Pablo Murua ormaiztegiarrak irabazi zuen, aurten berriz Beasaingo Olanoren alargunak.

Bestetik, aurten lehenengo aldiz, Ormaiztegiko udalak ere bere txapelketa antolatu du herriko jaietarako, Sanandresetan, hil honen 30ean.

Baina bada lehendik datorren beste txapelketa bat, Zumarragakoa hain zuzen, iaz ezkerro (Memorial Jose Maria Busca Isusi) izena duena. Santalutxietan egiten da, abenduaren 13an. udalak antolatua berau ere. Ez da odolki-txapelketa, buzkantzarena baizik. Aurten laugarren edizioa ailegatuko den lehiaketa hau orain artean gehienbat Goierri mailan izan bada ere, aurrerantzean gehiago zabaltzeko asmoa dute. Iaz 11 partaide izan ziren eta behin baino gehiagotan Iñaki Campos ormaiztegiarra gertatu da irabazle.

D.V. Zabalik 1987-XI-11

A DIBIDEAK

Testu honen helburua hartzailea informatzea da, hartzaileak odolki eta mondejuari buruz daukan ezagupena aberasten duelarik. Beraz, honen helburua informatze hutsa da. Egitura

Egitura

1. Sarrera

Idea nagusia ezagutarazten da: "odolkiaren urrezko garaian sartu gara" honen bidez, odolkiaren loraldian gaudela adierazten digu.

2. Garapena

Batetik, odolkiaren nagusitasuna beste jakien artean eta bestetik, txapelketak, odolkiaren goraiamenak behin eta berriz agertzen direlarik.

"nola ugaltu diren"

"odolkiari merezi duen estimazioa"

*Odolkia jaiei eta ospakizunei loturik: San Andresak..."

Idea nagusiak, sarreran adierazitakoa, aurrera joan ahala elementu berriak hartzen ditu azkenengo produktua osatu arte, hots, ondorioa.

3. Ondorioa

Aurrekoa ikusita ondorioa erabat lojikoa da, honako hau delarik:

- Gehitu egingo dela odolkiaren ospea, "aurrerantzean gehiago zabaltzeko asmoa dute".

ARTZAIN TXAKURRAK

Euskal Herrian artzantza, antzinatik datorren langintza dugu, baina gaurko artzain-txakurren laguntza ez zen mende honen hasiera arte ezagutzen. Garai batean txakurrak, artaldeak otso eta azeriengandik babesten zuen, ugariak baitziren harrapakari hauek gure mendi eta basoetan. Txakur handi eta indartsuak, "mastin" arrazakoak gehienetan, arantzadun lepokoak edukitzen zituzten borrokan aurkakoa zauritzeko.

Gaur egun oraindik ere ikusten dira horrelakoak Gaztela eta Extremadura aldeko artaldeak zaintzen. Hemen, ordea, ardien etsai horiek galdu ahala, txakur-mota hau bere garrantzia galtzen joan zen eta beste bati utzi behar izan zion lekua.

1920. urte inguruan ekarri zituzten lehen txakurrak “Labrit” arrazakoak ziren eta Frantzia aldeko Pirinioa zen beren sorlekua.

Denbora asko zeramaten lurralde menditsu haietan artaldeak zaintzen. Mastinak baino iletu, txiki eta bizkorragoak; beti jabeak agindutakoa betetzeko prest. Mantenu aldetik ere askoz gutxiago behar izaten zuten eta hau, janaria eramatea zaila den paraje horietan, kontutan edukitzekoa zen.

Txakur hauek egiten duten lana, lehen artzainak berak egin behar izaten zuen, artaldea txikia zenean; buru asko zituenean, berriz, Nafarroa aldean batik bat, morroi antzeko mutiko batzuek, <<rapatanes>> izenekoak, biltzen zituzten galdutako ardiak eta baita jaisterako orduan zaindu ere.

Orain ia ez dago txakurrik gabeko artzainik, baina hasieran batzuk ez ziren gehiegi fidatzen, ardiei eraso egingo zietela pentsatzen zuten. Eta gertatu izan dira horrelakoak; zein artaldetan ez ote du noizbait txakurrak arkume, ardi edo ahariren bat akabatu! Dena den, eta akatsak akats, txakur hauek izugarritzko aurrerapena ekarri diote artzainari lanean, makina bat ibili eta izerdi kenduz.

Habe 140. zkia. 1988-XI-1.

ADIBIDEAK

1. Helburua: Hartzailea informatzea

Estrategia aproposak erabiliz, hartzaileak artzanoari buruz duen ezagumen maila gehitzen du.

Honen helburua ez da persuaditzea, informatzea baizik. Beraz, esan dezakegu azalpena hutsa dela.

3. Egitura

3.1. Sarrera: Gaurko artzainak

3.2. Garapena: Artzantzan eta artzainoren baitan izandako bilakaera gaur egungo artzain txakurra lortu arte.

Aldaketen zergatiak adierazten dira eta ondorioa lojidak markaturik agertzen zaigu.

3.3. Ondorioa: Garaikide Aroko artzai txakurrik egokiena sortu da.

Sarreratik progresio tematiko bat ematen da eta lojiktasunak dakarkigu ondorioa

“BARBAROAK” NAGUSI EUROPAN

Gaur egun “komunismoaren arriskua desagertu denean, xenofobia eta arrazakeriaren atzean dauden mugimenduek beren indar guztiak “barbaroen inbasioa” bildu ahal izan dituzte. Europaren etorkizuneko etsaia hegoaldeetik omen dator, eta neurriak hartzen ez badira “europar zibilizazioa kolokan egongo da”.

Hala eta guztiz, ideia horren zabalkundea kontinente Zaharraren lau haizetara barreiatzen ari da etengabe. Burutzen ari diren inkesten arabera, europar gehienek ustez Europan atzerritar gehiegi daude, eta beraien kopurua gutxitzeko neurriak hartu beharko dira.

Gezur galanta. Europako Komunitatek dituen 320 miloi biztanleetatik, ofizialki 6 milioi besterik ez dira Hirugarren Mundutik etorritakoa, hots, populazioaren %2, kopuru horri bizpahiru milioi klandestino gehituz, ez dira 10 milioitara arrimatzen. Beraz, txistea dirudi baliabide gutxiko herrialdeetatik etorritako gizon, emakume eta umeak Europa moduko erraldoiarentzat inolako arriskua izateak. Oro har, jendeak mamuak ikusten ditu leku guztietan.

1988an, Austriako ikasleen artean juduei buruz egindako inkesta baten arabera, %20k Austrian ehundaka mila judu zegoela uste zuen, eta %12k “milioi batetik gora”. Errealitatean ez dira 8.000 baino gehiago, populazioaren %0,1a.

Ekialdeko Alemania ohian 2.500 bat judu besterik ez dago (Ekialdeko Berlinen 200 bat). Hans Modrow lehen ministro ohiak haxe idatzi zion holokaustoa ikertzen duen Simon Wiesenthal-i: “Egungo Alemanian, nazionalismo, arrazakeria eta antisemitismoaren zabaltzearen beldurra justifikaturik dago”.

1993ko Selektibitate Azterketako testua.

ARIKETAK

1. Topa itzazu hitz hauen sinonimoak:

kolokan
barreiatu
etengabe
galanta
erraldoia
mamu
ohia

ARGUDIOA

Zer den

Argudiozko testua zerbaitek bereizten badu, bere helburua da; izan ere argudiozkoak pertsuaditzea, norberaren ikuspuntua onartaraztea edota jasotzailearen iritzia edo pentsamoldea aldaraztea helburu duten testuak dira. Argudiozko osagai handia duten testu batzuk ondoko hauek dira: editorialeak, kritikak, txostenak, iritzia, tesiak, sententziak...

Egitura

Argudio testuetan jeneralean tesi edo arazo batetik abiatuz, tesi berri edo ondorio batera heltzen da, berau oinarritzen den argumentuen azalpenaren bidez. Argudio eredu bat baino gehiago badago ere, honako egitura hau agertzen dute gehienetan:

a. Esposizioa. Abiapuntu den arazo, asuntu, egoera edo kontra egin nahi zaion tesiari buruzko azalpena: zertan datzan, zirkustantziak, zertan oinarritzen den.

b. Proposamena edo hipotesia. Esposizioan aurkeztutakoari buruz proposatzen den hipotesiaren edo norberaren ikuspuntuaren formulazioa.

c. Demostrazioa. Proposatutako hipotesia edo ikuspuntua demostratzen eta justifikatzen duten arrazoi, ideia eta frogen azalpena.

d. Ondorioa. Demostrazioaren ondorioen azalpena eta proposamen berrien formulazioa.

Argudio dialektikoan:

- Tesia / antitesia / sintesia (zerbaiti buruz dauden ideiei norberarenak kontrajartzen zaizkie, bi ikuspegiaren arteko sintesira ailegatzeko).
- Tesia / antitesia (beste tesia erabat arbuiatu, norberarena kontrajarriz).

Argudio zientifikoetan:

- Arazoa / hipotesia / hipotesiaren egiaztapena / ondorioa.
- Aurreko tesia / premisak / hipotesia / hipotesiaren egiaztapena / ondorioa / tesi berria.

BERTSOLARITZAZ

Hamaika aldiz esan eta aipatu izan dut txapelketak duen indarra eta ahalmena, bertsolari batzuk gora igo eta beste batzuk ia erabat desagertarazteko. Jaialdi edo saio arruntetan oso ongi jardun ohi dutenak ere, askoz gutxiago ibili ohi dira txapelketan nabarmendu izan ez diren urteetan. Eta horrelako zerbait gertatzen zaie txapelketan parte hartzeari utzi ziotenei ere.

Jose Agirre, Joxe Lizaso, Lazkao-Txiki, Mitxelena, Txomin Garmendia eta abarrek utzi egin diote txapelketan izena emateari eta ez zaie, agian, arrazoirik falta. Aspaldi hasi ziren bertsotan, aspaldi irabazitako izena dute eta badakite txapelketa 'leoncastillo' bat dela, eta urte askotako izena egun bateko gorabeheragatik ez dute jokoan jarri nahi.

Baina erabaki horrek ez ditu denak alderdi onak. Txapelketan izenik ematen ez duen jendeaz pixka bat ahaztu egiten da jendea. Eta niri gehiegi gustatzen ez zaizkidan zortzi bertsolaritako saio grandioso horietara.

Txapelketan ibilitako jendea eraman ohi dute gehienbat, zergatik ongi ulertzen ez dudan arren.

Lehen aipatu ditudan bertsolari horietako batzuk, ondorioz, mindu samarturik daude, edo penaturik bai behintzat, saio horietarako deitzen ez zaielako.

X. EUSKITZE.
Eguna 1987-X-29 (moldatua).

ADIBIDEAK

Bistan dago iritzizko testu bat dela.

Helburua

Jasotzaileak bertsolaritzari buruz duen pentsamoldea aldaraztea, idazlearen aldektasuna argi eta garbi agertzen delarik:

"utzi egin diote eta ez zaie arrazoirik falta", "eta niri gehiegi gustatzen ez zaizkidan"

"zergatik ongi ulertzen ez dudan arren"

Egitura

Esposizioa: Arazo bat aurkezten digu, bertsolaritzaren munduan jende askok ez du urte luzez lortutako ospea une batean galtzerik nahi. Ondorioz, utzi egin diote txapelketan izena emateari.

Proposamena: Idazlearen iritzia aurkezten da, txapelketan parte hartzeari utzi ziotenei arrazoia ematen dielarik.

Demostrazioa: Idazlearen ikuspuntuaren zergatia. Zertan oinarritzen den, alegia.

Txapelketa "leoncestillo" bat dela esaten du eta urte luzez lortutako ospea erraz gal daitekeela.

Ondorioa: Konotazio mailan ager dakiguke. Norberak atera ditzakeenak, alegia.

Parte hartzen ez badute, galdu egingo dute ospea eta bertsolaritza mailan ezdeusik ezdeusenak izango dira. Beraz, "minus malus" den bidea zabaltzen die.

BERTSOLARI ESKOLA

Bolada horretan, bertsolaritza gustagarri egiten zelako, edo euskara ikasteko eta praktikatzeko oso baliagarritzat jotzen zelako, edo jolas moduan tiratzen zuelako, edo kulturaren adierazpen haunditaz hartzen zelako, edo arrazoi guzti horiek batera biltzen zituelako, bertso ikastaroak nonahi eskatzen hasi ziren. Laburragoak edo luzeagoak, baina gehienez hamar orduetatik gorakoak eta batzutan oso luzeak ere bai. Euskal senez edo kontzientzia abertzale hutsez hurreratzeko zirenak ere bertsoaren harrak jota geratzea ez zen harritzekoa. Euskararen edo kulturaren alde etorri eta bertsozale irten. Ikastaroekin batera bertsolaritzari buruzko hitzaldiak eta mahainguruak ere asko zabaldu ziren.

Mugimendu guzti horren adierazpiderik argiena eta eratuena behar bada bertsolari eskolak dira. Fenomeno honek berak bakarrik merezi luke azterketa luze eta sakon bat.

Lehenbizi finka dezagun <eskola> hitz horren esanahia. Hitz hori bertsolaritza guztian erabilia izan da. "Xenpelarren eskola", "Iparraldeko eskola", "Azpeitiko eskola" etab. esaten denean, hitz horrek halako estilo edo tankera bat esan nahi du. Horrez gainera "eskola" hitzak taldeatasunaren esanahia ere izan du historian zehar. Ez dauka, beraz, ikastetxeekin zerikusirik zuzenki. Zer jende mota biltzen den, halako eskola sortuko da.

Esaten ari garen garaiko eskolak ere toki eta egun jakin batzutan batzen diren lagunarte batzuk dira, bertsolaritza lantzea helburu dutela. Eskola hauek tradizio bati segitu edo hartaz jabetu nahi luketenak dira. Lehenago "gure kolegioak sagardotegiak" baldin baziren, nola tradizio hura gaurkotu sagardotegirik ez den lekuan edo euskaldunak oso minorian aurkitzen diren hirietan eta herri haundietan?

Eskola horien sorrera eta barne abioa ulertzeko zer jende mota batzen zen ikustea besterik ez dago. Gehienez jende gaztea edo gutxienez bertsozale klasiko horietaz desberdina zen. Baita ere gehienez jende eskolatu samarra zen, ikasten ari zirenak edo ikasketak amaituak zituztenak, batez ere euskara munduan irakasle zebiltzanak, etab.

Eskola horiek sortzearen helburua anizkoitza zen. Alde batetik bertsolaritza bera, ez hainbeste bertsolari izateko helburu zuzenez, bertsozaletasuna sartzeko baizik. Horrekin batera euskara lantzea eta praktikatzeko ere helburu haunditzat zeukaten. Kontuan izan portzentaia haundi bat euskaldun berriak zirela. Honek aparteko atala merezi du, gero egingo dugunez. Azkenik euskaldun giroa sortu nahia ere tartean zebilen, bai talde barruan, bai kanporako proiektioz. Azken batez, problema haundi eta eguneroko bat dago erdian, hots, hirietan edo herri haundietan, euskaldunak hain gutxi eta sakabanaturik aurkitzen diren munduan, euskaldun sentitzen dena nola euskaldun bizi?

Bertsolaritza arazo latz horiei erantzuna emateko tresna egokia izan litekeela konturatu ziren eta horrelaxe hasi ziren bertsolari eskolak sortzen eta ugaritzen. Gehienez ikastaroren batetik hasirik, helburu nagusia gero jarraitzea zen. Horrela asteen behin iluntzeko ordu batzutan baturik, talde bat osatzen dute eta egun hori lan eguntzat hartzen dute. Biak batera, bertsolaritzak, gusto pixka bat hartu ezker, ondo pasatzeko modua ere ematen baitu. Bertsolaritza bitarteko zela, beraz, lagunartea, lana, dibertsioa, eta euskaldun bizitzeko era bat zeukaten, asteko ordu batzutan behintzat. Ordu horiek gero beste anitz lan eta ekintzetarako ere aukera emango zuten, lagunak ez baitira ordu batzutarako bakarrik izaten.

Garbi utzi behar da bertso eskolen helburua ez dela bertsolari izatea, bertsolaritza baizik. Honek, gantxorik izango badu, bertsozaleak behar ditu eta eskola horietan dabilzanen artean bertsozaletasuna segurtaturik dago. Ez da gutxi. Izango dira tarteka bertsolari izateko ere gogoia eta asmoa bezalakoa dutenak, baina bertso eskolen helburu nagusia ez da hori, bertsozaletasuna baizik. Hortik gora etortzen dena, apropos bila joan gabe ere etorriko da eta dagoeneko horretantxe ere, bertsolari izatean alegia, ondorio politak ikusten hasiak gara.

X. AMURIZA

Bertsolaritzaren Gerrondotik Gaurdainokoa. Riev, XXX.

Bertso eskolak. ADIBIDEAK

Hau ere *azalpen argudiozkoa* da

Azalpena: Bertso eskolak, sorrera eta bilakaera. Objektiboa da.

Argudioa: Bertso eskolen helburu nagusia: bertsozaletasuna. Subjektiboa da, bere iritzia adierazten digularik. Galdera erretorikorik ere badago "Azken batez, problema handi eta eguneroko bat dago erdian, hots, hirietan edo herri handietan, euskaldunak hain gutxi eta sakabanaturik aurkitzen diren munduan, euskaldun sentitzen dena nola euskaldun bizi?"

Testu honek bi helburu ditu: Batetik, hartzailea informatzea eta bestetik, bertso eskola eta bertsolaritzari buruz daukan pentsamoldea aldaraztea.

Egitura

1. Sarrera: Bertso eskolen sorrera
2. Garapena: Bilakaera
3. Ondorioa: Helburua

ZERGATIK LANA

Zientziak izadia ez du ia inoiz errespetatu; teknologiak, berriz, izadia hankaz gora ipini ohi du. Horregatik teknikaren aurrerapenak ez dute etorkizun segurua eta, gizon askok beldurrez hartzen dute teknologien berrikuntza.

H. Lefevre-k, jatorri hiritarra ematen dio teknikari. Teknikaren asmakizunek hiriaren barnean dute bere zentzua eta askotan tresna izendaezinak, hiriko bizikera atseginak eta nahitaezkoak bihurtzen dira. Teknikaren abenturak kultura eraberritzera behartzen du eta askotan zenbait balore etiko, politiko eta ideologiko desbideratuak gertatzen dira.

Teknokrazia eta burokrazia elkarturik doaz; kulturarekin eta artearekin aurrez aurre daude. Arteak, sujetuaren ikutua du, gizonaren argiari eusten dio, teknikak, berriz, objektuarenari. Teknika eta gizonaren arteko urruntasuna haunditzen joaten da teknikak autonomia hartzean. Hegazkinak, gizonaren eragin txiki batekin Atlantikoaren ertz batetik besteraino joaten dira.

“Gure kontzientziak, banakakoak eta sozialak, irudien eta objektuen bitartez teknika isladatzen du” dio H. Lefevre-k. Gizarte osoa, sukaldea, kalea... teknikaren objektu dira. Eguneroko bizitzan, teknikari begira gaude eta gure etorkizuna bere eskuetan dago.

Teknikaren begientzat, gizona zatiturik, puskaturik, zati txikiz osaturik dagoen zerbait da. Teknikak, gizona, atalez atal aztertzen du; bere batasunak eta osotasunak ez du garrantzirik.

Milan Kundera-ri, gizonaren ikuspegi hau, benetan sinplea iruditzen zaio eta kulturarekin zerikusirik ez duena: “Ordenadore sofistikatuena erabiltzen dakien gizonak haur baten arima eduki dezake”.

“Gizonak, nobela idazteari uzten badio, bizitzari buruz erreflesionatzeko ahalmena galduko du”.

Teknikak abantaila asko ekarri arren, zentzugabekeria ugari sortu ditu zientziaren izenean. Askotan, zientziaren izen ona maskara bezala erabiltzen da. Zientziaren izenean zeruak eta lurrak lehergailuz bete dira.

Estatu Batuetako Rand Corporation (Research and Development) enpresak, 2020 urteari begira txosten bat aurkeztu zuen 1976an eta bere zientifikoek helburu hauek izendatu zituzten: gure nerbio sistemarekin zuzenki lotutako organo artifizial plastikozkoak txertatzea, eskualde batzuetan eguraldia manipulatzeko, akats genetikoak kimikoki zuzentzea, organoak sortzeko sustantzia kimikoak produzitzea, grabitazioa kontrolatzea, populazioaren mugimendu gehienak azkar ezagutzea...

Nietzsche-k dioenez, Mendebaleko tragediarik haundiena bere tragedia ahaztu nahi izatea da. Honelako zerbait gertatzen da teknikaren etengabeko abiaduraren aurrean. Nahikoa dugu Neolitikoa, harrizko tresnen ugaritzeak suposatu zuen beldurra eta Errenazimenduan zientziaren arrakastak izan zituen ondorioak gogoratzea.

J. DORRONSORO

Zergatik lana? Bilbo 1988. (moldatua).

ADIBIDEAK

Aurrerapen teknologikoei buruz daukagun irizpidea aldarazten ahalegintzen da. Beraz, iritzi pertsonal bat aurkezten da. Argudiozko testua dela esan dezakegu.

Egitura

1. *Esposizioa*: Zientziak izadia ez du inoiz errespetatu.
 2. *Hipotesia*: Teknikaren aurrerapenak ez dakarkigu benetako ongizatea.
 3. *Demostrazioa*: Argudiatu egiten du bere jarrera zenbait testigantza azalduz, hots, Lefevre-rena.
- Ondorioa: Demostrazioa edo hipotesiaren oinarriak entzun ondoren ondorioa datorkigu.

Demostrazioa hipotesia ziurtatzen edo arrazonatzen aritu da, ondorio lojikoak aurkeztuz.
Testu honetan baietz esaten diote teknikari, baina dagokion neurrian.

ARIKETA

Irakur ezazu hurrengo testua eta dagozkion ariketak egin itzazu

Behin baino gehiagotan entzun dut EAEko Osasun Sailburua, bere karguari dagokion legez, herritarrok osasuntsuago izan gaitezen aholkuak ematen: ez erre, ez edan, zaindu dieta eta egin ariketa. Zuzen ibiliko da, baina ez du egia osoa aitortzen, ez baitu inoiz “alda itzazue lan-baldintzak” esaten. Eta ez da informazio handirik behar jakiteko gure osasunean zer-nolako eragina duen lan-egoerak (edo langabeziak).

Aspalditxokoa da gorputzari kalte egin diezaioketen arrisku fisikoekiko ardura, higiene eta segurtasun gutxiko lanpostuekiko kezka. Baina zer gertatzen da buru, arima edo izpirituari betebete erasotzen dioten horiekin? Hauetaz zerbait badakite psikologo eta psikiatrek.

Gustuko lanean eta gustura jardutea baino altxor hoberik nekez aurkituko duzu; sormena eta gainerako ahalmenak erabiliz, zerbait eder, beharrezko edo onuragarri egiten aritzea; egiten duzuna baloratzen eta eskertzen dizutela sentizea; zeure gain, azpi nahiz pareko lankideekin harreman gozoak izatea; ordu-kopuru egokia, behartutako erritmoan etengabe ez jardutea, etab.

Ez dabilta haize onak gauza hauetaz arduratzeko, baina gizarterik diruzaleenak ere pentsatu beharko luke batetik irabazi nahi duena ez ote duen bestetik galtzen. Izan ere, konpentsazio kaxkarra da hilabeteko atsedena, gero beste hamaika geure buruen kontra emateko.

Honez gero, aipatu Sailburuak ere ikasia izango du lezioa, asko ez dela gaixotu eta eritetxean izan baitzen. Gogoan dut medikuek esan zutena: besteak beste, bere lan erritmoak eragin ziola krisia. Ikusten?

GALDERAK

1. Zer motatako testua da. Arrazoitu erantzuna
2. Zein da testuaren egitura?
3. Zeintzuk dira aipatzen diren ideia nagusiak?
4. Zer funtzio betetzen du azkenengo lerroan jarritako “ikusten” hitzak?
5. Aipa itzazu testuan agertzen diren maileguak, hitz elkartuak eta eratorriak.
6. Zein da aipatzen den gaia eta zein izenburu jarriko zenioke testuari?

INSTRUKZIOA

Errezetak, gida turistikoak, joku eta aktibitateen arauak, araudiak, eskola ariketak, lan prozesu bat bideratzeko proposamenak....

Zer den. Instrukzioen bidez jasotzailearen jokabidea erregulatzea helburu duten testuak dira.

Egitura. Informazioa era linealean -ez jerarkizatuan- aurkezten da; hau da, ez da egoten informazio nagusi eta bigarren mailakorik, ez eta argumentaziorik ere. Hurrenez hurren datozen maila bereko informazio andanaren itxura hartzen dute, gehienetan denbora ordenamendu bat jarraikiz (narrazioetan legez, baina haietan ez bezala, ez dago ez korapilorik ez eta konponbiderik ere).

Instrukzio testuetan geroaldia, agintera (edo subjuntiboa) eta bigarren pertsonaren erabilera erruz agertzen da.

Testu prediktiboak. Gerokoari buruzko informazio ematen dutenak dira eta zeharka, jasotzailearen portaera erregulatzeke asmoz eginda daude: horoskopokoak, araudiak (?).

NAZIOARTEKO DEIAK JAKIN EZAZU NAZIOARTEAN ZEIN ZENBAKI DUZUN

Herrialdearen zenbaki adierazleak, lurraldeko kodeak (hiri arteko deietarako aurrezenbakiaren 9a kenduta), eta, azkenik, bezeroaren zenbakiak osatuko dute bezeroaren nazioarteko zenbakia.

Esate baterako: 488800 telefono zenbakia duen Gipuzkoako bezero batek hauxe izango du nazioarteko zenbakia:

34 (Espainiaren zenbaki adierazlea) +

43 (Gipuzkoari dagokiona) +

488800 (bezeroaren zenbakia)

Atzerriarekin harremanik baduzu, gauzak errazteko komenigarria da zure txartel, kartazal, inprimaki eta abarretan nazioarteko zenbakia agertzea.

ADIBIDEAK

Nazioartean zein zenbaki dugun jakiteko jarraitu beharko dugun prozesua. Beraz, *instrukzioa* dela esan dezakegu.

Egiturari dagokionez, hiru zati bereiz daitezke.

1. Araudia
2. Adibidea
3. Abantailak

Ez da beste testuetan (argudiozko eta azalpenezkoak) ematen den korapilorik ezta ondoriorik ere agertzen.

Ez du inolako konplikaziorik, ulerterraza da, hartzaileak ondo uler dezan egina.

Halako testuetan, konotazioak ez du tokirik.

Formari dagokionez, bigarren pertsona darabil eta denbora lineala da.

Helburu praktikoa darrai.

DEI AUTOMATIKOAK

Dei mota honetan beste herrialdeekin automatikoki komunikatzeko nahiko da honela markatzea: lehenbizi 07 (Nazioarteko zentralera heltzeko zenbakia da, bigarren doinu ozenago bat ematen dizuna).

Ondoren nahi duzun herrialdearen ezaugarria.

Herriaren ezaugarria.

Eta azkenik gurako abonatuarena.

Dakusagun adibide bat: Milanoko 5084736 abonatuarekin hitz egin gura duzu horretarako era honetara markatu behar duzu:

07 Nazioarteko Zentralerako sarbidea

39 Italiaren ezaugarria

2 Milanoren ezaugarria

5084736 Abonatuaren zenbakia

Deia egin baino lehen, interesatzen zaizun zenbakia, eta aurrerago ematen diren herrialde eta herri bakoitzaren ezaugarriak zuzen daudenez ziurta ezazu. Azken hiru zifrak markatzean ez utzi hiru segundu baino gehiago igarotzen, Nazioarteko Zentralak zenbakikuntzaren selekzioa osatzeke hasi baitaiteke.

Gehienetan legez, baliteke zuk egiten dituzun deietan bi edo hiru Zentral Automatiko espainiarrek eta honenbeste komunikatzera egiten duzun herrialdeok interbenitzea, beraz dei edo okupatzeko seinalea jaso baino lehen segundu batzuk igaro daitezke, nazioarteko ekipoek deia osa dezaten beharrezko denbora.

Nazioarteko Sare Automatikoaz elkartzeko herrialdeak honela banatu dira:

Europar Arauko Zerbitzua: Europako herrialde guztiak, baita Algeria, Lybia, Marokko, Tunisia eta Turkia barne direlarik.

Europaz kanpotar Arauko Zerbitzua: Munduko beste herrialdeak dauzka.

Ohar garrantzitsua:

Europar eta Europaz Kanpotar Arauko herrialdeetarako helbidea duten Euskal Herri Elkarte Autonomoko abonatu hauek dira:

Araba: Abonatu guztiak.

Gipuzkoa: Abonatu guztiak.

Bizkaia: Abonatu guztiak.

Nazioarteko informazioa jakin nahi izanez gero 025 Nazioarteko Informazio Zerbitzura dei ezazu.

TELEFONIKAKO INFORMAZIO ORRIAK, 1995.

ADIBIDEAK

Nazioarteko dei automatikoetarako jarraitu behar den prozedura aurkezten da. Barne **egiturari** dagokionez, hiru zati bereiz daitezke:

1. Araudia
2. Zenbait aholku
3. Oharra

Argibide osoa maila berekoa da eta ez da menpekotasunezko erlazorik ematen.

Formari dagokionez, besteak beste, bigarren pertsona darabil. Testu honen helburua ez da mezu jasotzailea pentsaraztea, erabilpen batean trebatzen biderik errazena eta laburrena aurkeztea baizik. Beraz, oso testu argia dela esan dezakegu.

Adierazpideei dagokienez, narraketa darabil, baina ez dago ez korapilorik ezta konponbiderik ere. Lehen esan dugun bezala, informazio dena maila berekoa da.

ELKARRIZKETA

Zer den. Solaskide bi edo gehiagoren artean elkartruke komunikatiboan daudenean, txandaka esaten dutena.

Bi eratakoak izan daitezke: **ez-bat batekoak** (debateak, entrebistak -medikuarenean, lana lortzeko,...-, ahozko azterketak, etab.) eta **bat batekoak** (beste guztiak).

Ez bat batekoak	Bat batekoak
Planifikatuagoak: aldeztu aurretik finkatutako gai bat izaten da abiapuntua eta nork, noiz hitz egin behar duen ezarrita dago	Zabalagoak dira: ez dago planifikaturik, ezta aldeztu aurretik programaturik. Gaia aurretik finkatu gabe dago, edozein eratako testuinguruetan gerta daitezke eta funtzio desberdinak bete ditzakete.
Kontestuak erabat mugatzen du gaia	Beste edozein testuren antzera, barne egitura bat daukate eta solaskideen portaera nolabait erregulatzen dute; denen artean erabakitzen da formaltasun maila eta gaia; munduaren ezaguera bat konpartitzen dute; elkarlana egiten dute elkarrizketa aurrera atera dadin.
Solaskideetako batek finkatzen du elkarrizketa eta betetzen duen rola, besteak beste, gaia finkatzeko, galderak egiteko, hitz egiteko txanda emateko, solasaldian amaiera emateko aukera ematen dio	Testu hauek ahozkoari berez dagozkion ezaugarriak izaten dituzte: - Hitzezko eta ez-hitzezko elementuak batera ematen dira (keinuak) - Esaldi bukatu gabeak maiz ematen dira - Elipsiak, errepikapenak, sintaxi inplizitua. - Pausak, geldialdiak, ixiluneak, zalantzak eta zuzenketak. - Betegarriak: eh..., ba..., nola esan..., bueno..., zera... - Erregistro kolokialak - ...

Egitura

A. Sarrera (agurrak, atentzioa deitzekoak -eh; Aizu;...) Era desberdinetakoa izan daiteke formaltasun maila, solaskideen arteko harremanen eta abarren arabera..

B. Orientazioa. Solaskidearen arreta bereganatzea, gaian sartzeko ahalegina... (badakizu atzokoa?).

C. Gunea. Elkarrizketaren zertarakoa (gertakari bat kontatzea, zerbait eskatzea, agintzeak,...).

D. Bukaera. Sintesia, ebaluazioa egiten duten esaldiek lagundurik joan daiteke.

KIKE AMONARRIZ: ARPA JOTZEA ARRAS BEHARREZKO

GALDERA: Umorea ez garatze hori, zer da, hizkuntzaren arazoa ala jendearena berarena?

ERANTZUNA: Kontxo! Hemen beti esaten digute umoretsuak andaluziarrak direla. Baina hori erdal kontestu batean esaten digute. Gertatzen da erdal kulturaren munduan produkzio umoristiko gehiago egin dutela "baskoek" baino. Horrek badauka bigarren buelta bat; hemen erdaraz bizi den jendeak ez duela ezagutzen euskaraz sortzen den umorea, eta beti esaten dena: nahiz eta euskarak maila urbanoa irabazten jardun, oraindik ere, euskararen espazio naturala baserri eta herri txikietan dagoela, eta hor erabiltzen den umore tipoa ez dela erdaraz erabiltzen dena, erdaraz beste esparru batzuk ere harrapatu dituelako.

Beste topiko bat ere bada hemen. Hemen esan izan da, egoera politikoa dela eta ez dela, zenbait gauza ezin direla esan. Nik ez dut uste hori horrela denik.

Egia da, eta komunikabideetan ikusten da problemak badirela, adibidez, politikoekin sartzeko eta; nik arazo gehiago ikusten dut inor ez dela pausu hori ematen ausartu.

GALDERA: Artikulu batean esaten duzu umorea saldu egiten dela.

ERANTZUNA: Hori horrela da. Guk jaso ditugun umore ereduak ia denak telebistatik jaso ditugu. Zuk umorista esaten duzunean jendeari Eugenio, Arevalo, La Trinca, eta horrelakoak etortzen zaizkio. Baina hori telebistatik sartzten den umore tipo bat da. Eta badirudi zu ez bazara umore tipo horretara egokitzen, ez duzula umorerik.

GALDERA: Umorea dela eta nolakoa da hemengo entzulegoa?

ERANTZUNA: Aldatzen ari da. Euskara esparru berriak irabazten ari da, hizkuntza egokitzen ari gara esparru berri horietara. Herri txikietako entzulegoak era bateko erreferentzia kulturalak ditu, eta entzulego horrek eskatzen duen umore tipoa era batekoa da neurri handi batean. Eman dezagun, 30 urtetik gorakoekin gertatzen dela hau. Gazteagoak eskolatuagoak diora, beste erreferentzia kultural batzuk dituzte eta beste era bateko umorea onartzen dute.

HABE aldizkaria, 1989ko otsailaren 15a

ADIBIDEAK

Bi solaskideren arteko elkartruke komunikatiboa da, beraz, elkarriketa dela esan dezakegu. Ez bat batekoa da, entrebista, gaia aldeztatik finkatuta dagoelarik.

Egitura

Sarreran ez dago agurrik ezta formaltasun handirik ere, bitartekorik gabe harian murgiltzen direlarik. Galdetzailea oso zorrotza da eta gaian murgiltzeko edota elkarriketa bideratzeko lehena aurkezten du:

"Artikulu batean esaten duzu umorea saldu egiten dela"

Gunea edo esparrua euskal umorearen inguruan ardatzen da Bukatzeko, humorea adinaren araberakoa dela esaten digu.

Forma

Hirurak ez dira galderak, batean, galdetzaileak solaskideak egindako edo esandako zerbait azaltzen dio berak komenta dezan.

Doinua oso serioa da, gaian mugatzen direlarik.

2.2. Maila mikrottestuala

Maila makrottestualean bi prozedura aipatu dira: gaia eta testu motak. Orain maila mikrottestualean aritzen direnak aztertuko dira.

Maila mikrottestual honetan testuaren kohesioa bideratzen duten mekanismoak aztertuko ditugu; hau da, testua osatzen dituzten parrafoak, parrafo barruko esaldiak eta esaldi barruko hitzak elkarren artean artikulatu eta lotzen dituzten hizkuntz prozedurak, testua multzo organizatu eta koherentea izatea ziurtatzen dutenak.

Hemen ere bi esparru bereiztuko ditugu: esaldiaz gainerako esparrua, lehenik, eta esaldiaren esparrua, bigarrenik. Ondoko koadroan ikus daitezke zerrendaturik esparru hauetako bakoitzean kohesioa bideratzen duten hizkuntz prozedurak.

ESALDIAZ GAINERAKO ESPARRUA	ESALDIAREN ESPARRUA
* Errepikapenerako mekanismoak: - Proformak (erreferente edo ordezkioa) - Ordezkapen lexikoa - Elipsia - Determinazioa * Lokailuak * Progresio tematikoa * Polifonia enuntziatiboa (ikus. narrazioa)	* Deklinabidearen kasu markak * Posposizioak * Juntagailuak/ menderagailuak

2.2.1. Esaldiaz gainerako esparrua

ERREPIKAPENERAKO MEKANISMOAK

Testuan zehar agertutako elementuak berriz aipatzea edo agertaraztea da errepikapena. Horretarako elementu bera erabil daiteke ala beste elementuren batez (sinonimo bat, proforma bat...) ordezkatu, testuan berriz agertarazteko.

- Testuan aipatutako elementu bat **proforma** batez berraiipatzea edo berriz agertaraztea. Ordezkaturia era askotakoa izan daiteke: izena “Mikelek ezetz zioen, baina berak apurtu zuen”; adjetiboa “*etxe polita benetan; halako etxea...*”; esaldi oso bat “-.....- Hori ez da egia”. Proformak edo ordezkaturia izenordainak, adberbioak, eta abar izan daitezke.
- **Ordezkapen lexikoa**. Testuko hitz edo elementu lexiko bati ezaugarri lexiko amankomunak dituen beste hitz batez erreferentzia egitea.
 - * *Hitz bera erabiliz*. “Etxea alde zaharrean dago. Etxeko ataria iluna da...”
 - * *Sinonimoak* eta antonimoak erabiliz: ospa egin, ihes egin, hanka egin / ez geratu.
 - * *Hiperonimoak erabiliz* (eremu semantiko zabalagoa duten hitzak edo hitz multzoak)
 - ziklista > kirolean//testu liburu > baliabide didaktiko)
 - * *Hiponimoak erabiliz*. (Eremu semantiko estuagoa dutenak)
 - gorputz atal > esku//garraioa > tren.
 - * Parafrasis edo egitura sintaktiko baliokideak erabiliz:
 - Aristoteles > filosofo
- **Elipsia**. Ordezkaturia forma berezia da, ordezkaturia dena hutsean geratzen baita.
 - * “Gaur lehenengo atala irakurriko dut eta bihar, bigarrena”
 - * “...Etorriko zara bazkaltzera?”
 - * “...Ez”

ARIKETAK: Idazlana. Idatz ezazu orrialde bat gai honi buruz “Zer egingo zenuke txoria bazina?”

ARIKETAK: Irakasleak emaniko idazlana berridaz ezazu aurreko puntuak kontutan harturik.

- **Determinazioa** erreferentziaren fenomenoaren beste kasu partikular bat da, karakterizatzen duen sintagma nola ulertu behar den adierazten duena. Euskaraz artikulua bidez (-a,-ak/ -ok) eta **bat** zenbatzailearen bidez burutzen da.

Horrela, artikulua erabiltzeak atzera jotzea dakar, nahiz aldeztetik esandako zerbaitetara (“Ahoaren eskuineko txokoan pipa motz bat zeukan. Halako batean lurrera jausi zitzaion pipa” pipa > pipa motz bat) nahiz solaskideek lehendik ezagutzen duten entitate espezifikoaren batera (“erlojua hondatu zait”, ez edozein, nire solaskideak ezagutzen duena edo bakartzat hartzen duena).

“**Bat** “ zenbatzailearen bidez lortzen den indeterminazioak; ordea, artikulua determinatuaren kontrako efektua sortzen du, hots, identifikaziorik ez duen eta espezifiku gabeko entitate bati egiten dio erreferentzia (*kotxea garbitu du* -badakigu zein kotxe- /*kotxe bat garbitu du* -ez dakigu-)

“Bat” erabiltzeak, beste aldetik, geroago etorriko den zerbaitera eramaten gaitu; “bat” horrekin datorren entitateari buruko informazioa beranduago emango zaigula esan nahi da:

Gizona (senarra) hurreratu zitzaion (lehendik ezaguna: atzerantz jo behar da gizonaren identifikazioa ezartzeko)

Gizon bat hurreratu zitzaion (oraindik identifikatu gabeko gizona, espektatiba bat irekitzen da, zain egon behar da....)

Artikulua, oro har, ondoko kasu hauetan erabiltzen da:

- Identitatea lehenago egindako aipamen batez ezarri denean: Ahoraren eskuineko txokoan pipa motz bat zeukan. Halako batean lurrera jausi zitzaion pipa”
- Artikulua aplikatzen zaion elementua identifikagarria denean, bai errealitatean bakarrik direlako, bai kontestuan bakarrik direla ulertzen delako. Gure testuinguru kulturalen, esate baterako:
Etxera heldu eta telebista piztu zuen (baina, kandela bat piztu zuen)
Emaztea etorri zitzaion
Donostiako alkatea
Iturengo arotza
Jonek kotxe ederra dauka
Bilbo hiri atsegina da.
- Identifikazioa generikoa ere izan daiteke. Kasu honetan, entitate bakar batekin identifikatu beharrean, artikulua daraman izena bere generokoekin identifikatzen da haren bidez:
Hori mahaia da
Bart arratsean azeria etorri da
Idazlearen zeregina

Determinazioak ondorioak dauzka koherentziarako. Mintzagaia/irazkina aurkakotasunari dagokionez, mintzagaiaren elementuak, artikulua erantsirik etortzen dira; irazkinarenak, berriz, “bat” zenbatzaileak lagundurik.

LOKAILUAK

Emendiozkoak (Zerbait gaineratzen dela adierazten dute) komak eta ere, ere bai, baita ere ere ez, ezta ere gainera halaber orobat bestalde behintzat behinik behin gutxienez hildo beretik honekin, horrekin batera honez, horrez gain(era) Aurkaritzakoak (Aurrekoarekiko kontrakotasuna adierazten dute) baina ordea berriz ostera aldiz aitzitik alabaina dena dela, dena den hala ere hala eta guztiz ere guztiarekin ere edozein modutan edozein kasutan alderantziz zernahi gisaz Espazioa (esandakoa espazioaren koordinadetan kokatzen dute) goian behean gorago beherago hemen, hor, han	Kausa-ondorioa (Arrazoiak: zergatiak ondorioak ezartzen dituzte) beraz bada hortaz orduan honen-horren-hainbestez izan ere horregatik ondorioz hau, hori dela eta Distributiboak (gehitze eta aurkaritza erlazioak banatzen dituzte) batetik, bestetik alde batetik, beste aldetik bata, bestea bateko, besteko Konparaketa (aurretik esandako zerbaitekiko analogiak nahiz diferentzia seinalatzen dituzte) era berean modu berean gisa berean berdin horrela era horretan bestalde bestera Denbora (esandakoa denboraren koordinadetan kokatzen dute) lehen gaur egun aldi berean beranduago bien bitartean honez, horrez, harez gero artean	Ordena lehenengo, bigarren lehenik, bigarrenik bat, bi... hasteko hasieran lehenengo eta behin jarraian gero geroago beranduago ostean gainera bigarren, hirugarren azkenurreko, azken, azkenik amaitzeko bukatzeko amaieran Adibide ematea (azalpen edo adibideak ematen dituztenak) alegia adibidez esate baterako esaterako kasu hau da hots hala nola bestela esanda Reafirmazioa edo laburpena (adierazitakoaren birformula edo laburpena gaineratzen dute) azken batean azkenik laburtuz labur esanda hitz gutxitan bestela esanda izan ere
---	--	---

PROGRESIO TEMATIKOA

Testu batean **progresioa** dago informazio berria ematen den bakoitzean; izan ere testuak lehendik ezaguna denetik edo elementu erreferentzialen bidez aktualizatutako informazio “zahar”-r-etik abiatuz informazio berria eskeintzen du etengabe. Progresioa, beraz, testuak hutsune informatiborik gabe eta ziurtasunez aurrera egin dezan ziurtatzen duten esaldi batetik besterako errepikapen informatiboetan oinarritzen da.

Era honetan, esan daiteke testuak **ezagunaren** -errepikapena- eta **ezezaguna** edo berriaren arteko oreka agertzen duela. Ezagunari mintzagaia deritza eta berriari **irazkina** (tema). Bi hauek, mintzagaia eta irazkina, testu baten zati den edozein esalditan antzeman daitezke.

Mintzagaia, beraz, informazio zaharra edo jadanik ezaguna biltzen duten elementuek osaten dute. Solasaren markoa edo unibertsoa finkatzen du, ekartzen den informazio berriari eremu bat ezarri eta aurretik esandakoarekin hari gidari bat mantenduz, etenik gerta ez dadin. Mintzagai mota bat baino gehiago dago. **Mintzagai isildua**: testuinguruagatik edo aditz komunztaduragatik, besteak beste, aipatzen ez diren mintzagaiaren elementuen multzoa: *Aitona mantxo mantxo heldu zen etxearen ateraino eta denbora piska bat egon zen atean kos jkos; egin arte. “Beltza”ren preparatzaileak zabaldu zion.* Pasarte honen bukaeran (aipatzen ez diren) “atea” eta “aitonari” elementuak mintzagai isilduak lirateke. **Mintzagai hanpatua** edo enfasi berezia hartzen duen mintzagai mota. Perpausaren hasieran eta irazkinaren ezkerrean ageri da generalean eta beraren ondoren eten txiki bat egiten da testu mintzatueta: **Etxe horretan... gu bizi gara.**

Irazkina, berriz, informazio berria dakarten elementuek osatzen dute. Irazkinaren barruan elementuren bat nabarmentzen denean edo enfasi berezia ematen zaionean, **irazkin hanpatua** edo galdegaia deitzen zaio. Adibidez:

Zer egin du Patxik? Patxik esnea edan du (esnea irazkina da, baina ez galdegaia).

Zer edan du Patxik? Patxik esnea edan du (esnea irazkina izateaz gain, galdegaia ere bada).

Progresio tematikoa hiru motatakoa izan daiteke:

Lineala. Esaldi baten irazkina hurrengo esaldiaren mintzagaia denean:

Arratsaldean karteroa (iraz.) etorri zen. Karteroak (mint.) etxearen ondoan utzi zuen bizikleta.

Mintzagia bakarrekoa. Esaldi baten mintzagaia hurrengo esaldiaren edo esaldien mintzagai gisa errepikatzen denean:

Karteroak (mintz.) etxearen ondoan utzi zuen bizikleta. Karteroa (mintz) pozarren zegoen azken etxea baitzen. Baina karteroari (mintz) ez zitzaion burutik pasatu ere egin....

Mintzagai eratorriak: “gain-mintzagai” batetik eratorritakoak direnean hurrengo esaldien mintzagaiak.

Egun osoan (gain-mintzagaia) ez dut ezer egin; goizean berandu jaiki naiz, arratsaldean ezin kontzentratuta ibili naiz eta gauean buruko mina egin zait..

2.2.2. Esaldiaren esparrua

Orain arte ikusitako kohesiorako mekanismoez gain, badira esaldi mailako bestelako hizkuntz zeinuak, esaldiko unitateak elkarren artean nola dauden sistematikoki erlazionatuta seinalatzen dutenak. **Esaldi mailako lotura** hauek, beraz, hizkuntz unitate bat bere aurretik edo atzetik datorrenarekin, batetik, eta perpaus konposatu bat osatzen duten esaldi bi edo gehiagoren artean bestetik, erlazio moduak ezartzeko balio duten hizkuntz baliabideak dira. Lau mota bereizten dira:

Deklinabideko kasu markak
 Posposizioak
 Juntagailuak
 Menderagailuak

Posposizioak, perpausaren sintagmen arteko erlazio gramatikalak adierazten dituen aldetik begiratuta, kasu marken pareko dira; baina azken hauek beti sintagma bati loturik eta perpausean haietatik bereizturik agertu ezin diren bitartean (“-rengatik” egin dut, kasu) posposizioak forma askeak dira eta askotan izen bezala ager daitezke katea mintzatuaren beste puntu batzuetan. Ondoko esaldi honetan -“*Egunkariko iragarki* baten bidez *erosi nuen etxea*”- “bide” posposizioa da, nahiz eta beste inguramendu batean -“*ezkerreko bidea hartu du*”-- izen bezala funtzionatu. Orain aipatutakoaz gain, posposizioek honako ezaugarriok izaten dituzte:

a. Kasu markaren bat hartzen dute -bitartez, gainean, esker **0.**, buruan- eta marka hori aldakaitza izaten da: *Hamar egunen buruan*” esaten da eta ez “buruz edo burutik”. Dena dela, posposizioetatik askok kasu marka bat baino gehiago har dezakete; *gain* adibidez, *gainean*, *gainera*, *gainetik*, *gain-0*.

b. Aurretik daraman izen sintagman, posposizioak (perpausean hark zer funtzio betetzen duen adierazten duenak) kasu marka jakin bat hartzera behartzen du: *astean zehar* edo *etxetik hurbil* esaten da, eta ez “*astearen zehar*”, “*etxearen hurbil*” edo “*etxetik hurbil*”.

Ondoko lerroetan deklinabidearen paradigma osatzen duten posposizio garrantzitsuenak eskeintzen dira.

Posposizioak	Funtziorik behinenak	Adibideak
ALDE		
...-ren alde/ -0	• Adierazten duen pertsonari edo zerari laguntzea, edo mesede edo on egitea	-Anaiaren alde zerbait egin
...-ren alde/-an	• Adierazten den beste zerbaitekin erkatzea	-Ezer gutxi daki horrek zure aldean
...0 alde/-an,-ra	• Denbora edo lekua gutxi gorabehera	-Zazpiak aldean/-ra etorri; Murgia aldean dago.
ARAU		
...-ren arab/-era	• Gauzen arteko adostasuna adieraztea	-Bakoitzari bere beharren arabera eman
ARTE		
...-ren arte/-an	• Aipatzen diren muturrek bereizten duten leku -edo denbora- hedaduran,-ra, -tik atzizkiek definitutako multzoan, multzoko	-Gure artean eseriko zara -Gaztaroa eta zahartzaroaren artean daudenak -Neba-arreben artera etorri; denen

... 0 arte/ - 0	elementuen erdian, elementuekin, multzoko bakoitzak parte hartzea... Ekintza bat eteten den unea	artean egin -Erantzun arte ez naiz joango; hirurak arte egongo naiz zain.
ATZE	Zerbaiten aldeari kontrajartzen zaion beste aldea adieraztea	-Zubi zaharraren atzeko aldean
...(- ren) atze/ - an	Izenak zerbait bizigabea adierazten badu eta atzean adjetiborik ez badu, -ren atzizkia eta mugatzailea gal ditzake	
- ra	Gauzak gertatzen diren hurrenkera	-Udaberriaren atzetik, uda
- tik		
AURKA		
...- ren aurka / 0	Ikus “kontra”	
AURRE		
...(- ren) aurre/ - an	Zerbaiten edo norbaiten presentzian	-Denen aurrean kolpeka hasi ziren
- ra	Edozein alde nagusia edo ohiko ikuspuntutik hurbilen dagoen aldea adieraztea; ikus “atze” posposizioan datorren oharra	-Udaletxearen aurrean bilduko gara
- tik		
... ren aurre/ - an	Erabakiren bat eragiten duen egoera	-Oztopoen aurrean amore eman genuen
AZPI		
...(- ren) azpi/ - an	Zerbaiten beheko aldea, edo lurraren hurbilen dagoen aldean; ikus “atze” posposizioan datorren oharra	-Teilatuaren azpian hainbat txori kabia daude.
- ra		-Txakurra mahaiaren azpira sartu da
- tik		
BARREN		
... n barren/-a	Adierazten den zera alde batetik bestera igaroz	-Basoan barrena abiatu dira
... tik		
BARRU		
...(- ren) barru /- an	Adierazten den edozein gauzatan, beraren mugan arteko bitartea.	-Atal bakoitzaren barruan; etxe(aren) barruan, -tik, -ra
- ra	Dagokion izenak bizigabeko zerbait adierazten badu eta atzean adjetiborik ez badu, -(r)en atzizkia eta mugatzailea gal ditzake	
- tik		
...- 0 barru / 0	Adierazten den epea pasatu eta gero	-Bost urte barru
BEGIRA		
...- ra begira / - 0	Norbait edo norabait so eginez	-Zerura begira dago; zuri begira gelditu da
...- ri		
BEHE		

...-0 behe/ -ra ...-an behe /-ra ...-tik ...-z behe /-ra	- Norabidea (-0 kasu markarekin gutxi erabilia) - Seinalatzen den puntutik... - Jarrera, aipatzen dena lurretik hurbil edo lurrera begira dagoela	-Aldats behera dator kamioia; kalean behera; eskaileretan behera jausi da; mendian, -tik behera -Hogeit urtez beherakoak -Buruz behera ibili
BESTALDE		
...-z bestalde /-0 ...-z bestalde /-an ...-ra ...-tik	Delako hori alde batera utzirik, gainera, hortik kanpo	-Zutaz bestalde nor zegoen han?
BIDE		
...-ren bide /-z	- Aipatzen direnak bitarteko direla - Izen mugagabeari zuzenean loturik	-Lanaren bidez; bere osabaren bidez lortu zuen. -Irrati-bidez, dekretu-bidez
BILA		
...-(ren) bila/-0	Zerbait aurkitzen saiatu edo ahalegindu. IS mugagabea denean eta izen arrunt batek edo izen + izenondo batek osatua, -ren atzizkirik gabe	-Zure bila dabil; lan bila, lur berri bila
BITARTE		
...-ren bizkar/-0 ...-ren bizkar / -etik	“...ren gain, -ren kontura” “...ren kontura bizi”	– -Hamaika barre egin dute gure bizkar – -Bere bizkar hartu du eginkizuna – -Andrearen bizkarretik bizi da.
BURU		
...-ren buru/-an ...-ren buru/-z ...-ri buru/ -z	- Adierazten den denbora tartea pasatu eta gero ...-ren kabuz - Mintzagaia	– -Zortzi urteren buruan – -Ez dakit hori neure buruz egiten – -Eguraldiari buruz hitz egin
ESKE		
...(-ren) eske/-0	<u>Eskatzen</u> formaren kidea. IS mugatua denean, -ren atzizkia hartzen du; IS mugagabea denean, -ren atzizkirik gabe.	-Atzo utzi zidan liruruaren eske etorri da -Diru eske
ESKER		
...-ri esker /-0 ...-ak	...ren bitartekotasun, laguntza, eraginagatik	– -Hari eskerrak lortu dugu – -Alemania industriari esker da aberatsa
ESKU		
...-ren esku/-0 ...-ren esku/-an	Norbaiten ardurapean, norbaiti dagokiola	– -Zure esku gelditzen da arazoa
GABE		
...-a, -ak gabe/-0 ...-0, -ik gabe/-0, -ik	O artikulua: ISaren gabetasuna, falta, IS mugatuekin; mugagabeekin, = ala -ik	– -Eskatu nion aldizkaria gabe etorri da; ni gabe joan da. – -Arrisku handirik gabe; neurri gabe edan.
GAIN		

...-ren gain/-0 ...-z gain/-0 -era ...-ren gain/-ean ...(-ren) gain/-ean -era -etik	• ...-ren kontura, -ren • erantzukizunaren azpian • Zerbait gehitzen dela • Mintzagaia • Izen bi errepikatzen direnean... • Metatzea • Neurritz kanpoko ardura • Lekua, goiko aldea, (ikus “atze”) • Posposizioan datorren oharra	– Bere gain hartu du jaia antolatzearen lana – Ariketaz gain(era), idazlantxo bat ere egingo duzue. – Gauza guzti horien gainean mintzatu da – Gezurra gezurraren gainean – Beti bere gainean dago, ez dio ezer egiten uzten – Mahaiaren gainean utzi; zubiaren gainetik igaro; teilak teiltatu gainera eraman.
GOI		
...(-e)an goi/-ra ...(-e)tik goi/-ra ...(-e)z goi/-ra	• Toki garaiago baterantz joateari buruz aipatzen dena, zeharbide dela (zenbaitetan, inesiborik gabe: aldats gora) • Toki garaiago baterantz joateari buruz aipatzen dena, abiapuntu dela, ala bestela, aurreko esanahiez • Zenbait esapidetan, modua, nola (aipatzen dena zerura begira dagoela)	– Mendingo gora; kalean gora; eskaileretan gora – Hortik gora dago; hegan joan da, teiltutik gora; 600 metrotik gora hasten dira zuhaitzak – Ahoz gora; tripaz gora; hankaz gora.
HURBIL		
...-tik hurbil/-0	• Lekua txikitat jotzen den distantzia batera	– Elkarrengandik hurbil zeuden
INGURU		
...-0, -a. -ak inguru/-0 an “...(-ren) inguru/-an -ra -tik	• Denbora gutxi gorabehera • Lekua; aipatzen den zeraren ondoko aldean, -ra, -tik	– Zazpiak inguru dira; zazpiak inguruan; eguerdi inguruan gertatu zen – Elizaren inguruan ikusi zuen; gure etxearen ingurutik abiatu ziren.
JABE		
...ren jabe/-0	• Adierazten dena, berea duen edo mendean duen pertsona	– Ez omen da bere buruaren jabe
KANPO		
...-tik. -z kanpo/-0 ...-tik, -z kanpo/-an -ra -tik	• Desegokia • Aipatzen denaren barrukoa ez den aldea, lekua nahiz denbora • Aurreko esanahiez	– Lekuz kanpo; joko kanpo; – sasoiz kanpo ari da – Herritik kanpo dago – Tabernatik kanpora bota dituzte
KONTRA		
...ren kontra/-0	• Adierazten den nahiaren, jarreraren, jokaeraren... aurrez aurre, edo haiekin borrokan • Aurrez aurre, arimuan, ikutuz	– Tabakoaren kontsumoaren kontrako kanpaina; denak nire kontra – Sudurra kristalaren kontra jarri; bizikleta hormaren kontra utzi
LANDA		

... -tik, -z landa/ -0 -ra	Kanpo, gain	-Bilbo Handitik landa ez dago kutsadura larririk Bizkaian
LEKU		–
... -ren leku/ -an	... ren orde	-Neu joango naiz zure lekuan
LEPO		
... ren lepo/ -ra -tik	...ren gain ...ren kontura/ ...ren bizkarretik	-Kulpa beti botaz besteren lepora inoren lepotik bizi
MENDE		
... ren mende/ -0 ... ren mende/ -an -ra -tik	Agindupean, eskumenean, eraginpean	-Linguistika filologiaren mende dago. -Kezka larri baten mendean bizi ginen, haren mendetik libratzearen
ONDO		
...(-ren) ondo/ -an -ra -tik	Lekua (hurbil dagoen aldean, -ra, -tik); ...ren atzizkia eta mugatzailea gai ditzake, baldin eta IS -k bizigabeko zerbait adierazten badu eta atzean adjetiborik ez badu.	-Erdi gure ondora; -ama semearen ondoan dago. -Udaletxearen ondotik pasatu behar dut.
ORDE		
partzipioa/ -0 orde/ -z ... -ren orde/ -z	Beste baten lekua edo egitekoa betetzen dela	-Irabazi orde galdu egin du -Mikel bere anaia orde etorri da
OSTE		
...(-ren) oste/ -an -ra -tik	Atzeko aldean, -ra, -tik (ONDOren pareko erabilera)	-Frontoiaren ostean
PARE		
... -ren pare/ -0 ... -ren pare/ -an -ra -tik	- Aipatutakoaren antzera. Bere modukoa. - Aipatutakoaren aurrez aurre, ondoan dagoela	-Zoroaren pare ibili naiz tresna honen bila; lapurren pare tratatu omen zituzten. -Gure paretik pasatu da
PARTE		
... -ren parte/ -z	Aipatutakoaren izenean	-Goraintziak amaren partez
ZAIN		
... ren zain/ -0	Esperoan	-Zure berrien zain
ZE HAR		
... an, -tik zehar/ -0	Iraganbidea, adierazten den zera alde batetik bestera igaroz	- -Hortik zehar dabil -Elkarrekin ibili ziren Grezian zehar

ARIKETAK

Jar ezazu hutsunean esaldi bakoitzari dagokion posposizioa, jarraian ematen zaizkizunetatik kasu bakoitzerako bat aukeratuz.

Posposizioak: **barru, bide, bitarte, aurka, at, aurre, bila, alde, antz eta barren**

1. Prakash atzekoz ----- jantzi dituzu.
2. Batek daki hiru urte----- zer jazoko den.
3. Azterketen ----- ere ikasi egiten da
4. Laguntzaren ----- joan da.
5. Bilboren ----- asko egin da
6. Hemendik ----- ez dut beste inon ikasi.
7. Ikasgelara ----- azalduko didazu
8. Txalupak itsasoan ----- sartu dira.
9. Izadiaren ----- joatea ez da bidezko.
10. Nerea triste ----- dago gaur.

Posposizioak: **lepo, gain, leko, inguru, gisa, truk, esku, zehar, mende, zain, orde, parte**

1. Hondartzan ----- sakabanatu ziren.
2. Ez dakit nor etorriko den nire -----
3. Urteetan egon gara kanpotarren -----
4. Esaiozue, nire ----- bera ere etortzeko.
5. Mirentxuren ----- daude bere lagunak, ate ondoan.
6. Erraza da besteek lan egin eta zu haien ----- bizitzea.
7. Gelaren garbiketa utzi nire -----
8. Bankuko bere dirutxo horiez -----, ez omen du beste ezer.
9. Orain, Euskal Herritik ----- bizi da.
10. Gure jantzien ----- jatekoak eman zizkiguten.
11. Goizeko bederatziak ----- elkar ikusiko dugu.
12. Adiskide ----- onartu genuen geure artean.

Zuzen itzazu hurrengo esaldiak posposizioen erabileraren aldetik

1. Hiru egunen zehar ez genuen elkarrekin hitz egin.
2. Nire gurasoen gainera, ez da beste inor hemen.
3. Ikastolara noa, nire arreba bilatzera.
4. Iñaki Josu atzean dago.
5. Mendiaren bestaldean bizi dira
6. Hain baserre geunden, ez ginela geure buruaren jabeak.
7. Luze mintzatu ziren ekonomiaren buruz.
8. Ez gara gutxi nekatu egunaren zehar.
9. Hiru ordutan egon naiz nire lehengusuak zain.
10. Horixe da Natxo, Iratxe ondoan dagoena.
11. Bere argitasunari eskerrak ateratzen ditu horrelako nota onak.
12. Opor hauen zehar sarri gogoratu izan naiz zurekin.

AUTOEBALUAKETA

LEHENENGO GAIA: DISKURTSOA

1. Ezaguna duzun etxe edo toki bereziren baten deskribapena egin ezazu
2. Zeure buruaren deskribapen objetiboa eta subjektiboa egin itzazu
3. Deskribapenetan erabilitako hitzak bereiz itzazu, hots, izenondoak, izenak, eta abar.
4. Intsumisioa

Jarraian datorkizun gidoia jarraituz iritzizko testu bat sortu.

- Zer iritzi duzu soldadutzaz?
 - Zergatik dago hainbeste intsumiso Euskal Herrian?
 - Zer dira zure ustez intsumisoak? Kontsekuenteak, bakezaleak, insolidarioak, berekoiak, beldurtiak?
 - Zeintzuk dira intsumiso izatearen ondorioak?.
 - Nola ikusten du gizarteak arazo hau?
 - Zure esku balego, zer konponbide emango zenioke arazo honi?
5. Iritzizko testu bat dela esan dugu. Zergatik?
 6. Zeintzuk dira erabili izan diren lokailuak? Zergatik?
 7. Zein izan da lortu izan duzun helburua?
 8. Posible al da insumisioari buruzko testu objektibo bat egitea? Nola? Egin ezazu.
 9. Instrukzio testua.
Zer da instrukzio testua? Instrukzio testu bat subjektiboa izan daiteke? Zergatik?

Sukaldaritzako errezetaren bat ezagutzen al duzu?
Kontaguztu.
 10. Zuk kontatutako errezeta instrukziozkoa izan al da?
Zergatik?

II. UNITATEA: HIZKUNTZA INSTITUZIOETAKO HARREMANETAN

- * Kontzeptuak:
 - Testuak ikaskuntzan. Eskolan erabilitako testuak: ulermen eta ekoizpeneko laguntza teknikak.
 - Testuak erakundeekiko eta erakundeen arteko harremanetan: ezaugarriak.
- * Prozedurak:
 - Informazioaren tratamendua: iturrien aukeraketa, erkaketa eta sintesia.
 - Dokumentazioa: baliabide bibliografiko, grafiko eta teknologikoak.
 - Hiztegi eta bibliotekaren erabilera. Irakurmenaren garapena.
- * Jarrerak:
 - Testuetan, izkutuan edota agerian, nabaritzen diren balore eta edukin ideologikoen aurreko jarrera kritikoa garatzea.
 - Institutuzioekiko harremanetan lantzen ditugun testuetan, informazioa interpretatu eta baloratzeko, eta iritzi jarrerak sortzeko erabiltzen dituzten baliabideen aurrean sentsibiltate kritikoa garatzea.

1. AURKEZPENERAKO GUTUNAK

Gutun-motak lantzeko atal praktiko hauetan bi eredu aztertuko ditugu: eredu trinkoa, administrazioan edo merkataritzan nolabait ia inprimaki bezala erabiltzen dena, alde batetik, eta, horren ostean, eredu garatua hiritar arrunten gutunetan erabiltzen dena, hain zuzen.

Ikusiko dugu nola batak eta besteak antzekotasun handiak dituzten egitura zein adierazpidean, komunikagarritasun-kontuak alde batera utzita, eredu trinkoak oso inpersonalak baitira.

1.1. Lan-eskaera: curriculum-a

ARIKETA

Datu -taulan oinarrituta egizu lan-eskaeraren zirriborroa.

EGOERA: *hil honen 3an EGUNA egunkarian salmenta-laguntzailerako lanpostua eskaintza-iragarkia agertu zen. Hona hemen zure datu-zerrenda.*

IZENA:

BIZI-EGOERA: Ezkongabea

HELBIDEA:
baduzu):

SOLDADUZKA (gizonetako izatea aukeratu

Salbuetsia

ERAKUNDEA: Etxaniz burdin horniketak

IKASKETAK: Lanbide Heziketa II

HELBIDEA: Resusta Kalea, H Arrasate

LAN-ESPERIENTZIA: Joan zen apirila arte

JAIOTERRIA: Ermua

UZTEKO ARRAZOIAK:

JAIOLEGUNA: 54-VI-7

ADINA:

Egitura, mamia, adierazpidea

Iragarkiari erantzunez egiten den lan-eskaera arruntak badu normalean jarraitu beharreko eredurik, izan ere, besterik ezean kurrikuluma besterik jasotzen ez duen gutuna eskatzen baita askotan aurre aukeraketa bat egiteko, eta horietan ez da egokia behar baino gehiago luzatzea, informazioa bildu eta kito.

Hona hemen honelako gutunak egiteko ohiko jarraipideak “Administrazio lanerako oinarritzko euskara-ikastaroa” (HABE-IVAP 64, 65, 66 orrialdeak) liburutik hartuak. Kontutan izan molde honetako gutunak beti modu beretsuan egiten direla, beraz, “*errezeta*”ri jarraitu besterik ez duzu asmatzeko.

A. GOIBURUA: Hiru zati ditu

1. Eskaria egiten zaion empresa, erakundearen **helbidea:** Indaberri Ikastola Telleria, 7a 20008 Donostia.

2. **Eguna.** Donostian 1996ko apirilaren 3an

3. **Hasierako agurra:** *Agur t'erdi Zuzendari Jauna, Zuzendari hori, agur t'erdi, Jaun / Andere agurgarria.*

B. GUTUNAREN MAMIA

1. Lanpostuaren berri nola izan duen adieraziz.

NON /NOIZ		ZER	
Apirilaren 4ean “Max” egunkarian	<i>zuen lan</i>	salmenta-laguntzaile	<i>behar duzuela</i>
Hil honen 8an egunkarietan	<i>eskaintza</i>	sukaldaria	<i>adierazten</i>
Gaurko egunkarian	<i>irakurri dut</i>	euskara-irakaslea	<i>duena</i>

2. Lanpostu hori betetzeko gai dela adieraziz.

Nire ustez, eskatzen dituzuen baldintzak betetzen ditudalarik / ditudanez gero (eta lan hori oso gustokoa zaidanez), neure eskaria zuei bidaltzea erabaki dut.

3. Curriculum vitae-aren aipamena

*Gutunean sar daiteke zuzenean. (Jaioterria, jaioteguna, ikasketak, hizkuntzak, ikastaroak, lan-esperientzia).

Bizkaiko Zallan jaio nintzen, 1963ko uztailaren 4an; ezkondu naiz eta soldaduska eginda daukat. Ikasketak: Zallako Institutuan BBeta UBI egin nituen eta Zuzenbidea Donostian. Hizkuntzak: ingelesezko bost ikasturte eginak ditut Bilboko Hizkuntz Eskolan.

Lan-esperientzari dagokionez, Ermuko FORET enpresan hamar hilabete eman ditu aholkulari lanetan.

* Edo beste orri batean erantsi.

* Gutun honekin batera doazkizue/... igortzen dizkizu(e)t... bidaltzen dizkizu(e)t.

* Nire Curriculum vitae-a eta behar diren beste agiriak.

C. AZKEN AGURRA

Nire eskaera onartuko duzuelakoan, zuen erantzunaren berrien zain naukazue.

Besterik gabe, eta zuen berrien zain nagoela/ geratzen naizelarik, agur bero bat.

Aurretik eskertuz, agurtzen zaitut/ Besterik gabe, zuen esanetara naukazue.

Besterik ezean, nahi duzuen arte/ zure esanetara...

Nire eskaerari erantzungo diozuelakoan, aurretik eskerrak emanez, agurtzen zaituztet.

D. IZENPEA

EREDUA

Ondoren, lehen proposatutako egoeran egindako gutuna duzu emango ditugun ezaugarriak betetzen dituen. Erabil ezazu zurearekin alderatu eta egindakoa ebaluatzeko.

*Jon Telleria Alberdia
Madariaga kalea, 14-4a
BERGARA
GIPUZKOA*

Bergaran, 1996ko apirilaren 6an

Jaun agurgarri horiek:

Hil honen 3an, Salmenta-laguntzailerako lanpostua eskainiz “EGUNA” egunkarian argitaratu den iragarkiari erantzunez zuei idazteko erabakia hartu dut.

Bizkaiko Ermuan jaio nintzen, 1954ko ekainaren 7an, 36 urte ditut, ezkongabea naiz, eta soldaduzkara joan beharrik ez dut izan.

Ikasketak: Eibarko “Nuestra Señora de la Providencia” ikastetxean, lan-batxilergo osoa bukatu nuen.

Frantses eta ingeleseko 4 ikasturte egin nituen geroago, Bilboko Hizkuntz Eskolan, bukaeran nota bikainak lortuz.

Joan zen apirilera arte, “Forjas de Aizkorri” enpresan lan egin nuen, baina bizileku-arazoak zirela eta, lanpostu hau utzi beharrean izan nintzen.

*Orri honekin batera, lehen esandakoak egiaztatzen dituzten agiri guztiak bidaltzen dizkizuet:
Lan Batxilergoko tituluaren fotokopia
Frantses eta Ingeleseko emaitzen egiaztagiria
“Forjas de Aizkorri” enpresan lan egin izanaren egiaztagiria.*

Besterik gabe, eta zuen berrien zain geratzen naizelarik, agur bero bat.

Iz.: JON TELLERIA

ARIKETA

Egizu zeure Curriculumama emandako jarraipideen arabera.

1.2. Eskaera gutunak

ESKABIDE-ORRIA

A. EDUKINA

Eskabide-orria administrazioari eskaerak luzatzeko gutuna da. Egitura eta idaztankera jakina du, eta honakoak bildu behar ditu legeak hala aginduta:

1. Eskatzailearen datuak
2. Eskaria eragin duten gertaerak edo arrazoiak
3. Eskaera
4. Zeini egiten zaion.

B. EGITURA

Iturria. Administrazio-lanerako oinarrizko euskara-ikastaroa HABE-IVAP 51.61. orriak.

ARIKETA
Irakurri ondorengo eskabidearen atalak eta ordenatu.

TOLOSAKO ALKATE-UDALBURU	Agustin Agirre Manterola, Tolosako herri honetan 1968.eneko irailaren 9an jaio eta Iparragirre kalea, 23-3 eskubiko etxebizitzan bizi naizen honek.
ANDERE TXIT ARGIA	
TOLOSA	
Zera ADIERAZTEN DIZUT.	
Nortasun-Agiria egiteko herri honetako herritar naizela ziurtatzen duen egiaztagiria behar dudala	
Horregatik, zera ESKATZEN DIZUT:	Esan zein parrafok betetzen dituen honako funtzioak:
Herritasun-Egiaztagiria egin eta nire etxera korreoz bidal diezadazula.	
Hori eskuratuko didazulakoan, agur t'erdi.	• Oina • Azalpena eta eskabidea • Eskatzailearen nortasun-argibideak
Tolosa, 1990eko Abuztuak 18	
	• Nori egiten zaion eskubidea.

C. IDEIEN GARAPENA

Eskabide orrietan badira ideien garapenerako zenbait jarraipide kontutan hartu beharrekoak.

1. Eskatzailearen nortasun-argibideak:

Edukina. Egoeraren arabera datu desberdinak eman ohi dira. Hauek dira ohikoenak: Izen-abizenak, N A Naren zenbakia, jaioteguna eta jaiotekua, helbidea.

Beste datu batzuk ere eman daitezke; lanbidea, telefono-zenbakia, famili-egoera, eskabide-orria zuzentzen den erakundearekiko harremana, gurasoen izenak, N A Na noiz eta non egin zioten, e.a.

Idazkera. Eskabide-orria lehenengo pertsonan egiten da, eta gehienetan “Nik” hitza jartzen da hasiera-hasieran. Hiru modu hauek dira erabilienak:

- Modurik errazena eta erabilgarriena argibideak NOR kasuan mugagabea ematen da, “naizen honek” hitzez bukatuz.

Jokin Manterola Lasa, Donostian jaio eta Bergaran, Donato Kalea, 17-4 Ezk, etxebizitzan bizi eta 14.564.388 zenbakidun N A Naren jabe naizen honek.

- Zehaztasun guztiak nominatiboan emanaz, “zuregana agertu eta” esaldiaz bukatuz.

Jokin Manterola Lasa, Donostian jaio eta Bergaran, Donato Kalea, 17-4 Ezk. etxebizitzan bizi eta 14.564.388 zenbakidun N A Naren jabe naizena zuregana agertu eta.

- Datu gutxi direnean zehaztasun guztiak ergatiboan eman daitezke.

Jokin Manterola Lasak, Donostian jaio eta Bergaran, Donato Kalea, 17-4 Ezk. etxebizitzan bizi eta 1.564.388 zenbakidun N A Naren jabe naizenak

2. Egoeraren agerpena: Zehar estiloan egiten da.

Zera adierazten dizut, etxean berrikuntza-lanak egin behar ditudala...

3. Eskaria: Aditzak subjuntiboan.

Zera eskatzen dizut: zaborrontzia jartzeko baimena eman diezadazula...

ARIKETA: Idatz itzazu ondorengo eskabide-orrian falta diren hitzak:

Adierazten	Besterik gabe	NANaren
Bizi	Alaba	Diezadazula
Horrenbestez	Ditudala	Jaio
Telefonodun	Lanbidez	Baimena eman
Familiaz	Naizen honek	Emandako
Txit	Dudala	Buruzko

Miren Urruzola Goirizelaia, Doroteo eta Margaritaren 1 Bizkaiko Zeanurin 1934.eko uztailaren 23 2, Arabako Aramaion Ibarrondo kalea 5-2 3, 324358 zenbakiko 4, 5 ezkondua, 6. Idazkari eta Gasteizen 1934eko Urtarrilaren 26an 7 14.869.012 zenbakiko 8 jabe 9

zera 10 DIZUT:

- 1.- Ni bizi naizen etxea berritu nahi 11
- 2.- Berrikuntzak barnekaldean egingo 12 batipat eta etxearen aurpegia pintatu besterik ez dela egingo, beste aldakuntzarik egin gabe.
- 3.- Berrikuntzaren egitasmoa Urkola Arkitekto Jaunak egin duela eta horri lotuko natzaioa. 13 zera ESKATZEN DIZUT:
 - 1.- Berrikuntza horiek egiteko Udalaren baimena eman 14
 - 2.- Berrikuntza egin bitartean etxearen aurrekaldean, bide-bazterrean, hondarrak biltzeko zaborrontzi haundi bat jartzeko 15 diezadazula.

3.- Etxebizitzan berrikuntzarako Foru-Aldundiaren laguntzak eskura ditzadan, Berrikuntzari 16 Aldeko Irizpena eman dezala idatziz Udalak.

17, agur t'erdi.

Aramaio, 1990.eko ekainak 12

ARAMAIOKO ALKATE-UDALBURU JAUN 18 ARGIA

ARAMAIO

ESKAERA-GUTUN GARATUAK

Eskaera-gutun arruntek eskabide-orriaren zeregin berbera dute baina aukera zabalagoak eskaintzen dizkigute egoera komunikatiboetara moldatzeko.

Edukinaren eta egituraren aldetik molde beretsukoak dira batzuk eta besteak eta eskabide-orriaren adierazpideak bestelako gutunetan ere izango dira erabiliak.

Horiek abiapuntu izanda ekin diezaiogun lanari.

Atal honetan saiatuko gara agertutako irizpide guztiak ariketa jakinetara egokitzen; beraz, hasteko irakurri honako egoerak.

ARIKETA:Gutunak idatzi

A Zure auzoan egingo den obraren aurkako iritzia agertzen duen gutuna idatzi, proposamen alternatiborik eginez.

B Ikasturte-amaierako bidaia dela eta, idatz iezaiozu bidai agentziako arduradunari zuen asmoen berri emanez eta aurrekontua eskatuz.

A. EDUKINA

Eztabaidatu gutun horietan aditzera eman nahi duzun informazioa zein den. Horretarako hona hemen gida txikia.

AZTERGAIA	A egoera	B egoera
GAIA	- Zein da mintzagaia? - Nolako gutuna egin nahi duzu? Eskatera, egoera - Norbaiti jakinaraztekoa, salatzekoa...?	- Zein da mintzagaia? - Nolako gutuna egin nahi duzu? - Informazio-eskara, aurrekontuaren eskara, aholkularitzaren eskara?
	Elkarte baten ordezkaria zara	Talde baten ordezkaria zara:
	- Zein elkarte da hori? zeinek osatua? - Noizdanik? - Zein da bere helburua?	- Zein talde da hori? - Zeinek osatua? - Noizdanik? - Zein da bere helburua?
IGORLEA	- Nori zuzenduko diozu gutuna? - Zergatik? - Ezagutzen al duzu zuen desadostasunaren berri ba ote duen?	- Nori zuzenduko diozu gutuna? - Zergatik? - Ezagutzen al du zuen asmoaren berri?
	- Zein da bere jarrera? - Zein da zure asmoa karta idaztean? - Zer espero duzu hartzaileak egitea?	- Zein da bere jarrera? - Zein da zure asmoa karta idaztean? - Zer espero duzu hartzaileak egitea?
	- Zein da delako "obra hori"? - Zeintzuk dira dituen hutsak?	- Zein da delako bidaia? - Zenbateko iraupena?
HARTZAILEA		
ASMOA		

EGOERA	• Zer dela eta zure aurkako iritzia? • Zein izan da auzokideen jarrera eta jokabidea? • Zer da, hain zuzen, eskatzen duzuna? • Zertan oinarritzen duzu? • Zeintzu dira hala egin ezean hartuko duzuen jarrera? • Zer proposatzen duzue honen ordez?	• Egoitza, garraioa... • Zenbat lagunentzat? • Zer da, hain zuzen, eskatzen duzuna? • Zer da oinarritzkoa? • Zer-nolako aldaketak onartzeko zaude prest?
ESKARIA		

B. EGITURA

Eskabide-orrian ikusitakoari jarraiki gutun hauek egitura honakoa genduke:

Baina badugu bestelakorik ere, alegia, egoeraren agerpena egin ahala eskariaren xehetasunak txertatuz osatuko gendukeena:.

A. Aurkezpena B. Egoeraren agerpena C. Eskaera D. Oharrak E. Agurra	A. Aurkezpena B. Egoeraren agerpena / A-Eskaera: eskaera nagusiak. C. Egoeraren agerpena / B-Eskaera: oharrak eta bigarren mailako xehetasunak. D. Agurra
--	--

ARIKETA: Ordena itzazu aurreko orrialdeko ideiak eskemaren arabera.

EGITURA		A egoera		EGITURA		B egoera	
A. Aurkezpena		1. Hartzaileari zuzendu		A. Aurkezpena			
B. Egoeraren agerpena		2. Bere buruaren aurkezpena		B. Egoeraren agerpena		Eskaera nagusiak	
C. Funtzio nagusia		3. -----		C. Egoeraren agerpena /			
Eskaera		4. -----		Oharrak eta bigarren		mailako xehetasunak	
D. Oharrak, azalpenak,		5. -----		D. Agurra			
gehigarriak		6. -----					
E. Agurra							

C. SARRERA ETA AMAIERA

ARIKETA

Irakurri aurreko atalean sarrerei eta amaierari buruz esandakoa eta horri jarraituz egin itzazu gutun hauei egoki dakizkiekenak.

D. IDEIEN GARAPENA

Eskaera -gutunetan oso erabilgarri izango zaizkizu ondorengo taulan biltzen diren adierazpideak. Gogoan izan, hizkera formalean eginkizun jakina adierazten duen esaldi-atazaren aurretik, hori girotzeko behar adinako informazioa ematen dela kontestualizatzeko asmoz.

-ENEZ -ENEZ GERO Aditza -ELA ETA -IK -TA		DIEZADAZULA NAZAZULA DAITEZELA DADILA DIEZAIOLA GAITZAZUELA...	ESKATZEKO ZUZENTZEN NATZAIZU ESKATU NAHI NIZUKE ESKATZERA NATORKIZU
		Izena Baimena, informazioa	ESKATZEN DIZUT

ARIKETA: Gutun laburrak idatzi.

Egin itzazu egoera hauei dagozkien eskaera-gutunak, gorputza gehienez bi esaldiz moldatuta.

1. *Lagun baten eztei-ospakizunetara joateko baimen-eskaria lantokian*
2. *Altzari dendako arduradunari etxea hornitzeko aurrekontua.*
3. *Auzoko gizarte-laguntzaileari, zeure bizilagun bati arreta eskaintzeko.*
4. *Beheko dendakoari auzokideen izenean alarma-sistema berria jartzeko.*
5. *Auzokideei auzoko jaien antolaketan parte hartzeko.*
6. *Egingo den obraren aurkako iritzia agertzeko.*
7. *Herriko dendariei euskara erabiltzeko edota ikasteko.*


Adibidez:

Datorren larunbatean, hilaren 15ean, lagun minaren ezteietan aitabitxi izateko eskatu didatenez eta laneguna dagokidala eta, eztei-ospakizunera joateko baimena eman diezadazula eskatu nahi nizuke.

Horren truke beste larunbat edo jaiegunen batean lan egiteko prest nengoke, jakina.

E. EREDUA

Hemen duzu **b** egoerari dagokion gutun-eredua. irakurri, egitura eta idazkera aztertu eta ondoren, ekin besteari.



Jaun/ Andere hori:

Euskal unibertsitateko ikaslea nauzu, Juan Jose Mujika, eta “ekuatore-pasea” dela eta, kimika-fakultateko 3. kurtsoko ikasleen artean ohikoa denez, gertakaria ospatzeko bidaia egiteko asmotan gabiltzala adierazi eta zurekin harremanetan jartzeko bitartekari izendatu naute.

Ondo dakizunez, gure fakultateko ikasle zaharragoek zure konpainiara jo izan dute azken urte hauetan delako bidaia antolatzeko orduan eta haien aholkuz, aurten ere, halaxe egitea iruditu zaigu aproposena, bai baitakigu zuen zerbitzua eskatu izan den bakoitzean egokiro erantzuten jakin duzuela.

Horiek horrela, bidaiaren nondik norakoak azaltzera natorkizu besteak beste, eta, nola ez bada, espero dugun bezala zure konpainiak zerbitzu hau betetzeko oztoporik ez duela izango baieztatzen.

Lehenengo eta behin bidaiaren helmuga Grezia dela azaldu behar dizut, Atenas zehatzago eta gure asmoa bidean zenbait geldione egitea dela Marseilla, Venezia, eta Tirana Albaniako hiriburua izanik, bertara iristeko biderik labur eta zuzenena duela gutxi arteko Jugoeslavia izango litzatekeela iruditzen zaigu, baina bertan bizi den gerra-egoera kontutan hartuta ez dirudi errazena denik, beraz zuen esku uzten dugu aukera hori aztertzea eta ezinezkotan, jakin ezazue zuek proposaturiko aldaketak onartzeko prest gaudela.

Beste gainontzeko asmoei dagokienez, ez dut uste arazo berezirik sortuko digutenik baina zure aurrekontua prestatzeko beharrezkoak direlako segidan aipatzera noa: 28 bat lagun izango gara Donostiatik maiatzaren 2an ateratzeko prest eta beranduenik 25erako bueltan beharko dugu izan; bestalde, lo, autobusean bertan egitekotan gabiltzanez, literak izatea beharrezkotzat jotzen dugu eta, halaber, bidaia luzea izango denez, arintzeko ekipamendu egokiaz hornitua egotea espero dugu.

Horrenbestez, uste dut nire aldetik esan beharrekoak esanak ditudala; dena den, aurrerago aurkituko duzun helbidera jo besterik ez duzu nik luzatutako informazioa motz gelditu edota beste edozein oztopo sortuz gero. Arazorik ez balego, bestalde, zure aurrekontua lehenbailehen prestatu eta bidai diezadazula eskertuko nizuke.

Besterik gabe, laster zure berri izango dudalakoan, adeitasun osoz agurtzen zaitut.

Oharra: Hona hemen nirekin harremanetan jartzeko helbidea.

*Juan Jose Mujika
Kale Nagusia 25
20003 Donostia.*

AUTOEBALUAKETA

II. UNITATEA - HIZKUNTZA INSTITUZIOEKIKO HARREMANETAN

1.- Curriculum eta eskaera gutunak landu dituzu klasean eta horretarako hainbat ariketa egin dituzu. Orain arte eginiko ariketa hauekin nahikoa deritzozu? bizitzako edozein egoerari gai izango zara aurre egiteko?

BAI; ZERGATIK:

EZ; ZERGATIK:

III. UNITATEA: EUSKALKIAK - LITERATURA

* Kontzeptuak:

- Literatur formak: ezaugarriak
- Euskal literatura idatziaren historia
 - Datu nagusiak
 - Lehen itzulpenak. Sarako eskola. Zuberera klasikoa
 - XVIII. mendeko narratiba. Gipuzkera klasikoa
 - XIX mendeko narratibaren ezaugarri nagusiak. Bizkaiera klasikoa. Nobelaren sorrera
- Euskalkiak. Oinarritzko kontzeptuak. Dialektologiaren hastapenak euskararen sistema fonologikoa. Ukipen fenomenoak
- Hizkuntza eta dialektoak

* Prozedurak

- Hizkuntz unitateen erkapena eta sailkapena
- Hizkuntz unitateen manipulazioa, esanahiarekiko ondorioak aztertuz
- Hizkuntz unitateen eta euren funtzio eta erlazioen identifikapena
- Literatur obrak interpretatzeko beharrezko diren tresnen aplikapena, bai literatur azterketari dagokionak, bai testuinguru historiko - soziala ulertzeko beharrezkoak direnak ere
- Literatur obrak sakontzeko hurbilketa testu ekoizpenaren bitartez
- Literatur forma desberdinetako testu esanguratsu zenbaiten irakurketa, azterketa eta interpretapena.
- Euskalki nagusien ahozko zein idatziko testuen identifikapena
- Euskera eta auzo hizkuntzak: euren arteko harreman eta elkarrekiko eraginen azterketa

* Jarrerak:

- Literatur gertakari komunikatibo eta estetiko gisa baloratzea eta baita norbanakoen isladapen eta errealtate historiko - sozialaren adierazpen bezala ere.
- Literatur lanen edukin ideologikoa ezagutzea
- Auzo hizkuntzetatik edota prestigio eta hedapen handia duten hizkuntzetatik euskerak hartutako mailegu eta kalko linguistikoen aurreko jarrera eta balorapen kritikoa
- Hizkuntza eta aldaki desberdinen erabilera positiboki baloratzea eta errespetatzea.

1. FONOLOGIA-FONETIKA

Honako kontzeptuok bereiztu: 75

LETRA: Fonemak idatziz errepresentatzeko zeinu grafikoak.

SOINUA: Hitz egitean giza-eztarritik ateratzen den dardara entzungarria.

FONEMA: Hizkuntza bat bera hitz egiten dutenen burutan existitzen den soinu teoriko ideala.

Soinu idealaren aldakiez -alofonoez- arduratzen den zientzia Fonetika da. Soinuak kortxete artean transkribatzen dira: []

Fonologia: fonemek zeinu linguistikoak osatzeko balio duten ala ez arduratzen den arloa. Fonemak barra artean errepresentatzen dira: / /

Adibide baten bidez ikusteko, "mahats" euskal hitzak 6 letra ditu: m-a-h-a-t-s. Fonemak, berriz, 5 dira: /m/a/h/a/ts/. Hitz egiterakoan, euskalki edota lekuaren arabera errealizazio desberdinak izan ditzake, hau da, fonema horien soinuak ez dira beti berdin-berdinak gertatzen: [mahats], [maats], [maatz], [mats], [matz].

Fonemak ebakitzean aho-barrunbean oztoporik ez badago BOKALAK ditugu; nolabaiteko eragozpena egonda, berriz, KONTSONANTEAK.

Hona hemen euskararen fonema bokaliko eta kontsonantikoen sailkapena ahots moldearen arabera:

BOKALAK

ITXIAK	i	u
ERDI-IREKIAK	e	o
IREKIA	a	

KONTSONANTEAK

HERSKARIAK	ahoskabeak	p	t	k	tt
	ahostunak	b	d	g	dd
SUDURKARIAK		m	n	ñ	
IGURZKARIAK		f	h	(j)	
TXISTUKARIAK	igurzakariak	z	s	x	
	afrikatuak	tz	ts	tx	
ALBOKARIAK		I	II		
DARDAKARIAK	xamurra	r			
	azkarra	rr			

Euskal Alfabetoaren Letren Izenak:

Euskal alfabetoa edo ABC-a hogeita zazpi letrak osatzen dute, ordena honetan jarriak, beren izena ondoan dutelarik:

Letra	Izena
a	a
b	be
c	ze
d	de
e	e
f	e fe
g	ge
h	hatxe
i	i
j	jota
k	ka
l	ele
m	eme
n	ene
ñ	eñe
o	o
p	pe
q	ku
r	erre
s	ese
t	te
ú	u
v	uve
w	uve bikoitza
x	ixa
y	i grekoa
z	zeta

Letra hauetatik c eta honen aldaera ç (c hautsia), q, v, w eta y, ohiko euskal hitzak idazteko erabiltzen ez diren arren, kanpotar izenak transkribatzeko beharrezkoak direlarik, euskal alfabetoan sartzen dira.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua).

BOKALEEZ

Bi bokal silaba batean elkartzeari DIPTONGO deritzogu. Euskaraz diptongo normal eta ugariak beheranzkoak ditugu: ai, ei, oi, au, eu (zail, hodeei...).

Bokalak elkarren ondoan baina silaba desberdinetan egonda HIATOA dugu (i-a, lanbroa, senide-ei...).

KONTSONANTEEZ

Maiztasun gutxikoak izan arren /ñ/, /ll/, /dd/, /tt/ euskal fonemak -eta letrak- dira.

Aspirazioa /h/ aspaldi galdu zen Hegoaldean, Iparralde gehienera, aldiz, ahoskatu egiten da, balore fonetiko du, alegia.

/f/ fonema nahiko berantiarra da euskal filologi sisteman.

Euskarak inguruko erdarak baino txistukari gehiago ditu.

Dardarkariz hasten den euskal hitzik ia ez dago; gehienetan bokalen bat jarri izan ohi du euskarak aurretik (a-,e-, i-): arratoi, errota, *Erramun*, arraza. *irradi*....

/j/ fonemak bost alofono ditu, horietarik zaharrena, jatorrena, [y] delarik, gaztelaniazko [yema] bezalakoa. [x] alofonoa, gaztelaniazko [*julio*] bezalakoa, beranduago sartua dugu.

BUSTIDURA edo PALATALIZAZIOA: kontsonante batzuk "aldatu" egin daitezke i bokalaren eraginez (bustidura automatikoa): aita > aitta, aittxa; *makina* > makiña, esanahia aldatzen ez delarik.

Hiztunak nahita eginda baldin bada, konnotazio bereziak erantsi nahirik edo, esanahia aldatu egiten da (bustidura adierazkorra): tente / ttentte; potolo / pottolo.

Bi bustidura hauen erabilera euskalkien arabera desberdina da.

SANDHIAK: Mintzatzean, hitz baten amaiera eta hurrengoaren hasiera batera ahoskatzean gertatzen diren elkarketak dira (ez zegoen > etzegoen; bat be(re)ez > bapez).

2. DIALEKTOLOGIA

Hizkuntza jakin batetik eratorritako eskualde-aldakia da DIALEKTOA; bestela esanda, hizkuntza batek lurralde bateko giza talde batek darabilen hizkuntz-molde desberdindu bat, ezaugarri linguistiko argi batzuek definitua. Euskararen dialektoei EUSKALKI deritzegu.

Euskalkiak zientifikoki mugatzeko hizkuntz fenomeno jakin batzuetatik abiatzen dira hizkuntzalariak, horrela, mapa bidez adierazten diren sailkapen zehatzak lortzen direlarik. (Ikus **Isoglosa Lerroak** eranskinean).

Horrela egin zuen Luis Luziano Bonaparte Printzeak (1813-1891). Bere lankideen materialez, eta berak 1856 eta 1869 bitartean Euskal Herrira egin zituen hiru bidaien ondorioz, lehen sailkapen zientifikoa egin zuen. Zortzi euskalki bereizi zituen: bizkaiera, gipuzkera, ipar nafarrera garaia, lapurtera, hego nafarrera garaia, zuberera, ekialdeko nafarrera beheara eta mendebaldeko nafarrera beheara.

Gure mendean, R.M.Azkuek sailkapen desberdin bat plazaratu zuen, Bonapartek finkatutakoarekin aldaketa gutxi batzuk dituenak. Zazpi euskalki bereizten dira Azkueren sailkapenean: bizkaiera, gipuzkera, nafarrera garaia, lapurtera, nafarrera beheara, zuberera eta erronkaria.


Bonaparteren sailkapena (1869)

1. (B) BIZKAIERA
2. (G) GIPUZKERA
3. (NG) NAFARRERA GARAIA
Iparraldekoa
4. (L) LAPURTERA
5. (NG) NAFARRERA GARAIA
6. (Z) ZUBERERA
7. (NB) NAFARRERA BEHEREA
Ekialdekoa
8. (NB) NAFARRERA BEHEREA
Mendebaldekoa


Azkueren sailkapena (1905)

1. (B) BIZKAIERA
2. (G) GIPUZKERA
3. (NG) NAFARRERA GARAIA
4. (L) LAPURTERA
5. (NB) NAFARRERA BEHEREA
6. (Z) ZUBERERA
7. (E) ERRONKAKIERA

Hona Bonaparteren 1869ko sailkapena, mapa bidez:



Hona, bestetik, Azkueren sailkapena:



Ikus daitekeenez, Azkuerenak aldaketa gutxi du Bonaparteren maparekiko zuberera eta erronkarieraren bereizketa izan ezik, berdinak dira hedadura mugak.

ARIKETA

Aurreko bi mapen azterketa arin batez euskalkien eta probintzien mugak ez datozela bat ohar daiteke. Egizu euskalki bakoitzaren hedaduraren zehaztapen bat: dagokion herrialdean zer leku betetzen duen, inguruko herrialdeetarako zabaltzen den, edota ondokoak bere lurraldean sartzen diren.

Bi mapek erakusten digute euskalki mugak ez datozela herrialde mugekin bat. Horrela, bizkaiera Araban eta Gipuzkoan barneratzen da, gipuzkera Nafarroan, nafarrera garaia Gipuzkoako ipar-ekialdean, lapurtera apur bat sartzen da Nafarroan, nafarrera beheara Lapurdin eta Nafarroan, eta zuberera Gaskuña alderantz irteten da, Nafarroarantz ere bai Bonaparteren mapan.

Bukatzeko, ikus dezagun sailkapen orokorrago bat, euskalkiek barne hartzen dituzten herri nagusien kokapenarekin batera:



ARIKETA

Mapak erakusten duenaz kontu eginik, ohar zaitez zein euskalkiren eremuan sartzen diren hurrengo herriak: Arrasate, Legutio, Eibar, Bergara, Oñati, Altsasu, Erreterria, Hondarribia, Elizondo, Uztaritze, Otsagi, Izaba.

Ikus daitekeenez, euskalki ugaritan banatua dago gure hizkuntza. Horietatik guztietatik, ordea, lau hartu ohi dira literariotzat, esan nahi baita gure literaturaren historian islada izan dutela.

Lapurtera, zuberera, gipuzkera eta bizkaiera dira **aipatu lau euskalki literarioak**.

Lau euskalki literarioen arteko desberdintasunez ohartzeko hona hemen Agustin Iturriaga (1778-1851) hernaniarraren Jolasak obratik egindako moldapenak.

Irakur itzazu arretaz bertsio desberdinak.

BIGARREN JOLASA

- B. Gaur hitz egin behar dizut erleen gainean.
A. Aberetxo gai onak dira erleak; hoiek ematen digute ezia.
B. Ez bakarrik ematen digute ezia, bai ere argizagia.
A. Nola ezti zalea naizen txit, ez nintzan argizagiaz oroitzen.
B. Jateko bezin ona da ezia oskaitako. Kostomia dan orduan hartzen da ezia urarekin. Eruskinak jan arazten dute askotan bazkal aurrean gorputzetik libratzeko. Beste aldetik, berriz, zenbat gauzatarako ez da ona argizagia? Honekin egiten dira arkaia, ezkoztuak, eta enplasto mozt asko. Erleak jaiotzen dira ingumak bezela, eta jaten dute ezia. Loreetan arkitzen dute eztiaren eta argizagiaren gaia. Lorearen irinarekin egiten dute argizagia; eta ezia, berriz, loreari mimikotik ateratzen dioten hezadearekin. Irina biltzen dute lore gainian atzeko zankoak erabiliaz. Zankoetan dituzte zanko zorro mota batzuek. Eta ez dira gelditzen hoiek bete arteraino.
Hezadea txuputzen dute muturrean duten tronpa batekin. Hezadearentzat dute urdail bat eta han ezti bihurtzen da. Irinarentzat dute beste bat, eta han argizagi bihurtzen da.
Gero ahotik argizagia boteaz, dihoaz abaraska egiten. Abaraska egina dagoan orduan betetzen dituzte honen txuloak eztiz.
A. Txuloari zeldila al dentza?
B. Abaraskarenari bai.
A. Txoratzen naute ni gauza hoiek guztiak.
B. Ez dezu zertaz txoratu.
A. Zer! Ez da txoratzeko gauza lorearen gainean dagoan irina argizagi bihurtua ikustea?
B. Eta ez zaitu txoro bihurtzen ikusteak gure odol bihurtzen guk jaten ditugun gauzak?
A. Egia diozu, ez nintzan kontuan erortzen.
B. Gaur behiak jan duen belarra bihar esne bihurtua jaten degu.

(itz egin, gañean, [x] ateko, di [x] oaz)

oskaitako: sendagarria; **kostomia**: katarroa; **"eruskiñak"**: sendagileak; **arkaia**: kandela; **ezkoztuak**: argizari arbelak; **mimiko**: kukulua; **hezadea**: hezetasuna.

BIGARREN BERBALDIA

- B. Gaur berba egingo deusut erleen ganian.
A. Aberetxu mesedegarriak dira erliak: honeek emoten deuskue ezia.
B. Ez bakarrik emoten deuskue ezia, baita bere argizaia.
A. Guztiz ezti zalla nazan legez, ez nintzan gomutetan argizaiagaz.
B. Hain ona da ezia osagarritzat, zein janaritzat. Katarrua daguanian hartuten da ezia uragaz. Osagilaak jan eragiten dabe batzuetan mahaian jarri baino lehen sabela arinduteko. Beste aldetik, zenbat gauzatarako ez da ona argizaia ! Honegaz egiten dira kandelaak, enzerauak eta enplastu mueta asko. Erliak jaioten dira txinbinak legez. eta jaten dabe ezia. Loreetan aurhtuten dabe eztiaren eta argizaiaren geia. Lonaren urunagaz egiten dabe argizaia. eta ezia lonaren kukulutik ataraten daben ezkotasunagaz. Uruna batuten dabe erabiliaz arrastaka atzeko hankak loriaren ganian. Daukez hanketan polaina mueta batzuk, eta ez dira geldituten honeek bete artian. Ezkotasuna miazketan dabe musturrian dauken tronpa bategaz. Ezkotasunarentzat dauke sabel bat, eta han ezti bihurtuten da. Urunarentzat dauke beste bat, eta han argizai bihurtuten da. Gero, ahotik, argizaia botaten daben neurrian, duaz abaua eginaz. Abaua eginik daguanian, betetan ditue ezti euren gelatxuak.
A. Zuluari gelatxua al deritza?
B. Abauarenari bai.
A. Zoratuten nabe ni gauza guzti honeek.
B. Ez daukazu zergaitik zoratu.
A. Zer! Ez al da bati zoratu eragiteko gauzia loriaren orriaren ganian daguan umna argizai bihurturik ikustia?
B. Eta ez deustu zoratu eragiten ikustiak bihurtuten dirala geure odol geuk jaten doguzan gauzak?
A. Egia dinozu, ez nintzan kontuan jausiten.
B. Gaur behiak jan daben bedarra bihar jaten dogu esne biburtuta.

(bertaldija, deutzut, oneek, estija, argisaija, [y]anari, osagillaak, maijan, baño, enseraubak, erabilijaz, diñozu, beijak, bijar)

txiribiria: tximeleta

uruna: irina

kukulu: gainekaldea

mustur: muturra

abaua: abaraska

nabe: naute

eragiteko: erazteko

BIGARREN SOLASTALDIA

- B. Egun erleez mintzatu gogo natzaizu.
A. Azienda xehetto baliosak dira erleak: haukiek ematen darokute ezia.
B. Ez ezia bakarrik, bainan ezkoa ere ematen darokute.
A. Nola eztiara ixutua bait naiz, ez nintzen oroitzen ezkoaz.
B. Eztiara erremediotako hain ona da, nola janaritarako. Marranta denean hartzen da eztiara urarekin nahaste. Midikuek jan arazten dute batzuetan mahainean jarri baino lehen sabeletik librarazteko. Beltzalde, berriz, zeubat gauzei-ako ez da ona ezkoa! Hunekin egiten dira xinoak, tela ezkodunak eta asko mantar mota. Erleak sortzen dira pinpirinak bezala, eta jaten dute eztiara. Loreetan aurkitzen dute eztiaren eta ezkoaren gaia. Lorearen irinarekin egiten dute ezkoa, eta eztiara, berriz, lorearen golkitik ateratzen duten gozotik. Irina biltzen dute lore gainean gibealeko aztaparez arraskatuz. Zangarretan badituzte galtzoin idurik batzuek. eta ez dira gelditzen hekiek bete arteraino. Hezetasuna hurruputzen dute muturrean duten tronpa batekin. Hezearentzat badute zorro bat, eta han ezti bilakatzen da. Irinarentzat badute bertze bat, eta han ezko bihurtzen da. Gero, ezkoa ahotik

goitik itzultzen duten arabera, breskaren egiten artzen dira. Breska egin dutenean orraze-xiloak eztiz betetzen dituzte.

- A. Xiloa orraze-xiloa deitzen da?
- B. Breskarena bai.
- A. Zoratzen darotate burua gauza haukiek guziek.
- B. Ez da hor burtzoratzekorik.
- A. Zer! Ez ote da zoratzeko dina ikustea lore hostoko errauxa ezko bilakatua?
- B. Eta ez zaitu zoratzen guk jaten ditugun gauzak gure odol bihurtzen ikusteak?
- A. Egia diozu.ez nintzen horri ohartzen.
- B. Behiak egun jaten duen belarra bihar esne bihurtuta jaten dugu.

(bakharrrik, orhoitzen, [y] anhari, manthar, pinpiriñak, aurkhitzen, golkhottik, atheratzen, harraskatuz, muthurrean, bilhakutzen, bethetzen, othe, ikhustea, belharra, elhestaldia)

azienda: aberea

marranta: katarroa

zangar: bernazakia

artzen: aritzen

BIGARREN ELESTALDIA

- B. Egun erlez mintzatu behar nitzaizu.
- A. Haziendatxo baliusak dira erliak: hoiek emaiten deikuie ezia.
- B. Ez bakoizki ezia. bena ere emaiten deikuie ezkoa.
- A. Nula eztikoi beniz ezinago, ez nintzan ezkuaz oritzen.
- B. Ezia jateko bezain un da sendogarritako. Marranta denian hartzen da ezia urareh nahasirik. Atxeterrek jan erazten die zunbait aldiz barazkal aitzinian korpitzetik librerazteko. Bestalde, orano zunbat gaizarentako ez da un ezkoa! Huneki egiten dira tortxak.oihal ezkostatiak eta herskailu mota anitx. Erliak sortzen dira jinkoiluak bezala, eta jaten die ezia. Lilietan edireiten die eztiaren eta ezkuaren geia. Liliaren innareki egiten die ezkoa eta ezia, aldiz, liliaren kokoxetik elkitzen dien zuhatzareki. Inna biltzen die lilien gaincn gibelesko aztaparren herresta erabiltez. Zancuetan badutie galtzak bezalako batzu, etaez dira ukurutzen hoiek bete artino. Zuhatza hurruputzen die muturrian dien trunpa bateki. Zuhatzarentako badie sabel bat eta han ezti egiten da. Innarentako badie beste bat, eta han ezko bilatzen da. Gero. ahotik ezkoa egotxiz. egiten die orrazia. Eginik denian orrazia, hunen xiluak eztiz betetzen dutie.
- A. Xilua deitzen da tegittua?
- B. Orraziarena bai.
- A. Zorobilatzen naie ni gauza hoiek orok.
- B. Ez duzu zertzaz zorobila.
- A. Zer! Ez da zorobilatzeko gaiza lilien gainen den innaren ezkoturik ikustia?
- B. Eta ez zutu xorotzen guk jaten dutugun gaizen ikustiak gure odoletara kanbiatzen?
- A. Egia diozu. ez nunduzun ohartzen.
- B. Egun behiak jan dian belarra bihar ezneturik jaten dugu.

(orhitzen, [y] ateko, bezañ, hun, hurareki, khorpitz, hanitx, jinkolluak, gañen, zankhuetan, muthurrian, bethatzen, thegi, gañen, ikhustia, khanbiatzen, belharra)

(bakhoizki): bakarrik, soilik

orano: oraino, oraindik

(elkhi): ilki, atera

zuhatza: sapa, zukua

(Ukhuratzen): gelditzen

(bilhatzen): bilakatzen

Ziur aski, ohartua zara honezkero gipuzkera, bizkaiera, lapurtera eta zuberera direla, ordena horretan, irakurritako ataletako euskara moldeak. Gaurkoturik daude ortografia aldetik eta, jakina, horrela ezin zehaz daitezke euskalkien berezitasun fonikoak. Horregatik, hizkuntzalariak hizkera motak aztertzeke eta, alfabeto fonetiko baliatzen dira. Baina teknika konplexua denez gero, ez ditugu testuak aipaturiko alfabeto fonetikoan jarri. Horren orde, azpian eta parentesi artean jarri ditugu ahoskerazko berezitasunak.

Dena den, irakurritako atalen maila fonikoa behar bezala lantzeko oinarritzko alderdi batzuk gogoratuko ditugu:

- a) Lehen bi euskalkietan, hegoalekoetan, hots, gipuzkera eta bizkaieran, ez da gauzatzen /h/ fonemak adierazten duen aspirazioa. Iparraldekoetan, ordea, aspirazioa grafiak adierazten duena baino ugariagoa da, berez **h**-rekin idazten ez dugun hainbat hitzetan ere soinu hasperenduna egiten baitute. Hauen ezugarri bereziak dira, gainera, testuen azpian kurtsibaz isladatu ditugun herskari hasperendunak (kh, th) eta kontsonante ostekoak. Adibidez: ikhusi, muthur, orhoitu, bilhakatu, janhari, eta abar.
- b) Bereko bizkaiera mintzatuan txistukarien arteko bereizketa ezabatu egin da hein handi batean. Horrela, **z** ez da beste euskalkietan bezala ebakitzen, **s**-a bezala baizik; **ts**-a ere ez: **tz** legez gauzatzen da.
- c) Testuetan **in** eta **il** taldeak soinu bustiak dira maiz, hau da, **ñ** eta **II**. Euskalki batzuek beste batzuek baino joera handiagoa dute. Lapurtera da denetan bustidurarik gutxien egiten duen euskalkia.
- d) Hegoaldeko euskalkietan hiatusak (*ia, ie, io, ua, ue*) ebakitzean kontsonante bat entzun daiteke tartekaturik, adibidez, *eztija, argizagija, entzeraubak*.

ARIKETA

Atera itzazu testuko ezaugarriak eta jarri laukian.

	BOK.
FONETIKA	KONTS.
	DEKL.
MORFOLOGIA	ADITZA
	JOSKERA
	LEXIKOA

- * Ariketa gehiago: ELKAR, BBB 3, 43. OR. (7.A).
ELKAR, UBI, 146 or. (12.a./ 13.a??).
- * ISOGLOSA LERROAK

Fenomeno linguistiko desberdinak bereizten dituzten lerro idealak. Mapan ikusten den bezala, isoglosa hauen bildumak dialektoaren (edo subdialektoaren) nondik norakoa zehazten du.



(-o + a “besoa” hitza)

Beste hainbeste, esaterako, **dut** / **det** / **dot** adizkiaren isoglosekin, e.a.

AUTOEBALUAKETA

- Nola azalduko zenuke **letra**, **soinua** eta **fonemaren** arteko ezberdintasuna? Erabili adibideak.
- Ba al dakizu nola ahoskatuko lituzketen bizpahiru lekutan ondoko esaldiok?
Gure etxea zuria da
Aitak gehiago nahi zuen baina aitari ez zitzaion gustatu
- Esan hiatusen dauden ala diptongoak diren esaldiotan agertzen diren bokal bikoteak
Gaiztoen etsaia nauk
Gure izaera hor zeok: euskaran
Gauzak bikain egin dizkiagu
Zarauztik Beasaina joan nauk gaur goizean
- Nola ebakitzen dituzu honako sandhiok?
ezdot > [] ez bait > []
eginez gero > [] batik bat > []
- Zein fenomeno fonetiko ikusten duzu hitz hauetan?
remedio > *erremedio* *Rusia* > *Errusia*
jakinda > *jakindda* *zuzen* > *xuxen*
zahar > *zar* *behin* > *bein*
- Zer dira isoglosa marrak? Zertarako erabiltzen dira?
- Euskalki bera darabilten guztiek berdin-berdin egiten dute berba? Aurki al daiteke hor ere ezberdintasunik?
- Euskalkien mugak bat al datoz probintzien izenekin? Argitu arazoa.
- Azkueren sailkapena ez dator guztiz bat Bonaparterenarekin. Zein ezberdintasun dituzte?

3. XVI MENDEA. ETXEPARE. LEIZARRAGA

Idatzizko euskal literaturaren hastapenak XVI mendean ezarri behar dira, bai mende honetan, bai hurrengoan, Iparraldeko idazleen nagusitasuna, hegemonia, erabatekoa delarik.

Gure lehen idazleak plazaratu zireneko mendean aldaketa handiak gertatu ziren arlo guztietan, eta berauek ere horietan murgildurik izan ziren. Europan zehar herri hizkuntzen aldeko korronteak nabariak ziren, latina ordezkatzuz idatzizko zereginetan nagusitzan ari zirelarik. Gurean, Bernat Etxeparek eutsi zion lehenengo erronka horri. Bestalde, erlijioari dagokionez ere, garrantzizko aldaketak gertatu ziren: batetik, 1545ean egin zen Trentoko Kontzilioa, gerora Elizaren jokabide zurrunagoa ekarriko zuena; bestetik, Joana Albreteko nafar erreginak erreforma protestantea Ipar Euskal Herrian hedatzeko saioa burutu zuen honetarako liturgi liburuak euskaraz prestatziz.

Bada, horrela, XVI mendean, goi mailako poeta batekin abiatzen dira gure letrak: Bernat Etxepare. Bera da euskarazko lehen liburuaren egilea eta mende honetan ezagutzen dugun poeta bakarra, nahiz eta gehiago ere izan ziren: hurrengo mendeko Oihenart idazle zuberotarrak Logras eta Etxegarai poetak aipatzen ditu bere obra batean baina, zoritxarrez, Etxepareren obra baino ez da iritsi gure egunetara.

Prosaren sorrera, berriz, Leizarragari zor diogu, euskararako lehen itzulpenen bidez hizkuntz eredu bat trebeki moldatu zuena. Hala ere, Leizarragak ez zuen eskolarik sortu eta, jarraitzailerik gabe, bere hizkuntz eredu landua bazterturik geratu zen.

Bernat Etxepare, gure lehen poeta eta idazle.



Berze jendek uste zutén ezin
skriba zaiteien; orai dute
forogatu enganatu zirela.

Euskara, jalgi hadi mundura.

Euskaraz idatziriko eta inprimaturiko lehen liburuko poema zati bat dugu. Bertso honek halako harrotasunak eta barne pozak eraginda dirudi; ordura arte inork egin gabea gauzatzeraz zatorrelako kontzientziaren adierazle da.

Linguae Vasconum Primitiae da liburuaren izenburua, hau da, "Euskaldunen hizkuntzaren hastapenak", egileak bere obra hau euskal letretako lehena dela aldarrikatzen duelarik. Sarreran kezka honen azalpena irakur dezakegu, liburua argitaratzen lagundu zion Bernat Leheteri zuzendutako pasartearen:

"Zeren baskoak bait dira abil animos eta jentil eta hetan izan bait da eta bait da zientzia guzietan letratu handirik, miraz nago. Jauna, nola bat ere ez den asaiatu bere lengoaje propioaren faboretan euskaraz zerbait obra egitera eta skributan imeitera, zeren ladin publika mundu guzietara bertze lengoajiak bezala hain skribatzeko on dela. Eta kausa honegatik gelditzen da abataturik, ezain reputazione bage, eta bertze nazione orok uste dute ezin deus ere skriba daiteiela lengoaje hartan, nola bertze orok bait dute skribatzen berian"

Idazlea, Bernat Etxepare, Donibane Garazi ondoan dagoen Eiheralarre herrian jaio bide zen, Nafarroa Behereko lurraldean. Etxepare, Erdi Aroko poeta berankorra izanik ere, ate nagusitik sartu zen letren mundura, kalitate handiko poemak burutuz. Kritikarien iritziz, lehen lana izanik, miresgarria da Etxepareren obraren kalitatea, ezohikoa. Ideien eta sentimenduen

azalpenean zintzotasuna eta gardentasuna ageri dira nonahi, lexiko eta imajina soilak baina indartsuak erabiliz eta ñabarduraz beteriko esapideak lortuz.

1545ean Bordelen argitaratu zen obra honetan errealdismoa da nagusi -ez da ahortzi behar Trentoko Kontzilio aurreko apaiza zela egilea-; poeta ez zebilen edertasun ideaiaren atzetik, baizik eta munduko plazerrak eta gizakiaren ahultasuna aintzat harturik, berak sinesten duen haraindiko bizitza goستن zuen, gai erlijiosoak eta erotikoak naturaltasunez nahasirik

Etxepareren obran herri poesiarekiko, hau da, bertsolaritzarekiko lotura eta atxekimendua nabari daitezke hala gaitan (erlijioa, maitasuna, euskara, gartzela), nola hizkeran, nola bertsogintzan.

Bertso moldeari dagokionez, hamabost silabatako lerroak paratu zituen Etxeparek, erdian etena dutelarik: zortzi + zazpi neurrikoak edo, zehatzago, 4/4/4/3. Eskema hau ez zuen zehatzegi jasotzen poetak, bertsolaritzan bezala, silaba kopuru hori ebakitzeko ahoskerak erabateko garrantzia du. Beraz, bai neurriaren aldetik bai ebakitze moduan ere, herri bertsogintzaren moldeari jarraitzen dio.

Nafarroa Behereko euskalkian idatzi zuen Etxeparek, Garazi inguruko mintzairaz zehazki esanez; berea zuen euskalkiaz baliatu zen; haatik, ez du euskalkien arteko arazorik ez lehiarik erakusten edo isladatzen, bere helburua eta poza euskara, euskaldun guztien hizkuntza, letren mundura jalgitzea, ateratzea delarik.

Liburuak hamabost poema ditu eta, gaiari **dagokionez, lau** sail dituela esan genezake:

- **Erljio poemak:** I eta II poemek osatzen dute sail hau, liburuko luzeenak, hain zuzen. Zatik handiena Ama Birjinari eskainia dago, poetak hari dion jaiduraren adierazpenaz gainera munduko maitasunezko atseginei kontrajartzen diela harenganako amodio garbia.
- **Maitasun poemak:** XII bitarteko poemek osaturiko sail honetan gizon-emakumeen arteko amodioa kantatzen du. Modu bizi, errealista eta gordin batez deskribatzen dira sexu harremanak; bestalde, emakumearen gorespina egiten da, beronen lehentasuna eta bikaintasuna gartsuki aldarrikatuz.
- **Presondegiko poema:** XIIIa da. Argi ez dauden gorabehera politikoengatik, gartzelan egin behar izan zuen egotaldia kontatzen duena.
- **Euskarari buruzko poemak:** XIV eta XV poemak ditugu, euskal hizkuntzaren gorazarre sutsua osatzen dutenak.

ARIKETA / ULERMENA LANTZEN

Erantzun iezaiezu laburkiro baina zehaztasunez hurrengo galderei:

1. Zelako testuinguruan plazaratu ziren lehen euskal idazleak?
2. Nongoa zen gure literaturaren historiako lehen poeta?
3. Zein da bere liburuaren izenburua latinez?
4. Noiz eta non argitaratu zen?
5. Nolako euskara moldeaz eman zuen argitara?
6. Zelako bertso mota darabil?
7. Aipa itzazu gaiaren aldetik liburua osatzen duten lau atalak.
8. Zein joera da nagusi Etxepareren obran?
9. Zein kezka azaltzen du Etxeparek?
10. Etxepareren olerkigintza bertsolaritzaren moldekoa dela esan daiteke? Arrazoitu labur.

AMOROS SEKRETUKI DENA

Andre eder jentil batek bihotza deraut ebatsi,
harzaz ont nadinian deus ere ezin iretsi;
nik hura nola, ahi nuke hark banenza onetsi;
ezin benturatuz nago, beldur dakion gaitzi.

5 Mirail bat nik ahal banu hala duien donoa,
neure gogoa nerakutson sekretuki han barna,
han benan nik nakusen harena ere nigana,
hutsik ezin egin nezan behin ere hargana.

10 Ene gaizki penatzeko hain ederrik sortu zen,
gaoaz eta egunaz ere gaizki nizi penatzen;
harekila bat banadi, bihotza zait harritzen,
neure penen erraitera are eniz ausanzen.

15 Ene gogoa baliaki, rnaite bide ninduke;
ni errege baldin baniz, erregina lizate;
hura hala nahi baliz, elgarreki ginate;
haren haurrak eta eniak haurride oso lirate.

20 Balinetan nik banero hari neure bihotza
eta gero balin balit respuesta bortitza,
dardoak bano lehen liro redira ene bihotza;
duda gabe eror nainde han benan hilotza.

Artizarrak berzetarik abantaila dararna:
halaber da anderetan ni penatzen nuiena;
hanbat da eder eta jentil, harzaz ero narama;
zori onian sortu dute haren besoan datzana

25 Ene gogoa nola baita zuzen jarri hargana,
haren ere langoikoak dakarrela nigana,
ene pena sar dakion bihotzian barrena,
gogo unez egin dezan desiratzen dudana.

ebatsi: ostu, lapurtu
benturatu: ausartu
mirail: ispilua
nerakutson: erakuts diezaiodan
baliaki: jakingo balu
banerro: esango banio

orit: oroit
gaitzi: gaizki iruditu, gertatu
donoa: dohaina
nakusen: ikus dezadan
Balinetan: baldin eta
liro erdira: erdira lezake

ARIKETA / TESTUAREN INGURUAN

Moldapena: Egizu Etxepareren poema horren moldapen bat, lerroz lerro, batetik, emaiizu euskara batuaren molde; bestetik, ulermenaren errazteko, egitzazu behar diren aldaketak.

Neurria: Bertsoz bertso, hots, lerroz lerro, egizu silaben neurketa. Aintzat har berez dagokion neurria eta, horrela, gerta daitezkeen sinalefak

Edukina: Laburbil ezazu poema osatzen duten zazpi ahapaldietako edukina beste hainbeste esaldi laburretan.

KONTRAPAS

	Euskara Jalgi hadi kanpora.
5	Garaziko herria benedika dadila; euskarari eman dio behar duien tornuia.
	Euskara. jalgi hadi plazara.
10	Berze jendek uste zuten ezin skriba zaiteien; orai dute forogatu enganatu zirela.
	Euskara. jalgi hadi mundura.
15	Lengoajetan ohi hinkan estimatze gutitan. Orai aldiz hik behar duk ohoria orotan.
20	Euskara. habil mundu guzira.
25	Berzeak oro izan dira bere goien gradora; orai hura iganen da berze ororen gainera. Euskara.
30	Baskoak oro preziatzen Euskara ez jakin arren; orok ikasiren dute orai zer den euskara.
	Euskara.
35	Oraindano egon bahiz inprimatu gaberik, hi engoitik ebiliren mundu guzietarik Euskara
	Ezein ere lengoajerik ez frantsesa ez berzerik orai ez da erideiten euskararen parerik.
40	Euskara. jalgi hadi danzara

ARIKETA / TESTUAREN INGURUAN

Hizkuntz funtzioak: Zein funtzio nagusi da *Kontrapas* honetan?

Egilearen jarrera: Zer jarrera erakusten du Etxeparek poema honetan?
Bestela esan, zer tonu azaltzen da?

SAUTRELA

Euskara da kanpora eta goazen oro dantzara.

5 O euskara, lauda ezak Garaziko herria,
zeren hantik uken baituk behar duian tornua.
Lehenago hi baitintzan lengoajetan azkena,
orai, aldiz, izanen hiz orotako lehena.

Euskaldunak mundu orotan preziatu ziraden,
bana haien lengoajiaz bertze oro burlatzen.
zeren ezein skripturan erideiten ez baitzen,
Orai dute ikasiren nola gauza ona den.

10 Euskaldun den gizon orok altxa beza buruia,
ezi haien lengoajia izanen da floria.
Prinze eta jaun handiek orok haren galdia,
skribatuz (a)hal balute ikasteko desira.

15 Desir hura konplitu du Garaziko naturak
eta haren adiskide orai Bordelen denak.
Lehen inprimizalia euskararen hura da;
basko oro obligatuz jagoitiko hargana.

Eta lelori bai lelo leloa zarai leloa.
Euskara da kanpora eta goazen oro dantzara.

ARIKETA / TESTUAREN INGURUAN

Testuaren edukina

Ahapaldiz ahapaldi aztertuz, bil ezazu bost-sei lerrotan poema honen edukina.

Joanes Leizarraga, Euskal prosaren aita

Euskal prosaren sorrera erlijio munduarekin zuzenki loturik dago. XVI mendearen erdialdera Nafarroako Joana Albreteko erreginak Nafarroa Behereko lurraldera alde egin zuen, 1512an Nafarroa Gaztelaren menpe erori baitzen. Aita Sainduak eta Elizak ez zioten laguntzarik eskaini eta protestantismoa besarkatu zuen. Erlijio honen zabalkunde lanari ekin zion eta, horrela, Testamentu Berriaren eta otoitz liburu kalbinotarrak euskaratzea agindu zuen. Zeregin honetarako itzultzaile talde bat lanean jarri zen, euren buru Joanes Leizarraga lapurtarra zela.

Leizarraga lapurtera oinarri zuen hizkuntza bateratua sortzen saiatu zen, hizkera desberdin anitz zegoela onarturik. Bestalde, jatorrizko testuari (latin edo grekozkoari) fideitasuna gorde nahirik, Jainkoaren hitza aldaezina zela eta, kultismo ugari (latinismoak batez ere) erabili zituen euskarazko hitz jatorren orde; esaterako: *pescatore*, *sabbato*...

Dena dela, lexiko aldetiko bitxikeria horiek gorabehera, hizkuntza oso landuan moldatu zituen itzuipean. Lehen prosagilea izanik, harrigarria da zein xaloki taiutu zuen ordura arte batere tradizioz ez zuen hizkuntza baten prosa eredu.

Bere idazlanak, denak itzulpen eta urte berean argitaratuak (1571), honakoak dira.

Iesus Christ Gure launaren Testamentu Berria.

Kalendrera, hau da, egutegi moduko gida liburua.

Abc edo Christinoen instrukzioa: dotrina liburu bat.

Hona Leizarragak itzultako Testamentu Berriaren pasarte bat.

HAZI EREILEAREN KONPARAZIONE HAREN DEKLARAZIONE

- Egun hartan berean, Jesus etxetik ilkirik, jar zedin itsas kostan
- Eta bil zedin harengana jendetze anitz, haibat non untzi batetara sarturik jar bait zedin; eta jendetze guzia itsas kostan zegoen. Eta erran zizeen anitz gauza konparazionez, zioela: "Una, ereile bat ilki zedin ereitera. Eta ereitean hazitik batzu eror zitezen bide bazterrera: eta txoriak etorri izan dirade, eta iretsi ukan dituzte hek.
- 5 Eta batzu erori izan dirade leku harrizuetara non ez bait zuten heuragi lurrik: eta bertan ilki zitezen, zeren ez bait zuten lur barnerik.
- Gero iguzkia goratu eta erre izan dirade, eta zeren ez bait zuten errorik, eihartu izan dirade.
- Eta batzu erori izan dirade elorri artera; eta handitu izan dirade elorriak, eta ito ukan dituzte
- 10 hek.
- Eta batzu eron izan dirade lur onera; eta fruktu renda zezaten, batak ehun, berzeak hirurogei, eta berzeak hogeita hamar.
- "Enzuteko beharrik duenak enzun beza"
- Orduan, hurbildurik, diszipuluek erran ziezoten:
- 15 "Zergatik konparazionez minzo hatzaie?"
- Eta hark ihardesten zuela erran zizeen:
- "Zeren zuei eman bait zaizue zeruetako resumako sekretuen ezagutzea, baina haei ez zaie eman.
- "Ezen nork ere bait du, hari emanen zaio, eta hanbatez gehiago ukanen du: baina nork ere ez
- 20 bat du, hari duena ere edekiren zaio"
- Halakotz konparazionez minzo natzaie; zeren dakusatarik ez bait dute ikusten, eta enzuten dutelarik ez bait dute enzuten, ez aditzen.
- Hala konplitzen da hetan Esaiasen profetia, zeinek bait dio: "Enzutez enzunen duzue eta ez adituren; eta dakusazuela ikusiren duzue eta ez zaizkiote oharturen"
- 25 Ezen gizendua da populu honen bihotza, eta beharriez gogorki enzun ukan dute, eta begiak hertsu ukan dituzte; begiaz ikus, eta beharriez enzun eta bihotzaz adi ez dezaten, eta konberti ez ditezen, eta senda ez ditzadan.
- Bada dohatsu dirade zuen begiak, ezen ikusten dute; eta zuen beharriak ezen enzuten dute.
- Ezen egiaz erraiten drauzuet, anitz Profetak eta justok desiratu ukan dutela ikustera zuek,
- 30 ikusten dituzuen gauzen, eta ez bait dituzte ikusi; eta enzutera, enzuten dituzuen gauzen, eta ez bait dituzte enzun.
- Zuek, bada, enzuzue ereilearen konparazionea.
- Noiz ere nehork enzuten bait du resuma hartako hitza, eta ez aditzen, etorten da Gaixto hura eta harrapatzen du haren bihotzean erein zena; haur da bide bazterrean hazia rezebitu zuena.
- 35 Eta leku harrizuetara hazia rezibitu duena, haur da, hitza enzuten eta hura bertan bozkarioekin rezebitzen duena; baina ez du errorik bere baitan, halakotz da iraute gutitako eta tribulazionerik edo persekuzionerik hitzagatik heltzen denean bertan skandalizatzen da.
- Eta elorri artera hazia rezebitu duena, haur da hitza enzuten duena, baina mundu hunetako artak eta abastasunezko enganioak itotzen dute hitza, eta frukturik ez du egiten.
- 40 Baina lur onera hazia rezabitu duena, haur da hitza enzuten eta aditzen duena, zeinek fruktu ekartzen bait du egiten, batak ehun, eta berzeak hirurogei, eta berzeak hogeita hamar".

ilki: irten
heuragi: asko, ugari
nork ere bait du: duenak
drautzu: derautzu

jar zedin: jarri zen
renda: eman
edekiren: kenduko
enzuzue: entzun ezazue

erran ziezen: esan zien
beharri: belarri
oharturen: ohartuko
arta: ardura, hezka

ARIKETA / TESTUAREN INGURUAN

Moldapena: Egizu Joanes Leizarragaren itzulpen zati honen moldapena. Jar ezazu testua euskara batuan eta esaldi bereziak gaurko erara.

Lexikozko berezitasunak: Bil itzazu bi zerrendatan lexiko aldetik hitzik aipagarrienak: kultismoak eta euskara arkaikotzat jo daitezkeenak.

Adizkiak: Egizu beste zerrenda bat Leizarragak darabiltzan adizki arkaikoak bilduz. Parean jar iezaiezu gaur egungo euskaraz dagokiena.

Nola osatzen du geroa?

Zein da gertakizuneko aspektu marka?

Euskalkiari berari dagozkion hitzak eta aditzak adieraz itzazu

AUTOEBALUAKETA

Erantzun zuzena hautatu

1. Lehen euskal hitzak

- a) Etxeparek idatzi zituen.
- b) Bibliaren itzulpenak izan ziren.
- c) Gonzalo de Berceo idatzi zituen.
- d) Akitaniako hilarrietan aurkitzen dira.

2. Etxeparek bere olerki liburua

- a) XV mendean argitaratu zuen.
- b) Gutenberg-en lantegian argitaratu zuen.
- c) XVI. mendean argitaratu zuen.
- d) Latinez argitaratu zuen.

3. "Linguae Vasconum Primitiae"

- a) Gai profanoak eta erlijiozkoak olerki bidez janzten dituen liburua da.
- b) Erlijio liburua da.
- c) Etxeparek idatzi zuen liburuetatik bat da.
- d) XVI. mendeko beste liburu baten itzulpena da.

4. Etxeparek

- a) Euskara batuaren ardura handia erakusten du.
- b) Ekialdeko behe-nafarreraz idazten du.
- c) Ortografia arreta handiz zaintzen du.
- d) Zuberoako euskalkia darabil.

5. Etxepareren bertsoak

- a) Berak asmatutako neurrian datoz.
- b) Herriak ezagutzen zuen erritmo eta doinu jakin bati lotuak daude.
- c) Hamarreko handian eginak dira.
- d) Ezberdinak dira neurriz, ia denak.

6. Erreformaren eragina

- a) Alemanian gertatu zen, soilik.
- b) Erreforma Enrike VIII.ak asmatu zuen bigarren aldiz ezkontzearren.
- c) Euskal Herrian ere ezagutu genuen.
- d) XV. mendearen azken aldera nabarmendu zen Europan.

7. Joana d'Albret

- a) Behe-Nafarroako erregina kalbindarra izan zen.
- b) Etxepareren argitaratzailea izan zen.
- c) Irakasle izan omen zen Orthez-eko unibertsitatean.
- d) Katolikoen buruzagi izan zen.

8. Joanes Leizarraga

- a) Etxepareren lagun handia izan zen.
- b) Euskara zabaltzen saiatu zen.
- c) Joana d'Albret-en esanetara jarri zen.
- d) Olerkari handia izan zen.

9. Lehenengo euskal prosa liburua


- a) Etxeparek idatzi zuen.
- b) Ama Birjinari buruzkoa da.
- c) Bibliaren itzuipea da.
- d) XVI. mendearen hasieran argitaratu zen

10. Leizarraga eta Etxepare

- a) Lehen euskal testuen egile dira.
- b) Euskal erreformaren zutabe izan ziren.
- c) Euskal olerki eta prosaren aitzindari dira
- d) Gure lehen bi bertsolari handienak dira.

4. LAPURTERA

Euskal literaturaren historian garrantzi oso handia duen euskalki hau txikia da, ordea, hedaduraz nola hiztun kopuruari dagokionez: 25.000 inguru dira gaur egun lapurteraz mintzo diren euskaldunak. Izatez, Lapurdin gutxi gora-behera 40.000 bizilagun euskaldun daude, baina hauetatik 15.000 inguruk nafarrera beherearen moldez hitz egiten dute. Bere aldetik, lapurtera Nafarroako iparraldean ere hitz egiten da, Urdazubi eta Zugarramurdin, hain zuzen.



4.1. Berezitasun fonetiko-fonologikoak

Bokalak

Lapurterak, hegoaldeko euskalkien aldean, fenomeno bokaliko gutxi du. Bizkaieraz edo gipuzkeraz ez bezala, bokalak azaltzen direneko testuinguruetan, esaterako diptongoak, hiatusak, bokal elkarketak eta, aldaketa gutxi gertatzen da.

Diptongoak (*ai, ei, oi, au, eu*)

Lapurteraz, aspirazioaren ondorioz, hainbat diptongo bi silabatan ebakitzen dira: *behi*, *ehun*...

Arruntagoa den *ei* diptongoak *oi* forma erakuts dezake lapurteraz: *zoin*, *hogoi*...

Bokal alternantziak

Lapurteraz ugariak dira bokal alternantziak. Horrela, o azal daiteke e-ren tokian: *zonbait*. Berdin, u o-ren tokian: *ungi*, *hunek*

Bokal galtzeak

Lapurteraren ezaugarria da hitz batzuetako azken bokala galtzea: *balios*, *ausart*.

Honen ondorioz, hitz bukaeran geratzen den kontsonantea ahoskabe edo gor bilaka daiteke: *berant* (*berandu*)

Bokal gehiketak

Kontsonante bikote batzuk hautsiz, gehituriko bokal bat ageri da zenbait hitzetan: *forogatu* (*frogatu*), *sobera*, *libera*

Kontsonanteak

Herskariak

Euskalki honetan, / ostein *k* herskariaren ordeztu aldaki ahostuna ager daiteke: *elgar*, *hilgo*
Euskalkiaren ezaugarri bereizgarria da, aldiz, herskari ahoskabe hasperendunak edukitzea
da (*ph*, *th*, *kh*) zenbait testuingurutan: hitz hasieran, bokal edo diptongo baten ostein eta
r, *l* eta *n*-ren ondoren.

- Hitz hasieran: *phago*, *khausitu*, *thoratu*.

- Bokal edo diptongo ostein: *aphal*, *zakhur*, *aiphatu*.

- *l*, *r*, *n* ondoren: *ilkhi*, *artha*, *onthasun*.

Herskari ahostuna arrunta den testuinguru batzuetan gorra entzun daiteke: *onthu*.

Txistukariak (s, z, x/ts, tz, tx)

Hitz hasieran igurzkariak (s, z, x) ugariagoak dira afrikatua (tx) baino: *zakurra*, *xoria*.

Dardarkariak (r/rr)

Frantsesaren eraginez lapurtera mintzatuan asko aldatu da dardarkarien ebakitze modua.

/ j / fonema

Fonema honek [y] soinua du lapurteraz; "iota" ahoskatzen da letra hau, gaurko euskara
batuan bezala:

Jainkoaren (*Yainkoaren*)

jokatu (*yokhatu*)

juntatu (*yuntatu*)

Aspirazioa

Lapurteraz /h/ fonemak aspirazioa adierazten du, honako testuinguru hauetan azaltzen
delarik:

- Hitz hasieran: *hiri*, *herri*, *haitz*...

- Bokal artean: *ahul*...

- Diptongo eta bokal artean: *oihan*

- *r*, *l*, *n* -ren ondoren: *elhe*, *senhar*...

belharra *sorhoa* *anhitz*

bilhakatu *orhoitu* *onhets*

ilhuna

Nolanahi ere, lapurtera klasikoaren ezaugarria den soinu hasperenduna XIX. mendetik
aurrera galduz joan da; egungo lapurtera mintzatua ez dator eredu klasikoarekin bat.

Bustidura

Berezko bustidura urria da lapurteraz; in, il multzoak ez dira soinu bustiaz ebakitzen:
bainan, *jakina*, *ordaina*, *mila*, *hila*.

Gehienetan, bustidurak balio adierazkorra du euskalki honetan, hau da, berebiziko
esanahi bat: *axala*, *gutti*, *ttipi*.

4.2. BEREZITASUN MORFOLOGIKOAK

Deklinabidea

Ergatibo edo Nork kasuaren pluralerako hondarkia e-z bukatutako hitz bati eranstea *e*
bakar bat agertzen da sarri:

semek (*semeek*).

Datiboan, hots, Nori kasuko pluralaren hondarkiak *-er* edo *-eri* izan daitezke, *-ei-ren* ondoan:

eskaldunei baina heier
soldadoer
batzuer

Lapurteraz ablatibo pluralak marka zaharra erakusten du: *-etarik*

lagunetank
latzetarik

Halaber, *-tarik* atzizkia izan dezakete erakusleek: *hortarik, hetarik*.

Adiatiboan edo Nora kasuan *-rat* da erlazio atzizkia:

gerlarat *tokirat*
hunat *galtzerat*

Bizidunekiko deklinabidean *-gan* artizkiaren ondoan *baitan* ere azaltzen da:

gugana edo *gure baitara*
zuganik edo *zure baitarik*

Hala ere, bizidunei dagokien atzizkia ez da beti azaltzen:

Hetarik anitzak elgarretarat biltzen ziren.

Izenordainak

Izenordainetan forma indartu bereziak ditu:

<i>nihaur, neror</i>	<i>nihaurrek, nerorrek</i>
<i>hihaur, heror</i>	<i>hihaurrek, herorrek</i>
<i>beraur</i>	<i>beraurrek</i>
<i>guhaur, geror</i>	<i>guhaurek, gerorrek</i>
<i>zuhaur, zerori</i>	<i>zuhaurek, zerorrek</i>
<i>zuihauek, zerok</i>	<i>zuihauek</i>

Bestalde, aipagarria da *nihor* (inor) izenordaina ere; baita izenordain gisako bertze.

Zenbatzaileak

Zenbatzaileetan ere badu berezitasunik lapurterak:

hirur, laur, eredu zaharrari jarraiki
bortz
hogoi, aldaketa fonetikoaren eraginez.

Hauen eratorrietan ere azaltzen da berezitasuna:

hamahirur gizonek

Bestalde, asko zenbatzaile zehaztugabeak izenaren aurreko kokagunea har dezake: *asko herri*

halaber, aipagarria da *guzi* formako zenbatzailea

Aditzondoak

Sail honetan, hona lapurteraren ezaugarri direnak:

nehoiz (inoiz)
nehon (inon)
nehola (inola)

Galdetzaileak

Zerentzat galdetzaileak zertako edo zertarako-ren esanahia du:
Zerentzat ekartzen duzue?

Atzizkiak

Galdetzailerik ez duen galdera perpausek *-a* har dezakete:

Nik dakita zure lagunen berri?

Zertako, zergatik galdetzaileen erantzunerako *-kotz* darabil, *-ko* ren orde:

Elgarrekin bizitzekotz

Aditza

Hona lapurterazko adizki arruntenen laukitxoa:

Oraina				Iragana			
NOR			NORK	NOR			NORK
<i>naiz</i>	<i>dut</i>	/	<i>ditut</i>	<i>nintzen</i>	<i>nuen</i>	/	<i>nituen</i>
<i>da</i>	<i>du</i>	/	<i>ditu</i>	<i>zen</i>	<i>zuen</i>	/	<i>zituen</i>
<i>gare</i>	<i>dugu</i>	/	<i>ditugu</i>	<i>ginen</i>	<i>ginuen</i>	/	<i>ginnituen</i>
<i>zare</i>	<i>duzu</i>	/	<i>dituzu</i>	<i>zinen</i>	<i>zinuen</i>	/	<i>zinituen</i>
<i>zarete</i>	<i>duzue</i>	/	<i>dituzue</i>	<i>zineten</i>	<i>zinuten</i>	/	<i>zinituzten</i>
<i>dire</i>	<i>dute</i>	/	<i>dituzte</i>	<i>ziren</i>	<i>zuten</i>	/	<i>zituzten</i>

Beste aditz ezaugarri batzuk:

Aspektu ez-perfektuaren marka *-ten* denean, *-iten* aldakia ateratzen da, *-n* z bukatutako aditz oinetan:

iragaiten, erraiten, egoiten, edireiten

Gertakizuneko aspektu marka *-(r)en* ere izan daiteke:

izanen *ikusiren*
eginen *arnegaturen*
jakinen

4.3. Berezitasun sintaktikoak

- Hainbat zenbatzaile zehaztugabe izenaren ezkerretan zein eskubitara joan daitezke:
asko, hainitz (anitz), franko/frango, deus, zenbait/zonbait, sobera...

Frango apezen begitarteak...

Asko euskaldun joan izan dira...

Egun, agian, harrigarri gertatzen zaizkigun esaldiak dira honakook; hala ere jakin behar genuke Hegoaldean ere, duela ez asko (XIX. mendean, zehazki), horrelakorik ezagutu dela. Agirre Asteasukoarenak dira, esaterako: "*asco becatu*", "*asco irudipen*" etab.

- Nominalizaturik datorren aditzaren objektua edutezko (NOREN) genitiboan doa. Hegoaldean, absolutuan (NOR) ematen da:

lagunen ikustera noa
liburuen erosteko ekarri du dirua

- Galde perpausetan, eta BAI/EZ erako galderetan, intonazio bereziaz gain, aditz jokatuari -a gehitzen zaio. Nafarroa Beherean gertatzen da, batez ere, honela.

nahi duia? (nahi (al) du?)
etorri dea? (etorri (al) da?)

- Esaldiaren ordenari buruz, Iparraldean askatasun handiagoz jokatzeko da. Hegoaldean guztiz ohigabeak, eta askotan arraro ere bai, diren esaldiak aski arruntak gertatzen dira:

Baina zen asmo giristinokoa. Zen apeza.

Aditz laguntzailea nagusiaren aurrera pasatzeko ohitura ere bada. Balio enfatikoa edo, emateko erabiltzen da:

jaun horrek du ikusi
nik nuen segurtatu behar

- **ere**-ren erabileran mendebaldeko euskalkietan ongi ematen ez duten moduko esaldiak entzun ahal ditzakegu:

Juaiten ere zen Billabordizeco beilarat.
Orai ez da orraztatzen ere.
Baziren gizonak, eta ere haurrak.

- Zehargalderak osatzerakoan, -enen(t)z erlazio atzizkia sarritan erabiltzen da:

beha ea nehor ageri dene(n)(t)z
ez dakit eia jinen dene(t)z

- Aditza era jokatuagabean markatuz egiten den erlatiboazko esaldi moldea aipagarria da benetan:

*Atzo **egin** bileran.... // egindako*
*menditik **ekarri** loreak..... // ekarritako*

- Perpaus kausalak osatzeko, hainbat egitura propio:

-ze(r)en (eta)... bait-/-(e)n
*Ez da jinen **zeren** eritu **baita***

- lako(tz)

- ezen hitza sarritan kausal azaltzaile edo esplikatzaile gisa erabiltzen da:

ez dut ukatzen ahal, ezen ikusi nu

- Moduzkoak osatzeko: -ki (ibilki, jakinki...)

Alemanen basakerien berri jakinki...
...biak adin berekoak izanki

ARIKETA OROKORRA

Irakurri ondoko testua, bukaerako galderei erantzunez:

Denbora hartan Carlos bortzgarrena jarri zen Ferdinan zenaren ordain. Erresumaz kanpo asko lekuetan bazuen gerla eta erresuman berean ere asko herri baziren libertate zaharra armak eskuan galdatzen zutenak. Zuhutziak manatzen zion, beraz, Carlosi tropa segurrak han-hemen atxik zitzaizkion aitzindari segurren pean.

Naierako dukia tropa hetarik baten aitzindari zen. Egun batez gorterat heldu dire Napoleseko armadaren berriak eta jakiten dute Loiolako semek han indar handiak egiten dituztela. Iñazio. orduan, bere bizi funtsgabekoaz ahalgetzen da eta bere osaba Naierako dukia otoizten du zonbait soldado eman ditzon gerlarat heiekin juaiteko. Gerlarat juanez, gerlan bere indarra erakutsiz nahi luke Iñaziok maite duenare bihotza hobeki atzeman. Oseba jaunak kargu handi bat emaiten dio bere armadan eta Iñazio urruntzen da gortetik garaitzari itzultzekotan. Hogoi eta sei urte zituen. Egun hetan, kastilanoak Bizkaian sarturik Naieraz nagusitzen dire. Ondotik, badoakote Naierako dukia eta Naiera setiuan ezartzen du. Berekin du Iñazio. Kastilanoak ez dire nihoren beldur; jan-edana badute ausarki; luze jua behar du setioak.

Zer gizon den han du erakusten Iñaziok. Egun guzietako gudu eta guduxketan Iñazio beti barne. Iñazio beti buruan. Armada guzian ez da nihor ezpata hark bezala dabilanik; nihor ez da kuiraiez, jakitatez, indarrez hari hurbiltzeko denik. Azkenean. soldadoer erraiten diote etorri dela hirian sartzeko orena. Bere hitzaz berotzen ditu, sutatzen ditu, badoa bera aitzin-aitzinean murrailar gora lehen igaiten da eta hiria hartzen du. Bitoriari darraikon saria uzten du bere soldadoer eta armada guziak miresten du haren bortiztasuna guduan, haren jenerostasuna bitorian. Iñazio Loiolakoari ez zitzaizkon guti eder gerlari lagunetarik ukaitenzituen laudorioak. Gauza batez zen bakarrik kexu; bere bitoriaren kopletan ezartzeaz maite zuenari igortzeko. Hala egiten ohi zuten denbora hartako gerlariek.

Kastillan bakeak egin eta Iñazio zonbait egunen itzuli zen gorterat, non ez bait zuen orotarik agurrik eta agurrik baizik ukan.

1521ean, maiatzeko egun batez, ximixtaren pare iragaiten da zaldidun bat Iruñako karriketan eta gobernadorearen etxean sartzen. Zaldidunaren ahotik non zer berri den jakin duenean, gobernadoreak xixtu batez ekar arazten du mutil bat, mezu batzu emaiten diotza eta erraiten dio:

- Ez, otoi, denborarik gal!

Eta kadera batean jartzen da, ukondoak mahain baten gainean, eskuak buruari lotuak, buruan mila gogoeta. Horrela dagoelarik, norbaitek emeki-emeki idekitzen du ganbarako atea, ganbaran sartzen da eta aitzinatzen gobernadorearen ondoraino. Gobernadorea beti bere buruari lotua zagon eta nihorri ez zen ohartzen.

- Jauna -erraiten dio Iñaziok- deitu nauzu, hura ni.

- Ontsa da -ihardesten dio Naierako dukiak, lo dorpe batetatik ateratzen belitz bezala. Gauza batzuk baditut zuri erran beharrak. Jar zaite apur bat, iloba maitea. Badakizu gure erregeak Noionan zer hitzeman zuen. Hitzeman zuen Nafarroa sei hilabeteren buruan itzuliko zuela bere nausi zuzenari Henri Albretakoari. Gure erregeak hitza jan du. Bainan ene iloba maitea, gure jendekiak erregerentzat ixurtzen du odola errege makur ala zuzen dabilan behatu gabe. Orena huna etorria Espainiari, Frantziari eta erregeri erakusteko zure arbasoen odolekoa zarela.

- Jauna -erraiten dio bizi-bizia Iñaziok-, ez dut gogorik erregeren zerbitzatzea baizik.

- Zure ahotik hori nahi nuen entzun, iloba maitea; doi doia berria ukan dut frantses armada hurbiltzen ari dela Cunde Lesparre aitzindari, Henri Albretekoak jakinik Nafarroko tropak oraino Kastillan direla, armada bat igortzen du gure kontra bere ondoriotasunean sartzeko. Bada, huna nola iduritu zaitan behar dugula jokatu. Ni Kastillarat janean naiz sokorri bila. Arte huntan gazteluko gakoak zuri uzten darozkizut; gazteluko eta hiriko aintzindariak algar adituko duzue; heier ere erranen diotet gauzak nola diren. Burgoserat janean naiz, don Frederiki hartuko diotzat bere troparik hoberenak eta denborarik galdu gabe hunat ekarriko. Orai, beraz, iloba maitea, zuri nago, eta esperantza dut naieran izan zarena izanen zarela Iruñen.

- Oseba Jauna. Naieran ez nuen egin behar nuena baizik, orobat eginen dut Iruñen eta ezpata dudano ez naute frantsesek gibelaraziko.

Oseba-ilobak horrela mintzo direlarik, mutil batek mezutzen dio Gobernadoreari hiriko Jaunek sala handian igurikatzen dutela. Gobernadorea sartzen da salan, Iñazio eskutik. Biltzarrean erraiten dio etsaia nola hurbiltzen ari den eta etsaiaren kontra zer xede hartu duen. Hitz hautaz akabatzen du:

- Jaunak, fida naiz Iñazioz egin dudana hautua ez duzuela gaitzetsiko. Biltzarre guziak ihardesten dio:

- Gobernadore jauna, ez zinenzaken hauta hoberik egin.

Handik bi oren gabe Gobernadorean Burgoseko bidean zen.

(F. LAPHITZ. Bi saindu eskualdunen bizia, 1867).

5. AXULAR ETA SARAKO ESKOLA

POLITIKA ETA ERLIJIOA NAHASIAN

1593an, erreformazaleen buru zen henri IV.ak kalbinista izateari uko egin eta katolizismora eman zuen urrats, Frantziako errege izateko bide bakarra horixe zuela ikusten baitzuen. Frantziarentzat oso aberats izango zen mende bati eman zitzaion hasiera horrela, XVII.ari hain zuzen.

Joana d'Albret erreginak eta honen lankide izan zen Leizarragak Euskal Herria erreformaren bidera eramateko ahaleginak porrot egin zuten, beraz, "Frantzia eta Nafarroako Errege" zen Henry IV.arekin, monarkia katolikoaren aldeko jarrerak irabazi zuen. Horrela bukatu ziren Frantzian, XVI. mendean hain eragin handia izan zuten erlijio gatazkak.

Gatazkak, dena den, gizarte bizietan gertatzen dira eta alderdi onik ere izaten dute. Gatazka horien azpitik, izan ere, gizatasun korronteak nabari daitezke, nork bere interesak aldeztuz eta herri proiektu berrien bila. Herriaren adierazpen kulturaletan ere horixe nabari da.

Errenazimendu garaiko baikortasuna antzeman genuen Etxepareren "dantzarako" deian, inprentaren bidez euskara mundu guztira hedatzeko deia. Hor dugu Leizarraga ere, euskal itzulpen lanean erraldoia, erlijio eta politika gatazka haiek medio.

ERREFORMA ETA KONTRARREFORMA

Erreformatik kontrarreforma eragin zuen. Luterok eta beste erreformazaleek eskatzen zituzten aldaketak elizatik atera gabe, barrutik, egin nahi zituzten beste batzuek. Horretarako deitu zuen eliza katolikoak Trentoko Kontzilioa edo bilera. Elizaren dotrina birgogoratzeaz gain, elizgizonen prestaketa egokia bideratzea izan zen kontzilio haren helburuetako bat.

Loiolako Inaziok bere jesuitakideen prestakuntza eta menpekotasuna osoa eskaini zion Aita Santuari, elizak behar zuen aldaketa eta indarberritzea ziurtatzeko. Euskaraz mende hauetan egindako hainbat lan ezin uler daiteke esan ditugunak kontutan hartu gabe.

Frantzia izan zen XVII eta XVIII. mendearen hasieran Europako politika eta kulturaren gidari. Espainian agintzen zuen Austria dinastiaren beheraldiarekin batera Frantziaren indarra gero eta handiagoa da, eta horren eragina antzeman daiteke Iparraldean ere. Lapurdi dugu euskal literaturaren gun e indartsuena mende honetan.

Aurreko mendean Etxeparek eta Leizarragak egin zuten lan handiak ez zuen jarraipenik izan. Nahiko isolatuak ageri zaizkigu bai bata eta bai bestea. "Euskara inprimatzeko" Etxeparek egin zuen deiak ia mende bat geroago izan zuen erantzun betea eta Leizarragak erreformaren alde egin zuen apustuak ez zuen arrakastarik lortu.

LAPURDIKO ESKOLA

Lapurdin, oster, lan talde bat ari da euskal lanetan mendearen hasiera hartan. Bi arrazoi nagusi eman daitezke euskararen loraldi hau ulertzeko:

Trentoko kontzilioak markatutako bidetik, apaiz eta fraileek herritarren kristau hezieraren bidea hartu zuen. 1599an Bertrand de Etxaus sartzen da Baionan apezpiku. Henry IV.a errege berriaren lagun genuen Bertrand. Apezpiku honen agintepean, besteak beste, hau zegoen Materre. Frantsesa izanik, euskara ondo ikasi eta Doctrina Christiana izenarekin idatzi zuen liburu bat. Helburutzat, kristau ikasbidea emateaz gain, "euskaraz nola idatzi eta irakurri

erakustea" ere baduela dio berak. Badakigu Axularrekin ikasi zuela euskara, eta honen oniritziaz argitaratu zuen bere lan hori 1617an.

Asko dira "Sarako eskola" deitzen den talde honen inguruan ari diren idazleak, eta ez mendearen hasieran bakarrik. Apaiz eta ordena ezberdinetako fraileak ari dira hor, euskaraz kristau heziera eman nahirik.

Frantziaren gorakada zela eta, bestalde batez ere Lapurdiko itsasertzeko herriek sekulako mugimendua zuten, itsas merkatalgoari esker. Euskaldun askok lortu zuen lanbidea arrantzuari ezezik merkataritza untzietan ere. Horrela, ekonomiaren gorakadak ekarri ohi duen kultur egarria sartu zen Iparraldean. Giro bizi eta mugitu horretan gustura ari dira Axular eta bere lagunak.

Lapurdiko eskola ere izenda dezakegun talde honetan, Haranburu, Argainarats, Etxeberri Ziburukoa eta, beste guztien gainera, Axular nabarmen da. Geroago jardungo dugu Axularrez, besteen zenbait berri eman ondoren.

Ohargarria da idazle hauetako askok bertsoz idazteko duen joera. Etxeberri, adibidez, euskaldunek bertsoetarako duten zaletasunean oinarritzen da bere irakaspenak bertsoan emateko. Argainarats-ek ere bertsoan idatzi zuen bere "Devoten breviarioa". Mendearen bigarren zatian Gazteluzarrek eta Harizmendik ere bertsoan idatzi zuten. Edukina, beti ere, kristau ikasbidea da.

Ez da harritzekoa, literaturaren hastapenetan ahozko tradizioz bizi den herriari bertso molde baliatuz irakasten saiatzea. Gauza bera gertatu da herri guztietan, alfabetatuak izan baino lehen.

Aipatutako idazleetatik bi nabarmendu nahi ditugu, batipat: Etxeberri eta Gazteluzar, biak ziburutarak:

- J. Etxeberri apaizak hiru liburu eman zituen argitara eta hirurak bertsoan: Manual Debozionala (1627), Noelak (Noel kantak, hots, Gabon kantak) Elizara erabiltzeko liburua (1636).

Bere garaikideek oso goratzen zuten Etxeberriren jakituria. Bertso oparo eta hizkuntza aberatsez idatzi zuen, batzuetan gutxiegi landutakoetan, baina kontutuan izan behar duzu Ziburu eta Donibaneko arrantzaleak izango zituela gogotan horiek idazterakoan.

Mendearen bigarren aldia (1686) idatzi zuen, bertsoz honek ere, Equia catholicac salvamendu eternalaren equiteco necessario direnak Gazteluzarrek. Liburu ederra dela dio Luis Villasantek. Bere herrikide Etxeberriren lanarekin pareka badaiteke ere, honena astunagoa eta landuagoa, garbiagoa eta erritmo hobeduna dela dio lafitek, Iparraldeko ikertzaile ospetsuak.

Hona Akesolok dioena ere ziburutar bi olerkari buruz: "Ziburun jaio eta Ziburun bizi, bazekien Etxeberri gure itsas bazterreko marinelen berri. Bertsozale eta kantazale omen ziren, eta haien egarria ase nahi du Etxeberri, euskarazko kantagaiak haientzat emanez.

Gazteluzar jesuitari, Etxeberriren ondoko beste olerkari txukunari, berdintsu gertatu zitzaion. Gure marinelek atsegin omen zuten, itsasoan zebiltzanetan, kantuz aritzea; eta euskarazko kantarik ezean, latinezko eliz kantuetara jotzen omen zuten. Eta zer egin zuen Gazteluzarrek? Gure itsasgizonek kantu berak euskaraz emanez atsegin gehiago izango zutela eta, euskaraz jarri zituen latinezkoen neurri berdintsuan, beren itsasoko orduetan kanta zitzaten.

Ikusten denez, liburuon edukinek erlijioarekin zerikusi zuzena dute. Normala da, gainera, horrela izatea kulturaz jantziak apaiz eta fraileak baitziren garai haietan. Gizartean, itzal handia zuten erlijioak eta elizak. Bada, hala ere, 1677an Baionan argitara emandako liburu berezi bat.

Martin de Hoyarzabal-ek frantsesez idatzi zuenetik Pedro Detcheverry-k euskaratu zuena: Liburu hau da itsasoko nabigazionekoa. Itsas kapitain eta pilotoentzat gida izan nahi du. Nabarmena da mende honetan Lapurdiko idazleen nagusitasuna; lehen eman ditugu arrazoiak.

P. DAGERRE "AXULAR" (1556-1644)

Itzulpen eta abar, asko dira mende honetan prosaz idatzitako liburuak ere. Aipatu dugu lehen Materrek idatzia. Bat dugu, dena den, beste guztien gainetik nabarmentzen dena: Axular handiak idatzitako Gero.

Liburuaren sarrerako hitzetan Axularrek berak diosku nondik eta nola sortua den fruitu hori gorago aipatutakoekin bilduta zegoen egun batean gai hau erabili omen zuten beraien elkarriketan: zenbat kalte egiten duen gauzak gero egiteko uzteak. Gai hori garatuko zuen liburu bat idaztea komenigarria zela pentsatu eta Axular bera jo zutela denek egokientzat. Liburuak "Gomendiozko karta" bat du, lehenago aipatu dugun Bertrand de Etxaus-i zuzendua, eta irakurlearentzat hitzaurre bat.

Axular, Bertrand de Etxaus horren adiskide da eta horren bidez, baita Henry IV.ak babestua ere. Ondo datorkigu hori jakitea bere bizitzako arazo bati argi egiteko balio baitigu. Sarako erretore izendatu zuen Bertrand-ek. Garai hartan Espainia eta Frantziaren arteko harremanak ez ziren oso onak. Beste apaiz lehiakide batek espainiar zelako ezin zuela Frantziako herri batean kargudun izan egotzi zion. Erregeak Axularren aldeko jarrera hartu zuen nafar bat bere agintepeko eremuetan inoiz ez zitekeela atzerritar izan argudiatuz. Axularrek ez zuen traba txikienik ere izan bere lanean.

Hegoaldeko Nafarroan, Dantzarinean kendu berri duten mugatik oso gertu, Urdazubi herrian sortu zen Pedro Dagerre Azpilikueta. Bere jaiotetxearen izenaz, Axular alegia, ezagutzen dugu, Euskal herrian beste asko bezala. Sara-k, Ainhua-k, Zugarramurdi-k, Urdazubi-k eskualde bat osatzen zuten eta dute, sasimugak gorabehera.

GERO, AXULARREN MAISULANA

"Hizkuntza eta herri denetan izaten dira maisulanak deitzen diren horietakoak, eredu eta ispilutzat hartzen direnak, alegia. Eta herri horietako semeak obra hauetan eskolatzen dira, obra hauek hartzen dituzte iturburu bezala, bai herriaren izpiritua eta arima norbereganatzeko, eta bai hizkuntza sustraitik menderatu eta sakonki ezagutzeko ere. Ingelesek, esate baterako, hor dute Shakespeare, italiarrek Dante e.a."

Zer behar du liburu batek maisulantzat hartua izan dadin? Villasante literatur kritikoak bost baldintza eskatzen ditu: aspalditasuna, originaltasuna, mami baliatsua izatea, forma ederrez azaldua egotea eta hizkuntzaren aldetik ere eredu izatea. Baldintza guzti horiek betetzen dituela Axularren Gerok frogatzen du. Villasantek honela bukatzen du bere ikerketa. "Gure Gero zinetako (benetako) maisulana da, beraz, bai azalez eta bai mamiz, betiereko balioa duten horietakoa, balio iraunkorra dutenetakoa".

Ez da harritzekoa, euskara batuaren urratsak ematen ari garen hauetan euskal idazle askok Axularren eredua jarraitu nahi izatea, bere garaian eta geroago ere gure idazleen artean gailurrean idazletzat aitortu baitute.

AUTOEBALUAKETA

Egia ala **Gezurra** den esan:


		Lapurdin ez da behe nafarreraz mintzatzen
		Lapurteraz NOR eta NORK pluralak -ak dira
		Lapurteraz bustidura automatikoa arrunta da
		Aditz oina ondo erabiltzen da lapurteraz
		/ j / -ren ahoskera lapurteraz [y] da, (=yeso)
		Hitz hasieran lapurteraz tx- da erabiliene, (txoko, txerri..)
		Lapurteraz NORI kasuarekiko komunztadura ez da beti egiten aditzetan
		Lapurdy osoan aspirazioa sendo gordetzen da
		Lapurteraz era partikularen erabilera ez da Hegoaldean bezalakoa
		Lapurteraz aditz laguntzailea aurrean ere ageri da

Esan **egia** ala **gezurra** den:

1. Bertrand de Etxausek lan handia egin zuen kristau hezibidea euskaraz eman zedin.
2. Axular da, mende horretan, ia euskal idazle bakarra
3. Sarako eskola edo Lapurdiko eskola gauza bera dira
4. Axularren Gero maisulana da
5. Erlijio gaiez aparte ez dago mende honetan libururik
6. Axularrek ez zuen eraginik izan ondorengo euskal idazleetan
7. Euskal literatura aberatsagoa da mende honetan Iparraldean Hegoaldean baino
8. Euskara batuan idatzi zuen Axularrek
9. Joanes Etxeberri Ziburukoak bertsoz idatzi zituen bere lanak
10. Mende honetan Lapurdiko kostaldeko herriek susperraldi nabaria izan zuten

6. ZUBERERA

Euskal herrialderik txikiena izanik hiztunez ere murriztena da: 16.000ren bat bizilagun ditu, hauetatik erdiak inguru euskaldunak. Edozein modutan ere, berezia da euskalki honen egoera bere mugetatik iparralderantz hedatzen baita, Biarno aldera.



6.1. Berezitasun fonetiko-fonologikoak

BOKALAK

Zubererak sei bokal ditu a, e, i, o, u eta ü. Azken bokal hau ez da frantsesarena bezalakoa, zubereraren bokal berezi bat baizik:

dügü, güzia

Diptongoak

Euskarak ohikoak dituen beheranzko diptongoez gainera, zubereraz oso hedatuak dira goranzko diptongoak (alderantzizkoak), hau da, *ia, ie, io, ua, ue* eta *ui*:

die (*dute*)
zin zian (*zuen*)

Beheranzkoetan ere bada aldaketa aipagarriarik:

ai > e: bena (*baino*), *beno* (*baino*), *apez*
ei: senargeia (*senargaia*), *beit zen* (*bait zen*)
a: hanbat

Hiatusak (*ia, ie, io, ua, ue*)

Bi silabatan ahoskatzen diren hauen bitartean kontsonante bat azal daiteke hitz batzuetan.
mintzajea, zubertea

Bokal elkarketak

Bokalez amaitzen diren hitzek, **a** mugatzailearekin edo atzizki batten bokalarekin elkartzean zenbait aldaketa izan dezakete:

$e + a > ia$: *sem**ia***, *artald**ia***

$o + a > ua$: *soh**ua*** (soroa), *handik**ua***

$u + a > ia$: *abent**ia*** (abendua), *famat**ia*** (famatua), *gobern**ia***

Bokal alternantziak

Bokal aldaketak oso ugariak dira zubereraz

Euskalki honetan o-ren ordeaz, u entzun daiteke:

zunbait (zonbait), *kuntatu*, *zuinen* (zoinen)

Bestalde, u > ü bihurtzen da r eta s aurrean ezik:

dügü baina ikusten

Hala ere: *üskara*

KONTSONANTEAK

Herkariak (p, t, k/b, d, g)

Maiz fonema gorrak edo ahoskabeak erakusten ditu zubererak *n* ondoan: *t* eta *k*.

Adibidez:

*abent**ia*** (abendua), *üntu* (ondu) *popüliarentako*

mente, *ürrüntik*

hunki (ongi)

Bestalde, *l*-ren ondoan leherkari ozena azaltzen da:

*el**gar*** (elkar)

Txistukariak (s, z, x/ts, tz, tx)

Soinu afrikatuaren ordeaz (ts, tz, tx) frikaria azaltzen da testuinguru batzuetan:

euskalzale

Dardarkariak (r/rr)

Darkarkari xamurra (*r*) ez da ahoskatzen bi bokalen artean:

*giala**ik*** (giralarik)

Dardarkari azkarra, ordea, ahoskatzen da:

herriko, *eijerrena* (ederrena)

Aspirazioa

Zubereraz, iparraldeko beste euskalkietan bezala, aspirazioa egiten da hala behar duten hitzetan:

hütsa, *hori*, *hegoa*.....

Baita berez beharko ez luketen hiztz batzuetan ere:

huna (ona)

Iparraldeko euskalkiei dagokien beste ezaugarri bat, kontsonante hasperenduanak (*ph, th, kh, nh, lh, rh*):

<i>aphez</i>	<i>urthe</i>	<i>khanta</i>
<i>berphiztea</i>	<i>güthüna</i>	<i>ukhan</i>
<i>inhurn</i>	<i>berherziki</i>	

Bustidura

Zubereraz in ñ ahoskatzen da, hots, soinu bustia:
gañetik

Berdin *ll* multzoa ere:
abantalla, milla

Bizkaieraz bezala *-itz-* multzoak soinu bustia har dezake, hots, tx:
bakhotxa, hainitx

Azkenik bada zubereaz bustidura berezi bat:
ejer (eder)

Kontsonante alternantziak

ld multzoa / bihurtzen da: *balin*

6.2. Berezitasun morfologikoak

Deklinabidea

Berezitasun fonetikoetan ikusi dugunez Inesibo kasuari dagokion atzizkia, kontsonantez bukatutako hitzetan *-in* bilaka daiteke:

lanin (lanean), batin (batean)

Soziatibo kasuaren erlazio atzizkiak *-ki* edo *-kila* izan daiteke:

hareki
algarrekila

Datiboan edo Nori kasuan, pluraleko marka *-eri* edo *-er*:

gizoneri errelijioner

Adlatiboan edo Nora kasuan ere marka berezi bat ere erakusten du zubererak, *-lat* edo *-la* kasu batzuetan *-a* mugatzailea ere hartzen duelarik:

etxera baina inurritegilat
jauregiala

-rik erlazio atzizki zaharra azaltzen da ohikoagoa edo, den *-tik*-en orde

horietarik, aitaren ganik

Atzizkiak

Zubererak *-tarzun* atzizkia du, beste euskalkietako *-tasun*-en orde:

batarzüna, nurtarzüna, aberastarzüna

Aditza

Hona zubererazko adizki arruntenen laukitxoak:

Oraina				Iragana			
NOR		NORK		NOR		NORK	
naiz	düt	/	dütüt	nintzan	nian	/	nütian
da	dü	/	dütü	zen	zian	/	zütian
gare	dügü	/	dütügü	ginen	günian	/	güntian
zare	düzu	/	dütüzü	zinen	zünian	/	züntian
zarete	düzie	/	dütüzie	zinien	zünien	/	züntien
dire	die	/	dütie	ziren	zien	/	zütien

Beste aditz ezaugarri batzuk:

Aspektu ez-perfektuaren marka *-ten* iazan daiteke, *-tzen*-en ordeztuz:
ekarten, aitxaten, irakurten, igorten, jalkiten

Bestalde **-n-z** bukatutako aditz oinei aspektu ez-perfektuaren marka ipintzean *-iten* amaiera hartzen dute:
izaiten, emaiten, joaiten, erraiten

Gertakizuneko aspektua adierazteko marka bat baino gehiago ditu zubererak *-ren* eta *-ko* emanen, *eroriren, eginen, bakartüren*

Bi aspektu markak elkarren gainean ere azal daitezke:
bizirenko

6.3. Berezitasun sintaktikoak

Zubereraz Nori marka ez da beti adizkian azaltzen, hots, perpausean, Nori sintagma bat egon arren, adizkia nor-nork erakoa izan daiteke:
literatüran lotu zen (zitzaion)

Iparraldeko euskalkien tradizioan, aditzak *-t(z)e-* atzizkia duenean, hots, aditza nominalizaturik dagoenean, zeren galdetzailea agertzen da:
zerbaiten egitera (zebait egitera)

Bait aurrizkiak kausazkoa baino zentzu zabalagoa du, moduzkoa askotan:
Erromantikoen bürietatik bait zen....
(zelarik, zenez gero...)

Aditza izenlagun denean ez du *-riko, -tako* bukaerarik erakusten:
idazleak egin lana (egindako)

ARIKETA

Azter ezazu hurrengo testua eta bete bukaerako hizkuntz ezaugarriei buruzko laukia.

XEHETARZÜN ZUNBAIT HOBEKI EZAGÜTZEKOTAN
Pastuala

Egün, aipatürrik date A. Oihenart, jakitate handikua, gizon entzüna, zuinen pazentziak, korajiak, gogo eta bihotzaren zabalak, üztiak estonatzan beikütü orano, hain beit zen abantzian ordüko.

Legegizon zen Bordeleko kortian eta Pauekuan ere bai. Popülia, jente xehia süstengatü zütian trebetarzüneki, tai gabe, begi uneki.

Egiazko gizon bat zen, beti ikerka, ardüra kurri. Huna zer emaiten zian hartaz P. Lafitte zenak -nahiz gihaurk hitz bakantt zunbait ezartez, hantxe-hortxe-. “Allande Oihenart ez zen Zindik (eta legegizon) ahin bat. Beti süstengatü zütian azkarki, bortizki, herrikuak eta borrokatü gogorki züzen gaberan kuntra agitzen bazien herriaren gobernian. Ahalak oro lüzak egin zütian Protestanten bestiak bezalakotü beharrez. Bürü egin zian De Treville ürgüülütsian eta beste haren kolkoko gizoneri. Bere herritarrak lagüntü üken zütian beitzien Biarnes zunbait eta era Basa-Nabartar zunbait laker zirenak heien ehelegatzen. Egia erranez, artaldiak ere ebasten betzeitzen”.

Gure pastualak ürrüntik dütü ikus erazten A. Oihenart zenaren dohainak, bai eta ere bereziki haren obrak. Zeren eta bait zen jakintsün, aita familiako, obra egile. Ürrün ikusten zian. Guretakojarraikgarri.

Arra-har ditzagün P. Lafitten hitzak: “Oihenartek maite zian ere üskara. Anitx alkar izkiribatzen zien Alande eta haren adixkideiek, bereziki ordüko üskaltzale baziren. Sylvain Pouvreau bezala. Hareki, üskaltzale baziren eta üskal hitzez aipüz ari ziren. Bresetak ere untzen zütian üskaraz zeren eta nahi beit zian, haren xediaren arabera, probatu üskaraz beste zunbait mintzajetan bezala (eman dezagun frantsesa, italianua, espainia) ahal ziela egiten breset xüxenak, piko agitzen direnak”.

(A. AGERGARAI, Oihenart phastuala).

1. Protestanteak besteak bezalakoak bihurtzeko ahaleginetan
2. Goi mailako gertatzen direnak

FONETIKA	BOK.	
	KONTS.	
MORFOLOGIA	DEKL.	
	ADITZA	
JOSKERA		
LEXIKOA		

7. XVII MENDEA

IDAZLE ZUBEROTARRAK: OIHENART, TARTAS

ARNAUT OIHENART (1592-1667)

Zuberoako hiri nagusian, Maulen, jaio zen 1592 urtean. Ordura arte euskal idazle guztiak eliz gizonak izanik, Oihenart ageri da lehen euskal idazle apaiz ez dena.

Izan zuen, hala ere, goi mailako hezkuntza zabal eta sakona, gizon ikasia, letra gizona genuen eta, Bordeleko Unibertsitatean Zuzenbidea ikasten ihardun ondoren, postu garrantzitsuetan kokaturik ikusten dugu: lehenengo, Zuberoako sindiko edo diputatu; geroago, nafar aberats batekin ezkondu ondoren, Nafarroa Behereko Parlamentuko abokatu.

Historiagile bezala ospe handia lortu zuen, ikerkuntzari eman baitzion, liburategietako idazki zaharretan datu bila aritzeko zuen kemen eta zaletasunaren esker, batik bat. Haren ikerketen ondorioz latinez idatziriko liburu sakon eta zorrotza burutu zuen: Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitanicae. Liburua euskaldunen historia bat da, Nafarroari dagokionean bereziki, eta bere garaiko histori lan onenekin pareka daiteke. Hala ere, aipaturiko tituluak lehen urratsa besterik ez bide zuen izan behar, idazlearen asmoa Euskal Herriaren Historia zabal bat egiten zelarik; honen frogagarri dira argitara gabe, eskuizkribuetan utzi zituen hoge mila orrialdeak.

Euskarazko idazlanei dagokienean, bi obra utzi zizkigun, biak 1657an Parisen obra batean argitaratuak: Atsotitzak eta Oten gaztaroa neurtitzetan.

Lehen zatia 706 atsotitzen bilduma batek osatzen du, frantsesezko itzuipean eta Atsotitzen hurrenkina eranskinaz horniturik. Hauetako batzuk herri mailan bilduak dira; beste batzuk egileak beste bilduma batzuetatik hartu eta moldatuak, edo berak itzuliak.

Bigarrena poema edo neurtitzek betetzen dute. Obra honen tituluaren egilearen izena dago ezkutuan, hots, O(ihernart)en gaztaroa neurtitzetan. Hauxe da Zuberoako lehen idazlearen literatur lan bakarra, dena poesiakoa, eta berau aztertuko dugu.

Oten gaztaroa neurtitzetan

Oihenart poesia ikasia egiteko erabakiaz ageri zaigu. Bere poemak edo neurtitzak -hala bataiatu zituen berak-, herri poesigintzatik nahita bereizi gura ditu, eite ikasia, goi mailakoa emanez. Eite hori neurrian zein edukinean eman zion. Neurrian, herri metrikatik urrundu eta hamalaukoa edo sonetoa delakoa erabiliz; edukinean, herri xehearentzat ulergarri ez ziren kontzeptu, aipu eta erreferentziak jalgiz. Hau gutxi balitz, sarritan hiperbaton bortitza erabiltzen du.

Beraz, Oihenartek Etxepareren herritartasuna arbuiatu egiten zuen nolabait, gutxi batzuentzako poesia jasoa egin asmoz.

Erretorikaren erabilera oparoa eta egokia egiten du. Egitura zail eta bitxi zalea da, eta hiztegiaren joera garbizalea eta neologismozalea du.

Bere neurtitz gehienak amodiozkoak dira, hainbat emakumeren izenak agertzen direlarik poemen inspirazio gai. Banaka batzuk erlijiozkoak ditu (Jainkoazko Neurtitzak) eta beste zenbait norbaiten omenez edo norbaiti zuzenduak.



ULERMENA LANTZEN

1. Nongoa zen Oihenart? Non ikasi zuen?
2. Zer berezitasun aipa daiteke Oihenarti buruz?
3. Zeintzuk dira bere obrak?
4. Zein da bere neurtitz gehienen gaia?
5. Defini ezazu hitz gutxitan bere poesia.

ARGIA DARITZANARI

Gauik, egunik
ez dinat unik,
hireki ez baniz, Argia.
Hireki ez baniz,
itsu hutsa niz,
zeren bahihiz en'argia.

Hirekil'aldiz,
bederak'aldiz,
bazter lekutan baturik,
nonbait banago,
nun botzenago
ezi Errege gertaturik.

Lagun artean
hel nadinean,
elaketan, erogoan,
ez nun dostatzen,
ez nun mintzatzen,
hi beti, beti, haut gogoan

gauik 'gauek'
unik 'onik, atseginik'
en'argia 'nire argia'
hirekila 'hirekin'
aldiz 'berriz'
bederak'aldiz 'bakoitzean'

nun 'naun, naiz'
botzenago 'pozago'
hel nadinean 'nagoenean'
elaketan 'eleketan, hizketan'
erogoan 'zorakeriatan'
dostatzen 'jostatzen'

TESTUAREN INGURUAN

Gaia

Zein da irakurri ditugun ahapaldi horien gaia?

Idazlearen ikuspuntua

Poetak, bere sentimenduak adierazteko, zer jarrera hartzen du? Bere barne gogoetak dira ala norbaiti zuzenduak? Zein modutan?

Figura erretorikoak/ maila morfosintaktikoa

Egiten al du poetak hitz jokorik?

Lerro hasieran hitz batzuk errepikatzeari anafora deritzo. Ba al dago anaforarik ahapaldi horietan? Zer efektu lortzen du?

JUAN TARTAS

1610 urtean jaio zen. Zubererazko lehen obraren egilea dugu (Onsa hiltzeko bidia), euskalki hau beste toki batzuetako hizkerekin nahasian erabili bazuen ere.

Elizgizona zelarik, Arueko erretoretza izan zuen eta bere idaztankeran zein azalpenetan nolabait sermoilaritzaren iharduera eta arrazoitze prozedura nabari zaizkio.

Bi libururen egile da:

- Onsa hiltzeko bidia (1666)
- Arima penitentearen okupazione debotak (1672)

Onsa hiltzeko bidia

Liburuaren tesia hauxe da: ondo hiltzeko -Jainkoaren grazian, alegia-, biderik zuzenena bizitzan zehar heriotzeaz maiz oroitzea da.

Eruditoa da Tartas ere, Axular bezala; aipamen zein istorio ugariz baliatzen da bere tesia frogatzeko eta trebea da beraiekin argudiatzen eta bere alde erabiltzen; hala ere, Axular finezia eta oreka handiagoz azaltzen da; Tartas ez da hain sakona, indarririk badu ere.

Bere prosaren ezaugarri nagusia eten labur ugari erabiltzea da, komaz markaturik; etenaldi hauek bere idaztankerari halako modernotasun bat ematen diote, erritmo bizia lortuz.

Hona Onsa hiltzeko bidia-ren pasarte bat.

NOLA ONSA HILTZEKO BIDIA DEN HERIOAZ ORITZIA

Aesopus, espiritu alegera eta plazent hark, kondaatzen du ederki bere librian eta bere fabuletan, egun batez lehoina, bait da animal ororen erregia eta noblena, eritu zela eta zahartu, edo aumens egin ziala eriarena, eta, lezebarna baten zolara joanik, han zagoela heda-heda etzanik, noiz iratzarririk.

Lehoin hunen eritasunaren berria bertze animalek entzun zutenian, orok, nork bere aldian, bedera-bedera bere bisita eman zutela lehoin hari, eta oro joan zirela haren ikustera.

Zer uste duzu, lehoin hark zer finezia eta joko egiten ziala? Joan bezanbat hiltzen zutian oro, eta zuntzurretik loturik, odola orori edaten eta egoskiten; eta moien hartaz eri zela estakuria hartan, bere xilotik eta bere lezetik higitu gaberik, bonaxera egiten zian, eta bere denbora onsa eta alegeraki iragaiten, animale miserable haien odolaren despendioz.

Finalki zer heldu zen? Axeria, baita animale ororen finena, joan da bere tornian lehoin hunen bisitatzerara, eta bere erregiari bere eginbiden errendatzerara. Heldu denian leze eta xillo haren finira eta mugala, so bat eginik leze hari, ikusi ditu gaineti behera joan ziren animalien hatzak eta herexak, eta ez du ediren, ez ikusi, bat ere hatzik, ez herexarik, peti gora, lezezolatik gora itzultzen zenik. Hanbateki jujatu du zuhurki axeriak, leze hartrat joan ziren animaliak oro galdu eta peritu zirela, zeren ez bait zen bat ere goiti itzuli, ez bihurtu. Jujatu du, halaber, ez dela on eta segur leze hartan behera joaitia. Pensamendu hartan zagoela, noizbait hasi da lehoina mintzatzen, eta dio:

“Ma comere, sar zite, abanza zite; bertze orok zuk baizi ikusi nute neure ohian eta bisitatu neure eritasunian. Zuk ere ikus nezazu”. Axeriak arrapostu emaiten du ederki lehoinari, eta dio:

“Ene erregia, eri bazira, sendo zite ordu onian. Hementik zure ikustiaz kontent niz; ez naite haboro abantza. Bidia ikusten dut zugarat jiteko, baina ez dut ikusten biderik zugarat hunat jiteko. Jainkoa lagun dakizula, eta sendo zitzala. Zugarat jin direnak, jiteko balira, bat elitezu jin”.

Gisa hartan axeriak bere bizia salbatu zian eta itzi gibelerat.

Neure adeskidia, gure aitzinekoak oro joan dira, hil dira; gu ere hilen gira, eta gure ondokoak ere bai. Behin hil dira sekulakotz, bat ez da itzultzen herioaren xilotik eta hobetik. Behin hari, otoi gogoa emazu, ordian falta egin badezazu, jagoitikotz galdu zira, eta azken oren hartan, zure azken urratsa eta jauzia onsa egin dezazun, zure bizi orotan prepara zite, zaude zentinelan, zure denbora orotan ez duzu behar ikasi lekzione bakoitz bat baizi: hori da onsa hiltzia. Ikas ezazu onsa zure ñekziona gauaz eta egunaz, orena jin dadinian, zure lekziona onsa ikasirik, eta onsa erranik, Jenkoa baitan onsa hil zitian, eta zeren lektione hori ezin ikasten bait digu gure bizian herioaz ez bagira oritzen, bertze egitekoak oro utzirik ala part, edukazu, zuhur bazira, oren oroz, zure hiltziaren eta zure herioaren memoria eta beldurra zure begien aitzinian, eta zure arimaren kanberaren erdi-erdian.

1. zugana etorri direnak, irteteko balira (nahi balute), bat ere ez litzateke irtengo -hilak baitaude.

TESTUAREN INGURUAN

Idaztanka

Antzematen al da testuan sermoigintzaren teknikarik? Froga ezazu.

Espresaera

Zein espresaera darabil Tartasek zati honetan?

Zelako emaitza lortzen du?

Kontaketa

Alegia edo fabula iraganean ala orainean dago azalduta? Zer efektu erdiesten du?

Egituraketa

Nola garatzen du autoreak bere tesia?

AUTOEBALUAKETA

- Bokalismoari buruz, zubereraren zein gorabehera aipatuko zenuke bereziki?
- Zuberera “aparteko” euskalkitzat jotzen da. Zer dela eta?
- **Egia** ala **gezurra** den esan:

E G

		Zubererazko [ü]-k ez du balio fonologikorik
		Zubereraz ez dago bustidura automatikorik
		Aspirazioa tinko mantentzen da zubereraz
		Zubererak bizkaieratik hainbat mailegu jaso ditu
		Goranzko diptongoak oso bakanak dira zubereraz
		Bokalarateko dardarkari xamurra / r / oso galkorra da zubereraz
		Zuberera Zuberoatik kanpo era mintzatzen da
		Amei zubereraz “amer” esaten dute
		o / u bokal alternantziarik ez dago zubereraz
		Zubereraz futuro marka -ko da soilik.

Esan **egia** ala **gezurra** den:

1. Oihenart izan zen zubereraz idatzi zuen lehen apaiza.

2. Atsotitz bilduma ederra utzi zigun Oihenartek.
3. Bai Axularrek eta bai Tartasek prosaz idatzi zuten.
4. Euskal Herriaren historia latinez idatzi zuen Oihenartek.
5. Tartas eta Oihenart elizgizonak ziren.
6. Erlijio gaiez aparte ez dago XVI mende honetan libururik.
7. Neurtitzak olerkiak dira.
8. Oihenart Donapaleun jaioa zen.
9. Politikan era jardun zuen Oihenartek.
10. Onsa hiltzeko bidea Tartasek idatzi zuen.

8. GIPUZKERA

Kokagune geografikoaren arabera, erdiko euskalkia da gipuzkera, lapurtera, nafarrera garaia eta bizkaieraren artean kokaturik baitago. Antinako barduliarren lurralde honetan bizi da gaur egun hiztun kopururik handiena, 350.000 euskaldunetik gora, horietatik ia 300.000k gipuzkeraz hitz egiten dutelarik.

Hiru azpi euskalki bereizten dituzte hizkuntzalariek gipuzkeraren barnean: iparraldekoa edo beterrikoa, hegoaldekoa edo goierrikoa eta Nafarroakoa, gipuzkera hegoaldeko Nafarroako lurralderantz ere bedatzen baita zertxobait: Etxarri-Aranatz, Altsasu....

HIZKUNTZ EZAUGARRIAK

8.1. Berezitasun fonetiko-fonologikoak

8.1.1. Bokalak

Diptongoak (ai, ei, ou, au, eu)

Sail honetan hurrengo aldaketak nabarmentzen dira:

au > a: arpegi, arkitu.....

eu > e: nerea, gereia.....

>: ebiya (euria), elbia (eulia)....

Hiatusak (ia, ie, io, ua, ue)

Silaba desberdinei dagozkien bokal hauen tartean kontsonante baten soinua tartekatzen da maiz. Ohikoena “y” da, baina baita “b” ere:

biyotza, Donostiya, testaziyoa, buruba.....

Bokal elkarketak

Bokalez bukatutako hitzak **a** mugatzaileari lotzean hainbat aldaketa gertatzen da:

neska + a: neska (baina, toki batzuetan neskea, bezalakoak ere bai)

etxe + a: etxea, etxia

idi + a: idiya, idie...

baso + a: basoa, basua

katu + a: katua, katuba

Aditzek ere atzizkiak hartzean, badira euskara batuarekiko aldaketak:

da +en: dan

Bokal alternantziak

Beste euskalkietako **a**-ren ordez **e**:

gera, zera, zerate....

bezela

Baita **e**-ren ordez **i** ere:

iritzi, agiri (ageri)...

-A itsatsia

Gipuzkeraren ezaugarriarik nabarmenena, agian, -A itsatsia duten hitzek nozitzen duten galera izango da: batez ere partitiboan:

ez daukagu ikastolik

zenbat gauz erosi dituzu

8.1.2. Kontsonanteak

Txistukariak (s, z, x/ ts, tz, tx)

s eta z-ren arteko bereizketa ez da beti gertatzen.

Bestalde, gipuzkeraren ezaugarria da *zuria* hitzean frikariaren ordeaz afrikaria egitea:

zuri txuri zintzo txintxo

/ f / fonema

f soinuaren tokian **p** entzun daiteke: alper, paltsua, peria...

Berez, maileguzko hitzetan azaltzen da maizenik: fede, fruitu, festa...

/ j / fonema

Fonema honek [x] ahozkeratik hartzen du eremu osoan (gastelaniaren ebakera bera, alegia):

judu [xudu], jaun [xaun]...

/ h / fonema

lehortu > legortu

ihartu > igartu

Bustidura

i-ren ondoko kontsonantea busti egiten da eskuarki:

il > ll: ollo, ibilli, billatu...

in > ñ: baña, mingaña...

is > x: gaxorik

it > tt: dittu

Kontsonante galtzeak

Dardankari samurrak, bokalarterako denean, galtzeko joera haundia du gipuzkeraz

orain [orain]

gero [geo]

gera [gea]

etxera [etxea]

8.2. Berezitasun morfologikoak

8.2.1. Deklinabidea

- Ergatiboan, NORK pluralak ez du erlazio marka desberdinik eta, horrela. Absolutu edo Nominatibo plurala bezalakoa da:
katu**ak** ibili dira
katu**ak** egin dute
- Datiborako **-ai** da erlazio atzizki nagusia:
Lubiruai
- Adlatibo norabide zuzenezkoa adierazteko **-runtz** eta **-rontz** atzizkiak azaltzen dira:
etxer**runtz**
etxer**rontz**
- Instrumental plurala, hau da ZERTAZ kasua, **-etaz** atzizkiaren bidez egiten da, **-ez** erabili beharrean.
zela**ietaz** hitz egiten dute
- NOREKIN kasua, erabili beharko litzatekeen baino testuinguru gehiagotan erabiltzen da:
makillakin eman diot
kotxeakin jun naiz
- NONDIK kasuan gipuzkeraren ezaugarria da **-tikan** atzizkia, -tik arruntaren ordeaz:

hemenddikan
etxettikan

Aditza

- Hurrengo laukin gipuzkerazko adizki arruntenen paradigma azaltzen da.

Oraina				Iragana			
NOR		NORK		NOR		NORK	
naiz	det	/	ditut	nintzan	nuen	/	nituen
da	du	/	ditu	zen	zuen	/	zituen
ge(r)a	degu	/	ditugu	ginan	genduen	/	ginituen
ze(r)a	dezu	/	dituzu	zinan	zenduen	/	zinituen
ze(r)ate	dezute	/	dituzute	zinaten	zenduten	/	zinituzten
dira	dute	/	dituzte	ziran	zuten	/	zituzten

- Aditz bukaeratan bokal galtzea: zun (zuen), zitun (zituen)...
- Aditz trinko zenbaitetan, gipuzkeraz -zki pluralegilea erabiltzen da, -tza-ren ordeztz: daramazkigu (daramatzagu) zekarzkien (zekartzan)
- Aditzetako NORK pertsona morfema -zute formaz ageri da, ez -zue: dakizute, dezute...

8.3. Berezitasun sintaktikoak

Ez du euskalki honek berezitasun aipagairrik, hots, euskara batuaren moldetik bereizten duen ezaugarri nabarmenik.

Aipatzekoa liteke euskalki honetan galde perpausak egitean **al** partikularen maiztasuna:

Etorriko **al** zera gurekin?

Etorriko zara gurekin **ala**? (BIZKAIERAZ)

Gurekin etorriko zaretea? (IPARRALDEAN)

ARIKETA

Atera itzazu ondoko testuan gipuzkeraren ezaugarri nagusiak eta jarri laukian.

Ni eskolaa asi nintzan sei urtekin, republika zeola, da asi zan da maestra at eoten zan. Asko ez kenun ikasten, baño kontu eiñ eiten zigun da leetzen pixkaat, aeio ta abeze ta geo dotriña; ta geo an pixkat jartzen giñanian, gora, gora bialtzen zigun, beste planta goyan zoen maisuakin, ta ara, ta zazpi urtekin gora iyo nitzan, da an eskolan sartzen giñen da aurrena eitten giñun estudiantu amarrakalderarte, ta geo maisuak galdetu eitten zun, ze eitte genun; ta geo amaiketan errekreoa ateatzen giñan ta errekreoan orduerdi bat an ibiltzen giñan; ta an berriz ibiltzen giñan futbolian eo arrapatzen eo pelotan, eo antxe jostatzen giñan ta amaikaterdiertan ostea eskolaa, goa iyotzen giñan, ta geo a izate zan jeneralean dotriña eo, ordu erdi bat amabittarte.

Amabittan ateatzen giñan ta geo etxea bazkaittea jute giñan, ta geo, bazkalduta, ordubitan sartren giñean, ordubitan jute giñan, da maisuakin beakin aitzen zan, tableoan eskriitzen zun eo, restar eo sumar eo, ua ai zen ta geo an aitzen giñan, da lauterditan kanpo, etxea bialtzen zigun.

Geo, andikan, amak esaten zigun etxetik juteko, azkar etortzeko, baatzean laundu ein biar zela ta: gogo aundiakin ez kiñan juten, baño geienian juten giñan; batzutan batee jun gabe geatzen giñan, bai, pelotan eo entretenitu eo gogorik ez eo... Bai, ta baatzea jute giñan da an aitzen giñan, patata eiñ eo beti, patatan, gariyontan eitten zian espinaka eo azelga ta aldatze genittun garai ontan, da errepollua re bai...

(Euskalkiz euskalki).

FONETIKA	BOK.	
	KONTS.	
MORFOLOGIA	DEKL.	
	ADITZA	
JOSKERA		
LEXIKOA		

IJITO BATEN KONFESIOA

Etzan aiñ erdalzalea ere Peillo ijitoa, baiño jai-egunetan, eta itxurazko gizonekiñ itz egitean, oi zituan erderakadatxo batzuek.

Bere egitekorik arduratsuen a oi zan Paskoakoa; batez ere aitortze edo konfesioa; ez pekatu andirik eta askorik zuelako, baiño etzitzaion batere gustatzen erretore berriaren oitura. Onen aurrekoarekin oso ondo oi zetorren, jota-pasa, ederki, bapo; baiño onek, au da, oraingoak, ortik ziri eta emendik ziri, imitxak baiño txarrago, etzuen pakerik ematen; guzi-guzia zeatz jakin bar Orlako zazpikirik! Jesus, Jesus! Onela jardun ta gero danak berari esan bear. Gogorazio auekin eldu zan Peillo Erretorearen oiñetara, aitortzen edo konfesio on bat egitera.

- Ezer ostu dezu?
- Ez jauna, oztu ez; berotu ere... iñoiz andreari bizkarra izan ezik.
- Eztizut galdetzen oztu baizik ostu.
- Ai! Ebatsi edo lapurtu esan naiko du. Errobar, e?
- Bai orixe eta bera.
- Uste det jauna, nik andreari bizkarra ez ezik, bedorri ere berritxuren batek berotu diozkala belarriak.
- Galdetzen dizut ezer ostu dezun.
- Lapur-pama badegu baiño...
- Eztizut galdetzen zeren pama dezun, baizik ezer ostu dezun.

- (Auxe dek gozonaren jakin bearra...) Ez naiz oroitzen Jauna, baiño bedorrek ezeren kezkarik balu nizaz, esan prankeza guziarekiñ.

- Egurrik erosten dezu?

- Ez Jauna.

- Surik egiten?

- Bai Jauna, eta gogoa duenean etorri bedi gure etxera kaponada bat artzera, eta berotu bat emango diogu plit eta plot, gaztaiñak erretzen diran bitartean. Ikusiko du su ederra gure sukaldean.

- Gaztaiñegirik badezute?

- Ez Jauna.

- Gaztaiñarik erosten?

- Ez Jauna.

- Iñork eman?

- Ez jauna, baizik gerok artu iñor inkomoratu gabe.

- Nundik?

- Nundik....., nundik..... bada.... dagoen lekutik.

- Eta leku ori norena da?

- Izenez Don Kanean dariorena baiño izanez..., nork daki? Ara Jauna egi-egia; Jaungoiko gure Jaunalk egin zuen mundua guzientzat; etzuen sartu iñun mugarririk, baiño Adanen semeetan batzuek ziran tontoak, eta besteak agusoak: guk degu jatorria lenengoetatik, baiño aiek tontoak izanantz eztegu guk kulparik. Paperetan ezta arkitzen ezer saldu zutenik, eta orregatik gure tokamenak ere emen urrean izan bear dute. Bigarren oiek (agudoak) ziran mugari sartzaileak, baiño beren buruz, arrazoiaren kontra, eta ala kontu egiten degu, mugarririk eztagoala, eta beragatik seguruen-seguruen da, bakoitzak, iñor inkomoratu gabe, eta ixil-ixilik, alduena artzea pake ta amorio santuan.

- Begira: eztegu emen, Pillosopia bearrik. Esan zazu. Zeinbat saku gaztaiña dituzu eramanak?

- Asko ez, jauna.

- Zeinbat?

- (Au zazpikia). Ara ba jauna, zortzitxo bat izan daitezke, baiño izan daitezela zazpi.

- Zeinbaten saltzen da sakua?

- Aldan ainbatean; iru pesetan, lauan, iñoiz bostean ta ala.

- Zazpi lauko ogei ta zortzi. Emaiozkatu ogeita zortzi peseta Don Kondelariori eta kito; eztago bestela absoluziorik.

- Jauna eman begit azaolozioa etanekea pagatuko diot.

- Eziñ nezake.

- (Eziñ lezakela!..... Ta jarri gizona abildade geiago gabe lekuorretan Paskoako denboran!). Beraz....

- Eztago beraz-ik eta Pillosopiarik; jona, ordandu eta etorri berriz absoluzioa nai badezu.

- Ondo da jauna; agur, eta datorren urtera arte.

(Pedro Miguel Urruzuno, Ipuinak, 1899).

ORI EZ DEN IRRINTZIA; ORI DEK ARRANTZA

Legazpiarrak, azkarrak eta erneak diralako sona dute, bañan azkarren artean ere kirten antzeko batzuk sortzen dira, pasadizu onek aditzera emango duan bezela.

Aiztorrondon jayo, azi ta bizi izan zan artzai gazte bat joan zan bein batean konpesatzera Legazpiko abade batengana; asi zuten konpesioa eta ez dakit orain zeren gañean, esan omen zion abadeak ia zerbait ote zeukan.

- Bai, jauna, badaukat -esan zuan artzayak.

- Zer daukazu ba?

Bañan artzaya omen zegon izilik, eta noizik bein burua jiratuta, kanpora begiratzen zuala.

- Esazu, esazu bildurrik bage dezuna -esaten zion konpesoreak; pekatu egiteko lotsatu bear da eta ez konpesatzeko.

- Nik ezin esan dezaket ba egin dedan pekatua -erantzun zion azkenean ere artzayak.
- Zergatik ez ordea?
- Zergatik emen dauden auek adituko duten.
- Esazu ixiltxorik.
- Ezin liteke ordea.
- Beraz, beste lekuren batean esan bearko didazu?
- Bai, nai badu.
- Goazen ba korura eta an esango dezu.
- Goazen ba.

Igo ziran bada korura, eta ara emen artzayak egin zuen konpesioa:

- Ez dakit berorrek jakingo duan, nola ezkontzen naizen Kortako alaba gaztenarekin? Bada, lengo ostegunean Arriurdingo zelayan nere ardiekin nebillela, ikusi nuan zijoatzela Aratzazura nere andregaya eta bere ama, urruti xamarretik ezagutu nitun, eta nun nengoen aditzera emateagatik olaxe irrintzi egin nien: ji... ji... jiii....!

Eta egin zuen irrintzi bat, eliza guztia aidean ipiñi zuana, esanaz konpesoreari:

- Ara emen nere pekatua.
- Ago ixilik kirtena! -esan zion abadeak aoa eskukin estaliz- ori ez dek irrintzia, ori dek arrantzia, eta i bezelako astoak errotan obeto zeudek elizan baño.

(Alfonso M. de Zabala, Gabon gau bat eta beste ipui asko, 1880).

SAGUZAR SALTZAILLEA

Jaiki zan errierta ta auzi odolezko bat lurrean dabilzan lau oñeko, ta goietan egoz dabilzanen artean. Ez batzuek ez besteak atzeratu nai ziran aserrean egotetik.

Ikusirik Saguzarrak lurrenkoak garaituko zituztela goietako Egaztiak, andiagoak eta indartsuagoak ziruditelako, alde egin zuen egaztien aldetik, igarotzeko lau oñekoen bando, edo aldera.

Egunak etorri eta jona zebiltzala, prestatu ziran beste batalla edo auzka gogorragorako; bada lenengo erriertan batzuek ta besteak gelditu ziraden igarri ezinik nor izan zan gogor ta garaitiago.

Etorri zitzaïen egaztien bigarren errierta odoltsurako len berekin iduki ez zuten Arranoa, oek bildu, ta alkaturik, jetsi ziran lurrerenz ekiteko gogorki Leoi, Zezen, Otso, Basaurde, Katamotz, ta txikietarikoai ere bai. Zein ekusteko ederra! Goian anbeste egazti atzapardun, bean lau pñeko izugarri beldurra sartu bear zutenak.

Arrano pillo batek beren egotzarren otsarekin sartzen zioen izua beekoai. Zetozen gero beste egaztiak, ta beren moko ta atzaparrakin zauritzen zituzten. Lurrekoak ekin naia gatik, kolpeak emanda, beren egoekin alde egiten zuten, bazetozen berriz lau oñeko iges egin zutenetara, ta oen arteko batzuei ateratzen eiezen begiak; beste batzuek largatzen zituzten errenka, mankatuta, ta ez gutxi guziz illda.

Zebillen lurrean Zezen, Otso, ta lau oñeko askoren odola, an zan entzutea Zakurren intziriak, Zaldien irrintziak, Leoi ta Zezenen orroak, Basaurden urrumizak, Aizerien illerak, Katamotzen miao izugarriak.


Ekusii ziradenean lurrekoak garaiturik, ta anbeste lagun galdu zutela, eskatu zioen pakea egaztai. Oek etorri ziraden orretara, baña eskatu zituzten bi gauza: bata gerra artan illik gelditu ziran lau oñekoak gelditu bearko zutela beren janaritzat; ta bigarrena, Saguzar saltzailleari berak eman behar ziotela erabaki, edo agindu zan, kentzea Saguzarrari zituen lumak; billostu edo larru gorritu bear zala; ez zegitela Saguzarrak iñoiz argitara irten.

Ala oi dabilta ezertarako gauza ez dirala, ta iñork nai ez dituela.

(Vicenta Moguel, Ipui onac, 1804).

9. XVII. MENDEA. LARRAMENDI. GIPUZKERA KLASIKOA

MANUEL LARRAMENDI (1690-1766)



Bizitza

Larramendi Euskal Literaturaren figurarik garrantzitsuenetariko bat dugu, ezinbestekoa honen ibilbidea ulertzeko.

Andoainen jaio zen 1690. urtean. Txikitatik, jaingura bizia eta ikasteko zaletasun haundia erakutsi zituen. Elizgizona izan zen, jesuita hain zuzen ere. Bere garaian ezaguna eta ospetsua izan zen bere jakituria, argitasuna eta oratoriarako dohainengatik. Honela, Salamancako Unibertsitatean Filosofia eta Teologia irakasle izan zen eta bai Carlos II erregearen alargunaren aitorle ere.

Idazle bikaina erdaraz eta euskaraz, hizkuntza honetan oso gutxi utzi bazigun ere. Baina, ezer baino gehiago, Larramendi euskararen apologista izan zen, alegia, euskal hizkuntzaren jatorria, edertasuna eta aberastasunaren aldarrikatzaile sutsua.

Sarako Etxeberri euskararen apologia euskaraz idatziz egin bazuen, Larramendik, aldiz, erdara erabili zuen ia beti beraren defentsan. Berak euskara laiodotzen zuten erdaldueni erakutsi nahi zien euskararen bikaintasuna, eta horrexegatik zuzentzen zitzairen beti erdaraz. Eta, egia esan, horrelako eztabaidetan Larramendi irten ohi zen garaile, bere jakituria haundiaz eta euskarakotzat ematen zuen zenbait etimologia argudiatuz, bere aurkakoak isilarazten baitzituen.

Larramendiren apologiazko idazlanek hiztegiak, gramatikak eta bere nortasunak berak ere eragin haundia izan zuten ondorengo idazleengan, berauek euskaraz idaztera bultzatu baitzituen; hasiera batean katekesi liburuak eta itzulpenak, eta geroago sormen haundiagoko lanak.

Idazlanak

- De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España: (1728)

Liburu honetan gogor erasotzen die euskara hizkuntza landu gabe eta ezgauza dela dioten guztiei; argudio bezala, euskara antzina Espainiako hizkuntza bakarra zela aldarrikatzen du, iberoak euskaldunak zirela argudiatuz. Euskararen bikaintasuna eta bere deklinabidea eta aditz jokoaren erregularitasuna aipatzen ditu, hizkuntza honen soinuaren goxotasuna ere azpimarkatuz.

- El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada (1729)

Lehen euskal gramatikaren aurrean gaude. Inork uste ez zuena, euskara gramatika baten disziplinararen menperatzea posiblea zela erakusten zuelakoan deitu zuen. El imposible vencido, bide batez bere etsaiak zirikatu nahirik.

Euskararen zenbait arlo (deklinabideak, aditz jokoak, sintaxia, prosodia....) sakonki aztertzen eta azaltzen ditu, osotasun eta zorrotasun harrigarri.

- Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín (1745).

Hiztegi hau lan benetan eskerga da. Berak bildutako milaka hitz erabili zuen oinarri gisa baina, hauen ondoan, berak sortu edo asmatutako berba eta etimologia asko ere bai; hauxe da, hain zuzen, hiztegi honengatik Larramendiri leporatu zaion akatsa: hitz askoren etimologia edo iturria asmatu izana.

Hiztegia honelaxe taiutu zuen: sarrerak erdarazko hitzez osaturik daude, alfabetikoki. Hauen ondoan euskarazko ordaina jartzen du eta batzuetan haren etimologia ere bai, euskaratik datorrela “demostratuz”.

Hona asmakizun hauen zenbait adibide:

Idea, griegos y latinos tomaron esta voz del bascuence, en que daremos por correspondiente *irudidea* (...).

Estandarte (...) viene de *estanda arte* “hasta reventar”, porque el alférez que lleva el estandarte en la batalla debe sostenerlo enhiesto hasta reventar (...).

Honelako etimologia zentzugabeak irakurtzean, kostatu egiten da sinestea Larramendi bezalako gizon ikasi batek horrelakorik idatzi eta sinetsi izana, euskararen gaitzesleak nahasteko eta isekan hartzeko ez bazen. Berak, seguruenez, ederki zekikeen etimologia horiek okerrak zirena, baina bere polemika nahia nagusitu egiten zitzaion, bere etsaiak goiartzeko eta beraiekin jostatzeko argudio ezin hobeak ziren eta, hauek ezbaitezkiten euskara tutik ere hari erantzun ahal izateko. Dena den, hiztegi honek, neurri haundi batean, deskreditatu egin zuen Larramendiren lana.

Euskarazko idazlanak

Euskaraz ere badu zeozer han-hor-hemen idatzia eta, gutxi bada ere, argi uzten du hizkuntza hau ere ezin hobeto menperatzen zuela.

Idazki horietako bat Mendiburu bere jarraitzailearen Jesusen Bihotzaren Debozioa liburuaren hitzaurrea da.

ULERMENA LANTZEN

Erantzun iezaiezu laburkiro baina zehaztasunez hurrengo galderei:

1. Zer da apologia? Zertan zen apologista Larramendi?
2. Zeintzuk dira Larramendiren hiztegiaren alderdi onak eta alderdi gaitzesgarriak?
3. Zer da El imposible vencido? Zergatik izenburu hori?
4. Zergatik da hain garrantzitsua Euskal Literaturaren ibilbidean?
5. Zertan dira berdinak, eta zertan desberdinak, Sarako Etxeberri eta Larramendi?
6. “Estandarte” hitza euskaratik al dator?

TESTUA

Eskriturak nonbait diona da: “Haurtxoak ogi eske zeuden, ta ez zan nork puska ziezaieten”; ta orain ere haxe bera esan dezakegu Euskalerrarentzat; bada, Jainkoaren hitzaren ogia txikitu bageaz, sekereak igartuak bezala, goseak hiltzeaz daude asko ta asko. Zer bada? Ez dabilta geure eleizetan predikarioz franko? Ez darasate surmurrez ta deadarrez Zeruko jakinbidea? Egia da, badabilta, ta badarasate. Ordea, zer da ansi, entzule gehienak erausi hura aditzen ez badute? Sinisterazo nahi digute aditzen dala gaztelania, are ikasi ez dutenen artean. Ez da hori egia: alperren erausiak eta aitzakiak dirade; hitz banakaren batzuek adituagatik, haizeak daramatzi besteak, eta Jainkoaren hitzaren ogia gelditzen da euskaldunentzat xehatu bagez, probetxurik gabea. Baina egia balitz ere, ez da lotsagarri, hitz egin behar digutela euskaldunak Euskalerrietan, ez guziok dakigun hizkuntzan, ez gure herriko, gure gurasoen hizkuntzan, ez bularrarekin batean edoski genduen ta lehenbiziko genekien hizkuntzan, baizikan gaztelauen hizkuntza arrotzean?

Sinis nazazu, ereile gaiztoetan dago azaro txarra, eta gero uzta soila ta hutsa. Alabainan, gutxik daki bere jaioterriko euskeraren erdia, eta alperrak diraden bezala, ez dute ikasi nahi gehiago, ta ez die nahi beren beruai atsekaberik eman. Baina honetatik zer gertatzen da? Dakiten piska harekin, hitz moltxo, eskumen baten dina ez dan harekin, nola ezin adierazo dituzten beren esakariak, badarasate pulpitan hitzera nahasi bat, behin euskera, behin erdera, behin latinera, guzia lerdatur, zikindua, barautsua, zeinena dirudien igo dirala gain hartara entzule guzien burla egitera; ta harritu ohi naz, nola asko ta asko, bultzaka ordu gaiztoan haientzat, botatzen ez dituzten handikan behera. Are gogaikarriena da txarlari hoiene ikustea ta aditzea nola dauden isekaz ta musinka, euskera ederki dakien jolasari, behin Nafarroako mintzoa dela, gero Bizkaiko berba dongea, batean ausaz ere Goierriko hizketa dezula, bestean noaskiro Beterrikoa; atxurlarien ta nekazarien hitzera dala hura, baserritarra dirudizula, ta mila honelako astakeria. Ez dute izen hobeagorik merezi. Aienatu behar genituke gure hizkuntza ederra galtzen diguten hizjario motal txar hoiek. Oroindik ez dazate euskaldunak euskera duela gauzarik onena ta honragarriena; bada hari detxekala, beti agertuko du bere burua dan bezala, espainiar huts-hutsa, antzinakoen ta are lehendabizikoen etorkia ta ondokoa, ta beragatik nahastebagea, garbiena, finena ta nobleena; dakiela nondik ta noizdanik datorren, zeina dan euskaldunetzak itsuka baizik ez dakitena, ez eta jakingo ere.

Beste batzuek dituzu gure euskeran nahi ez lukeenak beste hizkondeetatik hitz bat ere: eta honen bidez epaiten ta ziatzen bezala dira jolasean. Bedereko ergelkeria! Ez zaiteala zu malmeti. Euskerari eratxi zaizka gaztelanietatik, latinetik edo besti hizkondeetatik hitz asko; baina adituaz, ta ohituaz, euskerakoak bezain ongi aditzen diranak, eta hoiek utzi behar ez ditugu, ta beharbada noiz edo berriz hobeto da honelakoak usatzea euskerakoak baino, batez ere eliz gauzetan, ta gure arimen salbazioari dagozten egikarietan. Lajatuko ditugu erbesteko hitz horiek, nahi badegu gure euskerarenak piskabana usatuaz ta erabiliaz, eskukoi ta jakinak egingo diranean.

(Manuel LARRAMENDI, Mendibururi bidalitako eskutitza).

HIZTEGIA

sekera 'sukar bizia'

darsate 'aldarrikatzen, jakinarazten dute'

surmurrez 'zurrumurruez

ansi 'ardura'

erausi 'esamesa'

edoski 'xurgatu'

azaro 'hazia'

eskumen 'eskukada'

baraustua 'adurrez betea'

musinda 'gutxiespeneko keinuz'

dazaute 'ezagutzen dute'

ditxekala 'eusten, atxikitzen diola'

bedereko 'sekulako'

malmetitu 'larritu, aztoratu'

eratxi 'eratxeki, lotu'

eskukoi 'erabilgarria'

lerdatu 'lerdetan, andurretan blai'

TESTUAREN INGURUAN

Ulermena

Testuko zenbait pasarteren ekarpenaz eta frogantzaz baliaturik, azal ezazu idazlearen iritzia hurrengo gaiez:

- Garaia hartako euskarazko predikariak.
- Euskararen lexikozko garbizaletasuna.
- Euskara eta baserritasuna.

Forma: testuaren aberastasuna

Bila ezazu testuaren aberastasunaren adierazgarri izenondo, aditz joko, esamolde eta baliabide erretorikoak.

Zein ondorio atera dezakezu?

LARRAMENDIREN ONDORENGOAK, GIPUZKERA KLASIKOA

Euskara goratuz eta defendituz maila teorikoan Larramendik egin zituen ahaleginek laster izan zituzten beren fruituak.

Bereziki bi autorek, Lardaberaz eta Mendiburu jesuitak, euskara ahoz prediketzetik liburutik idaztera egin zuten urratsa. Honela, ia beti eliz liburuen eta itzulpen edo moldapenen bidez bazen ere, euskal prosari bultzada garrantzitsua eman zioten.

Agustin Kardaberaz (1703-1776)

Hernanin jaio zen. Predikalari nekaezina, Loiolan eman zituen bere bizitzako azken urteetan, Larramendiren eragin eta bultzadaz, euskaraz idazteari ekin zion, Lan eskerga egin zuen, liburu zerrenda luze bat argitaratuz.

Esku liburua da Kardaberazen lanetatik ezagunena eta bere garaian irakurriena, bere obretatik ateratako txatal desberdinez eginiko bilduma edo antologia bat bada ere.

Aipagarria da, baita, Euskeraren Berri Onak eta ondo eskribitzeko, ondo irakurtzeko ta ondo hitz egiteko Erregelak (1761), erlijio liburu ez den bakarra. Eite apologista du, Larramendiren aipamenekin eta beronen iritziaz eta aholkuak bere eginez.

Sebastian Mendiburu (1708-1782)

Gipuzkoako Oiartzunen jaioa. Bere euskalkia, beraz, nafarrera garaia zen eta, bere liburuetan ere, bada halko nafarrera kutsu bat, gipuzkera nagusitzen den arren.

Hizlari oso ospetsua izan zen; batzuek “Euskal Ciceron”a bezala aurkezten zuten, jendea harriturik uzten baitzuen gai sakonetan zein hizkera eder eta dotoreaz aritzen zen ikusteak.

Mendibururen hizkuntza garbiagoa da, hautatuagoa kardaberazena baino. Euskarazko hitz eta esamolde jator gehiago aukeratu eta erabiltzen ditu, kardaberazek erdaratik harturikoak jarriko lituzkeen lekuan.

Bere idazlanen artean bi nabarmentzen dira: Jesusen Bihotzaren Debozioa (1747) eta Jesusen Amore-nekeei dagozten zenbait otoitz-gai (1759).

AUTOEBALUAKETA

- a itsasia galtzeko joera makurra dago gipuzkeraz. Jaso itzazu errakuntza hori dela eta, bost adibide.

- Gipuzkerak bustidurarik ba al du? Zein neurritakoa? Bizkaierarena baino nabarmenagoa?

- **Egia** ala **gezurra** den esan.

E G

	Gipuzkeraz / z / eta / s / ez dira bereizten
	/ f / fonema ez dago gipuzkeraz
	Gipuzkeraz / j / fonemaren errealizazioa [y (da, (=yeso)
	NOR eta NORK kasuen pluralak berdinak dira gipuzkeraz
	Gipuzkoan bizkaiera, goinafarrera eta gipuzkeraz mintzatzen da
	Nafarroako Burunda aldeko euskara gipuzkeraren barruan kokatzen da
	Bizkaieraz dogu esaten da, eta gipuzkeraz degu
	BAI / EZ erako itaunetan al partikula erabili ohi da gipuzkeraz
	Aditz oinaren erabilera egokia da gipuzkeraz
	Bokalarteko dardarkari xamurra ez da erraz galtzen gipuzkeraz

- Erantzun egokia aukeratu.

1. Larramendik

- Ez zuen ezer idatzi euskaraz.
- Oso gutxi idatzi zuen euskaraz, ez zuelako ondo menderatzen.
- Euskaraz ere idatzi zuen, eta ondo gainera.
- Ilustratuen aurka idazten du batik bat.

2. Larramendik batez ere gaztelaniaz idatzi zuen

- a) Gaztelania hobeto menderatzen zuelako.
- b) Haren gustuko gaiak ezin zirelako euskaraz erabili.
- c) Haren solaskideak erdaldunak direlako, gehien bat.
- d) Euskaldunek ez zekitelako euskaraz irakurtzen.

3. Larramendiren lanak

- a) Ez zuen jarraipenik izan.
- b) Bere mendean izan zuen, soilik, eragina.
- c) Jakintsuentzat baizik ez du balio.
- d) Eragin handia izan du ondorengo idazle askorengan.


4. XVIII. mendeko euskal idazleek

- a) Erlijio gaiez idazten dute bakarrik.
- b) Foruez idazten dute, gehien bat.
- c) Euskari buruz ere idazten dute.
- d) Hegoaldekoak izan ziren denak.

10. BIZKAIERA

Antzinako greziar eta erromatar geografoek aipatu zituzten giza taldeetatik karistiarrak kokatu zituzten gaur egun bizkaieraren eremua jotzen den lurraldean, hau da, Deba ibaiaren uahotik Nerbioi edo Ibaizabal bitarteko lurraldera. Bestalde, kopuruari dagokionez, 300.000 hiztun inguruk egiten dute berba bizkaieraz.

Bonaparteren sailkapenari jarraiki, hiru azpieuskalkitan bereiz daiteke bizkaiera: ekialdekoa (Markina aldea), mendebaldekoa eta Gipuzkoakoa (Bergara aldea, batez ere), Gipuzkoan ere barneratzen baita bizkaiera.



10.1. Berezitasun fonetiko-fonologikoak

Bokalak

Diptongoak (*ai, ei, oi, au, eu*)

Bigarren elementua *i* duten diptongoetan bokal hori desagertu egin daiteke:

naz, noz...

Hiatusak (*ia, ie, io, uo, ue*)

Bi silabatan bereizita ebalkitzen diren hauen bitartean kontsonante bat azal daiteke:

subertea...

ija-ija...

Bokal elkarketak

Bokalez amaitzen diren hitzak *a* mugatzailearekin elkartzean aldaketa ugari gertatzen da:

alaba + *a*: *alabea, alabia, alabie...*

aste + *a*: *astea, astia, astie...*

begi + *a*: *begia, begie, begije, begixe...*

asto + *a*: *astoa, astua, astue...*

buru + *a*: *burua, burue*

Bokal alternantziak

Beste euskalkietako *e*-rekin azaltzen diren zenbait hitz *a*-dunak dira bizkaieraz, gehien bat *r* edo *l* aurrean:

barri, txarri, bardin, garri, atara, hasarre...
baltz, alkar...

Bukaerako *e*-ak ere *a* bihur daitezke:
andra, lora, laba, kuma (kume)

Era berean *u* azaltzen da besteetan *i* dugun hitz batzuetan:
urten, ule, huri, uger (igeri)...

Baina bai alderantziz ere:
itxi (utzi), gitxi, urrin...

Kontsonanteak

Leherkariak (*p, t, k / b, d, g*)

Bizkaieraz herskari ahostunen edo ozenen ordeztu (*b, d, g*) zenbait hitzek leherkari ahoskabea edo gorra (*p, t, k*) hartzen du:
parkatu, kerexa, denpora...

Herskarien sail honetan aipatuko ditugu zenbait aditzen -gi bukaerak, beste euskalkietako -ki-ren ordeztu azaltzen direnak:
ebagi, jagi...

Txistukariak (*s, z, x / ts, tz, tx*)

Ahoskeran sail honetan du bizkaierak ezaugarriarik argiena: hiru igurzkarietatik (*s, z, x*) bi baino ez dira bereizten, *z*-ri dagokion soinua ez baita egiten.

Beste horrenbeste afrikatuen sailean, hauetan *ts*-a *tz*-ren soinuz egiten baita.

Horrela, ebaki berdinean ebakitzen dira *atso* eta *atzo*, esaterako: *atzo bezala*.

Beste fonema batzuk

H-ak adierazten duen aspirazioa ere antzina desagertu zen Bizkaieratik eta Errioxa aldean aurkitutako Arabako herri izen batzuetan ezik -bizkaieraren itxura dutenak: *Hurizahar, Olhavarri, Basahuri, Hurivarri...*- ez da ageri.

/J/ fonema [y] eta [x] legez ebakitzen da. Bizkaia iparraldetik hegoaldera zatituz gero mendebaldeak [y] egiten du eta [x] ekialdeak.

Bustidura

Diptongoen *i* desagerturik, hurrengo kontsonantea busti egin daiteke:

hatxa (haitza), bakotxa...
elexa (eliza), goxetik...

Fonema baten berezko soinua "bustitzea", bizkaieraz aurreko *i* batek eragiten du; ez du balio adierazkorrik:

politta, olloa, aitta, haxea, ixillean...
baño, iñor...

Bestela esanda, *polita*-k eta *politta*-k balio bera dute, ez dago esanahi desberdinik. Ipar ekialde osoan bustidura egiten da eta erdialdean gutxiago edo ezer ez.

Kontsonante alternantziak

Beste euskalkietan *l*-a erakusten duten hitz batzuk *d*-rekin ageri dira bizkaieraz:
edur, bedar, idar...

Edo baita *n*-z ere:
narru, nasai...

Kontsonante galtzeak

Nork kasuaren erlazio atzizkia hartzean *r*-a galdu egiten dute galdetzaileek:
nok, zek, zetan...

10.2. Bereztasun morfologikoak

Deklinabidea

Ergatiboan Nork pluralak ez du erlazio atzizki desberdindurik eta Absolutua bezala egiten da:

*Mutil**ak** etorri dira.*
*Mutil**ak** egin dabe.*

Datiboan, hau da, Nori kasuan, pluraleko erlazio atzizkiak ez dira oso definituak:
*mutil**ai** / mutiler**i** / mutile**i***

Norantz kasuan erlazio atzizkiak **-rantz**, **-rantza** eta **-runtz** izan daitezke:
*Basor**antz** / basor**antza** / basor**untz***

Genitiboan hau da, Zeren edo Noren kasuan, ahozko hizkuntzan, ez da **-re-** marka azaltzen:

*mutil**en** (mutilaren)*
*mutil**en** (mutilen)*

Azentuaren bidez bereizten dira biak.

Ahozkoan, genitibo kasuan ez ezik, **-re-** marka duten beste kasu guztietan ere falta da bizkaieraz:

nontzat (norentzat)

Soziatiboan **-gaz** eta **-kaz/-kin** erlazio atzizkiak azaltzen dira:
*mutilag**az** (sing), mutilak**az** / mutilak**in***

Erakusleak

Hurrengo hauek dira bizkaieraren erakusle bereziak:

Sing.	Plur.		
<i>ha</i>	<i>honeek</i>	<i>horreek</i>	<i>hareek</i>
	<i>honeik</i>	<i>horreik</i>	<i>hareik</i>

Izenordainak

Pertsona izenordainen sailean baturako erabiltzen diren berberak darabiltza bizkaierak. Hala ere, forma indartuetan *eurak* da aipagarria.

Era berean bizkaieraren ezaugarritzat jo daitezke hurrengo izenordainak ere:

zeozer (zerbait)
nonor / nor edo no (norbait)
edonor (nornahi)
edozer (zernahi)

Aditzondoak

Izenordainetan bezala *edo* elementuaz baliatuz ugari egiten dira bizkaieraz:
edonon, edonora, edonondik. edonola, edozertan...

Halaber, gura erabiliz nahi-ren ordeztu:
zelangura, (nolanahi), nozgura, nongura, zenbatgura...

Aditzondoaren eraketarako *-to* atzizkia da nagusi, *-ki*-ren ordeztu:
ondo, hobeto, polito, ederto, txarto...

Aditza

Bizkaieraren aditz morfologiaren ezaugarri batzuk ikusi aurretik hona NOR eta NOR-NORK aditz laguntzaile nagusien paradigma:

Oraina				Iragana			
NOR		NORK		NOR		NORK	
naz	dot	/	dodat	nintzan	neban	/	nebazan
da	dau	/	dauz	zan	eban	/	ebazan
gara	dogu	/	doguz	ginan	genduan	/	genduzan
zara	dozu	/	dozuz	zinan	zenduan	/	zenduzan
zarie	dozue	/	dozue	zinen	zenduen	/	zenduezan
dira	dabe	/	dabez	ziran	eben	/	ebezan

Hona beste batzuk:

Pluralgilerik erabilienean *-z* da, beste euskalkietako *-it*-edo *-zki*-ren ordeztu:

ekarri deutsoz (ekarri dizkio)
eroango neukez (eramango nituzke)
dagoz (daude)
jausi jatuz (jausi zaizkizu)

Pluraleko hirugarren pertsonaren marka inoiz ez da *-te*, *-e* baizik:

eman deuskue (eman digute)
esango leukee (esango lukete)

Iraganeko hirugarren pertsonako adizki sintetikoek ez dute hasieran *z*-rik hartzen:

egoan (zegoen) *ekien* (zekiten)

Aspektu marka ez da desagertzen hala eskatzen duten laguntzaileekin:

etorri zaite (etor zaitez)
kontau lei (konta lezake)

Era berean, aspektu ez-perfektuaren marka perfektuaren gainean kokatzen da askotan:

<i>garbituten</i> badozu	(<i>garbitzen</i> badozu)
<i>berotuten</i> danean	(<i>berotzen</i> danean)

Aspektu honen gainean ez-perfektuaren marka jartzean -etan sortzen da:

<i>kontetan</i> eustan	(<i>kontatzen</i> zidan)
<i>pentsetan</i> dot	(<i>pentsatzen</i> dut)

10.3. Bereztasun sintaktikoak

Izen sintagmaren mugatzaile gisa, erakuslea ez da beti izenaren ostean azaltzen:

<i>Hau</i> mutil <i>hau</i>	edo <i>Hau</i> mutila
<i>Horreik</i> etxe <i>horreik</i>	edo <i>Horreik</i> etxeak
<i>Honeik</i> etxeok	

Galdegai diren elementuen kokagunea eta forma zuzen betetzen dira:

*Anek esandakoagaitik, **horrexegatik** dakigu zer jazo dan.*
*Horregaitik, Anek esandakoagaitik **badakigu** zer jazo dan.*
*Baekien **neu** joango nintzana atzoko bilerara.*
Ni atzoko bilerara joango nintzana baekien.

Aditzaren galdegaitasuna agerian ipintzeko *egin* tartekatzen da adizki perifrastikoetan, perpauseko elementuen ordena ere aldatuz; hots, aditza hasierara eramanez:

*erosi **egin** dau azkenean / azkenean erosi dau*

Moduzkoak egiteko -la atzizkia erabiltzen da nagusiki, -larik-en orde. Bestalde, bezala-ren orde legez denez nagusi, honekin egiten dira moduzkorik gehienak:

*Aurkitu dogun **legez** itxi dogu gela.*

Bestalde, bi zenbatzailea izenaren eskuinean kokatzen da bizkaieraz:

*Mutil **bi** etorri dira*

ARIKETA

Azter ezazu hurrengo testua eta bete bukaerako hizkuntz ezaugarriei buruzko laukia, adibideak jarritz:

BERBA-AURREKUA IRAKULE BIZKAITARRARI

Horra noz agertuten natxatzun aspaldi honetan eskatuten zendubana emotera, ta zan kiputz euskeran argitu dodan konfesinoaren gaineko liburuba. Nik ikusi baneu bizkaitarren euskeriaren zaletasun kiputzetan nekusana, ez nintzen hain esker dongakua izango, zein da itxiko nituban barurik neure bizkaitarrak, Jaungoikoaren berbiaren ogi ederra zabaldurik atzeko, ta arrotz legez egiten jatazanetan.

Ez dot damu hartu neban asmo ta nekia. neure bihotzeko pozik handienagaz ikusi dot, zelan zabaldu dirian mila bat liburu Naparroa, Gipuzkoa ta Bizkaian. jakin dot Abade Jaun asko irakurten ditubela eleketan, ta nekezale ez gitxik euren etxeetan; ez niri eskerrak, ta bai Jaungoiko doe guztien emoliari.

Bazaut, autor dot, ta ez daukat ahaztuta bizkaitar barrukuentzat gatx izango dala kuoutz euskeria ondo aditutia. Baina berba askatu adituten ez dirianak, aditu ohi dira lotu ta katetuta dagozan bestiakaz batera.

Halan bere, atsegin emoterren, ta gauza hain biharrak itsatsi ditezen hobeto bizkaitarren bihotzetan, ipini dot liburu bera Bizkaiko euskeran, ta zenbait laburtu ditut luziak zirudiezan Irakaste edo Doktrinak. Hau eginaz, lliburuak urtengo dau eskuor, ta txikarraguak, merkiaguaz ostian. Ze poza niria entzuten badot bizkaitarrak alkarren lehian dendatuten diriala eroatera liburu hau! Ez bihotza iminirik daukadalak saldu-erosietako irabaztetan, ta bai diruba aurreratuten dabeenak liburu honen agermenerako, kalterik izan ez dagien, hoztu ta atzeratu ez ditezan hurrenguetarako.

Bai, ta dinot tolestura бага, nire urtiak izango ez badira bere luziak, gura neukez irago enparetan jatazan egunak ateraten on izango dirian liburuak, ni hilda bere, berbaz irakatsi ezin dodanian, irakasteko Zeruko bidia euskaldun guztiai liburu honen bidez. Zeinbat arimak igori daben Zerura gauza onak irakurrita, hain gatx da zeinbatu edo kontetia, zelan litzatian esatia zeinbat dirian gure gaineko izarrak. Nok ekarri zituban Santu hain handi izatera San Anton Abata, San Agustín ta geure San Ignazio Loiolako? Liburu honen berba ixil, baina itzalsubak.

Esaten dabe gitxien esan bihar leukeen askok, euskeria baldresa, traskila ta soinko zantarduna dala: ezin inok apaindu leikiala. Nik gura baneu apaindu bere etxe ta hutxaan daukazan bitxi ta jantzi ederrakaz, apainduaguak urtengo leuke erdera askok baino; baina ezagutuko ez leukeee etxekotzat, dongaro jantzita beti ikusi dabeenak. Horregaitino ez dot jantziko jaiegunetako soinekuakaz: esan gura dut, ez dodala irakatsiko noraino helduten dan bere ugaritasuna berbeetan.

Gura dabenak sinistu Bizkaiko euskeriak ez dautsala ezer zor kuputzenari, irakurri begi honek baino lehenago urtengo daben neure adiskide handi ta, gauza honetan, neure biharlagun lege egiten dan Aita Frai Pedro Antonio Añibarro, Zarauzko Kolegio A. San Frantziskoko Ordean Misiónariak bizkaitarrentzat atera daben liburu txikar, baina urte guztiak baino gehiaho balio dabena. Ediroko dau Esku Liburua honetan Bizkaiko euskeran ederto adierazo leitezala esan bihar dirian gauzak, berba nekezaleen ahotan darabiltzanakaz. Bizkaiko barru-barruko semia da bera, ta bere euskera garbi ta ederrak ezagutu eragingo dau nunahi ikasi leitiala ondo berba egiten, buruba zerbait nekatu gura bada. Alperren soluak beti egongo dira bedar txarrez betiak. Bizkaitar guztiak erosi bihar leukee liburutxu esan dodan hau.

Ikusiko da ez ditugula bardin erabagiten berbaak aitatu dodan neure adiskide honek eta nik; ta hemendi aterako da, zetan daguan Bizkaiko euskeriaren desbardintasuna. Hak dino maitea, neurea, zoroa, gozoa, bura, kristinaua...; nik, barriz, Markina inguruan lege, maitia, neuria, gozua, zorua, buruba, kristinaua... Zein batera, zein bestera esan ez dau ezer galduten euskeriak.

(Juan Antonio MOGEL, Confesino Ona, 1803).

natxatzun 'natzaizun'
berbia 'hitza'
nekezale 'nekazaria'
gatx 'zail'
txikar 'txiki'
dagien 'dezaten'
kontetia 'kontatzea'
hutxaa 'altxirra'
irakurri begi 'rakur beza'
leitezala 'daitezkeela'

kuputz 'gupuzkoa'
zein da 'non da'
doe 'dohain'
biharrak 'beharrezkoak'
ostian 'gainera'
tolestura 'zeharbide'
litzatian 'litzatekeen'
dongaro 'txiro'
biharlagun 'lankidea'
leitiala 'daitekeela'

dongakua 'gutxikoa'
jataz 'zaizkit'
bazaut 'ezagutzen dut'
eskuor 'erabilgarr'
dendatu 'saiatu'
enparetan 'geratzen'
leikiala 'lezakeela'
dabenak 'duenak'
ediro 'idoro, aurkitu'

FONETIKA	BOK.	
	KONTS.	
MORFOLOGIA	DEKL.	
	ADITZA	
JOSKERA		
LEXIKOA		

11. MOGEL

HERRI EUSKARA, EREDU

Juan Antonio Moglek berak ematen digu gai hau aurrekoekin lotzeko aukera bere *Nomenclator...* liburuan. Honako hauek esaten ditu liburu horren sarreran:

- Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako euskalkien hiztegi zabalago bat egingo duela, akaso, horietan argitaratzen diren liburuak guztientzat ulergarri izan daitezen.
- Hasitako lanek, denboraz, lortuko dutela heldutasuna. izan ere, Larramendi handiak hasi zuen lanak, lotan egon gabe, jarraipena izan balu, gure hizkuntzak emanak izango zituzkeen hainbat urrats.
- Bizkaitarrek eta nafarrek egin gabe dutela beraien gramatika eta gipuzkoarrek ere hala egongo zirela, Larramendi trebe eta ausartak gure hizkuntza preziatu bezain zokoratuaren alde lanik egin ez balu.

Euskal Herrian egiten diren euskara mota guztien ardura du Moglek. Guztiak dira beharrezko esukararen osotasun eta aberaztasunerako.

Herriak darabiela euskara, euskaraz bizi den herriaren euskara aintzat hartzea da lehen urratsa. Mogelen iritziz, beraz, guztiok geure txokotik irten eta beste euskalkietan ikasiz osatuko dugu hizkuntz gorpuzta.

"...Benetan txalogarria Moglek opa zuen euskara. Euskaraz ez dago zertan hitz berriak asmatu, lehenak jasotzeke direla, behintzat. Euskara aberastu nahi duena, doala baserririk baserri, herriz herri eta euskalkirik euskalki; hor aurkituko ditu euskararen mamia, bizkortasuna, hitz ezezagun eta gainerakoak, euskararen giharra..." (J. San Martin)

Ekologista batek, desagertzeko zorian dagoen animalia edo landare mota bat zaintzen duen bezalako arretaz eta maitasunez ari da Mogel Euskararekin.

Aurreko mendean Larramendik eta Kardaberazek bezala, lanerako deia egiten die hizkuntza lantzen saiatzen ez diren nagiei. Horretarako, nekazaritzatik hartutako irudi polit bat erabiltzen du: "Alperren solukak beti egongo dira bedar txarrez betiak".

ARGITARATZEKO ZAILTASUNAK

Giro politikoak ez zuen asko laguntzen, hala ere, euskal liburuak argitara eta zabal zitezkeen. Napoleonen gerrak zirela, fraile eta apaizen aurkako jazarpen eta atzerriratzeak zirela, geroago karlista gerrateak, dena zen oztopo eta traba. Horregatik, liburu asko ez ziren bere garaian argitaratu, baimen faltaz, eta badira oraindik argitaratu gabeak ere.

"...Ezpairik gabe, Mogelen lehenbiziko lana, 1800.urtean Iruñean argitaratu zuena da: konfesio eta komunioko Sakramentuen gañean erakasteak... Lan hau argitaratzeko baimena lortzea asko kostatu zitzaion; batez ere Nafarroako Consejo Real-ean trabak jarri zitzioten; Baina Moglek zer eginzuen? Madrilera jo. Karlos laugarrena zen garai hartan Espainiako errege eta honen ministro bilbotar bat, D. Mariano Luis de Urquijo, eta honen bitartez lortu zuen Erregeak ordena bat eman ziezaien Nafarroako Kontsejukoiei, aginduz euskarazko liburuei eragozpenik ez jartzeko, euskarazkoak direla eta beste gabe." (L. Villasante).

Horiek bai, baina ez ziren horiek bakarrik euskal liburuak argitaratzea hain zaila izateko arrazoiak. Banaka batzuk ziren euskaraz irakurtzeko gai zirenak. Argitaralpena ordaintzeko adina salmenta ezin zen ziurtatu eta agintarien aldetik ez zegoen euskal argitaralpenak laguntzeko borondate handirik.

J.A. MOGEL (1745-1804)

Gizon handi baten eskutik dator bizkaiera literatur mundura. Lapurdin Axular eta Gipuzkoan larramendi bezala, Mogel nabarmentzen da, beste guztien gainetik, bizkaieraz lehen liburuak argitaratzen diren mende hasiera hartan.

Eibarren sortu eta bere bizitzaren zatirik handiena markinan eman zuen, ama ere markinarra zuelarik, Mogelek. Xemeingo parrokian jardun zuen erretore lanetan.

Bere izakera eta lanaren funtsezko berri emango dugu.

MOGELEN HARREMANAK

Bere garaiko hizkuntzalari ospetsu gehienekin izan zituen harremanak. Badakigu William Von Humboldt, alemaniar ikertzailea, bi aldiz egon zela Euskal Herrian. Mogelek eta Astarloa, durangar apologista ospetsuarekin izan zituen harremanak. "Vasco-iberismo" delako teoria bermatu zuen alemaniarra bere txango, harreman eta ikerketa pertsonalen ondorioz. Iberiae penintsulako lehen hizkera euskara zela, alegia.

Erdi arotik zetorren teoria hau, Alfonso X.ak "El Sabio" deituak, idatzitako testu batean oinarritzen zen eta. Harrezkero, halaxe jaso zuen ideia, mendez-mende, Garibaik, Larramendik eta baita gure Mogelek ere. Gaztelaniaz idatzi zuen La Historia y Geografía de España ilustrada por el idioma vascuence liburuan ematen ditu euskararen jatorria eta bilakaerari buruz dituen iritzia.


MOGEL, EUSKAL IDAZLE

Euskararen aldeko eztabaida teorikoetan ez zuen, baina, Mogelek denbora eta ahalegin gehiegi eman. Teoria baino nahiago zuen praktika. Euskara lantzeari ekin zion buru-belarri. Lan horretarako iturri aberatsenera jo zuen, herritarren ahoetatik hitzak, ahoskera eta joskera jasoz. Horixe da, hain zuzen ere, Peru Abarkan ematen zaigun mezua: baserriak, euskararen gordailu izan diren baserriak direla gure hizkuntza eta kulturaren unibertsitate.

Euskaraz idatzi zituen liburuak honako hauek dira:

- * Confesio eta comunioco sacramentuen gañean eracustek. Badakigu Madrilera jo behar izan zuela berau argitaratzeko trabarik jar ez ziezaioten.
- * Versiones Bascongadas... Ciceron, Salustio, Tacito. Tito Livioeren euskal itzulpenak.
- * Nomenclatura de las voces guipuzcoanas, sus correspondientes vizcaínas y castellanas.
- * Confesio ona. Lehen gipuzkeraz idatzi zuena, orain bizkaieraz, abade bizkaitarrek hala eskatu ziotelako.
- * Cristinauaren jaquinvidea. Itzulpena.

PERU ABARKA, EUSKAL KLASIKO BAT



1802rako idatzia bazuen ere, 1881 arte liburu batean argitaratu gabe egon zen Peru Abarka. Liburuaren titulu osoa luzea da, garai hartako ohitura zen bezala: *Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte o Diálogo entre un rústico solitario y un barbero callejero llamado Maisu Juan*. Euskarari buruz zituen iritziak argi baino argiago edierazten dizkigu Mogelek liburu honetan. Ezagun da baserritarren ahoetatik jasotzen saiatu zela, bai hitz eta bai esaera. Horixe da, gainera, liburuaren mezua edo tesia: baserria dela euskararen habia eta unibertsitatea. Peru da benetako maisu, abere, belar, zuhaitz eta gainontzeko izadiaren xehetasunak bakoitza bere izenez ezagutzen dituelako. Maisu Juanek, oster, ez daki ezer, bere ofizioaz kanpo. Euskararik ere ez daki, erdararekin nahasitako mordoiloa baizik. Hiru ideia nagusi eman daitezke liburu honi buruz:

a) Munduaren ikuspegi erromantikoa nabaria da. Zibilizazioak kutsatu gabeko pertsonaren irudi bizia dugu Peru. Naturarekin harremanetan bizi da eta naturak egin du jakintsu.

b) Euskal elaberriaren aintzindaria da. Euskaraz egin den lehen elaberri saioa, Mitxelenak ziurtatzen digunez. Elkarrizketaz emana dator eta bi protagonistak Peru eta Maisu Juan, Mogelen zenbait ideia adierazteko aitzakia dira. *Peru Abarcaren* mamia honetan datza:

- Ohiturazko ikuskizun batzuk: baserriko bizitzaren berri eta burdinola eta ehundegiko jarduen deskribapena.
- Horretaz egiten diren burutapen didaktikoak.

c) Garai hartako bizikera eta euskararen lekuko. Inork ez du ukatzen alderdi horretatik begiratuta duen balioa. Baserriko lanbide, tresna eta bizimoduaz xehetasun jakingarriak ematen ditu. Euskara aldetik ere altzor preziatua dugu. Belar, zuhaitz, tresna askoren izenak, esaera zaharrak ugari dira. Benetan saiatu zen Mogel bere tesia frogatzen: baserriak direla euskararen unibertsitate.

AÑIBARRO ETA MOGELDARRAK

Bada Mogelen ondoan aipatu behar den beste idazle handi bat, adiskide handi ere bazuena: Pedro Antonio Añibarro arratiarra (1748-1830). Escu liburua, eta berean eguneango cristiñau cereguiñac da bere libururik ezagunena. Bera bizi zen artean hiru argitaralpen ezagutu zituen liburu honek. Bada zerbait garai haietarako. Mogelek ez du goresmena besterik, Añibarroren liburu honen gaia eta bizkaitar euskara ederra aipatzean.

Larramendiren eragina ere erraz antzeman daiteke. Umetan ikasitako euskararen egitura gramatikalaren ardura erakusten du. Gero liburuaren bizkaierazko itzulpenaren sarreran Larramendi aipatzen du eta "euskaldun guztien maisu" izendatzen.

Beste lan askoren artean, Añibarro bizkaieraz idatzi duen idazlerik oparoena baita, jonako bi hauek nabarmendu nahi ditugu, bi arrazoiengatik:

- Mogelek bete gabe utzi zuen asmo bat gauzatzen duelako.

- Apaizek herriari euskara landuan hitz egin ziezaioten garai hartan, Larramendik, Kardaberazek, Mogelek... erakusten zuten arduraren adierazgarri delako. Hona bi liburuak:

Voces Bascongadas Diferenciales de Bizcaya, Guipúzcoa y Navarra. Beste bere lan asko bezala, duela gutxi arte argitaratu gabea.

Gramática Bascongada para el uso y alivio de Párrocos y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcoanos y Navarros. Behar zen garaian mesederik egin ez zuena, dena den, ez baita duela gutxi arte argitaratu.

Ezin dira aipatu gabe utzi J.A. Mogelek berak hezi eta eskolatu zituen bere bi ilobak. osaba izan zuten, izan ere, lehen irakasle J. Jose eta Bizenta neba-arrebek. Aita J. Antonioren anaia, sendagilea zen. Oso gazteak ziren artean hil zitzairen aita, eta osabak hartu zuen bere gain iloben heziketaren ardura.

Juan Jose Mogelek Oñatiko unibertsitatean burutu zituen eliz ikasketak eta, osaba bezala, Markinako parroko izan zen 1811tik 1849 arte. Otoitz, berbaldi eta kristau ikasbide gaiez hiru liburu idatzi eta argitaratu zituen.

Vicenta Mogelek, bere neba J. Joserekin batera hartu zuen osabarengandik lehen heziketa. 1804an, hogeita bi urte zituenean, argitaratu zuen bere Ipui onac liburua, gipuzkeraz: Esoporen 50 fabula, hitz lauz itzuliak eta beste zortzi, bertsoz, hauek bere osaba J. Antoniok eginak.

PRAI BARTOLOME ETA BESTE

Prai Bartolomé de Santa Teresa: Etxebarrin sortua, euskal idazle eta karmeldar sermolari sutsua izan zen. Garai gatazkatsuak ziren mende hasierako haiek, Napoleonen Frantzia jaun eta jabe beitzebilen Europan zehar. Baita Euskal herrian ere. Frantsesek zekartzaten ideia laikoaren aurka gogor egiten zuen gure praileak, dirudienez. Kontua da, giroa baketu arte konfesatzea eta sermoigintzan aritzea debekatuak izan zituela. Icasiquizuna (Jainkoaren legeko aginduak eta zazpi sakramentuak sermoi bidez adieraziak) eta Euskal Errijetaco olgueeta ta dantzen neurrizco gatz-ozpinduba (dantzetan egiten diren gehiegikerien aurkako liburua) dira bere lanik ezagunenak. Euskara erraz, aberats eta apainez idazten du.

XIX. mendean Bizkaiko idazleetara mugatu gara, baina horrek ez du esan nahi beste esukalkietan idatzi ez zenik. Gipuzkoan adibidez hor ditugu J. B. Agirre, Lardizabal, Iturriaga, Iztueta, Arrue eta beste asko. Intxauspe, Arbelbide, Duvoisin, Lapeyre, Laphitz eta beste zenbait Iparraldean.

AUTOEBALUAKETA

- Bustidurek badute garrantzirik bizkaieraz?
- Egia al da fonema txistukariak ondo bereizten direla bizkaieraz? Arrazoitu.
- Nolako ahoskerak ditu / j / fonemak bizkaieraz? Eman adibideak (ahoz).
- Saia zaitez bizkaieraz erabiltzen diren hitzak erabiliz, sinonimoak ematen:

<i>gehiegi</i>	<i>galdetu</i>
<i>zaindu</i>	<i>ostiral</i>
<i>omen</i>	<i>herdoildu</i>
<i>itzali</i>	<i>gertatu</i>
<i>amuarra</i>	<i>nahi</i>

- Eman itzazu bizkaierazko moldeaz

<i>zurekin</i>	<i>bi etxe</i>
<i>gaude</i>	<i>ikusi du</i>
<i>txarki</i>	<i>nola</i>
<i>ni bezala</i>	<i>beraiek</i>
<i>nonahi</i>	<i>kale hauek</i>

Egia ala gezurra den esan

E G

	Euskaldunoi "alferkeria" leporatzen digu Mogelek
	Mogelek ez du euskararen ardurarik, erlijioarena baizik
	Gehiegizko garbizalea zen Mogel
	Zailtasun handiak zituzten garai hartan euskal liburuak argitaratzeko
	Euskal liburu gutxi sal zitekeen garai hartan
	Euskaraz asko idatzi zuen Mogelek
	Gaztelaniaz ere idatzi zuen euskararen jatorriari buruz
	<i>Peru Abarka</i> izan zen Mogelek lehenik argitaratu zuen liburua
	<i>Peru Abarka</i> erlijiozko liburua da batik bat
	Erromantizismoaren eragina nabaria da <i>Peru Abarkan</i>
	Lehen euskal elaberritzat hartzen da <i>Peru Abarka</i>
	Mogel da garai horretan bizkaieraz idazten duen bakarra
	"Vasco-iberismoa" gaur egun ere indarrean dagoen teoria da
	Añibarroren <i>Escu-liburua</i> ez da oraintsu arte argitaratu
	Añibarrok hiztegia eta gramatika bat ere idatzi zituen
	Mogelek euskal giroan hezi zituen bere iloba biak
	P.Bartolome ederki konpondu zen frantsesekin
	<i>Peru Abarka</i> ez zen argitaratu,liburu gisa, 1881 arte
	Bizkaieraz dira XIX.mendeko liburu gehienak
	Beste euskalkietan ere idazle on asko dira mende honetan

12. OHITUR NOBELA

SARRERA

Euskal nobelaren azterketa garatzerakoan, gogora datorkigun lehenengo arazoa hauxe da: euskal nobelaren guztizko BEREIZTASUNA. Badirudi euskal nobela, bai kopuruz bai kalitatez, besteak baino txarragoa dela.

Literatura garatuetan ere, nobela mota edo tankera berankortzat hartu ohi da, beste literatur-moten aldean olerkia, epopeia, antzerkia.

Hala izanik, ez da harritzekoa gurean are beranduago sortua izatea.

Euskal literaturaren bereizgarririk garrantzitsuenetako bat, beste literaturen aldean, bere BERANKORTASUNA baldin bada, berankortasun hori oso apartekoa da nobelaren mailan.

Europako literatura nagusienei dagokienez, XIX mendea da nobelarena. Euskaraz, aldiz ez dugu nobelarik, praktikoki, XX. mendera arte.

XIX. mendearen azken urteetan koka dezakegu euskal nobelaren sorrera. Mogeleg 1802an idatzi zuen Peru Abarka nobelatzat hartzen badugu ere, mende horren bukaera arte, 1881 arte, argitara gabea egon zenez, urte horietan jarri behar dugu euskal nobelaren abiapuntua.

Euskal literatura bezala, elaberria ere berankorra eta urria izateaz gain, kalitatez ere ez da hain ona izan, literaturaz kanpoko helburuen zerbitzutan egin izan delako, kasu askotan.

Euskal nobela euskararen egoerak baldintzatzen du eta euskararen egoera eta bilakaera gizarte aldaketen ondorioa da. Testu askoren sorbidea eta helburua linguistikoa da, literarioa baino askoz gehiago, hizkuntzaren zerbitzari bilakatzen delarik.

Hala eta guztiz, bada euskal nobelistika bat, euskaraz idatziriko testu multzo bat.

EUSKAL NOBELAGINTZAREN HASTAPENAK. OHITUR NOBELA

Garai honetan baserritarren eta arrantzaleen bizitzara mugatzen den ohiturazko nobela nagusituko da euskal literaturan.

Nobelaririk hoberenak tesikerian erortzen dira, literatur balioak galduz. Egilearen eskua nonnahi ikus daiteke. Pertsonaiak abstraktoegiak dira, onak onegiak, txarrak txarregiak.

Ohitur-nobeletan inguruko pertsonen ohitura, jokaera eta abar adierazten dira. Baina egunerokotasun horren kontaketa idazlearen idaiak, sentimentuak edo aurreiritziak botatzeko aitzakia baizik ez da izan. ELABERRI DIDAKTIKOA izan da, gehienetan, ohitur-nobela, labur esateko.

Gainera, konta-teknikei buruz, ohiturazko nobelaren ezaugarririk nagusienetako batzuk izan daitezke adibidez: KONTALARI GUZTI-JAKITUNaren erabilera. Kontalari honek ez du kontatu bakarrik egiten, bere iritziak ematen ditu eta liburuaren mezua oinarritu eta gogortu ere egiten ditu. Gainera, trama edo irazkia oso ttipi delarik, nobela ESTATIKOA dugu, bere tankera deskriptiboagatik.

Dena delarik ere, prosa berri hau Domingo Agirreren eskuetan maila garai batera heltzen da, batez ere haren instinto literarioagatik.

Euskal prosa literario modernoa Mogeekin hasten da. Baina duda asko daude Peru Abarka lehen euskal nobelatzat hartzeko. Mogelek berak ELKARRIZKETA bezala aurkezten zuen liburua, azpiztituluan “*autua*” izena ezarri zionean.

Egia da nobela dela literatur motarik mugagaitzena eta mugikorrena, baina ez dirudi Peru Abarkak euskal nobelaren sorreran ezartzeko adina ezaugarri narratiborik duenik. Hori ehun urte geroago geratuko da, gutxi gora behera.

TXOMIN AGIRRE BADIOLA (1864-1920)

Ondarrun jaioa. Apaiza Zumaian eraman zuen bizitza guztia. Euskaltzain izan zen Euskaltzaindiaren hasieratik.

Hiru nobela idatzi zituen.

* Auñamendiko Lorea. (1898). Elaberri historikoa da, zazpigarren mendeko Ipar Euskal Herriari eta kristautasunari buruzkoa.

* Kresala. (1906). Hau eta Garoa dira euskal nobelagintzan inportantziarik handiena dutenak. Lehena bizkaieraz, eta bigarrena gipuzkeraz, bata itsastarra eta bestea menditarra, biak dira anaia bizkiak. Kritikoak ez datoz bat bietan onena zein den esatean. Badirudi gehienek Garoa dutela hobetzat.

Kresala-ri dagokionez, Ondarruko bizitza eta ohiturak azaltzen ditu. Nobelan Ondarruri “Arranondo” izena ematen dio. Gure itsas herrietako ohitura eta bizimoduaren berri jakiteko aparteko liburua da.

Herri euskara ezagutzeko ere apartekoa da.

* Garoa. (1912). “Euskaldun fededun”aren ideiatik abiatuz, Mogelek erabilitako baserri gaiari heltzen dio, baserri eta kaleraren arteko DIKOTOMIA berrituz. Baserria, mendia da beheko, kaleko ohitura, jolas, hizkuntzaren aurrez aurre jartzen zaigun eredia.

Eta baserriaren eredu horrekin erabat lotua doa Joanes artzaina, nobelaren pertsonaia nagusia. Bere gorputz eta izaera osoaren gorespina da elaberria. Edozein gizon eta kristaurentzat eredu imitagarria, heroia da Joanes.

Beste pertsonaien tratamenduan ere ikuspegi moralista nagusitzen da: onak batzuk eta gaiztoak besteak.

Izan ere, ohiturazko nobelaren bikoiztasuna ez da bilaketa bjetibotik sortua, aurreko tesi batetik baizik. Eta honek baldintzatzen ditu errealitate-elementuen aukera eta moldaketa. moraltasunaren zama didaktikoa darama funtsean nobela mota honek.

ARIKETA

Hemen duzu GAROA nobelaren hasiera. Azter itzazu honako puntu hauek:

- Hizkuntza
- Narratzailearen ikuspuntua
- Pertsonalien egoera eta izaera
- Lekua
- Maila sinbolikoa
- Euskara batura pasa

Ura zan gizona, ura!

Zazpi oin ta erdi bai luze, makal zugatzaren irudira zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera ziemel.

Orrela zan Joanes nik ezagutu nuenean.

Sendoak zeuden oraindik artzai zarraren beso zaintsuak, txit azkarrak bere oñak, zindoak bere bular auspoak.

Irurogeita amabi aldiz ikusi zuan, Aloña mendiko ariztietan, ostro berdea berriz jaiotzen; baña etzion eramango emeretzi urteko mutil batek ez aizkora jolasean, ez burni jaurtitzen, ez mendietan gora edo ibarretan zear laisterka.

GAROA

IKUSPUNTUA bi modutara agertzen zaigu: kanpotik denean orojakile bezala agertzen da (eta, noski, hirugarren pertsona da erabiltzen duena), pertsonaiari buruz dena daki. Eta balorazioak ere egiten ditu (“Ura zan gizona ura”). Hau oso normala da kontalari orojakilearekin, testuaren barnean sartu eta balorazioak egitea. Barrutik ere agertzen da, beraz, (horrela zen Joanes nik ezagutu nuenean). Beraz, nagusi den kanpoko kontalari orojakilea batzutan historia barrenean sartzen da.

KONTATZEKO MODUA. Deskripzioa da nagusi. Adejtiboak ere ugari dira (Txomin Agirreren adjetiboen aberastasuna aipagarria da). Baina deskripzioa aitzaki bat besterik ez da, zenbait gauza adierazteko (ohiturak adibidez).

MAITASUNA (ez du garrantzi handirik), kontaketa interaktiboa ere agertzen da, askotan gertatzen dena behin kontatzen digularik.

PERSONAIAK

Joanes ekintzaren sujeto funtzionala da. Gauza guztien ardatza besteen arazoak berari dagozkio, eta nobela guztian beste pertsonaiak Joanesen tira-biran ikusten ditugu. Arazoak Joanesi afektatzen dioten neurrian kontatzen zaizkigu.

Eta ardatza izateaz gain, eredu ere bada. Nobela klasikoan oso argi eman ohi dira zenbait pertsonaia: protagonista (Joanes kasu hnetan), antagonista (protagonistaren kontrakoa), objetua

(helburua eskuratzen duena) eta laguntzailea (pertsonea bati laguntza eskaintzen diona). Pertsonaia kolektiboa ere ager daiteke.

Bestalde, Joanesek, protagonistak, ez du nobelan zehar eboluzionatzen, pertsonaia laua, konfliktorik gabekoa da.

Gainera, aurretik esaten digu pertsonaia nolakoa den, ekintzak gertatu baino lehen. Ezer egin baino lehen badakigu Joanes nolakoa den (eta berdin gertatuko da beste pertsonaiekin ere). Kontalariaren orojakintasuna oso handia da. Eta pertsonaiak kontalariaren baloreen arabera juzgatzen dira.

LEKUA

Errealak da; Oñati inguruan dago.
Aipagarria da ere lekuaren estratifikazioa.
Goia, baserriko munduan ona
Behea, kaleko mundua txarra

Dualismo hori nobela osoan agertzen da. Gaiztoak behean, kalean, bizi dira. Goian bizi direnek etorkizun ona eta bakea edukiko dute, euskara gordeko dute....

Kaleko pertsonaiak, berriz, alferrak, barregarriak dira.

Eta Joanes artzaina, pertsonaia perfektoa, goiko elementuekin konparatzen du.

DENBORA

Nobelaren denbora, bere osotasunean, luzea da, 17 urte.

Iraupenari dagokionez, zati honen erritmoa motela da, pausa dugu. Historiaren puntu txiki bati kontaktan orrialde asko ditugu. Desoreka ematen da fikzioaren denbora eta kontaktaren denbora alderatzen ditugunean (hau deskripzioetan ematen da batez ere, testu honetan bezalaxe).

HIZKUNTZA

Ezaugarriak nagusia adjetiboen aberastasuna da.

Baserriaren hizkuntza.

MAILA SINBOLIKOA

Lehen aipatu dugu goiaren eta behearen arteko bikoiztasuna. Erlijioa da oinarria. Belaunaldi berriak hemen ez du eztabaidarik sortzen, aurrekoen bizitza onartzen du. Progresoaren kontra agertzen da, baserria defendatzen duen mailan. Industrializazioaren kontra dago, eta inmigrazioaren kontra ere bai, hau euskeraren kontra baitoa.

Joanes euskal izatearen sinbolu gertatzen da, eta euskal izateak baserrian eta itsas gizonen artean dirau. Bere ustez, euskal izatea erlijiotasunean, euskaldun izatean eta baserrian dago.

Hona hemen Kresalaren pasarte bat:

ARRAIN SALTZAILEAK

“Arraina politico ekarren ta, potinak sartu ziraneko, han egozan nasa gainan emakumeak.

Euren egitekoa da. Arranonodon behintzat arraina txalopetatik atara, garbitu ta gazitutea, txikia bada (sardina ta antxobea). Handia danean (besigu, legatz edo atuna, batez be), saltokira eruatia dabie asko, bada txalopa guztiak dakarren arraina batera saltzen jakue mandazainai.

Emakumeai jagoke, gainera, erdalerrietara bialtzeko lantegiak erosi da roen arraina oriotan erre ta upeltxueta tolostutea.

Ta, azkenez, euren egitekoa da herrian ta inguruetan jateko behar dana kalerik kale saltzea.

Hiru eratako saltzaileak ezagutzen ditut: txalopa jaubien emazteak, emakume ixil ta onak gehienetan, potintxuak dakarren arrain txikia, erre edo egosi barik luzaroan euki ezin dan arraina, herrian bertan kalerik kale salduohi daroenak; eta besteai erosita auzoetako herrietan ahal dan arrain mueta guztia eruaten dabenak: astodunak deritxua azkenengui, astoakaz doiazalako herririk herri.

Astodunak ziran Tramana ta Brix edo, hobeto esateko, asto jaubeak, bada herrietara alogerekoak bialdu ohi zituen; langileak biak eta bihotz onekoak, baina ezagutu ziranetik bata bestearen arerioak edo arerio legez bizi ziranak, eztena baino mihin zoli ta zorrotzagokoak, ahora jatorkoen zatarkeria edozeini esan behar eutsienak, alkar ikusi orduko beti erriertan zihardutenak, atzamararako beti prest egozanak. Eurak ziran emakume agirikari guztien buru ta nagusi agiraka egitea zan euren poza; nasan batuten zireanen artean gogorrenak eta gaiztoenak izatea euren harrotasuna. Orain bat eta gero bestea esan arren ez eutsien ardura; guzurretan inork hartuagaitik ez zirlotsatuten, bada deadar handiena egiten ebank edo atzamarrik sendoenak eukazanak irabazi ohi eban auzia. Ta deadar, garraxi ta txilioak egiten horretantxe ziran ba eurak mutlak.... edo emakumeak! Hutsa behar izaten ebien haserratzeko, ta haserre egozanean, entzutekoak izaten ziran euren destainazko esanka... edo ez entzutekoak, ikusgarria euren gorputz, buru ta eskuen eragin aukerazkoa.

Aitatu dotan egun honetan be, ezerez bategaitik hasi zirna, ta Jaungoikoak daki zelan amaitu eben haserraldia, eztarriak itxi ta zeresanak eta indarrak amaitu jakoezanean.

Otzarakada bat atunegaz etorrela, nasa gainean egozan emakumien artetik igarotean, bu.tzada bat emon eutsan otzara horregaz Brixek Tramanari, uste bage edo nahita, hori ez dakigu, bada era bietara gertau zeikean.

Tramanak, burua bihurturik, ikusi eban bere arerioa ta hasi jakon:

- Nor da berau, hainbeste leku behar dabena? Erregina dalakoan birau natxako ta Brix sorgina baino ez da.

Tramanaren esan garratza entzun orduko, itxi eban Brixek lurran bere otzarea, ipini zituan esku biak gerrian, ta inguruetakoai begira, buruari eraginaz, esan eban:

- Hara, hara oin be zelan hasten dan kaskamotz, zikin hordi hori.

Ta arerioari ausarditsu arpegia emonda, jarraitu eban:

- Entzuizu, Traman zabala, atso popandia, zein sorgintsutan ikusi nazu neu?

Zeu izango, Traman zabala, atso popandia, zein sorgintsutan ikusi nazu neu?

Zeu izango zinan sorgintsuan zu, baina horditurik, eta ez zenduan ezagutuko zeugaz ebiltzanak be zuk.

- Hordituta neu? Zegaz gero hordituta? Zeuri atzo amantalpetik jausi jatzun bonbilekoagaz?

- Eee? Zeeer? Neuri bonbila jausi jatala atzo kalean? Guzurra dinozu, saskil, zantar, txarri, urde, zorritsu, lotsagabe horrek.

- Min emoten deutsu egiak, min? Alperrik ukatuko dozu ba, Marikontzek be ikusi zenduzan ta.

- Marikontze ezkailu, txatxala, eskel, penatralari ta zuri, biori, arpegiko narrua kenduko deutsuet nik, neure atzamarrakaz, lodia daukazue baina.

- Zeeek? Ja jaiiii! Ez zaite ahaztu gero, buruan zorririk ez badaukazu, neuk lehenago bartzak hautsi neutsuzalako dala.

- Zeuk bartzak kendu niri? Ez dago toki txarrean. Nire barruan ez dago bartzik. Burua garbi daukat nik, Tramana zuk, zital, zikin horrek, egundo zeure bizian euki ez dozun bestean garbi.

- Zergaz garbituta? Txanton Kaiuanetik zeroiazun pattarragaz? Hobeto egingo zenduan begietako makarrok be garbitu bazenduz.

- Txantonenetik pattarra baneroian, ondo neroian; neuretik, ez zuk lez inoren lepotik....
 - Ja jaiiii! Lehen ez dozu ba esan ez zeroiazula?
 - Lehen, ta orain, ta beti, neuria egia, neuriaa....
 - Uutik, mielga ustel gosekila! Zuaz nire aurretik, bestela..
 - Bestela zer? Neu joango naz, nahi dotanean, zu lango emakume baldar, koipetsu, zetakaz beteriko bat neure aurrean ez ikusteagatik.....

Ez zan honenbestegaz amaitu Brix eta Tramanaren arteko ekinaldia: aldendu ziran alkarrengandik, ihardunean; baina bilatu eben bareriro alkar bi, hiru, ta lau bidarreraino, ta han izan ziran hangoak azkenerako, bata besteari oratu eutsienean.

Askok usteko dau zatarkeria gehiegi ipinten ditudala hemen: izan leiteke; baina Brixek eta Tramanak esandakoen laurenik ez dot ipini; ta halan be, herritar gizonak euren txalopetako arazo ta zereginetan. ezeri jaramonik egin baga jarraitu eben. Betikoa zan ta! Beste batzuk izan ziran baina, Tramana ta Brix... Ba...!

nasa: kai

jagoke: dogokie

alogerekoak: soldatapekoak

birau natxako: biratu natzaio

bonbila: botila

zeroiazun: zeneramn

mielga: makal, mengel

erosi daroen: erosi ohi duten

jakue: zaie

dabie: dute

jatorkoen: datorkien

bartz: zorrien arrautza

neutsuzalako: nizekulako

baneroian: baneraman

zetaka: orbain, lohiune

ARIKETA / TESTUAREN INGURUAN

Esaerak lantzen

Azal ezazu hurrengo esaeren esanahia:

Eztena baino mihin zoli ta zorrotzagokoak

Horretantxe zirna ba eurak mutilak....

Hutsa behar izaten ebieen haserratzeko

Buruan zorrik ez badaukazu, neuk lehenago bartzak hausi

neutsuzalako da

Ez dago toki txarrean

Han izan ziran hangoak (...) bata besteari oratu eutsienean

Lexikozko aberastasuna

Zerrenda itzazu Tramana ta Brixen elkarriketako izenondo guztiak, berauen definizio edo sinonimo batez azalduz.

IV. UNITATEA: LIRIKA XX. MENDEA

* KONTZEPTUAK

- Olerkigintza:

Lirika herrikoia eta euskal literatura idatziaren sorrera
XVII. mendeko olerkigintza
Bizkundera arteko olerkigintza. Bizkundera
Azken emaitzak

* PROZEDURAK:

- Literatur obrak interpretatzeko beharrezko diren tresnen aplikapena, bai literatur azterketari dagozkionak, bai testuinguru historiko - soziala ulertzeko beharrezko direnak ere
- Literatur sorkuntzarako hurbilketa testu ekoizpenaren bitartez
- Literatur baliabideak egokiro testuetan aztertzea

* JARRERAK.

- Literatur testuen irakurketa ekintza atsegin eta aberastasun iturri pertsonal eta kultural bezala baloratzea
- Olerkia barne sentimenduen adierazmen mota gisa kontutan hartzea

1. BERTSOPAPERAK ETA OLERKARIAK XX. MENDEAN

Atariko galderak

- 1) Zer esango zenukete, bertsolaritza XIX, mendeko kontua dela esango balizute?
- 2) Gauza bera al da bertsolari eta olerkari izatea? Zertan dira ezberdin zuen ustez?
- 3) Zer gertatu zen 1936-39 bitartean? Euskara eta euskal kulturaren garapenean nolako eragina izan zuen gertaera honek?
- 4) Azter itzazu jarraian dituzun bertso eta olerkiak eta esan ezazu zein den ikusten duzun aldea.
 - Zein neurri darabilte?
 - Musikaz abestu izan badira, ezagutzen al dituzu doinuak?
 - Zein baliabide literario antzematen dituzu?

JAI-JAI

Bein batian Loiola'an erromeria zan,
Antxen ikusi nuen neskatxa bat plazan;
Txoria baño ere ariñago dantzan
Uraxen bai polita, an politik ba'zan!

Esan nion desio senti nuen gisan,
Arekin izketa bat nai nuela izan.
Erantzun zidan ezik atseñik ar nezan,
Adituko zidala zer nahi nion esan.

Arkitu giñanian iñor gabe jiran,
Koloriak gorritu-arazi zizkidan
Kontatuko dizuet guztia segiran,
Zer esan ninon eta nola eratzun zidan.

- Dama polita zera, polita guztiz, ai!
Bañan alare zaude oraindik ezkongai;
Ezkon gaitezen biok. Esan zadazu bai.
- Ni zurekin ezkondu? Ni zurekin? JA-JAI

(Bilintx)

AGUR SAGAR BELTZARAN

- 1) Gogoan al dun nola
biok parez pare
izan ginen urondo
bereko landare.
Gero egin haiz zuhaitz
arrotzeko lore
badun nik ez dakidan
hainbeste kolore:
Zenbat aldatu haizen
SINESTEKO ere!

- 2) Alde huen herritik
igandean goizik
hemen ez omen bait zen
betikoa baizik
Pantailan omen habil
Pantailan omen habil
orain oso pozik
behin erdi estalita
behin erdi biluzik:
Ez ninan SINESTUKO
neuk ikusi ezik.
- 3) Eguzkiz makilatu
dinate azala
jantzi eta erantzi
panpina bezala.
Hi omen haiz harako
irla ideala
zoramen-haitzak eta
zorion-itzala:
Ez dun SINESTEN baina
ematen dun hala.
- 4) Oraindik ezin dinat
buruan bat egin
joan hintzen usoa
"Txoriñe" honekin.
Maite haut esateko
zenbat hots ezberdin
Oh ma chene. Oh mi amor!
I love you my darlin:
SINESTU dien eta
hireak egin din.
- 5) Amodioa hire
ager-ostenetan
teatroa besterik
ez dun gehienetan.
Hi azukrontzi jarri
haute banaketan
begiak euliak lez
ibiltzeko bertan:
Zail dun SINESTEN baina
hala dun benetan.
- 6) Yo te adoro, Oh my love!
Ene mon amour-a
Ez al zain higuigarri
delako murmurra?
Betiko tuntun horrek
behar din gezurra
edo beste egien
estalki maltzurra:
Zulatu didan neukan
SINESTE apurra.

- 7) Loriak udan intza...
 Lizar gerri lerdan...
 Maitaleak horrela
 mintzo gaitun hemen.
 Ez dun haln "guaia" baina
 euskaraz bederen
 hobeto jakiten dun
 egia ote den:
 Hik dena SINESTU dun
 ulertu baino lehen
- 8) Ez dinat ukatuko
 berezko lilura
 loreak ere joaten
 ditun merkatura.
 Sal-erosian habil
 eskutik eskura
 heuk zenbat balio dun
 ez zaie ardura:
 SINESTE zertan den,
 gure neska hura!
- 9) Halako marka berri
 gatanten aukera
 turbo-motorea eta
 bi izter gainera.
 Prezioa jartzen din
 bularren parera
 tristura jetxi zaidan
 gogo barrenera:
 Ezin dinat SINESTU
 HI HAIZELA BERA

(Xabier Amuriza)

ITAUNA

Maitatzen bazaitut, itaundu dautsozu
 leyuan klisk-dagin illargi-izpijari.
 Larrosa zuriko t.xindor kantubari
 itza artu eziuk gaba igaro dozu.

Axiari itaundu dautsozu legunki:
 berak baña jolas dagi zeure ulian.
 Ete dakije ezer ixarren unian?
 Mosu dagitzube gustijak kutunki...

Itaundu dautsuzu zeru garbijari,
 itxasoko uñai ta ixadi orori.
 Maitasun orretzaz baña, maite ori,
 ez dautsozu itaundu zeure bijotzari!

(“Lauaxeta”)

dautsozu = diozu

dagin = egiten duen
dagitzube = egiten dizute

ETA BAINA bultzaka
sartu garenok
sartzen gindoazela ohartuz
sartu gara
Sarreran sartzera
bultzatu bainaute,
hala beharrez.
aunekoei pasatu
behar izan diet
ezin geratu ahal izan dudana bultzada
eta baina bultza bultzaka,
denok kabitua gara
bagoian

eta oraindik
lekua zaigu sobratzen
buruen gainean.
Baina hondar ez garelako
esan nahi dut:
bakoitza norbere
erreakzioz
ala ondokoarenez
ohartzen garelako.
arraio!

Giza pila hontan
pilako bat naizela
konturatzearen
pozak pozatzen nau,
eta gainera
neure arduren mundua
eta. atzeko faltrikeran
sartu dudana dirua
oraindik aldean dudala
jakitearen pozik ere badut.

Zirrargarria zait
gorputzez jotzen dudana jendeak
zein sentimen, zein ideia
zein barruko mundu
ote dararnan pentsatzen jartzea.
Eta berriz diot:
Gorputzak pila daitezke pilatan,
baina kontzientziak ez.

anuntzioak		
	zirt-zart	
		mila
zartada		
	mila	
		sastada
mila		
	tamaina	
		tankera
milatan		
	mila	
		lekutan
sistaka		
	sastaka	
		hiria
zehar		
	sisti-sast	

(B. Gandiaga, *Uda batez Madrilen*)

BERTSO IDATZIEN SUSPERRALDIA

Garrantzi handia izan du eta oraindik ere badu ahozko literaturak gure herrian. hain bildua, txikia eta lur honi lotua da herri hau, XX. mende honetan ere noiznahi eta nonahi soma daitezke kantu zahar, ipuin eta erromantze zaharren oihartzunak eta bertsolarien berezko jardunak. Hizkuntza bera, euskara, kantu bidez landutako tresna dugu eta oso erraz jotzen dugu kantura gure sentimendu eta ideiak adierazi nahi ditugunean.

Bat-bateko bertsoiaritza aide batera utziko dugu, arreta bertso idatzitan jarriko dugularik, bertsopaperak eta olerkiak XX. mendean izan duen lanketaz ohartzeko eta bien arteko antzekotasun eta berezitasunez iabetzeko.

XIX. mendeko bertsolaritzak ez du etenik XX. mendean. Bi mendeen mugaz gainetik sendo eta agirian daramate bertsolaritzaren lekukoa bertsopaperetan ere nabarmendu ziren hainbat bertsolarik: Otaño, Txirrita, Imaz, Enbeita... Bertsoak paperean jartze horrek indar handia hartu zuen bai Iparraldean Lore Jokoekin eta bai Hegoaldean ere. Irakurtzen zekitenen kopurua gero eta handiagoa zenez oso erraz saltzen ziren bertsopaperak. Gizarte hartan funtzio bat betetzen zuten; egunkarien faltan, paper horien bidez irakur eta kanta zitzaketen gertaera arretagarriak. Gogoratu, adibide gisa, Iturrinoren "Markesaren alaba" edo Txirritaren "Norteko Ferrokarrila".

BERTSOPAPERAK GAUR EGUN

1936ko gerra aurretik edonon eta ugari saltzen ziren bertsopaperak ez dira hainbeste ikusten mende honen 2. zatian. Gaur egun berriak emateko funtzio hori egunkari, aldizkari, irrati eta telebistak betetzen dute, nabaria denez. Egiten dira, bai, gaur egun ere bertsopaper lehiaketak, baina, egia esan, lehengo funtziorik ez dute betetzen egungo bertsopaperek. "Berriak emateko" balio ez dutenez, ez dute lehengo arretarik ere lortzen. Betso idatzi horien balioa neurtzeko erabiltzen diren irizpideak bi izaten dira, labur esateko:

- Hizkuntzaren erabilpen egokia, txispa eta grazia.
- Argudioaren garapena eta literatur baliabideak.

Horrela, gaiaren arabera, bertso idazleari bi aukera geratzen zaizkio: Satira, epigrama edo horrelako mota batean sar daitekeen lana burutzea edo lirika sailean sartzeko moduko bertso-multzoa sortzea.

Lehengo bertsopaperak kantuz zabaltzen ziren artean, oraingo gehienak irakurri ere inor gutxi egiten ditu. Kantuaren laguntzak eman die, izan ere, lehengo haiei gaur egun arteko iraupena. Ez da besterik X. Amurizak lortu nahi duena, A. Duhaldekin egin dituen saio horien bidez: bertso berri idatziei hegoak eskaini musikaren bidez.

OLERKIAK ETA BERTSOPAPERAK

Puntu honetara iritsi garelarik, galdera bat egin genezake: Zein da bertsopaper eta olerkariaren artean dagoen aldea?

Bata eta bestearen sorrerari begiratzen badiegu, berehala ohartzeko gara zenbait berezitasunez:

- Bertsopaperetako bertsoek bat-bateko bertsoen traza handia dute, beti ere azken puntuari begira osatutako ahapaldiz egiten baitira. Bertsopaperen egilea bat-bateko teknikaz baliatzer, da, gehienetan behintzat.

- Bertsolariak erabili ohi dituzteneko neurriren baten eginak izaten dira, helburua jendeak kantatzea baita. Horrela, bertsopapera erosi eta etxera daramana, nahi duen beste aldez bertso horiek irakurri eta abestuz, azkenerako buruz ikastera ere iristen da. Bertsopaperak eurak bihurtzen dira azkenerako bertsozale aditu eta bertsolari berrien eskola ere. Herriak irakur eta abes zitzakeen eran egitera beharturik zeuden. bestela ez baitzuten arretarik eta eroslerik lortuko.

- Olerkiari dagokionez, neurtitzez idatzia izatean bertsopaperarekin pareka genezake. Baita idazleak bere lana egiteko har dezakeen astian ere.

- Olerkia, hala ere, ez dago nahi eta nahi ez bertso moldeko neurriari lotua. Olerkariak gaia ezezik bertsoaren neurria edo forma ere berak asma dezake, gaia adierazteko egokiena deritzona hautatuz. Ondorioz, zenbait olerki ezin dira herriak ezagun dituen bertsolari moldeetan abestu. Musika ere asmatu egin behar izango da olerkia kantuz zabal dadin nahi bada.

- Ez da bakarrik neurri eta doinuarena bien artean antzeman daitekeen aldea. Bertsopaperetako gaia, berri edo notizia bezala zabaltzen zen. Beraz, kontaerak berak hartzen zuen pisurik handiena bertso sailean. Olerkariak, oster, ez du gertaerarik behar eta horietan oinarritzen denean ere, bere ideia edo sentimenduren bat adierazteko aitzakia gisa erabiltzen ditu.

EUSKARAREN ALDEKO LANEN ANTOLAKETA

Bertsopaper eta olerkien arteko antzekotasun eta berezitasunez jabetu ondoren, hel diezaiozun lehengo kateari. Lore Jokoen eraginez euskal kulturak izan zuen zuzpertzeara aipatzen eta ikusten genuen arestian. Egia da; gure nortasunari eusteko bide gisa, euskara arlo guztietan lantzea hartu zuten xedetzat Iparraldeko nahiz Hegoaldeko hainbatek. Lore Jokoa euskal folkloreak erakustoki bilakatu ziren urte askotan, baina Euskal Herriak proiektu politiko baten beharra zuen bere etorkizuna oinarri sendotetan eraiki nahi bazuen. Egoera horretan uiertu behar da Sabino Aranaren lana eta E.A.J.ren sorrera.

XIX. mendeko Lore Jokoak "Euskal Jai" eta "Euskararen Egun" bihurtzen dira XX. mendean. Lehen kirolekin nahasian egiten ziren olerki sariketak. Orain, oster, euskara arlo guztietan lantzea eta suspertzea da helburu: saiakera, eskola liburu, antzerki, nobela, olerki... Antolatzaileak ere ez dira, lehen bezala, jaun "mezenas" edo laguntzaile bakanak; erakundeak ikus ditzakegu euskara eta Euskal Herria aurrera atera nahian: Diputazioak, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Euskal Etnalea, Euskaltzaleen biltzarra, Euskaltzaleak... Euskaltzaindia sortzeko erabakia, adibidez, Bizkaiko diputaziotik atera zen, ondoren beste euskal diputazioek era bat egin zutelarik.

"EUSKALTZALEAK"

Euskaltzaleak izeneko taldeak lan handia egin zuen euskararen alde gerra aurreko 10 urtetan. 1927an sortu zuten taFde hori eta harrezkero herri askotan antolatu zituen Euskararen egunak. Irakurketa eta idazketa saioak egiten ziren eta baita euskal liburu erakusketak ere.

1930ean baziren 2000 inguru "Euskaltzaleak" taldeko partaideak. Euskal kultura lantzeko proiektuak gero eta arlo zabalagoak hartzen ditu: olerki, antzerki, elaberri, irakaskuntza, bertsolaritza e.a "Aitzol", elizbarrutiko karguetan ibilia, hautatu zuten taldearen zuzendari. Ez zuten nahi euskal kulturaren suspertzea eta garapena koordinatu gabeko noizbehinkako ekintza isolatueta laga.

Horrela, Aitzol Euskararen egun eta Euskal Jaiak antolatzen saiatu zen baina baita olerki eta antzerkiak egunkari eta aldizkarietan argitaratzen ere. Beti ere bere azterketa kritikoa gaineratzen zuen, kalitate hobea lortu nahirik. 1933an Yakintza aldizkaria sortu zuen, euskal literaturaren arlo ezberdinetan sakondu eta eztabaidak bideratzeko tresna izan zedin. Horrez gainera, 1930etik 1936ra ospatu ziren Olerti Egunetan aurkezturiko zenbait olerki urtero argitaratu zituen "Eusko olerkiak" izenpean eta azterketa kritikoa erantsiz.

OLERKIAREN GARRANTZIA: "OLERKARIAK"

Euskal kulturaren arlo guztiak landu behar baziren ere, olerkiari garrantzi berezia ematen zioten garai honetan. Edozein herri beharrezkoak zuen bere "Poema epikoa". Euskal Herriak ere hala behar zuten, euskara edozein gai lantzeko gai zela erakutsi behar baitzen. 1930ean, hain zuzen, betetzen zen Federico Mistral Probentzako olerkari ospetsua jaio zenetik ehungarren urtea. Mistralek "Provence"ko hizkeraz egin zuena egin beharra zegoen euskararekin ere. Kontua da Mistralen Mireio poema euskaraz jarri zuela Orixek, euskara olerkigintzarako gai zela erakutsi nahirik edo. Beste hizkuntza kultu edo landu guztiek bezala, euskarak ere bere olerki liriko eta epikoz jantzia behar zuen, euskara edozertarako gaituz. Hona zer dioen Aitzolek berak: "Idazleak aisago eta errezago ibil daitezen, olerkariak, erdialdi nekeak igarota, buruhauste gogorak ikusita, hizketaren bide zabalak irekitzen dituzte".

Beraz, bertsolarien bat-bateko jarduna eta ateraldi zorrotzak alde batera utzi gabe, olerkia lantzeari berebiziko garrantzia eman nahi diote. Bertsolari jaialdiak ere antolatu zituen Aitzolek 1935 eta 1936an, baina argi dauka bi gauza direla bertsolaritza eta olerkigintza. Bertsoetan erabiltzen diren gai herrikoietatik aparte gai sakonak ere euskaraz erabili eta landu beharra zegoen.

HIRU OLERKARI HANDI

Euskal literatura Europako literaturaren mailara jaso nahirik ahalegin handiak egin zituzten gerra aurreko zenbait olerkariak. Literatura klasikoaren eta garai hartako Europako literaturaren berri zutenez, euskal olerkiari ere arnasa berria eman nahi izan zioten. Olerkariak izenez ezagutzen ditugu 1930 inguruko zenbait poeta handi: Loramendi, Lauaxeta, Lizardi, Orixe. Guk azken hiru hauek aipatuko ditugu bereziki:

Esteban Urkiaga "Lauaxeta" (1905-1937)



Mungia ondoko Laukiz herritxoan sortua, Durangon eta Loiolan egin zituen bere ikasketak. Olerki klasikoak eta Europako literatura ezagutzeko aukera izan zuen urte horietan. 1928an utzi zituen elizgizon egiteko asmoak eta politika zein kultur ekintzetara bideratu zuen bere lana, ongien menderatzen zuen arlotik abiatuz, olerkigintzatik hain zuzen.

1930ean, Errenteriako 1. Olerki Eguneko sariketan berak eskuratu zuen lehen saria. 1931n. Bide Barrijak poema liburua eman zuen argitara. 1935ean argitaratu zuen bere bigarren olerki liburua: Arrats beran

Zer esan Lauaxetaren olerkiez? Iritzi kontrajarriak daude hasiera -hasieratik. Batzuen ustez, zekarren estetika berria zaila, arrotza eta kaltegarria ere bazen euskal olerkiarentzat. Beste batzuen ustez, ordea, molde bertsolaritzan eta edukinez erromantizismoan oinarritzen zen estetikak ez zuen idazle berrien sentipenak eta mundu ikuskera adierazteko balio. Lauaxetak berak adierazi zion ederki ideia hori iritzietan aurkako zuen Orixeri: "Euskal literaturak mundu eta era guztiko kimuak behar ditu eta aldi bakoitzari bere poesia dagokio".

Erraz antzeman daitezke Lauaxetaren lanetan Europako poeten arrastoak. Ezagunak zituen poeta idealista eta sinbolistak, hala nola: Novalis, Maragall eta Baudelaire. Baita García Lorca, Valery, Rimbaud eta beste asko ere. itxurazko mundu honen atzean bada beste mundu bat olerkariak aurkitu eta adierazi behar duena. Edukin sakon horixe da Lauaxetak bere forma landuez adierazi nahi diguna.

Lauaxetaren olerkiak uiertzea gauza zaila gertatzen da baina, Kortazar kritikoak dioenez, ez dira zail bizkaieraz daudelako edo garbizalea zelako batik bat, hizkera poetiko berria sortu nahi duelako baino. Behin baino gehiago irakurtzeko olerkiak dira irakurle landuarentzat nekez eta erdiminez sortutako emaitza trinkoak dira.

Zoritxarrez. oso gazterik bukatu zen euskal olerkari handi honen emaria, Gernikako bonbardaketaren ondoren atxilotu eta handik lasterrera Gasteizen afusilatu baitzuten frankistek 1937an.

Jose Maria Agirre "Lizardi" (1896-1933)



Zarautzen jaio zen baina laster aldatu zen familia osoa Tolosara. 1917an legegizon ikasketak bukatu zituen Madrilén eta Tolosako enpresa bateko kudeatzaile lanetan jardun zuen.

Euskara erdi ahaztua bazuen ere, legegizon ikasketak egiten ziharduelarik, euskara ere gogoz ikasi zuen. Baita idazten trebatu ere. Euskaltzaleak taldeko partaide zen eta haren ekintza guztietan aritu zen, buru-belarri. 1930etik aurrera idatziriko olerkiak 1932an argitaratu zituen *Biotz-begietan* titulupean.

Lizardi hil ondoren, Euskaltzaleak alkarteak liburuska bat argitaratu zuen, *Umezurtz olerkiak*, bere zenbait olerkiz osatua. Baita bere prosazko lanen antologia bat ere: *Itz-lauz*.

Euskara menderatu arte ez zuen atsedetik hartu. Euskal Herriko idazle eta euskalkien berri zuenez, euskara oparo baten jabe izatera iristen da lanaren poderioz. Ez da konformatzen, baina, hizkuntza arrunta menderatzearekin, Hizkuntza poetikoa lortu nahi du. Izan ere, Olerkarien ustez, olerkigintzan maila egoki bat lortu behar du euskarak, beste kultur hizkuntza guztiek duten bezalaxe. Baliabide ugariz hornitutako hizkuntza lortu nahi du, bere olerki batean dioen bezala:

Baina nik, izkuntza larrekoa
nahi aumat ere noranaikoa

Bere olerkien berezitasunak aipatzerakoan, honako hauek azpimarra daitezke:

- Labur baina zuzen, hitz gutxitan baina asko esan nahi digun olerkaria da. Horregatik, bere olerkiak trinkoak dira, aditz sintetikoak eta elisioak gihartuak, metafora eta sinboloak jantziak.

- Bere olerkigaiak naturaren zikloa du oinarri: udaberria, uda, udazkena eta negua. Naturaren ziklo horrek bizitza eta heriotza isladatzen ditu. Pertsonak eta herriak ere bizitza eta heriotzaren tarteko bide hori egiten dute.

BIZIA LO
Otsail- erdi

Egur ezearen kea
golak du kolore
egunaren atariruntz
zauri bat, gordiña,
odol-beharrean urre.
Sakoneko lañoz gora
tontorrek elurrez:
itsasoa iduri,
ametsezko ontziez.

Bide-ertzean, ez mmarrubi
ez belar gizenik.
Otalorea, bakanka,
goiztxo karraxika.
Udaberriari deika.
Or pago bat, lerdan-aski,
igazko apaingarriak
(gaur orbel gorriak)
oso yaregin nai -ezik,
nola baituten oi
neskazar ezin-etsiak

Ostobakandu-sasian
kabi bat, uts, urratua...
Arru-beetik errekek ots
euriteak bulartua...

Basora naiz. An-or,
goldiozko ogean,
yoan-elurte gaitzaren
ondarrak nabari:
kabidun usoak, ala
emazte zuurraren
zapiak iduri.
Antzak, eundaka,
ari zaizkio goiari,
argi-leenenkia
egarri baitute,
arako urrazko zauria
izanik iturri.
Orrengatik daude
luze-luze eginik,
azken -arbazta-begiez
udaberrirako
ornitzen biziez.

O, zein aizen eder, loa!
eriotzaren anaitzakoa:
bizitzazko urloa!...

(X. Lizardi Urte-giroak ene begietan).

Nikolas Ormaetxea "Orixe" (1888-1961)



Orexa (Gipuzkoan) jaio eta Nafarroako Uitzin hazi zen. 17 urte zituela jesuita sartzen da Xabierren. Grezia eta Erromako literatura klasikoa estudiatu zituen. Heziera horrek zerikusi handia izan zuen haren olerkian eta olerkiari buruzko iritzietan.

1923an utzi zion jesuita izateari eta 1931 arte Bilbon jardun zuen Euskaltzaindiko buru zen Azkueri laguntzen.

Lauaxeta eta Lizardirekin batera, garai hartako olerkaririk handienetakoa dugu Orixe. Lan handia egin zuen euskararen arloan, bai bertsoz eta bai prosaz. Hitz-lauz eginiko liburuetan, Santa Kruz apaiza eta Jainkoaren bila ditugu adibidez; eta bertsoz egindakoetan Barne muinetan eta, batez ere, Euskaldunak poema liburu mardula. Mistralek Provence-ko hizkeraz egin zuen antzeko zerbait egin behar zela eta, Orixek hartu zuen eginkizun hori. 1934rako bukatu zuen lana, baina, gerra bitarteko, ez zuen 1950 arte argitaratu.

Elkarren lagun eta lankide ere izan arren, hiru olerkariok ez zuten euskal olerkiaz iritzi berdina. Lauaxetak Europako korrante berriei ateak zabaltu nahi zizkien eta Lizardi ere bide berriak frogatu nahi zituen. Orixek, oster, euskarak ez zuela olerki ona egiteko kanpoko txertorik behar adierazten zuen.

GERRAREN ETENA

1936ko gerrak eten zuen euskara eta euskal kultura iantzeko mugimendua bortitz hura. Euskai gobernua hauteskundeetatik sortutako errepublikaren alde jarri zen zenbait militarrek sortu zuten gerra hartan. Hauek atera ziren garaile, dakigunez, Alemaniako eta Italiako kide nazi eta fazisten laguntzaz. Ondorioz, euskararen alde nabarmendu ziren jakintsu eta idazleek atzerrira jo behar izan zuten edo, alde egiterik izan ez zutenek, heriotzarekin ordaindu zuten. Lizardi, gerra hasi baino lehen hil zen, baina Aitzol eta Lauaxeta gerran atxilotu eta afusilatu zituzten. Orixek eta beste askok atzerrira egin zuten ihes.

Kontua da euskal kultura umezurtz gelditu zela, gerra aurreko mugimendu bizi hura hutsean geratu zela. Ezin zitekeen euskal kultura lan (du) euskaraz hitz egitea bera ere arriskutsua zen urte haietan.

GERRA OSTEKO AHALEGINAK

Berpizkundearen atetik ezerezera erori zen dena euskaldunontzat. Langilerik onenak heriotzak eramanak edo atzerrian zirelarik ezin zitekeen berehalakoan burua altxatzerik espero.

Olerkiari zegokionez, esan genezake ordurako bazuela euskal lirikak eredu imitagarri bat, Orixek beste guztien gainetik goretsi baitzuen Lizardiren hizkuntza poetikoa. Ez da harritzekoa, beraz, Lizardik eta Orixek markatutako bidetik etortzea gerra ondoko lehen saioak. Estu eta larri bada ere, bizi da euskal olerkia gerra osteko urte latz haietan. Nahikoa zen halako baldintzetan irautea ere. Sarasolak dionez "Inguruko pesimismo erta giro ezin gaiztoago horren aurrean etsi ez zuen belaunaldia, euskal literaturako garrantzitsuenetik bat gertatzen da, momentu hartan beharrezkoen zuena eman baitzion hari segida.

BI ALDIZKARI

Segida hori, bi aldizkariren bidez gauzatu zen: "Euzko Gogoa" eta "Egan" Lehena atzerrian sortua eta berton bigarrena.

Erbesteratu beharrak barreiatu egin zituen euskal idazleak mundu osoan zehar eta "Euzko Gogoa"k, berriz, bildu. Guatemalako atzerrian zegoen Jokin Zaitetik sortu zuen. Gerra aurreko zantzua datorkigu, ezinbestean, aldizkari honetan, idazleak ere lehengoak berak edo ingurukoak baitira: Orixe, Zaitegi, Arrese, Monzon, Jautarkoi... Dena den, ezin uka "Euzko Gogoa"n ideia eta asmo berriz zetozenentzat ere ateak zabalik egon zirenik. Aresti, Mirande eta J. San Martinen lehen pausok, adibidez, aldizkari honetan izan zuten argitara bidea.

Atzerritik lan baliotsu hori egin zuenaz gain, bazen Euskal Herriko barrutian ere beste literatur aldizkari bat. Traba guztiak gainditu ondoren, lehenengo bi hizkuntzatan eta 1954tik aurrera, euskara hutsean argitaratzen da "Egan"

Bi aldaketa nagusi datoz Eganekin:

Alde batetik, "Euzko Gogoa"k, atzerrian sortua izanik, hain zaila zuen zabalkundea errazago lor zezakeen eta, gainera, Gipuzkoako Diputazioaren babesaz, diru arazoak gainditurik zeuzkan.

Bestetik, Egan etorkizunari so dago eta gero eta hiritarrago den euskaldungoari erantzun nahirik. Gerra garaitik asko aldatu dira gauzak eta egoera berrira egokitu nahi dute euskal kultura ere. Lauaxetaren sasoian galtzaile atera zen postura nabarmentzen da, berriz ere beste herrietako literaturari arreta gehiago jartzen zaio. Arrue, Irigarai, Mitxelena, San Martin eta L.M. Muxika izan dira oraindik bizirik dirauen aldizkari honen arima. Euskal gizartearen bilakaerak gai eta molde berriak eskatzen zituen eta horixe bideratu zuen Eganek euskara eta Euskal Herriaren onerako.

BELAUNALDI BERRIAREN TXANDA

Sarasolaren hitzak berriz ere hartuz "Gerraondoak dakarren industriadze prozesuaren hedadura nabariaren ondorioz, euskaldunak masiboki doaz giro nekazaritik hiritarrera iraganez: 1970 urterako, euskaldunen artean %35'5ak soilik dirau baserrian... Hiritartze prozesu honek, eta berarekin batera eman den irakaskuntzaren demokratizazioak, euskal literatura moderno batek behar zuen irakurleko hiritar eta kultura sortzen du".

Nahiz eta Francoren diktadura 1975 arte luzatu, askatasun itxura eman beharra zuen beste herrietako gobernuarekin harremanak izatea beharrezkoa baitzuen iraun ahal izateko. Beraz, 1960 ingurutik aurrera, eskuak zabaldu eta loturak laxatu beharrean aurkitu ziren agintariak. Egoera berri honetan hasten dira berriz ere euskalgintzan, oztopoak asko baziren ere, belaunaldi berriko hainbat euskaltzale.

EUSKARA ESKOLETARA

Zailtasun handiekin bada ere, gerrak eten zuen hariari berriz heltzea lortu zuen euskaldungoak 60. hamarkadan. Ez zen alferrikakoa izan "segida" eman zioten haien lana. Izan ere, giroa apur bat hobetu zenean, errauspean zegoen ilintziari putz egin eta laster hasi zen, berriz ere, berotzen euskal sukalde.

Gorago aipatu dugun euskaldun askoren hiritartzea zela eta, oso arriskuan ikusten da euskararen etorkizuna. Irakaskuntzaren demokratizazioarekin, ez da ia inor Euskal Herrian kulturaren ateak itxita dituenik. Baina erdal kulturaren ateak, noski. Horregatik, gerra aurretik gorpuztutako asmo bati bide emanez, lehen ikastolak sortzen dira. Elizaren babesean eta hark utzitako lokaletan gehienak, guraso askok arriskatu zituen seme-alabak, oraindik irteera garbirik ikusten ez bazitzaion ere proiektu hari.

Euskaraz eskolatze horrek abantaila handiak ekarri dizkio, bata bestearen atzetik, katean bezala, euskarari. Lehenik, euskal liburuaren beharra. Horrela, bere historia guztian baino gehiago dira azken 30 urteotan euskaraz argitaratu diren liburuak.

EUSKALTZAINDIA ETA EUSKARA BATUA

Eskolatu berarrak, liburuak idatzi eta argitaratu beharrak, euskara batuaren beharra ekarri du ondorioz. Irakaskuntzan ari direnek, argitaletxeek, idazleek berehala planteatzen dute galdera: Nola idatzi behar dugu? Eskualde bakoitzak bere euskalkiz egin behar al du ala batasunera jo? Erantzuna ez zen zaila. Euskal idazleek eta Euskaltzaindiak berak ere aspaldi hartutako eginkizuna betetzeko garaia iritsia zen, dudarik gabe. 1968an egin zuen Euskaltzaindiak harrezkero abiapuntu izan den bilera garrantzitsu bat eta horretan dihardu, euskara batasun bidean gidatu nahirik.

G.ARESTI: GARAIAREN LEKUKO

Euskal bertso eta olerkiari helduko diogu. berriz ere, horixe baita gure gaia. Egan aldizkarian utzi ditugu gure olerkari berriak bide berrietan trebatzeko. Federiko Krutwig, Jon Mirande, Gabriel Aresti eta beste zenbait nabarmentzen dira. Jon Mirande, Parisen bizi zen zuberotarra, euskal olerki berriaren aintzindari izan zen, gai eta olerki molde berrietan saiatuz. Euskal olerki lehiaketak berriz antolatu ziren eta G. Arestik lortu zuen 1959an lehen saria bere "Maldan behera" poemarekin. Geroago, bere "Harri eta Herri" poema liburuarekin inoiz olerki liburu batek lortu duen arrakastarik handiena lortu zuen. Arrakasta horretan eragin handiagoa izan zuen, dudarik gabe, garai hartako borroka ideologiko eta linguistikoak (euskara batuaren inguruko eztabaidak), olerkien balio estetikoak baino. Gizarteak bizi dituen arazoak isladatzen dira Arestiren lanetan. Bilboko kale gorrian atzerritar sentitzen du bere burua, baina arduraz bizi ditu kanpotik etorritako langileen kezka eta arazoak ere. Egoera horrek minduta bizi da eta bere olerki askok minezko oihuak dirudite.

Gainontzeko olerkarietatik batzuk aipatuko ditugu. Bada oraindik Lizardiren eragin nabariz ari denik; bada lanketa pertsonalean ari denik; bada kanpoko olerki molde eta gaiei leihoak irekitzen dizkionik. Gehienek, denek ez esatearren, euskal olerki moderno eta landua eskaini nahi dute, gure kulturaren onerako.

Nire aitaren etxea
defendituko dut.
Otsoen kontra.
sikatearen kontra,
Iukurreriaren kontra,

defenditu
eginen dut
nire aitaren etxea
Galduko ditut haziendak,
soloak,
pinudiak;
galduko ditut
korrituak,
errentak,
interesak.
baina nire aitaren etxea defendituko dut.
Harmak kenduko dizkirate,
eta eskuarekin defendituko dut
nire aitaren etxea:
eskuak ebakiko dizkirate,
eta besoarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
besorik gabe,
bularrik gabe.
utziko naute,
eta arimarekin defendituko dut
nire aitaren etxea
Ni hilen naiz.
nire arima galduko da.
nire askaria galduko da.
baina nire aitaren etxeak
iraunen du
zutik

(Harri eta herni)

EGUNGO ZENBAIT OLERKARI

Gehienek, irizpide onez, bertso, kopla eta erromantze zaharren egituretan aurkitzen dute sorkaria; euskarak bere bilakabidean ibilitako eta egindako bideetan, alegia. Bertso libreetan ere saiatzen dira zenbait, euskarari ere bide estetiko berriak eskaini nahirik. Izenok islada dezakete euskal olerki berriaren nondik norakoa:

Joan Mari Lekuona oiartzuarrak lan ugari egin du euskal olerkigintzan, Muga beroak eta Ilargiaren eskolan poema liburuetan ederki adierazten ditu berak bizi duen munduko larrialdi, itxaropen eta tristurak. Beste herrietako literatura ere ondo ezagutzen duela erakusten du, bere olerkiari iruditeria eta molde berriak txertatuz. Ahozko literatura ere ondo ezagutzen du eta erraz antzeman daiteke lehengo mendu zaharrak txertatu nahi dituela olerki berrietan, kopla zahar eta erromantzeen erritmo eta moldeak berreskuratuz. Mimodramak eta ikonoak da bere azken lana.

Bitoriano Gandiaga arratzuarra dugu beste kasu berezi bat. Berez dela olerkari esan daiteke. Olerkia du ia bere adierazbide bakarra. Salvatore Mitxelena bere maisu frantziskotarraren bidetik abiatu eta Arestiren eragina ezagutu ondoren bide berriak saiatzen dihardu etengabe. Elorri. Hiru gizon bakarka. Uda batez Madrilen. Gabon dut anuntzio. Denbora galdu alde dira orain arte argitaratuak. Molde zahar nahiz berrietan saiatzen den olerkaria da Gandiaga.

J.A. Artze "Hartzabal". "Ez dok amairu" taldearen inguruan lan asko egin. Estilo oso pertsonal batez, hitz, hots eta irudien jokoz, olerki audiobisualen bidetik lan interesgarriak burutu ditu.

Txori ttikia

Txori ttikia nintzelarik
esan zidaten
kaiolan bizitzeko sortua nintzela
orain
arrano bihurtu naizenean
kaiola hautsita
aldegingo dutan beldurrez,
libro naizela sinistarazi nahi didate;
horregatik
iriki dizkidate ateak
egin dezadan hegaz
bainan
luze gabe ohartu naiz
anka harkaitz bati
lotu didatela
kate motz eta astun batez.

Xabier Lete. Bere eta besteren olerkiak abestuz eman dituelako hartu du ospea olerkari honek. Existenzialisten ikutua du bere lan askotan. Oso ongi ezagutzen du bertsolarien moldea eta edukin berriz betetzen ditu molde zaharrak.

Ikusten denez, olerkari berriek lehengo olerkarien eta ahozko literaturaren ezagutza dute. Horixe da, izan ere, bidea: lehengo sustraletatik fruitu berriak sortzea.

Joseba Sarrionaindia. Iurretan jaio zen, Durango inguruan, 1958. urtean. Filologia ikasketak egin ondoren, lizentziatura lortu zuen. "Anaitasuna", "Ibaizabal" eta "Zeruko Argia" aldizkarietan eman zituen bere lehen lanak kazetaritza munduan. Bilbon Pott literatur bandaren sortzaileetako bat izan zen Bernardo Atxaga, Joxemari Iturralde, Jon Juaristi eta Ruper Ordorikarekin batera. Harrezkero, eten gabe eman ditu ezagutzera bere lanak bai poesian, bai narratiban.

1980. urtean preso sartu zuten hogeita zortzi urteko kondenaz, ETako kide izateagatik. 1985ean lortu zuen askatasuna, Martuteneko gartzelatik ihes eginez. Gaur egun hor nonbait bizi da, noizean behin bere idazlan bikainen bat euskal irakurleari iristen zaiolarik.

Oihaneko pagoak blai
aideraruz hiru elai.
Ostadarraren harian dira
hirurak pausatu nahi.

Larrosak dira gorriak
edo bestelan xuriak.
Hagitzez ederragoak
neskatilaren irriak.

Maldan behera urratsa
betiko bidean latsa.
Hodei ilunak gaua belzten du
udazkena da ez bedatsa.

Usapalak ostantzean
huts bat badut bihotzean.
Zatoz maitea gure etxera

dastatzera arratsean.

Eder basoan haritza
haran aldean garitza.
Fruitu antzera ontzen da hemen
gizasemeen bizitza.

Sagar gorriak dilindan
damea dago ganbaran
maite laztanez hartzeko eta
elkartzeko ohantzean

Iluntasuna abailtzen da
luma gazte bat bezala
begiak uso. mingaina arana
zure bihotza ene aingura

Hurrun gauhontzak uluka
zakur deslaidak zaunkaka.
Mende oso bat iraganen dut
zure ondoan koblaka.

(Izuen gordelekuen barrena)

Bernardo Atxaga

Esnatu da trikua habi hosto lehorrez egindakoa.
Eta dakizkien hitz guztiak ekartzen ditu gogora:
Gutxi gora-behera, aditzak barne, hogeita zazpi hitz

Eta gero pentsatzen du: Amaitu da negua.
Ni trikua naiz. Bi sapelaitz gora dabilta hegaletan:
Marraskilo. Zizare, Zomorro. Armiarma. Igel,
Zein putzu edo zulotan izkutatzen zarete?
Hor dago erreka. Hau da nire erresuma. Goseak nago

Eta berriro dio Hau da nire erresuma, Goseak nago,
Marraskilo Zizare. Zomorro. Armiarma. Igel.
Zein putzu edo zulotan izkutatzen zarete?

Ordea bertan gelditzen da bera ere hosto lehor balitz.
Artean ez baita eguerdia baino. Iege zahar batek
Galerazi egiten baitizkio eguzkia. zerua eta sapelaitzak.

Baina gaua dator. joan dira sapelaitzak, eta trikuak.
Marraskilo, Zizare. Zomorro. Armiarma. Igel.
Erreka utzi eta mendiaren pendizan ekiten dio.
Seguru bere arantzetaz nola egon baitzitekeen
Gerlari bat bere ezkutuaz. Espartan edo Corinton:

Eta bapatean. zeharkatu egiten du
Belardiaren eta kamio bemaren arteko muga,
Zure eta nire denborara sartzen da pauso bakar batez;
Eta nola bere hiztegi unibertsala ez den
Azkeneko zazpi mila urteotan berritu,
Ez ditu ezagutzen gure automobilaren argiak,
Ez da ohartzen hiltzera doanik ere.

Teresita Irastorza. Zaldibian jaio zen 1961ean Donostian Filologia ikasketak egin zituen eta Bergarako UNEDen aritu izan zen klaseak ematen.

Bere poesietan bakardadea, hustasuna, eta etsipena nabaritzen dira. Poesia sinplea da berea, barrengo kezkak inongo jantzi berezirik gabe kanporatzen dituen. Poesia hauetan hustu nahi dituela dirudi bere barrengo kezkak.

Euri azpian
gogoratu zintudan
tanto busti haiek
azal lehorrean
atzamarka
hasi zirenean

Goardasolik gabe,
zerura begira
goizalde muga hartan

nengoen

besoak zabalik
eri,
dolorez:
eri,
minez
hezur muinetan.
minez
hazkazal barnean
nengoen

Hain fina zen goizaldeko lanbropean
inoiz baino hutsago senti erazi ninduzun.
Euri tanto haiek
zekarten deusa,
eta deus usaina
besarkatu nuenean

Euri ta zotin,
malko eta trumoi
heriotz gauean,
bizirik senditu zintudan
heriozpe gauean.

(Gabeziak)

"EZ DOK AMAIRU"

Gai hau bukatzeko, ezin dugu aipatu gabe utzi "euskal kantagintza berriak" eta "Ez dok amairu" taldeak bereziki egin zuen lana.

Iparraldeko Michel Labeguerie izan zen kantagintza berriaren aintzindari. Garai hartan eragin handia izan zuen diska bat argitaratu zuen 1961ean.

Mikel Laboak Bartzelonan egin zuen egonaldia eta han Kataluniako "Nova Cançó" rekin izan zituen harremanak erabakiorrak izan ziren "Ez dok amairu" taldearen sorreran. Laboak diska bat atera zuen 1964an eta, gainera, bere inguruan kantari talde bat bildu zuen: Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo, J.A. Villar, Julen Lekuona, Xabier Lete, J.A. Artze, Antton Valverde... Maite Idirin ere inguruan zebilen eta baita Estitxu ere bere ahots ederrarekin. Herritar kontzientziatuen artean argi eta garbi ikusten zen irrati eta telebistaz sartzen zen erdal uholdeari eutsiko zion euskal abestien beharra. Laboak sareak bota eta hara taldea sortu: "Ez dok amairu".

Lehenengo urratsetan, beste herrietako kanta ospetsuenak euskaratu ere egin ziren, jendeak euskaraz kanta zitzan. Beste kantu asko Euskal Herriko kantutegi zaharretatik atereak ziren. Momentu hartako olerkarien hitzak musikatuz eginak ere badira. Aresti, Lekuona. Gandiaga, Lete eta beste zenbaiten olerkiak horrela egin ziren ezagun herritarren artean. Gustura kantatzen ziren, gainera, herriak bizi zituen kezka eta arazoak isladatzen baitzituzten.

Laboak, Lertxundik, Letek, Iriondok eta Valverdek, gerra aurreko olerkari eta bertsolarien hainbat olerki eta bertso ezagutarazi dituzte jendaurreko saioen eta grabazioen bidez. Olerki irakurleak, beste hizkuntzetan gertatzen den bezala, gutxi dira gure artean. Kantari hauei esker, olerkarien izpi ugari iritsi da euskaldunen belarri eta ahoetara. Lehen esandakoak bermatzen dira, berriz ere: Euskal Herria, kantuz bizi den Herria da.

AUTOEBALUAKETA

1. Globalizazio ariketak

- 1.1. Gauza bera ote dira bertsolana eta olerkaria? Zertan bereizten dira?
- 1.2. Zergatik izan zen hain garrantzitsua Aitzol?
- 1.3. Zergatik gertatu ote zen euskararentzat halako etena 1936an?

2. Autotesta

Zein ez da egia?

2.1. Bertsopaperak

- a) Azken bi mendetan argitaratu izan dira.
- b) Gaur egun ez dute lehen besteko arrakastarik.
- c) Liburuetatik ateratako bertsoak dira.
- d) Zenbait gertaera plazaratzeko bide izan ziren.

2.2. Bertsopaperetako bertsoak(-ek)

- a) Olerkiak dira, dudarik gabe.
- b) Bertsolari askoren eskola izan dira.
- c) Bapateko bertsoen tankera dute.
- d) Euskaldun askok buruz ikasi zituzten.

2.3. Olerkariak

- a) Ezin du bertsolarien molderik erabili.
- b) Beti izan dira herri guztietan.
- c) Gaba ezezik neurria ere berak asma dezake.
- d) Ez du informatzeko helbururik.

2.4. XX. mendean

- a) Lore Jokoak antolatzen hasi ziren urtero Hegoaldean.
- b) Erakundeek hartzen dute euskararen ardura.
- c) "**Euskaltzaindia**" sortu zen
- d) Euskara arlo guztietan landu da.

2.5. "Euskaltzaindia" taldea(k)

- a) **Aitzol** aukeratu zuen buru.
- b) 1927an sortu zen.
- c) Olerkiari garrantzi handia eman zion.
- d) Gerra ondoren lan handia egin du.

2.6. "Olerkariak"

- a) Lauaxeta, Lizardi, Orixe eta beste batzuk ezagutzen dira izen horrekin.
- b) Bertsolarien moldez egin zituzten beraien olerkiak.
- c) Euskara edozertarako gaitu nahi dute.
- d) Aitzolen lankidetzaz jardun zuten.

2.7. Lauaxeta, Lizardi eta Orixe(k)

- a) "Olerkariak" taldeko hiru ezagunenak dira.
- b) Bertsolarien moldez eta molde berrietan ere saiatzzen dira.
- c) Oleskigintzari buruzko iritzietan bat zetozen.
- d) Arlo askotan egin zuten lan euskararen alde.

2.8. Gerra ostean

- a) Euskal kultura umezurtz geratu zen.
- b) Euskal idazleak espetxean edo atzerrian zeuden.
- c) Ez zuen jarraipenik izan euskal olerkiak.
- d) "**Euzko-Gogoa**"k ekin zion berriz ere lanari.

2.9. "Ez dok amairu" taldea(k)

- a) 1960-70 urtealdian sortu zen.
- b) Euskal kantagintza bultzatzeko sortu zen.
- c) Euskal kantu zaharrak plazaratzea izan zuen helburu bakarra.
- d) Garai hartako olerkarien testuak ere kantuz plazaratu zituen.

2.10. Euskal olerkariak

- a) Kopla, erromantze eta bertsoen mundua ondo ezagutzen dute.
- b) Bertsolarien moldez idatzi behar dute.
- c) Molde berriak asmatzera ere jotzen dute.
- d) Garaiko arazo eta kezken lekuko dira.

3. UNITATEA - XX. MENDEKO LIRIKA

1) Zer dira Parnasianismo eta Erromantizismoa?

2) "Izadiarenganako maitasuna" delako hori zeinen lanari dagokio?

- a) Lauaxeta
- b) Lizardi
- c) Aresti
- d) Mirande
- e) Orixe

Izadiarenganako maitasuna ezezik, beste gai batzuk ere jorratu zituen. Zeintzuk?

3) Gerra aurreko, gerran eta gerra osteko denboran, bakarra izan zen hiruretan aritu zena. Zuzena aukera ezazu

- a) Monzon
- b) Orixe
- c) Aresti
- d) Lauaxeta

4) Lizardik bertsoak ezezik artikulatuak eta antzezlanak ere idatzi zituen. Adierazpide honi dagozkionak bereiztu itzazu

- a) Santa Cruz apaiza - Euskaldunak
- b) Etxe barneko bizia - Ezkondu ezin zitekeen mutila
- c) Haur besoetakoa - Igelak

5) Dagokionarekin elkartu

- | | |
|---------------------|-------------------|
| A. Urte giroak | 1. Gandiaga |
| B. Bide barrixak | 2. Lizardi |
| C. Igelak | 3. Poesia soziala |
| D. Harri ta herri | 4. Aresti |
| E. Herriaren harria | 5. Mirande |
| F. Maldan beheara | 6. Sinbolismoa |
| G. Elorri | 7. Lauaxeta |

6) Zer da haustura poetikoa?

Zergatik eman zen haustura poetikoa?
Poesia berria eta aurrekoa defini itzazu

7) Dagokionarekin elkartu

- | | |
|-------------|-----------------------------|
| A. Lizardi | 1. Parnasiano |
| B. Lauaxeta | 2. Abokatua |
| C. Orixe | 3. Poesia soziala |
| D. Mirande | 4. Euskaldun berria |
| E. Aresti | 5. Eusko Gogoan idatzi zuen |
| F. Gandiaga | 6. Uda batez Madrilen |

8) *Baliabide literarioak*

A) Igelek jan dute igel igeltxo igeldariek (Mirande-igelak)

B) Usuak ikaraz doaz (Lauaxeta-Mendigoixalearena)

C) Hots! Hots! bizion oinok (Lizardi-Bihotzean min dut)

D) Dzu! dzu, dzu
gorriak dzu (Gandiaga-Uda batez Madrilen)
urdinak dzu
horiak dzu

E) Arto musker
mendi baserri zaharrak (Lizardi-Oi lur)

Zeintzuk izan dira erabilitako baliabide literarioak?
Defini itzazu

9) *Zer da lirika? Zergatik da generorik intimoena?*

10) *Zertan bereizten dira bertsolariak eta olerkariak?*

11) *Zertan oinarritzen gara olerki baten balioa antzemateko?*

2. LITERATUR BALIABIDEAK

Ariketa praktikoak

Irakur itzazu ondorengo bi testuok:

1. "Non sartu zara Sortaldean
agertu izarra?
Azal zaitez berriro,
urra hodeitzara,
ai, ai, ai,
agertu izarra,
berriz izan zaitzagun
argia eta indarra".
2. "Izarrak zeruko gauza argidunak dira; erretzen ari diren gasezko gaiez osatuak. Eguzkia ere izar bat da. Honen argiak zortzi minututan egiten du lurrerainoko bidea: 150 miloi kilometro"

- Zein da bi testu hauen arteko aldea, edukiari eta formari begiratuta?
- Normala al da 1go testua bertsoz egotea eta 2.a prosaz?

Irakur itzazu orain beste hauek:

"Hi ez hago ganbaratik ondo"
"Haserretzen denean burua galtzen du"
"Gudarien garrasi gorriek urratu zuten goiz baketsua"
"Haizea ziztuka eta intzirika zebilen kalean zehar"

"ikusi nuenean
zure belarria
iruditu zitzaidan
azaren orria"

"Izotz-ondoko eguzki
neguaren parre..."
(...)

- Zer ikusten duzu antzerako edo berezirik testu horietan? Zer da bakoitzak esan nahi duena?
- Saia zaitez antzerako esaldi eta testuak eguneroko hizketalditik eta liburuetatik jasotzen.

Literatur sortzaileak hizkuntza ederra eta adierazgarria bilatzen du eta eguneroko espresio modutik apropos desbideratzen da. Zertarako? Hizkuntza bera ere nabarmenduz, bere mezua, bere ikuspegia biziagotzeko.

Nola egiten du desbideratze hau? Figura edo baliabide literarioen bidez.

Bertsoa eta prosa ere bi komunikaera edo baliabide nagusitzat har ditzakegu. Gai batzuk bertsotan dute adierazbiderik egokiena gaur ere. Beste gai batzuri, ordea, prosaren patxada egokiago datorkie.

Era askotara aztertu dira baliabideak, baina gehienek hiru ataletan banatzen dituzte:

a) Hots edo fonematan oinarritzen direnak

Batez ere ahozko literaturan dute baliabide hauek indarrik handiena, entzutean sortzen baitutet bereziki, lortu nahi den eragina edo efektua. Atal honetan sartzen dira **silaben neurria** edo grekoek metrika deitzen zutena, intonazioaren bidez ematen den segida edo **erritmoa** eta euskaraz **puntua** deitzen dugun errima. Horiez gain, beste hauek ere fonematan oinarritzen dira:

- **Onomatopeia:** Hizkuntzak dituen hotsak jokatzuz, izadian edo inguruan ageri diren hotsen edo irudien imitapena.
Adb: "Tarratada ederra egin diozu izarari"
"kukurruku, dir-dir..."
- **Aliterazioa:** Aukeratutako inpresioa lortzeko, testu berean hots Deroina errepikatzea.
Adb: "Zakurren uhuri eta lanturuak nagusitu ziren gauean"
Hemen "u" hizkiaren errepikaketak tristura dakarkigu belarrietara.

b) Perpausen moldaketa berezian edo **morfosintaxian** oinarritzen direnak. Lau era bereiz ditzakegu:

Hitzak erantsiz:

- **Pleonasmoa:** Espresibitatea indartzeko hitz berak edo antzerakoak errepikatu.
"Neure begiez ikusi dut"
"Gora igo zaitez"
- **Sinonimia:** Ideia bat azpimarratzeko sinonimoen pilaketa.
"Badu itsasoak bere xedea, bere marra, bere mugarri eta zedarri jakina, zein baita kosta eta kostako sablea, harea, eta legarra."
- **Epitetoa:** Arrazoi estilistikoengatik, beharrezko ez diren hitzen pilaketa.
"Euri heze, bustia, hezurretaraino sartu zitzaidan"

Hitzak kenduz:

- **Elipsia:** Ulermena galerazten ez duten neurrian hitzak isiltzea edo-ta esaldiari zehaztasun eta zorrotasuna eranstearren hitzen bat ezabatzea.
"Goiz gorri
arrats iturri"

"Aita hil
Jaungoikoak aita" (hil dit) (J. Azurmendi)
- **Asindetona:** Bizitasuna eta liraintasuna emateko, juntagailuak kentzea.
"Lau horma. aulki bat, mahai zahar bat, ohe estua; hogeit urte hementxe".
- Hitzak eta sintagmak errepikatuz:
- **Polisindetona:** Goikoaren alderantziz, beharrezko ez izan arren, juntagailuen errepikaketak testuari batzuetan adierazgarri izan daitekeen astirotasun eta patxada ematen dio.
"Eta hau eta hori, eta bestea, neuk egin behar ditut denak".

- **Anafora:** Perpaus batzuk edo arapaldi bateko zenbait lerro, hitz edo hitz multzo berdina errepikatuz hasia
"ez dudala inoiz neskarik ukitu begiekin ezik
ez dudala inoiz ukabiletatik negar egin". (K. Eizagirre)
- **Bihurkia:** Euskal trikitietan ezaguna da bihurkiaren teknika. Kateaketa baino zerbait gehiago da. Dantzarekin duen lotura nabarmena da.
"Akabadie da eta
ibili kontuen (bis)
akabatzen nua
hurrengo puntuen
oi, ai, oi hurrengo puntuen
akabadie da eta ibili kontuen"
- **Eratoraketa:** Lexema bereko hitz eratorriak perpaus berean kateatzen.
"Maite bat maitatzen dut maitagarria" (Bilintx)
- **Kateaketa:** Jarraipena adieraziz, bertso edo perpaus baten azken hitzak berrartuz hasia. Kopla zahar eta bertsoetan oso ezaguna eta erabilia da.
"Santa Ageda ospatutzeko
etorri gara atera
etorri gara atera
kopla batzuk kantatzera"
- **Paralelismoa:** Lerro edo perpaus batzutan egitura sintaktiko berdina errepikatzea.
"otsoen kontra
sikatiaren kontra
lukurreriaren kontra..." (G. Aresti)
- Segida aldatuz:
- **Hiperbatona:** Zenbait ideia edo hitz nabarmendu nahirik. perpausen hurrenkera logikoa aldatzea.
"Paisaia miresgarriak nituen arratsalde hartan ikusi"

c) **Hitzen esanahian** eta ideien arteko lokeran oinarritzen direnak. **Maila semantikoan** dute eragina.

- **Konparaketa:** "Erreala" den elementu bat "irreala" den eta aurrekoarekin nolabaiteko antza duen beste batekin parekatzea.
"Loriak udan intza bezela
maite det dama gazte bat..." (Bilintx)
- **Metafora:** "Erreala den elementu bat, berarekin nolabaiteko lokera duen elementu
"irreal" batekin berdintzea.
"hire begietako erle urdinak elikatzen..." (B. Atxaga)
- **Sinestesia:** zentzumen bati dagokion gaitasuna beste zentzuren bati egokitzea.
Adibidez: ahots gozoa, begirada latza, etorkizun beltza...
- **Pertsonifikazioa:** Gauzei, landareei, animaliei, gizakumearen ezaugarriak eranstea.
"Zuek ere, hauts izpi gaisoak, askatu egin nahi duzue zuen gartzela horretatik".

- **Antitesi edo kontrastea:** Aurkako ideiak elkarren ondoan emanez espresio indartsuagoa lortzea da kontrastea.

"Gazte orreik goruntz duaz

abesti ta ikurriñez

lañuan baña tiro hotsak:

bedartza dager odolez"

- **Mailaketa edo gradazioa:** Ideien goranzko nahiz beheranzko mailaketa bat egitea da gradazioa.

"Nekatzen, ahultzen, zahartzen, hiltzen ari gara, ordutik ordura".

V. UNITATEA: LEHEN TEATRO LANAK

* Kontzeptuak

Antzerki herrikoia. Ilustrazioa eta euskal antzerki kultuaren sorrera.
Bizkunde Garaiko euskal antzerkia.
Gerra osteko antzerkigintza.

* Prozedurak

Literaturtasunaren muga dauden zenbait testuren irakurketa, azterketa eta interpretapena, literaturtasun kutsua aurkituz.

Literatur obrak interpretatzeko beharrezko diren tresnen aplikapena, bai literatur azterketari dagozkionak, bai testuinguru historiko - soziala ulertzeko beharrezkoak direnak ere.

* Jarrerak

Literatur lanen ekoizpen, hedapen eta hartzea baldintzatzen dituzten alderdi soziologikoak ezagutu eta kritikoki baloratzea.

Literatur lanen edukin ideologikoa ezagutzea.

LEHEN TEATRO LANAK

Zuberoako pastoralez landa, euskaraz ez da ia-ia beste teatro lanik ezagutzen XIX mendearen bukaera arte, hain zuzen Bizkunde Garaiko Soroa, Altzaga eta beste batzuen lanak azaldu artean.

Badira, hala ere, XVIII.mendean bi salbuespen aipagarri, lehen obra isolatu samar bi, hurrengo aipatuko diren Barrutia eta Muniberen eskutik, teatro idatziaren aurreneko emaitzak.

PEDRO IGNACIO BARRUTIA

Arrasaten eskribaua izan zen 1711-1752 urteen bitartean. Ezagutzen zaion lan bakarra Gabon gauerako ikuskizuna da, obra honen sortzaile izan zen ala ez zalantzarik badagoen arren. Dena dela, egile moduan zein eskribau moduan, Barrutiaren izena ageri da eskuizkribuaren amaieran eta, horrela, bera hartu ohi da egiletzat.

Pedro Ignacio Barrutiaren datu biografikoak ezezagunak dira eta, hortaz, bere lan bakarra aztertzeraz mugatuko gara.

Gabon gauerako ikuskizuna

Izenburuak adierazten duen bezala, Gabon gauean antzezteko obra labur bat dugu. Gaia Jesusen jaiotza delarik, bertsoz idatzirik dago -ez bertsotan-, eta gabonetako zenbait misterioen garapena egiten du, hala nola Ama Birjinaren eta San Joserren esposatzea, ostatu eske joan eta ukatu zitzaienekoa, eta abar.

R.M. Azkueren bidez argitara eman zenean, bai euskalari honek eta bai beste zenbaitek hizkuntzazko arkaismoa eta bitxikeriei baino ez zieten erreparatu, haren literatur balioaz ohartu gabe. Esan dezagun, bidenabar, Barrutiaren lanak "erdarakada" ugari, gehiegi zuela Azkueren garaiko giro garbizalean onespentik lortzeko.

Geroago, batez ere Gabriel Arestiri esker, Gabon gauerako ikuskizuna-ren balioztapen egokia eginda, gaur egun, bere jeneroan, gorengo maila onartzen zaioa

Obraren azaleko ezaugarri batzuk gora behera (erdara eta euskararen aldi bereko erabilera, hizkuntzaren arkaismoa, erdarakadak...), hauek dira Gabon gauerako ikuskizuna-ren bereizgarriak aipagarrienak:

- * Pasarte serioak eta barregarriak eten gabe nahasten dira, antzezpenak bizitasuna eta arintasun handiak hartzen dituela.
- * Egitura bitxia eta guztiz berritzailea du: ekintza nahiz pertsonaiak bikoitzak dira. Bi eskenatoki ditu: Belen eta Arrasate; pertsonaiak ere bi garai eta giro desberdinetakoak dira: biblikoak (San Jose Birjina, aingeruak, deabruak...) eta Arrasatekoak (Barregarri, bere emaztea..).
- * Baina bai tokiak eta bai pertsonaiak etengabe elkartrukutzen eta gurutzatzen dira. "hiru unitateen norma" hautsiz eta konplexutasun handiagoko beste egituraketa dinamikoago bat sortuz.
- * Agerraldi batetik bestera iragateko, sarri eskenatokitik kanpoko koru batek kantatzekoak diren koplak batzuk erabiltzen ditu egileak, trebetasunez erabili ere.

- * Testuak baditu pasarte lirikoak eta bal barreragile bizi-biziak ere; azken hauetako gehienak "Barregarri"ren eskutik datoz, pertsonaia trakets isekari bat, obraren elementu profanorik adierazgarriena. Pertsonaia honek, bestalde, iragana eta oraina lotzeko eta batetik bestera jauzi egiteko funtzioa ere badu, inoiz beste pertsonaia bat bihurtzen delarik.

GABON GAUERA KO IKUSKIZUNA (Zatia)

San Jose

Goazen. Maria. goazen Belenera
Zesan tributua han pagatzera

Birjina

Borondate askogaz jarten naiz bidean;
pozik etorriko naiz zure atzean

San Jose

Hemeti Belenera dago bide luzea.
Zure trabajua da ene penea.

Birjina

Ordenadurik dago gu hara juatea;
kunplitu bide Jaunaren borondatea. (Badoa)

(Barrutik, kantuz)

A Belen canunan Joseph y Maria.
Jesús va encubierto. El es quien los guía.
Seguid sus pisadas. seguid, alma mia:
errar no es posible con tan cierta guía.
(san Jose eta Birjina irteten dira.)

San Jose

Jaunari demaguzan graziak, Maria:
hona nun agertu dan Belengo huria.

Birjina

Eperik ez da. Joseph. kunplitzen ez danik.
Laster jaioko da Jesusa niganik.
Kontenturik bihoz hua kabidu ezin jat;
neuk sentitzen dot paradisu bat.

San Jose

Pensamentuan nator, ziren dan berandu,
izango ote dogun Belenen ostatu.

Birjina

zerren dan berandu "Berandu denez gero

Ostaturik ez bada Belengo herrian
Zeruko Jauna dago leku guztian
ordua etorri da, esposo maitea;
sein honek jaio behar dau. Jo bidi atea.
(atean jotzen dute)

(Barrutik, kantuz)

sein "haurra"
jo bidi "jo ezazu

Llamando está San José
a las puertas de un mesón,
con la reina de los cielos
Virgen y Madre de Dios

(Barruan, ostalaria eta morroia)

Tomás, ostalaria.

(Deiadarrez) Mutil, adizen dok, mutil?

Txato morroia

Beti arran eginik naduka adikaturik.
Herri bateko kanpaetzat ez dau bere parerik

Tomas

arran eginik "Zintzarri bat bezala"
adikaturik " nekaturik"

Ez al nok aditu?
Zori gaiztoan hartu hindudan neure etxean kriadu.

Txato

Lo egiten izkuzu; goiza etorri ez jatzu.
Puntu honetan ohera naiz ta ez naiz ondo berotu

Tomas

izkuzu "uzkuzu, utz iezaguzu"

Hara, norbait da atean.

Txato

Gu ondo gauza ohean

Tomas

Mutil nagia. jagi hadi!

gauza "Gautza, etzanik gaude"

Txato

Jagi nendi. ahal banegi.

jagi nendi, ahal banegi "jaikiko nintzateke
ahal baneza"

Tomas

Arraka!
Gura al dok ibili nadin makilaka ta hagaka?

arraka “arraioa”
hagaka “makilaka”

aikaraz “zoaz hara”
alamenean “hizketan”
iskintoki “oilotokia”

daza “datza”
prestuez “doilorra”

itxiko deustat “itxiko diat”
moltsu “zapi, trapu”
aikora “jaiki”

urtezen daben zerekin “nolako gauzeekin
irteten den”

irago “igaro”

ateti “at. kanpo” Besterik ezin bada, goazen, bada, hara.

Txato

“Aikaraz” beti gure nagusi
Alamenean ez deus(t) itxi
Oiloa nola iskintokian
gizenzen jaku losagerian

Tomas

Aguro!
Ondo ikasteko behar neuskio zankazanak ebagi;
bera dazan oherarekin su emon prestuezari

Txato

Eso sí.
Horrelako orazioak zure ahoan ugari.

Tomas

Txato, mutil lotsagabe, desbergonzadu, perroa!
Jagi banadi itxiko deustat moltsuarekin ahoa.
Aikora mutil!

Txato

Flema hoberik! Ekusi dozu urtezen daben zerekin?

San Jose

Ostatu eske gabiltz, ez arren ukatu.
Zeuroen trabajua pagatuko jazu.

Txato

Zuenzat ostaturik ez dago hemen;
akomoda zaitez bazterren baten.

San Jose

Belenen ostaturik gureztat ez bada,
arren erakuskuzu nun irago gaua.

Txato

Hor dago portale bat huriaz ateti.
Izkutu lo egiten, zoaz hemeti! (Badoa)

Birjinia

Jaungoikoa dan tekuan ezer ez da falta (Atarira
sartzen dira)

XABIER MUNIBE ETA RSBAP ERAKUNDEA

Azkoitian, kultura eta aurrerakuntzaren zalez osaturiko euskaldun talde mugatu bat zenbait bilera edo solasaldi egiten hasi zen. Solasaldi hauetan Altube, Munibe eta Egia ziren garrantzitsuenak; euren helburua berriz, Europa guztiko aurrerakuntzak aztertu, Euskal Herrira ekarri eta bertako garapenerako aplikatzea zen.

Bilera horietatik, Xabier Muniberen ekinez, bi erakunde sortu edo eratu ziren: *Sociedad Bascongada de los Amigos del país* (RSBAP) eta *Bergarako Mintegia*.

RSBAP kulturaren sustatzaile handi bihurtu zen, eta progresorako zubi eta bide ireki. Hala ere, batez ere zientzi arloan ekin zion bere ikasketetan, Arteak gaitzetsi ez bazituen ere.

Erdara erabili zuten kultur hizkuntzatzat, euskararentzat irakaskuntzan lekuri utzi gabe -Larramendi ere joera horretakoa zen, euskara gartsuki defenditu arren.

Euskara bera ikertzeko edo lantzeko, ostera -hau da, aztergai bezala edo literatura sortzeko-, Erakundeak interesa erakutsi zuen. Besteak beste, Euskal Hiztegi handi baterako proiektua sortu zen eta euskaraz idatziriko zenbait lantxo ere bai, gehienak Xabier Munibe Peñafloidako kontearen eskutik.

Xabier Munibek (1723-1785), musikazale handia baitzen, El borracho burlado, (1764) opera komikoa burutu zuen euskaraz eta erdaraz, hasiera batean euskara hutsez idazten pentsatu zuen arren; honen arrazoa euskalkien aniztasuna zen, ez baitzekien zein euskara mota erabili euskaldun guztiek ulertuko bazuten. Gabon Sariak (1762) izeneko gabon kanta sorta ere idatzi zuen, herri kutsuko euskaraz egina.

EL BORRACHO BURLADO

(Antzokiak zapatari baten denda irudikatzen du).

LEHEN AGERRALDIA

Txanton Garrote, ardo pitxerra eskuan,
honako hau kantatuz:

CANZONETA

I

Ai, niri zer egiten ote zat!
Oinez ibiltzen ahaztu zat.

ediro “aurkitu”

Burua jaso ezin det,
lurra ediro ezin det,
triste dut bihotza guztiz,
Edan dezadan ea berriz.

II

(Pitxerrari begira, berau ferekatuz.)
Edari eztitsu gozoa,
zerutik jatsitakoa,
zenbait eta hondorago
hanbait haiz gozoago
jainkoak bedinka hazala,
nik bedinkatzen haudan bezala.

III

(Aurreko koplan bezala)
Jarro honetan hi ekustean
poz hartzen det bihotzean;
hemen begiraturik
banaukak txoraturik,
barrunen” barruan” Zer egingo ez dek barrunen?
Sar hakit, bada, arren lehenbailehen.

(Edaten du, antzeztuz)
Si habrá desollado ya
el Cernicalo de anoche
mi amigo Martin...? Hola
Martín.... Martinico... oles
ah el de como qué tienes!
no me oye, no responde,
durmiendo debo de estar,
como un lechón este pobre
más ya no puede tardar
en bajar, mientras asome
túmbome en este rincón
(Oholtzaren bazter batean atzaten da eta,
bertara bere emaztea sartzen ikustean, dio:)
Quién vendrá aquí? (Ezagutzen du).
Ah, Dios, pillóme.
BIGARREN AGERRALDIA

Maritxo, goibel oso, eta Txanton.

(Maritxok abesten du).

ARIETA RONDEAU

Ez da mundu honetan
pena handiagorik
senar hordia,
alfer nagia
izatea bezelakorik
Ez da mundu honetan
pena handiagorik.
Ni baino inor gehiago
probaturik ez dago.
Ai, Maritxo triste!
Hire zorigabea!
Zerk batu hinduan
pena handiagorik:
beti goiz ta gabea
haura pitxer artean
tabernan sarturik,
ta ni haura bilatzen,
nere burua urratzen
haura “hura” ezin inoz etxera
bere haurren aldera
biribilaturik.
Ez da mundu honetan, etab.

(Antzezten du):

Ay infelice de mi!
Toda la noche he andado
tras mi vicioso marido,
una en una registrando
las tabernas del lugar,
y vengo a saber si acaso
está con Martin su amigo:
pues en parte alguna le hallo.
Oh, cuan diferentes sois,
hombres crueles, hombres falsos,
de lo que pareceis ser
cuando andais tras engañarnos!
Entonces todo es rendirse,
y por los suelos echados,
suspirais asegurando
que sereis nuestros esclavos,
mas no bien nos agarrais,
no bien lograis nuestra mano,
cuando olvidando la fe
que nos habiades jurado
nos dexais abandonadas.
¡Oh, si Dios hubiera dado
a las mujeres permiso
de que fuéramos mudando
maridos como camisas
no nos despreciareis tanto
(Bere senarrari erreparatuz.)
¡Más qué miro....! Él es, no hay duda;
gracias a Dios le ha fallado.

ARIA A DUO

Maritxo

Hemen hengoan hi,
urde zikin hori,
ta hire ondoren ni
bart herri guziti.

Txanton

Maritxo

Zerk? Hi bilatzera:
goazen etxera,

Txanton

utzi nazan hemen
poliki atsedeten

Maritxo

Ez diat nahi.

Txanton

Bai, bai, bai, bai

Maritxo

Hator laster

Txanton

Ez, ez, ez, ez

Maritxo (oso haserre)

Ha, ha, ha, ha!

Maritxo (lehen bezala)

A. likitsa!

Txanton (lehen bezala)

likitsa “lizuna, zikina” Ha, ha, ha, ha!

Biak batera (lehen bezala)

Farre egiten didak;
gogoango didak.

Ha, ha, ha, ha, ha, ha, ha, ha
ha, ha, ha, ha, ha!

Maritxo (lehen bezala)

Nik salatuko haut
alkate aurrera
sartu erazoko haut
karzela ilunean

Txanton (lehen bezala)

Hor konpon Marianton,
ajolarik ez zat,

Maritxo (lehen bezala)

Ajolarik ez badek hik,
nik emango diat,

Biak batera (lehen bezala)

Ajolarik ez badek hik,
nik emango diat,

Hor konpon Marianton,
ajolarik ez zat

(Lehen zatia errepikatu ondoren,
badoa Maria, Txanton bakarrik geldituz).

ARIKETAK (Gabon gauerako ikuskizuna)

Jeneroa eta espresaera

Azter itzazu jenero honi bereziki dagozkion ezaugarriak eta berauen erabilera eta funtzioa.

Edukina

Bila itzazu, adibideetan azalduz, pasarte honetan ageri diren gai aldetiko osagarri desberdinak eta berauek sortzen duten kontrastea.

Pertsonaiak

Pertsonaiek diotena eta darabilten hizketa ikusirik, egizu bakoitzaren erretratu psikologikoa.

ARIKETA (El borracho burlado)

Egizu pasarte bitxi honen komentario orokor bat. Ohar zaitez, batik bat, testuaren egituraz, pertsonaiez eta hizkuntza -edo hizkuntzen-erabileraz (hizkunt mailak, erregistroak, arkaismoak....).

ULERMENA LANTZEN

1. Zer dakizu Pedro Ignacio Barrutian buruz?
2. Gabon gauerako ikuskizuna al da euskarazko lehen teatro lana?
3. Noiz idatzi zen Gabon gauerako ikuskizuna?
4. Zer azaltzen du Arrasateko eskribauaren obrak?
5. Nolako erlazioa dute obra honekin R.M. Azkuek eta Gabriel Arestik?
6. Zein da “Barregarri” pertsonaiaren izaera eta funtzioa obran?
7. Zertan da obraren egiturazko berezitasuna?

ARIKETA

Esan honako baieztapenak egia ala gezurra diren.

E G

		1. Zuberoako pastoralez landa, euskaraz ez dugu beste teatro lanik ezagutzen XX.mende arte.
		2. Soroa eta Alzaga izan ziren lehen teatro lanak idatzi zituztenak.
		3. <u>Gabon gauerako ikuskizuna</u> , Barrutiaren nobela baten izenburua da.
		4. <u>Gabon gauerako ikuskizuna</u> bertsoz idatzirik dago.
		5. <u>Gabon gauerako ikuskizuna</u> euskara hutsez idatzia dago.
		6. <u>Gabon gauerako....</u> lan trajiko bat da.
		7. <u>Gabon gauerako...-k</u> bi eskenatoki ditu. Belen eta Arrasate.
		8. <u>Gabon gauerako...-ren</u> egitura guztiz tradizionala da.
		9. RSBAP delakoa kulturaren sustatzaile haundia izan zen.
		10. RSBAP-ekoek euskara erabili zuten kultur hizkuntzatzat.
		11. <u>El borracho burlado</u> Barrutiak idatzi zuen.
		12. <u>El borracho burlado</u> euskara hutsez idatzia dago.

VI. UNITATEA: HIZKUNTZA ETA HIZTUNAK

* Kontzeptuak

Eleaniztasuna eta kultureniztasuna. Europako hizkuntzak
Elebitasuna. Eleaniztasuna
Normalkuntza prozesuak. Hizkuntza estandarra. Euskara batua
Talde lanaren pausoak ezagutu

* Prozedurak

Hizkuntz portaeren azterketa
Euskalerriko egoera soziolinguistikoaren azterketa
Euskera eta auzo hizkuntzak: euren arteko harreman eta elkarrekiko eraginen azterketa
Talde lanean errespeto eta lankidetzako urratsak eman

* Jarrerak

Gizartearen erralitate eleanitz eta kultureniztasuna positiboki baloratzea, Euskalerriko egoera bereziki sakonduz

Euskeraren erabilpena eremu guztietara zabaltzearen aldeko jarrera positibo eta aktiboa erakustea

Euskeraren batasunaren aldeko jarrera positiboa, tokian tokiko euskalkiak ere bultzatuz.

Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileekiko jarrera kritikoa

Kideen arteko iritziak errespetatu.

1. TALDELANERAKO GIDA

HSAOL 2. maila: irailetik ekainera bitarteko talde lanean egin beharreko gaien gida

** Ikasgai hauek talde lanen bidez aztertuko ditugu.*

** Ikastaldearen osaketa: talde hirukoak eta talde bikoak.*

** Egin beharreko lanak bi zati izango ditu:*

a) Idatzizko txostena honako atalez osatua:

- 1.- Aurkibidea
- 2.- Sarrera
- 3.- Aukeratutako gaiaren lanketa
- 4.- Besteentzako pare bat orritako laburpena
- 5.- Lanaren osaketan metodologia:
 - Noiz bildu zarete
 - Zenbat saio egin dituzue
 - Zeintzuk bildu zarete saio bakoitzean
 - Gidoia nola prestatu duzue
 - Lana nola banatu duzue: informazioa biltzeko garaian, puntu bakoitza garatzeko garaian
 - Eztabaidak, batera jartzeak,... erabili dituzue prozesuan?
 - Erredakzioa nola egin da
 - Makinaz edo ordenagailuz nork eta non pasatu du
- 6.- Bakoitzaren eta taldeko balorazioa:
 - Lana egiteko garaian nola sentitu zarete partaide bakoitza bakarka eta taldearekiko.
 - Zer ikasi duzu(e):
 - . edukinen mailan:
 - . talde funtzionamenduarekiko
 - . lanak nola egiten denari buruz

b) Taldeari azalpenak

- * Azalpenak... egingo dira. Zalantzak komentatzeko edo irakaslearekin hitzegiteko egunean... (aurrez gelditu)
- * Azalpen egunak:

Oharra:

Egun horietako batean, mila arazo direla medio, euskarako klaserik ez balego, hurrengo euskara orduan egingo da aurkezpena. Idatzizko lana entregatzeko epea aurkezpena baino 15 egun lehenago amaituko da.

Txostenaren orri kopurua gutxienez 10 eta gehienez 20 orrikoa izango da.

EBALUAKETA

- * Lanaren balioa ikasturte bukaeran kontutan hartuko da, ikasturteko azken notak %...-eko balioa izanik eta talde lanak %... ekoa. Arau hau bideratzeko beharrezkoa da kurtsoko notan gutxienez 5 bat edukitzea.

- * Idatzizko txostenean ebaluatuko dira:
 - .- Presentazioa (makina edo ordenagailuz...).
 - .- Gidoiko puntu bakoitzaren aurkezpena, sakontasuna, garapena.
 - .- Gaiaren sintesian ideia nagusien egokitzapena.
 - .- Hizkuntza idatzia.
 - .- Bibliografia edo liburu bat baino gehiagoren erabilpena eta lanean zehar eginiko aipamena.
- * Lanaren aurkezpenean baloratuko dira:
 - .- Aho hizkuntza.
 - .- Gaia irakurtzea ezinezkoa da.
 - .- Partehartzea (aurkezle denek % berdina).
 - .- Aurkezpenean eta gaiaren aurrean duten seriotasuna.
 - .- Beste ikasleen arreta eta partehartzea aurkezleei galderak eginez.
 - .- Gaia, bere osotasunean, taldeko partaide guztiek ezagutu behar dute; honela, irakasleak edo ikasleak edozein galderak egiteko aukera izango du.

1996-ko iraila

*** Kotsultarako bibliografia**

1. Sobre la lengua vasca. TXERTO. Julio Caro Baroja.
2. Lengua y pueblo ELKAR. José María Sánchez Carrión.
3. Euskararen kanpo historia. E H eta L 2. ELKAR. 7-8-9-10-11-12-13-14.orrialdeak.
4. Elebitasuna eta diglosia. E H eta L 2. ELKAR. 32-33-34-35.orrialdeak.
5. Euskararen gaurko egoera. E H eta L. ELKAR. 51-52-53-54-55. orrialdeak.
6. Euskara batuaren egoera eta egitekoak. E H eta L. ELKAR. 56-57-58-59-60-61 orrialdeak.
7. Conflicto lingüístico en Euskadi. ORDAGO. Euskaltzaindia.
8. Euskararen liburu zuria. Euskaltzaindia.
9. Orígenes de los vascos. Lasa. Auñamendi.
10. Euskararen jatorriaren problema. E H eta L EREIN. 1 30-31.orrialdeak.
11. Euskaltzaindia. E H eta L 1. EREIN. 34.orrialdea.
12. Euskararen ibilbide historikoa. E H eta L 2. EREIN. 79-80-81-82-83. orrialdeak.
13. Euskara munduko hizkuntzen artean. 1.BBB. ELKAR. 63.orrialdea.
14. Euskararen nondik norakoa 2.BBB. ELKAR. 25-26-27-28. orrialdeak.

2. HIZKUNTZA ETA HIZTUNAK

2.1. Euskararen jatorria

2.1.1. Ahaidetasunak

EUSKARA ETA INDOEUROPARRAK

Ikerketa batzuk egin dira eta ahalegindu dira Baskokaukasikoa Indoeuropeoarekin erkatzen, baina ezin izan da erlazio sendorik aurkitu.

ETRUSKOAK

Dakigunez, Tirreno itsasoko kostaldean hedaturik zegoen zibilizazio bat izan zen.

Aztarnategi ugari izan arren, hizkuntza idatziari dagokion materiala ez da kalitatezkoa eta gainera oso urria.

Lortu ahal izan den lexikoa oso mugatua izan da eta ez dago antzekotasunik.

EGEO ETA KRETARRAK

Etruskoei buruz esandakoa

Asiako hizkuntzak

Urrita, Urartiano eta Caldeo

Hizkuntz hauei buruzko ikerketak geldo joan arren, badirudi fonetika mailan erlazonaturik daudela, aurkitzen diren toponimoak ere oso interesgarriak direlarik.

Dena den, material gehiago beharko genuke tesia demostratu ahal izateko.

Sumerioa

Aditz egitura mailan antzekotasunak ematen dira eta toponimoetan euskal fonetika asko erabiltzen da.

Siberia

TCHOUTCHET (Siberiako iparrekialdeko hizkuntza)

K. Boudak, lexiko mailan, antzekotasun batzuk bilatu zituen

TCHOTCHEL	EUSKARA
EUL (euria egin)	UR
LYP	LEPO
VALV	BELE
ARG	ARGI

2.1.2. Teoriak

G. Humboldt-ek antzinako iberoaren hondar bat zela uste zuen, penintsulako herri inbasoreen erasotik bizirik apartatzea lortu zuena. Larramendi aitzindari zuen euskaliberismoaren teoria honi beste izen handi asko batu zaizkio: Mogel, Astarloa, Cejador, Schuchardt eta baita Menendez Pidal bera ere. Baina iberiar idazkiak deszifratzea lortutakoan, hizkuntza honen-indo-europarra ez zena, noski- eta euskararen konparazioak ezezkoa ematen duela dirudi.

Gaur ere oraindik defendatzaile ospetsuak dituen beste teoria bat euskara Kaukasiako hizkuntzetan euskararen leinukideak zientifikoki bilatzen saiatu zena Euskalkaukasiar teoriak gure egunotan eusle gogorak ditu, hala nola G. Dumezil, R. Lafon eta Karl Bouda, beste batzuen artean. Teoria hau kritikatu duen Koldo Mitxelenak, ordea, ez dio baliorik ematen.

Beste batzuek Afrikako hizkuntzetara jotzen dute, bereber-era batez ere.

Vienako Mukarovsky-ren teoria da hau. Irakasle jakintsu honen ustez, euskara eta bereber-era elkarrengandik isolaturik geratuko ziratekeen, tartean beste hizkuntza batzuk sarturik. Inkomunikaturik eta inguru txit desberdinez iraunik, desberdinki eboluzionatuz joan dira. Teoria honi ere muzin egiten zaio. Gainera aise somatzen da honen eta euskal-iberismoaren artean egon daitekeen zubia edo lotura.

Badira euskarak hazkunde lokala eduki duela uste duten autoreak ere. Hauen ustez ez dago herritik kanpora joan beharrik euskararen ahaide-guraso edo ahizpa- bila, zeren hizkuntza hau “in situ” sor baitzitekeen, hots, mendez mende bizi izan den lekuan bertan, nahiz eta, jakina, lur hedadura handiagoz. Duela zazpi mila urte ingurutik letorke, hau da. Historiaurrea deritzan azken alditik.

EUSKALTZAINDIA (Euskararen liburu zuria)

2.1.3. Basko iberismoa

Lehen Penintsulan hizkuntza bakarra zegoen, iberoa, eta euskara haren hondar bat da. Beraz, teoria honen arabera Basko=Ibero

AURKAKOAK

Florez: Honen ustez iberoen graian, Iberian, ez zegoen batasun linguistikotik eta latinarekin batera hasi zen batasun linguistikoa sortzen.

Traggia. Hizkuntzen ugaritasuna defenditzen du.

ALDEKOAK

Oihenart. Honen ustez iberoa (euskara) Penintsulako lehenengo hizkuntza izan zen, gaztelera sortu zuena. Larramendi Oihenarten iritzikoa zen.

Gaztelera euskaratik datorrela demostratu ahal izateko, honako gurarizko konposaketa hauetaz baliatu zen: alabantza < alaba antza; estandarte < estanda arte.

Esandakoaren arabera gure hizkuntza, gaztelaniaren ama izan zen.

Schuchardt. Iberiaren deklinabide bat osatu zuen, Euskara eta Iberiarra erkatuz.

Objetiboki. Estrabon (139) “iberoak gramatikaz baliatzen dira baina hizkuntza ezberdinez”.

Beraz, latin aurretiko hizkuntzak oso ugariak ziren.

Turdetanian (erromatarren garaian), hizkuntza ezberdinak ematen ziren: fenizioa, libio-fenizioa.... eta bertako tartesikoa, beste lurraldeetan egiten ez zena.

Beraz, honen arabera, Penintsulan ez zegoen batasun linguistikorik.

Ekialdean. Ekialdeko hizkuntzan alfabeto esberdinak bereizten ziren. Hala nola:

- *Alfabeto tartesiko epiografikoa* (oso antzinakoa)
- *Alfabeto tartesio monetala*
- *Alfabeto celtiberikoa*
- *Castelloiko alfabetoa*
- *Alfabeto monetala*
- *Alkoikoa*

Honek ez du esan nahi hizkuntza ezberdinak ematen zirenik. Baina alfabetoak ezezik deklinabide ezberdinak ere ematen ziren.

Shuchardt-en iberoaren delinabidea. Antzekotasunik badago baina aldi berean esan beharra dago osatutako materiala hizkuntza ezberdinetatik hartua izan zela, bere balio galduz.

Ondorioa: Antzekotasunik badago, baina hortik aurrera suposapenak baino ezin dira atera.

2.1.4. Azkeneko teoria. objetiboki

Euskara bertan sortua eta garatua.

Euskaraz ferratzailea=arrotza eta kanpotarra=arrotza. Arrotza: Metal aroko hitza.

Bertako biztanleek metala ekarri zuten gizonak izendatzeko euskara erabili zuten, honek suposatzen du hurrengo biztanleek euskaldunak zirela Euskal herriko kobazuloetan bizitako jendea euskalduna zela.

3. ELEANIZTASUNA ETA DIGLOSIA

ELEBITASUNAREN NONDIK-NORAKOA

Honela dio Euskaltzaindiak argitaraturiko Euskararen Liburu Zuriak: «Bi mapa gonbaratuko bagenitu, bata estatuak eta muga politikoak agertzen dituen, eta bestea munduan diren hizkuntza guztien bizilekuak agertuko lituzkeena, zera ikusiko genuke: ez dagoela bien arteko elkarkidetza zuzenik. Aitzitik, hizkuntzen eta estatuen arteko mugak oso gutxitan datozela bat. Maiz asko hizkuntza bakar bat estatu politiko batzutan banaturik dagoela (hola ingelesa, gaztelania, portugesa, etabar), eta maizenik estatu baten barrenean hizkuntza bat baino gehiago daudela».

Hori horrela izanik, elebitasun edo bilinguismoaren -askotan, agian, eleaniztasuna hitza ere erabili beharko da fenomeno berria ez ezik konplexua ere badela erraz antzeman daiteke.

XX. mende honen bigarren erdian hasten da bizten elebitasuna eta honi buruzko interesa. Zergatiak era askotakoak izan daitezke:

Aro kolonialaren azkenaldiko ideologia demokratikoen eraginez minoriei tratu lasaiago bat ematen zaienez, hauek beren eskubideak, beren hizkuntza ere tartean dutelarik lortzeko joera areagotu egingo dute. Euskal Herrian, 40 urtetako diktaduraren ondoren, sortu den espektatibak ere oinarri politiko horixe luke. Ildo beretik, nazio asko beren buruen jabe bihurtzen dira, nor bere hizkuntza nazionalaz. Baina, jada, gizarte guztiok, neurri handiagoan edo txikiagoan, elebidunak dira.

Kultur ondasunak jaso asmoz, hizkuntza internazional handiek eskaintzen duten zientzi eta teknologi informazioetara jo beharra dago, horretarako estatu moderno eta indartsu horien hizkuntza ezagutuz.

Herrialde aurreratuetan, nahiz batxiler mailako nahiz unibertsital ikasleei bigarren hizkuntza moderno bat irakasten zaie.

Azkenik, besteak beste, turismoaren fenomenoak ere badu eraginik jendeak beste hizkuntzak ikas ditzan.

Horrela bada, egun, esan ere esan dezakegu linguistikaz ari garenean ez garelako ari, orain arte bezala, hizkuntzaren estruktura foniko, gramatikal edo semantikoari buruz bakarrik; hizkuntza ezberdinek duten kode edo sistema ezberdinei erlazioaz, kode horien erabileraz, hizkuntzen artean gertatzen diren kontaktoaz, ordezkapen prozesuaz, interferentzia eztabairu luze batez baizik. Hots, gorabehera hauek direla eta, psikohizkuntzalaritza eta soziohizkuntzalaritzaren moduko zientzia espezializatu berriak sortuko dira, elebitasunaren ikaskuntza zientifikoak berak aurrerapen nabariak izanez.

HIZKUNTZ UKIPENA

Gizabanako batek edo talde batek bi hizkuntza erabiltzen ditueneko egoerari esaten zaio hizkuntz ukipena. Egoera konkretu honek sortzen du, beraz, elebitasuna.

Hizkuntz ukipenak geografi arrazoiak izan ditzake. Halaxe gertatzen da euskararen eta gaztelaniaren edo-ta frantsesaren kasuan. Geografi eremu batean hitzegiten dira hirurak. Halatsuki gertatu zen, adibidez, erromatarrek Galietara edo espainiarrak Ameriketara joan zirenean.

Lan arrazoiak ere izan daitezke hizkuntz ukipenean, hala nola emigrazio kasuetan, etabar.

ELEBITASUNA ETA DIGLOSIA KONTZEPTUAK

Elebitasuna: Pertsona edo gizatalde batek ezagutzen dituen bi mintzairatatik edozeinez erraztasun berdinez baliatzeko duen ahalmena da.

Elebitasuna, eman dugun definizio honen arabera, norbanakoaren mailako fenomeno gertatzen da, nahiz eta norbanakoak ugariak izan.

Diglosia: Ferguson-en hitzez(l): «Hizkuntz ukipenezko egoera dagoelarik, bi hizkuntzen artean halako menpekotasun harremana sortzen da, non bion erabilkuntzari dagokionez funtzio edo betebeharrak jakin batzuetarako garbi bereizten diren, erabilkera bakoitzari status kultural berezi bat ezarritik, hizkuntzen erabilkuntza bortxazko baldintzatu eta menpeko gertatzen delarik».

Elebitasuna, beraz, gizabanakoaren eta bere portaeraren mailako zerbait litzateke: egoera horretan posible da bi hizkuntzak botere, status, prestijio eta funtzio maila berdinean egotea, hau da, posible da elebitasun orekatu batez hitz egitea.

Diglosia, ordea, maila sozio-kulturaleko hizkuntz organizazio mota bati dagokio: hor ezinezkoa da hizkuntza biek maila berdina izatea, ez botereaz, ez prestigioaz, ez funtzioz, ez status-az. Eta banaketa funtzional honek portaera eta balore irudi desberdinak dakartza. Hizkuntza bat goi-mailako hizkuntza bihurtuko da, komunikazio formalean erabiltzen dena hura delako: administratitzan, unibertsitatean, prestijiodun jendeak hizkuntza hori erabiltzen du; eta bestea behekoa izango da, familia barruko eta lagunarteko elkarrizketan bakarrik erabiltzen delako.

Hori dela eta, gizarte horretan eten bat sortzen da hizkuntza bien artean, nor bere eremura atxikiz, eta jendeak jokabide ezberdina agertzen duelarik hizkuntza bakoitzaz. Izan ere, norbanako bat bi hizkuntza erabili beharrean gertatzeko, bi komunitate linguistiko izatea ezinbestekoa da, noski. Honek ez du, ordea, esan nahi komunitate hori elebiduna denik, komunitate horretako guztiek behar bailukete izan horretarako elebidun. Errealitatea deskribatzeko diglosia hitza egokiagoa litzateke

EUSKAL HERRIAREN EGOERA

Begibistakoa da, gaur egun, elebidun bakarrak euskal hiztunak direla Euskaraz dakien orok onerako nahiz kalterako, daki halaber frantsesez zein gaztelaniaz. Baina, eta alderantziz?

Euskal Herriko errealitatea elebiduna dela esatea neurkera sinplista bat erabiltzea litzateke. Gaztelania edo frantsesa hitz egiten duten euskaldun guztiak ez baitira elebidun.

Euskara menperatzen dutenak biztanleriaren laurdena diren bitartean, erdara ezagutzen dutenak ehunetik ehun dira. Zirkunstantzia honek komunitateko sektore batera murrizten du elebitasuna Euskal Herrian. Talde konposaketa bera ere diglosikoa dela esan dezakegu.

Kontutan hartzekoa da gainera, bi hizkuntzen gaitasun funtzionalari ere asko falta zaiola simetriko izateko. Euskara eguneroko gauzetako eremu jakin batzutan bakarrik erabiltzen den bitartean gaztelaniarekin noranahi, eta nekerik gabe, iristen da bat.

Beste faktore bat ere badago arazoa areagotzen duena. Zera da: euskaraz, duela urte gutxi arte denak eta gaur egun ere biztanlearen % zati handi bat, analfabetoak dira, erdaraz, aldez, eta derrigorrez, alfabetatuak denok.

INTERFERENTZIA ETA ORDEZKAPEN PROZESUA

Elebitasunaz aritu diren guztiak ohartu dira hizkuntzen artean sortzen diren interferentziez.

Euskarari gagozkiolarik Sebero Altube aipatuko genuke lehenengoz bere Erderismos liburuarekin. Euskararen irakaskintza munduan hainbat tokitan, gaztelaniarekiko interferentzia horrek sortzen dituen datuak jaso ere egin dira azken urteotan. «Erdarakadak zuzentzen» atala duzu interferentzia horren lekukorik argiena.

Izan ere, euskara gaur egun elebidunen hizkuntza da. Euskaraz dakigun guztiok beste hizkuntzaren bat ere badakigu. Denok dugu geure baitan hizkuntz sistema bat baino gehiagoren berri, Hizkuntz interferentziak beraz, eta zoritxarrez, eguneroko ogi ditugu.

Hizkuntz interferentzia baino larriagoa da, dena den, hizkuntz ordezkapena.

Ordezkapen prozesu hau, hizkuntza batek betetzen dituen funtzio edo betekizunak beste bigarren hizkuntza batek ere bete ditzakeela, eta lehenengoak bezain ondo edo hobeto bete, gainera, askotan, konbentzitzen denean gertatzen da. Prozesu hau, dudarik gabe, erraztu egiten da egoera diglosiko batean. Are gehiago funtzio konkretu batzuk goi-mailakoak usuenik, noski, prestijioa duen hizkuntza horrek betetzen dituenean.

Gaur egun, ordea, eta gazteen artean batipat, etengabe somatzen dugun beste ordezkapen prozesu bat ere badago. Alegia, ikasketetan eta goi mailako gaiak euskaraz desarroilatu arren (Fisika, Matematikak, Filosofia eta beste zenbait gai), ordezkapena, eguneroko harreman arruntetan, hizkuntzaren lehen mailako funtzioan ere ematen da, tamalez.

Hori horrela, eta bukatzeko, zera esan: Euskal Herriko euskal militante asko da euskararen patua aldatzeko lanean diharduena baina egin daitezkeen ahalegin guztiek ezingo dute fruiturik eman euskarak bigarren mailako hizkuntza izaten jarraitzen duen bitartean.

4. EUSKARAREN HEDADURA MENDEZ MENDE

HEDADURA GEOGRAFIKOA

Euskarak inoiz izan duen hedapenik zabalena aintzinatean izan zuen mugak Aran deritzan Catalunyar haranetik gaurko Huescan barrena, Errioxatik eta Burgosko iparraldetik zehar Bizkaia mendebaldera zabaltzen baitziren, Hegoaldean Iparrean Akizen (Dax) aurkitzen dira euskararen aztarna urrunenak.

Aintzinetetik gaurdainoko ibilbidea atzera eta atzera beharrez egina du. Hamargarren mendean Errioxako Donemiliagan gaztelaniaren sorlekuan- euskaraz ere ari ziren. Hamahirugarrenean -eta geroago ere bai seguruena Huesca hirira inguruetakoa herrixka eta auzuneetatik ferietara zihoazen saltzaileek euskaraz egiten zutela badakigu.

Duela berrehun urte, Nafarroan, Tafalla eta Lizarra muga-herri zituen euskarak.

Gaur Nafarroan erditik mendebalderako mendialdea baino ez da euskalduna, alegia Nafarroaren laurdena edo, eremuz, maparen ikusi batera. Araban, Ibarra izeneko bailara eta Bizkaian, Nerbioitik eguzki alderako partea.

Iparraldean mugak iraunkorragoak izan dira, funtsean, aspaldidanik gaur direnetan irauten dutelarik gutxi gora behera.

GURE HIZKUNTZAREN INGURUAN

Euskararen ibilbide historikoa

Gure hizkuntzaren kanpo historia aipatzean, hizkuntzaren beraren garapenari baino areago, beronen bilakaera historikoari gagozkio, hots, ezagunak zaizkigun garaietan izan dituen eraginak eta aldaketak.


Bestalde, kanpo historia hau aztertzeke beharrezko da hizkuntzaren sostengu izan den gizartearen azterketa ere. Hizkuntzaren funtsa gizarte bizitza baita, komunitate bateko bizilagunen komunikazio tresna. Horregatik hizkuntzaren historia oso loturik dago bizia ematen dion giza taldearen historiari. Ikuspegi honetatik abiatuko gara, beraz, gure hizkuntzaren kanpo historian zehar.

Antzinako hedadura geografikoa

Ikerlarien ustez euskara europar hizkuntza zen, berton zen Ekialdetiko migrazioek Mendebalde osoa inbaditu baino lehen. Ziurtasunez baieztatu daiteke, beraz, Europako lurraldeanbizi izan dela azken 5.000 urteotan, gutxienez. Ez dago, noski, hizkuntzaren garai hartako hedadura jakiterik.

Euskararen hedadurari buruzko lehen zehaztasunak erromatarren garaikoak dira, duela bi mila urte ingurukoak. Horrela, Julius Caesar-ek akitaniarrek eta iberiarrek, Pirinioetako bi aldeetako biztanleak, alegia, hizkuntza bera zutela adierazi zuen. Orduko dokumentuak urriak izanik ere (hilarrietako inskripzioak, batik bat), toponimoak eta ikertuz, nahiko zehatz finkatu dira euskararen mugak.

Hona I. mendeko euskararen hedadura-mapa:



Iparralderantz Garonne ibairaino hedaturik zegoen euskara, Akitaniako lurraldean barrena, bertako hiliarrietako euskal izenek frogatzen dutenez.

Ekialderantz egungo Kataluniaraino (Vall d'Aran toponimoa lekuko, besteak beste).

Mendebalderantz, Kantabriako Samano haranean zuen muga.

Egungo hedadurarekin alderatuz askoz ere handiagoa den arren, ez da horregatik pentsatu behar hiltunez ere horren joria zenik euskara. Mendi eta haranetan sakabanaturik bizi ziren euskaldunak, abeltzantza eta nekazaritza urriak giza-multzo ugariaren bizimodua segurtatzeko aukera handirik gabe.

ERROMATARREN GARAIOKO EUSKAL "GENS"AK EDO GIZA TALDEAK

Greziar eta erromatar geografoei esker badakigu euskal lurraldean "gens" edo giza talde desberdinak bizi zirela. Horrela, Plinio, Ptolomeo eta Pomponio Mela erromatarrek eta Estrabon greziarrak, bereziki, bost giza talderen berri ematen digute: akitaniarrak, baskoiak, barduliarrak, karistiarrak eta autrigoiak.

"Gens" hauen hedadura geografikoa euskalkienarekin bat dator, oro har. Honela kokatzen dituzte aipatu geografoek:


Akitaniarrak: Iparraldean.

Baskoiak: gaurko Nafarroako lurraldeetan eta Gipuzkoako ekialde bazterrean.

Barduliarrak: Gipuzkoan, Debaraino.

Karistiarrak: Bizkaian, Deba ibaiaren ahotik Nerbioiraino.

Autrigoiak: Nerbioitik mendebalde eta hegoalderantz.



Aipatu euskal "gens" horiekin batera baziren keltar giza talde txikiren batzuk ere, baina ez zuten ia eraginik izan, lexikoan eta toponimian izan ezik: zilar, maite, Deba, Ultzama...

ERROMATARKUNTZA

K. A. II. mendean erromatarrak Ebroren haranean zehar Euskal Herriko lurraldeetarantz abiatu ziren. Horrela, Nafarroako Erriberara iritsi eta apurka-apurka hegoalde osoan kokatu ziren, Aragoatik Arabara zetorren galtzadaren inguruan. K.A.75. urtean Ponpaelo (Iruñea) eraiki zuten, Veleia (Gasteiz inguruko Iruña), Kalagurris eta beste hainbat hiriska.

Erromatarrak hegoaldean kokatzeko arrazoi nagusia bertako lur aberatsagoak dira, nekazaritzako batik bat.. Izan ere, euskal lurraldearen erdibitze garbia egin daiteke ibaietako urak Bizkaiko golgora ala Ebrora doazen; bi isuralde bereiz daitezke horrela: hegoaldekoa eta iparraldekoa. Bada, klima egoeraz ere oso desberdinak izaki, erromatarek "ager" hegoaldeko isuraldea) eta "saltus" (iparraldekoa) izenez bereizi zituzten. Ager delakoan, lautadan kokatu ziren, saltus menditsuak baino interes ekonomiko handiagoa zuelako.

Bereizketa honi loturik, argi ohar gaitezke euskal giza talde bakoitza saltus-etik ager-era hedatzen zela, ziur aski ekonomia osagarria edukiz: abeltzantza lurralde menditsuan eta nekazaritza lautadan.

Dena den, kostaldean baziren zenbait kokagune estrategiko: Oiarso (Oihartzun), Lapurdum (Baiona), Gernika ingurua, Flaviobriga (Castro Urdiales), besteak beste Garrantzi urria zuten kostaldeko hauek "ager"ekoen aldean.

Beraz, hegoaldean gertatu zen erromatarkuntzarik finkoena, ziur askolautadako bizilagunik gehienak elebidun bilakatzeraino, hiri eta erromatarrekiko harremanetan murgildurik.

Dena den, euskara gatzorian egon bazen ere, Erromatar Enperadoregoaren krisialdiaren ondorioz jalgi zen egoera horretatik. Zeren III-IV. mendeetan erromatarren inperioa zaharkitu eta zatikatu egin bait zen. Abagune horretan esklabu ihes eginek (basagaudae) eta basalapurrek ("saltus"ekoak, seguruenik) herri eta hiriskei erasotzen zieten, erromatarrek ezin kontrolatuz. Guzti honen ondorioz despopulatu ziren eta nekazal girora bihurtu.

Erromatar zibilizazioaren ahultzearekin batera gutxitu egin zen latinaren eragina ere. Hala ere, ugari baino ugariago dira eraginok lexikoan, deklinabidean aditzjokoan, fonetikan, eta abar. Gerhard Rohlfs-ek adierazi zuenez euskara da latinetik sortu ez diren europar hizkuntzetan latinak gehien eragin diona, barne indarrrik galdu gabe horrengatik. Argi dago, beraz, "Pax Romana"n luzaroago iraun izan balu euskara desagertu egingo zela, beste hizkuntza asko bezala.

V-X MENDEAK

Erromatarren Enperadoregoaren amaieran kanpotiko giza talde berrien inbasioak hasi ziren. Hauek jatorriz germaniarrak ziren. Oldarrean barneratzen ziren Pirinioetatik eta, horrela, VI. mendean penintsula osoan zeuden hedaturik. Bisigotuak izan ziren denetatik garrantzitsuenak.


Euskal lurraldeari dagokionez erromatarrek izandako eremuan kokatu ziren, "ager"ean hain zuten. Baina erromatarrekin gertatu ez bezala borroka bizian iraun zuten hauek "saltus"eko euskal leinuekin, VI-VII. mendeetan.

Bisigotuen zibilizazioak ez zuen erromatarrenak adinako mailarik eta, beraz, eragin oso urria izan zuen euskararen bizitzan. Gainera, etengabeko borroken ondorioz euskal giza taldeen lurraldean eta bisigotuenen artean halako muga bat sortu zen. Ez hori bakarrik: badirudi ezen bisigotuen aurka aritu beharrak bildu egin zituela euskal leinu desberdinak baskoien inguruan, ez bait zituzten baskoiak baizik aipatzen: Domuit vascones (Garaitu zituen Baskoiak). Beraz, bisigotuen garaian euskaldunek inoiz izan ez zuten batasuna lortu zuten, hizkuntzan eta odolkidetasunean oinarritua.

VIII. mendearen hasieran arabiarrek sartu ziren penintsulan eta iparralderantz segituz Nafarroako Erriberaraino iritsi ziren, bertan kokatuz. Hauek erlazio onak izan zituzten goialdeko euskaldunekin. Bitartean, bisigotuen agintea desagertuz zihoan (Orreagako gatazka) eta Nafarroako Erresuma sortuz.

IX. mendean, Nafarroako Erresumaren hastapenetan baskoiak, hazkunde demografikoaren ondorioz, gero eta hegoalderago hedatzen dira. Ebro ibaiaren inguruan finkatzen da apurka apurka euskal hiztunen muga Nafarroari dagokionez, eta Errioxa ia osoa eta Burgosko lurraldeak ere birpopulatzen dituzte.

Hona **X. mendeko** euskararen eremua:



Iparraldean, Akitaniako eremuan atzera egina zen hein handi batean.

XI-XVI MENDEAK

Nafarroako Erresumaren garapenarekin batera bada hizkuntz ikuspegitik gertakizun garrantzizko bat: nafar erromantzearen sorrera. Erromatarrek utzitako sustratuan oinarrituz zabaldu zen X. mendetik aurrera Ximenotarren Dinastiarekin. Leireko Monastegiaren inguruan, ekiadean izan zuen jatorria.

Aragoi, León eta Gaztelarekiko harremanetarako egokiago bide zen erromantzea eta, horrela, gobernu mailako hizkuntza bilakatu zen. Iruña ere erromantze gune bat zen.


Dena den, garai hartako hizkuntz egoera zehaztasun handiagoz aztertuz, honako alderdiok jartzen zaizkigu agerian:

- × Mende hauetan hiru hizkuntza ziren nagusi Nafarroan: herri mailan erabiliena bai erromantzea kokaturik dagoen eremu handi batean ere (Iruña, bereziki); erromantzea, ekialdeko lurraldeetan eta, azkenik, latina, elizgizonek eta jende ikasiak erabilia, batik bat.

- × Aipatu hizkuntza horiek ez zuten hedadura geografiko zehatzik. Izan ere, garai hartako Nafarroa, erdialdetik hegoalderantz bereziki, elebiduna zen. Erromantzea aginte mailakoei zegokien eta horren ondoriozko ospea gertatu zen ondoko mendeetan izan zuen zabalkunderako arrazoi nagusia.

Hego-mendebaldean ere, Errioxa eta Burgos aldeko euskal eremuan aldaketak gertatu ziren. Batetik, mendebaldean, garatzen ari zen gaztelaniaren eragina; bestetik, ekialdetik hedatzen ari zen erromantzea. Horrela, euskara atzeraka hasi zen.

Ikus XVI. mendeko euskararen hedadura:



5. NORMALKUNTZA PROZESUA HIZKUNTZA ESTANDARRA

EUSKALTZAINDIA

Gure hizkuntza dela eta, euskaldun guzti-guztiok bilduta daukagun erakunde bakarrari deritzogu “Euskaltzaindia”.

1918an, Hego Euskal Herriko lau Herrialde Historikoetako Diputazioek elkar hartu eta sortu zuten, euskarari ikerbidea, babesa eta iraupena emateko asmoz.

Hasieran, hamabi lagunek osatu zuten Erakundea. 1954ean hamazortzira igo zen osakideen kopurua. Azkenik, 1972tik aurrera, hogeitalau dira euskaltzainak.

Aldi berean, ohorezkoak eta urgazleak -laguntzaileak- ere badira akademikideen artean. Hauen kopurua mugagabea da.

Euskararen Akademia den Euskaltzaindiak honako Batzorde hauetan dauka eraturik barne organigrama:

a) Egiturazko Batzordea.

Euskaltzainburugoa.
Ekonomi Batzordea.
Azkue Biblioteka Batzordea.
Euskara agerkaria eta argitalpenak.

b) Iker saileko Batzordearen Batzordea

Euskararen Iekukoen batzordea.
Dialektologi Batzordea.
Hiztegi Batzordea.
Herri entitateen Batzordea. Gramatika Batzordea.
Herri Jakintzaren Batzordea.

c) Jagon zaindu-saileko Batzordea

Bertsolaritza Batzordea.
Oinarrizko Euskararen Batzordea
Literatura Batzordea.
Euskalariekiko Harremanetarako Batzordea.

Euskera izeneko agerkaria erabiltzen du bere lanak eta agerpenak ezagutzera emateko.

Hilean behin egin ohi du Batzar Arrunta Donostiako Diputazioaren Jauregian, Erakundearen Egoitza Bilbon badago ere. Bilerak bereziak herriz herri ere egin ohi ditu mendeurren bat edo, medio dela, hortik datorkio dirudienez, “Academia errante” izengoitia, euskaraz “Akademia ibiltaria” itzulita erabili izan dena.

“Ekin eta jarrai” dio bere sorreratiko lemak.

EUSKARA BATUA: EUSKAL IDAZLEEN ASPALDIKO AMETSA

Hizkuntza batek gaurko komunikazio beharrei erantzuteko nahi eta nahiezko du idatzian ere erabiltzea. Izan ere, gure gizarte honetan saihestu ezinak dira eskola, egunkariak aldizkariak, iragarkiak eta abar.

Ahozkoan ez bezala, idatzian behar-beharrezko da batasuna. Hizkuntza bat bera egiten duten guztientzat idazkera eredu bat, alegia. Euskal literaturaren hasiera beretik konturatzen dira idazleak arazo honetaz: euskaraz idatzi, baina zein euskaldunentzat? Leizarraga eta Axular ditugu lekuko nabarmen. Ahalik eta euskara zabalenaz idazten saiatzen dira, oztupoak gainditu asmoz.

XIX eta XX. mendeak dira, dena den. erabakiorrenak gai honetan. A.D'Abbadie. L. Luziano Bonaparte. Duvoisin eta beste asko nabarmentzen dira XIX.mendearen bukaera horretan, euskal kultura plazaratzeko ahaleginetan.

XX. mende honetako hasieran hor ditugu R.M. Azkue, Sabino Arana, Txomin Agirre...: guztiek ere euskara, idatziaren arloetan normalizatzeko kezka eta ahaleginez.

EUSKALTZAINDIAREN SORRERA

1918an Eusko Ikaskuntza taldeak Oñatiko unibertsitate zaharrean egin zuen bileran erabaki zuten han bilduek EUSKALTZAINDIA sortzea. Erakunde honen xedea bi hitzetan laburbiltzen da, sortu zen memento beretik: IKER eta JAGON; euskara bere aberastasun guztiekin aztertu eta zaindu, alegia.

Harrezkero, bi aro bereiz daitezke nabarmenki:

- Gerra aurrekoa: euskal eskolarik ez edo oso urriak direneko garaia. Batasunaren beharra badago ere, ez da hain premia larria.
- Gerra ostekoa: industriaren garapenak, migrazioak, herri eta hirien hazkundeak. gehiengoaren eskolatzeak, zeharo baldintzatu zuten Euskal Herriaren eta euskararen egoera: batasuna premia larri egiteraino baldintzatu ere.

1968an bildu ziren euskaltzainak Arantzazun, literatur hizkuntza batua bideratzeko asmoz. Hantxe argitara zituzten ortografia, deklinabidea, aditz-jokaera eta lexikoari buruzko txostenak, aholku gisa oraindik.

Arantzatzun gomendio zirenak arau bihurtu ziren, hamar urteren buruan, Bergaran (1978). Izan ere, Euskaltzaindiaren gomendioek Jarraipen ia orokorra izan zuten, estatistikek frogatu zutenaz.

GURE LITERATURA IDATZIAREN ORAINA ETA ETORKIZUNA

Gaur egun euskaraz zerbait idatzi eta argitaratu nahi duena ez da, bere garaian Leizarraga, Axular eta beste asko bezala, zein moldez idatzi ez dakielarik geldituko. Bada Euskal Herri osoan ulergarri den eredu baliagarria.

Euskal literatura idatziaren egoera, baikor izateko modukoa da, gaur. Eskola liburuez gain, bada egunkari, aldizkari eta literatur libururik ere. Gure idazle klasikoen lanak argitaratu dira; baita beste hizkuntzetako asko itzuli ere. Lan berriak sortzeko gai direnak ez dira hainbeste gurean, baina irakaskuntza guztia euskaraz jasotzeko aukera izan duten belaunaldi berriengandik espero dezakegu emaitza berririk ere.

Etorkizunari begira, hain zuzen, ez da dena irakaskuntza euskaldunak egin ahal duena. Gizartea bere harremanetan euskaraz mintzo ezean, euskara idatziak ere ez du etorkizunik.

Euskaltzaindiak mende honen hasieran euskara idatzia arautzeko betebeharra bere bizkar hartu zuenean, euskara mintzatua ez zen arazo. Euskaraz bizi zen herriari idazteko tresna prestatzea zuen helburu. Orain, ordea, tresna prestatua dugun honetan, horren beharrik ez izatea izango litzateke larriena, herria ez delako “euskaraz” bizi.

Euskal literatura idatzian ospetsu den Bernardo Atxagak, 1991ko urrian Frankfurt-eko “Liburuen Nazioarteko Azokan”, esandakoak ez daude hemen lekuz kanpo. Honela zioen, hitzez hitz, heste gauza batzuren artean: “Ezin da onartu, adibidez, Gasteizen ingeles hizkuntzari euskararekiko lehentasuna ematea”.

Oraingo arazo hau, baina, ez da Euskaltzaindiak konpondu beharrekoa. Euskaldunon aukerak eta horri dagokion “Hizkuntz politikak” ebatziko du gure hizkuntza eta, ondorioz, literaturaren etorkizuna.

ATZERAPEN ETA ORDEZKAPEN PROZESUA

Aurreko gaiarekin lotuz, esan dezagun urteetako zapalketaren ondoren, eta herri txikiek beren hizkuntza eta kulturaren alde gutxi egin dezaketelako, hizkuntzaren atzerapena ezezik ordezkapena ere ematen dela. Euskal Herriaren kasuan, adibidez, eta besteenetan bezalaxe, hemen argi ezin ditzakegun hainbat arrazoi ekonomiko, politiko eta sozialgatik Euskal Herrian ere lehendabiziko elebidunak agertuko dira.

Piskanaka-piskanaka, eta komunikabideak, irakaskuntza eta instituzioak Euskal Herriaz beste daudelako herriari erdara inposatzen zaio goitik behera, eta horrela, ordezkapen prozesuak aurrera egiten duela, komunitate elebiduna handituz doa, eta lehen elebarrak erdaldunak sortzen dira.

Denborarekin hasierako euskaldun elebarrak gutxituz doaz eta, era berean, elebarrak erdaldunak gehituz eta euskaldun guztiak elebidun bihurtuz.

Azkenean hasierako elebarrak euskaldunak desagertuko dira, elebarrak erdaldunak ugartu eta, emigrazio erdaldun handi bat jasan ondoren, elebidun bakarrak talde murrizta izango.

Guzti hau honela, hizkuntzaren ordezkapen prozesu hau euskararen egoera minoritario honetara iritsi da:

Euskal Herri osoak (erdaldunak + euskaldunak), %100ak, daki eta erabiltzen du erdara (gaztelania nahiz frantsesa).

Komunitate elebidun bakarra euskaldun komunitatea da, komunitate minoritarioa alegia: %23.

Komunitate maioritarioa erdaldun elebarrak da: %77

Ez dago euskal komunitate elebarririk (euskara soilik dakienik, alegia): %0. Euskarak, beraz, ez du beretzat bakarririk izango duen lurralderik.

Gaur egun, euskal hiztunak, nahiz eta gero eta gehiago izan kopuruz, gero eta egoera minoritarioagoan aurkitzen dira.

KONTSERBAZIO ETA BERRESKURATZE PROZESUA

Debeku eta galerazko dinamika luzean bizi izan da euskara mende luzeetan eta, ezinbestean, heriotza baizik espero ezin zitekeenean, azken hogeitabost urte honetan berreskuratze aldi berri bati ekin dio gure hizkuntzak.

Areago oraindik, berreskuraketa ezezik normalkuntza bidetan ere sartu dela esan behar dugu. Euskararen normalkuntzarako lege bat ere badugu, euskararen erabilera arlo guztietara zabaldu nahi duena.

Gauzak zehaztu beharrez, ordea, esan dezagun berreskuratze eta normalkuntza honen marka nagusiak bi alor hauetan nabari direla bereziki: irakaskuntza eta komunikabideetan.

Irakaskuntzaren alorrean herriaren senak garbi asko ikusi zuen egungo egoera diglosiko honetatik ateratzeko bide bakarra haurrak euskaraz eskolatzea zela. Denok gara jakitun borroka politiko honetan botatako izerdia eta ikastolak sortzeak eskatu duen karga ekonomikoa ez dela izan ahuntzaren gauerdiko eztularen parekoa.

Ikastolekin hasitako berreskurapena ez da horretan geratu, ordea. Euskararen urratsak gaur eguneko eskola eta ikastetxe gehienetara iritsi dira. Eta unibertsitatara ere sartuz doa, zientzia eta kulturaren ezaguerak euskaraz eskuratzearaino.

Hemen esandakoaren erakusgarri, ikus laukietan datozen datuak. 1 eta 2 Grafikoak.

2-18 urte	EUSKALDUNAK				IA EUSKALDUNAK			
ikasleen euskara maila	Guztira	Alfabetatuak	Erdi Alfa betatuak	Alfabetatu gabeak	Alfabetatuak	Alfabetatu gabeak	Pasiboak	Erdaldunak
Araba		9.238	924	924	21.707	3.335	2.796	22.253
eskolaurrea 1.maila		5.788	805	909	12.786	3.004	1.758	17.302
bigarren mailako		3.102	92	3	7.843	304	847	3.950
erdi-goi mailako		346	27	--	1.078	47	191	1.001
Bizkaia								
eskolaurrea 1.maila		32.337	5.161	6.893	45.805	10.081	5.996	56.868
2.mailako		16.971	799	80	29.291	1.032	3.209	14.206
erdi goi mailako		2.678	222	17	4.223	285	797	33.693
Gipuzkoa								
eskolaurrea 1.maila		41.129	6.747	9.658	13.071	6.785	2.260	14.610
2.mailako		20.395	1.017	87	8.949	1.007	1.397	6.144
erdi goi mailako		3.742	287	21	1.548	276	394	1.196

(1) Hezkuntza eta Euskara. Eustat 1991

Aipatzen ari garen berreskurapenaren seinale gehiagorik ere denok ezagutzen ditugu. Hauek, adibidez, besteak beste:

Alfabetatze eta euskalduntze mugimendua. Helduek euskara ikasteko hasia duten ikasketa langintza, alegia. HABE erakundea aipatuko genuke, batipat.

2 Graf. Helduen irakaskuntza:

19Arabako Ibarrr85-96eko matrikulak (1).

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Denetara
Alfabetatu gabeak	6.200	23.800	14.300	34.300
Alfabetatuak				40.000

Itzulzaile eskola. 1980an, Euskaltzaindiaren babesean, sorturiko erakundea da. Gehituz zihoan euskarazko itzulpenen eskeari gutxienezko gaitasun batez erantzun ahal izateko ezinbesteko zena.

Elhuyar. Zientzi aldizkaria izateaz gain, lan taldea ere badena. Talde honek euskara Zientzia Zehatzetako alor desberdinetara moldatzeko ahaleaginean dihardu 1974ez geroztik.

UZEI. JAKIN taldearen eraginez 1977an sortu zen erakundea. Euskara goi-irakaskuntzan, komunikabideetan administrazioan, etabarretan gaitasun tekniko-zientifiko planifikatu beharrez hasi zen. Egun, bere helburu espezifiktzat, lexikogintza aukeratu du eta jadanik dozena t' erdi hiztegi eleaniztun baditu argitaraturik.

UEU (Udako Euskal Unibertsitatea). Orduko egoera politikoak hala beharturik, Iparraldean sortu zen 1973ko udan. Unibertsitate munduko irakasle eta irakasle eta ikasle euskaldunen topagunea da eta, normalean, ikasturtean zehar Unibertsitateko Fakultateetan lantzen diren gaiak erabiltzen dira.

Komunikabideen alorrean, neurri apalagoan bada ere, irakaskuntza munduan gertatu denaren antzekoa gertatu da aho eta idatzizko komunikabideetan:

Liburugintzan: Zarauzko Itxaropena (1952)tik hasi eta azken urteotako beste argitaletxe hauetara: Bilboko Gero (1973), Donostia eta Baionako Elkar (1973),

Donostiako Kriselu (1978), Hordago (1978), Erein (1977), Susa, etab,

Aldizkarigintzan: Haur aldizkariak: Garai bateko Pan-Pin-etik gaur egungo Kilikili eta Ipurbeltz-etara.

Didaktika aldizkariak: Alfabetatze eta euskalduntze prozesuaren eskabide gisa: HABE aldizkaria (1981) edo HABEko Mik; edo Aizu! (1982),

Aldizkari berriemaileak: Garai bateko Zeruko Argia, Anaitasuna. eta gaur eguneko Argia, Principe de Viana....

Diskagintzan: 1962an Iparraldean Michel Labegerie-rekin hasitako mugimendua da izan. Gaur euskaraz 250en bat diska izango dira, eta diskaetxe moduan:

Cinsa, Herri Gogoa, Artezi, IZ, Elkar.... aipatu behar.

Kazetaritza: Astean behin bada ere, 1986ko udazkenetik, (Deiaren eskutik Eguna eta «Egin»en eskutik Hemen kazetak. eta Euskara hutsean azken urteetan Egunkaria.

Irratia: Euskarak irratan ere bere eboluzioa izan du, egungo Hego Euskal Herriko 25 emisorak kontutan hartuz. Hasi eran, 1960. urte inguru hartan, mezak, errosarioak kalbarioak, bertsolari saioak baserriarrentzako programak, ziren euskaraz entzuten zirenak. Arrate eta Segura moduko irratia. Euskararen normalkuntzari dagokionez, bilakaera nagusia Loiolako Herri Irratian somatu zen, euskara baserri girotik atera eta hiri hizkuntza izateko moldaketa lanetan hasi zenean.

Gaur egun euskara normalki erabiltzen dutenak Hegoaldean, Segura, Arrate, Loiola-Donostiako Herri Irratiak, Bilboko Herri Irratia eta Euskadi Irratia. Iparraldean, Gure Irratia.

Telebista (ETB). Euskal Telebistaren historia oso oraingoa da ezer esateko. Durangoko zentruak 1982ko abenduaren 31n, gauerdiko 12etan izan zuen bere lehen emanaldia. Donostiako zentrua ere, 1987. urte honetan hasi da.

EUSKARAREN ESTANDARDIZAZIOA ETA MODERNIZAZIOA

Euskarari gagozkiolarik, estandarizazioa, funtsean, batasuna dela esan ohi da. Eta euskararen batasuna hortaz, euskararen normalkuntzaren oinarrian dago. Batasuna da normalbidearen lehen urratsa. Kontuan har Saussure-k zioen honako hau: «bere kasa uzten den hizkuntzak dialektoak besterik ez ditu ezagutzen; horietako bat ez zaio besteri nagusitzen; eta horrela etengabe zatikatuz joango da hizkuntza»

a) Euskararen batasunaren urratsak

Euskal literaturaren hasieratik agertzen da adierazia batasunaren premia. Aski da Leizarragaren Testamentu Berriaren (1571) edota Axularren Geroren (1643) hitzaurreak irakurtzea.

Euskararen estandarizazioa planifikatzeko lehen urratsak, berriz, XX. mendekoak dira. Euskaltzaindia bera sortu zenekoak geroztik hainbat proiektu eta iradokizun eman izan da euskararen batasunari buruz. Hala ere, gaur egungo euskara batu honen plangintzak 20-25 urtetako historia besterik ez du.

Arantzazun egin zen kongresuan (1968) onartu zen euskara batuaren oinarrizko proiektua: ortografia, morfologia, sintaxia, hitzen mailegutza, etab. Bigarren urrats handia 1978an Bergaran egindako kongresua izan zen, hamar urteren buruan ibilitako bidea aztertuz, Arantzazuko proiektua eta batasun eredua berretsia gelditu baitzen bertan. Dena den, bidea oraindik luzea da, euskara batua egunean-egunean egiten baitugu.

b) Euskara batuaren onarpena

Gaur egun, euskararen batasuna, Euskaltzaindiak gidatua, onartua dago, bera baita Euskal Herriko irakaskintzan, liburugintzan, etabarretan gehiago osoz erabiltzen den euskara. Hala ere, hizkuntza estandarizatu oro arautzean eta bideratzean beti gertatu izan den bezala, euskara batuaren aurkakoak ez dira lasaitu, eta batzutan badirudi lainera ere egiten direla, komunikabideetan egiten dituzten erasoei begiraturik.

EUSKARAREN EZAGUTZA

1991 Eusta-eko Hezkuntza eta Euskara diobenaren arabera (1), hona hemen Herrialdeetako datuak:

	Euskaldunak	Ia Euskaldunak
Araba	22.995	53.581
Bizkaia	215.219	233.264
Gipuzkoa	305.403	123.691
Komunitate Autonomia	543.017	410.536

Goiko datu horiek ikusiz bat baino gehiago liluratu ere egingo zen. Baina esan dezagun Gipuzkoako Foru Diputazioak eginiko azterketa sakon eta zabal batek, euskararen presentzia eta erabilpenari buruz, zera dio: alegia, Gipuzkoan, euskaraz hitz egiten dakitenak ia %55 baldin badira, euskaraz egin, normalki, bizitza errealean, kaleetan, enparantzetan, lagunartean erabili dakitenen %25ek eskas erabiltzen du. Erabilpenaren aldetik beste ondorio kezkarriago bat ere agertzen da: gazteak direla, hain zuzen, nahiz eta hitz egiten jakin, gutxienik erabiltzen saiatzen direnak dakitenen %16 besterik ez!

Gerora begira, beraz, pertsonak eta kolektibitateak hizkuntza bat edo bestea erabiltzera bultzaten dituzten faktoreak eta, batez ere, faktore horien eragina ezagutzea ezinbestekoa da.

LABURBILDUZ

- Atzerapen eta ordezkapen prozesua euskararen egoera minoritarioraino iritsi da. Euskara dakien jendea: %23; euskara besterik ez dakiena: %0.
- Kontserbazio eta berreskuratze prozesua ere eman da. Batez ere irakaskuntza eta komunikabideen alorrean: ikastolak, AEK, HABE, Itzultzaile Eskola, UEU...; liburugintza, diskagintza, ETB.
- Euskararen estandarizazioa euskara batuarekin identifikatzen da.
- Euskararen eragutza, kopuruz: 828.488 hitzun.
- Euskararen erabilpenari buruz, zeharo datu kezkarriak: hitz egin, dakitenen %25ak bakarrik egiten omen du.

EUSKARAREN LEGE EGOERA

Zientzilariek ez ezik politikariek ere hain aipu ederrez, eta goresmen eta mirespen hitzez erabili ohi duten euskarak, egoera juridiko arras kurioa bizi -jasaten zehatzago- du.

Hasteko, ez da inongo arautegi famatu ez konstituziorik, babespean lituzkeen balizko hiztunek euskara ezagutu beharra dutela aitortzen duenik.

Baina dakusagun zehazkiro.

Hiru eremu politikotan dago banaturik Euskal Herria. Hiruretan indartsuena hiztunek eta dinamikaz mendebaldeko hiru herrialdeek osatua da, Euskal Komunitate Autonomia (EKA) deritzana.

Arau-lerrunez EKA indarrean diren legeak-onarpen eta mugapenezko eztabaida politikoak utzita, honako hauek dira:

a) Espainiako Konstituzioa (3. artikulua, zuzen zuzenean).

b) EKArako Estatutua (6. artikulua).

c) Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea.

Oinarrizko Lege honek indarrean jarri arte oztopo bat baino gehiago gainditu behar izan du. Lege honek indarrezko bitxikerien artean hor dira, kasu baterako, EKArako edozein Administrazio gunetara euskaraz zuzentzeko hiritarrek duten eskubidea, baita erakunde baten eta besten kuartel guztietara ere! Edozein epaitan aitorpena euskaraz egiteko eskubidea ere aitortzen du.

d) Amaigabeko errekursoak bitarte, badira epai zai diren arau eta baremoak ere, horien artean zenbait oposiziotan euskararen ezagutzari emandako puntuazio edo baloraketa ebazten dutenak. Askotan postu administratiboa euskaldun ala erdaldun baten eskuetara joango / ez joango erabakitzen duten probak dira.

e) Nafarroan Espainiako konstituzioaz gainera Foruaren Hobeagotze Lege Organikoak ere badihardu euskaraz (9. artikuluan).

f) 1986tik aurrera, Euskararen Lege Forala ere indarrean da. Lege honek ez du Nafarroak osatzen duen barruti osoa euskararentzako eremu aitortzen.

g) Iparraldeko administrazioak ez du euskararen erabileraz arduratzen den legeteriarik.

h) Europak Elkarrekin Ekonomikoa bertako erakunde goren den Parlamentuak badu bere HGABE, hau da: Hizkuntza Gutxituen Aldeko Bulego Europarra.

EUSKARA ATZERRIAN

Jakinek da legearena baino aski lehenagokoa dela zientziak duen euskararenganako amodioa.

Legearen eta euskararen arteko konponbideak berriak dira oraindik, eta ez mesfidantza gabeak.

Zientzia aldiz, -hizkuntzalaritza, bereziki lehentxoagotik ari da euskaraz interesaturik. Egia da askotan azterketa horietan borondate gehiago ageri dela lorpenak baino. Egia da, era berean, kanpotik etorritako aztertzaileek erakutsi digutela bidea ere. Ezin ahaztuzkoa dugu azkenik, Euskal Herriak bertan kokaturiko unibertsitate iraunkorrik ez duela inoiz izan. Eta hori euskararen azterketarako eta zientzien beste gai guztietarako eragozpen gertatu da.

J.A. Arana Martijak amultsuki adierazi digunez, ondoren aipatzen diren unibertsitateetan behintzat egiten dira euskarari buruzko estudioak tokian tokiko mintegi edo departamentuen ardurapean:

Bridgeport-en (EEBB)

Reno (Nevadan) (EEBB)

Tbilisi-ko Hizkuntz Institutuan (Georgia)

Tokyoko Waseda Unibertsitatean

Tubingen-eko Unibertsitatean (Alemania)

Bordeleko Unibertsitatean

Bartzelonako Unibertsitate Zentralean

Unibertsitate hauez gainera, zenbait hiritako Hizkuntz Eskolatan ere ikas daiteke euskara, hala Madrilekoan edo Londonekoan.

Hego Ameriketara bereziki barreiatuak diren Euskal Etxeak guti asko, euskararekiko interesa gordetzen dute. Beraietan euskara irakatsi ohi da; bibliotekak ere izaten dira. Eskola horien ganora eta seriotasuna aldiro aldiko irakasle, talde edo buruaren esku izan ohi da.

Maila apalagoan da, agian, ezagunegia ere ez delako, euskal aldizkari, programa, liburu, bideo eta materialeak jasotzen, aztertzen, eta erabiltzen duten jakitun, hizkuntzalari eta kuriosoen saila. Euskal aldizkarietako administrazioek badakite beren agerkariak lurbera osoko lau haizetara iristen direla isil-isilik.

EUSKARAREN GEROA

Gure hizkuntza honen ibilbidea ikusi, eta duen etorkizunaz miresten garenean..., gure mintzaira zahar honek erdaldunen belarrietan ere xuxurlatzen omen dituen aire eta doinu ezkiez harrotzen garenean...; mundu guztiko gizon handi eta jakintsuen artean ikasmina eta aztertzeko irrika sortzen duela emozioz beterik dakusagunean... ez ote zaigu bihotza hain sentiberatzen eta hunkitzen guzti horiek batez ere geroa, etorkizuna, euskarak bihar-etzietan egunsenti diztiratsak ikuskizun dituela sinesten dugulako?

Bihar hori gaur hasten da, ordea. Biharko euskaldun horiekiko katenbegi eta erreferentzia gaurkook gara, geu gara: atzokoen jarraipen, biharkoentzako lotura eta aipagai.

Euskarari buruz arduraturiko euskaldunen buru-bihotzak baina, kezkarik saminenak kolpaturik daude etorkizun hori dela eta.

Begira: gaur objetiboki akatsak akats, eta hutsak huts, inoiz ez bezalako medioak ditugu euskaldunok -Europako erdara dotoreenak menderatzeari ukorik egin gabe, haatik- euskaraz bizitzeko. Euskarak inoiz ez bezalako oin egitura duela esan ohi da: prentsa, telebista, irratia, eskola, publikazioen emaitza. Gaineratuko al dugu oin egitura honez gaindi, irabaziak dituela estimu soziala, gazteriaren ongi-nahia, bai eta zabalkuntza eremu berriak ere?

Eta hala ere, egunez egun, lehen hitza bai bigarrena ondoren, eta solasa jada euskaraz eskaintzen duten hitzunen kopurua gero eta murriztagoa eta tikiagoa dela entzuten eta txastatzen da mingoski.

Euskara jakin dakitenen kopuruak gora ere egin du 1986ko erroldaren arauera, baina arruntki euskaraz bizi direnena, agurra eta adioa bitarteko elea ere euskaraz luzatzen dutenena, jaisten ari da. Hona hemen SIADECOK hiru tomatan gai honetaz -Gipuzkoarako bakarrik- 1994ean eginik duen xehetasunez beteriko lanetik, oinarritzko datu xume batzuen aipamena:

EUSKARA MINTZATUAREN ERABILPEN ERREALA

Udalerrien tamainoa	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak	Guztira
0 - 499 Biztan.	74,4	85,4	97,1	99,4	88,2
500 - 999 “	74,5	76,5	79,1	89,1	78,1
1.000 - 1.999 “	59,1	58,9	65,9	75,9	63,6
2.000 - 4.999 “	51,1	38,3	53,6	67,3	50,3
5.000 - 9.999 “	28,6	15,1	32,9	45,7	28,7
10.000 - 19.999 “	29,0	17,9	32,8	48,5	29,3
20.000 - 99.999 “	17,6	8,0	15,6	26,6	14,4
100.000 eta + “	11,5	9,9	8,3	29,3	11,6
GUZTIRA	25,6	16,4	25,3	36,2	25,0

Euskara erabiltzen den toki edo lekuei dagokionez eskualdeka agertzen den panorama honako koadroan bildu ahal izan dugu.

Eskualdeak	Herriko enparantza	Parkea	Pasalekua	Erosketa kalea	Txikiteo kalea	Pelota lekua	Futbol zelaia	Beste jolas tokiak	Bataz beste
Bidasoa Behea	7,4	25,8	19,6	7,4	4,1	5,4	-	0,8	17,2
Olartzualde	14,3	15,6	17,2	18,0	15,8	13,7	3,2	16,6	14,7
Donostia	11,4	12,5	9,9	16,2	10,2	27,0	17,7	10,7	11,9
Hernanialde	12,6	24,3	14,5	18,3	14,2	2,7	7,1	-	15,1
Tolosaldea	74,8	48,5	30,3	47,9	48,5	71,4	59,0	-	46,2
Goierrri Beh.	71,0	48,8	28,3	34,1	36,3	51,0	22,7	37,7	38,3
Goierrri G.	17,7	9,3	17,0	23,3	13,9	-	8,1	16,2	19,0
Deba Gara.	29,5	33,5	30,1	39,6	30,2	34,3	44,3	27,5	34,4
Deba Behe.	23,8	13,8	28,7	31,4	20,1	32,5	9,9	-	24,3
Urola	75,3	-	79,9	64,0	66,0	88,6	81,6	81,1	76,8
Kosta	46,2	40,4	54,2	53,7	49,5	88,6	44,3	41,1	50,3
GUZTIRA	27,9	21,7	23,1	27,2	21,9	26,1	19,6	21,7	25,0

Poetak esana da hizkuntzak iraun dezan ez dela aski dakitenak honenbeste edo horrenbeste izatea, baizik direnak direla ere erabiltzea, hartaz baliatzea: barrez nahiz negarrez, pozez eta haserrez; biziz, hitz batez.

Zenbat aldiz ez dugu halako pertsonaia ezagunen edo bestelako kontu kontalariren hitz jario edo etorri ederra gogoz entzun eta geureganatu nahi izan, geure burua pozez beterik hainbestetarako euskaldun bagarela ikusita?

Bada, gurean hizkuntza era horretan menderatzen dutenei euskal sena aitortzen diegu. Euskal sena ez da, baina, inongo eskola ez unibertsitateetan irabazten, baizik egunean eguneko mintza ihardunaz, hitz arigoaz oratzen.

Eta euskarak gaur ezer behar badu euskaraz egingo duen jendeteria multzo segurua da. Hona hemen gai honi heldu eta zer idatzia duen Luis Villasante Euskaltzainburu izanak:

Beraz, ezinbesteko edo ezin utzizko da hizkuntzaren jabe edo erabiltzaile den gizatalde bat egon dadin, nahiz handi, nahiz txikia, baina giurralde trinko eta iraunkor bat. Hori gabe ez dago hizkuntzarik.

Ikasle gazte hori, zuri eta guri, gaurko euskaldunoi gutariko bakoitzari esango al dugu?-dagokigu euskaraz egitea -ez jakitea bakarrik!- irakurtzea, idaztea, euskara dela eta harro sentitzea, eta biharko gure ondokoei gure hizkuntza hau bizi zindo, zoli eta zauli ematea.

Xabier Lizardi olerkariaren bihotz-lumek borborka idatzitako olerki honek laburtzen ditu zuk ere zeuregana dezazun nahi genukeen sentimendua:

*Baña nik izkuntza larrekoa,
nai aumat ere noranaikoa:
yakite-egoek igoa;
soña zaar, berri gogoa;
azal orizta, muin betirakoa.*

AUTOEBALUAKETA

- 1) Erromatarren eragina positibotzat har daiteke? Zergatik? Ezagutzen dituzun latin maileguak adieraz itzazu.
- 2) Erromatarkuntza baketsua izan zen? Zergatik?
- 3) "Euskara, venerable lengua del pasado, demosle santo entierro" Unamuno (1901)
Unamunorentzat, euskara
 - a) kulturbide egokia zen
 - b) ez zen gauza kultur hizkuntza izateko
- 4) Gaur egun, euskaldunen portzentaia Euskal Herrian
 - a) inoiz baino handiagoa da
 - b) inoiz baino txikiagoa
 - c) azken mende hauetan mantendu izan da
- 5) Zer da diglosia? eta elebitasuna?

Benetako elebitasuna utopikoa da? Zergatik?
- 6) Zeintzuk dira euskararen jatorriari buruzko teoriak?
- 7) Euskara batua. Noizdanik ikusten da euskalki estandar baten premia? Nola sortu zuten? Lana amaituta dago?

VII. BIBLIOGRAFIA

1. Zenbait Autore (1994).- *Batxilergo Oinarritzko Curriculum Diseinua*.- Eusko Jaurlaritza.- Vitoria-Gasteiz.
2. HABE (1985).- *Testuak lantzen. EGArako langaiak bild.*- Eusko Jaurlaritza.- Gasteiz
3. Ferrer i Ripollés Montserrat, Nebot Luis i Miralles Jordi (1994).- *Proposta de programació de valencià: llengua i literatura 1 y 2 Batxillerat comuna*.- Generalitat Valenciana.- Valencia
4. Zenbait autore (1979).- *Euskararen liburu zuria: Hizkuntz borroka Euskal Herrian*.- Euskaltzaindia.- Bilbo (619- 673 orr.)
5. Zenbait Autore (1984, 32 zkia).- *JAKIN aldizkaria*.- Jakinkizunak S.L.- Donostia
6. Zenbait Autore (1985, 34 zkia).- *JAKIN aldizkaria*.- Jakinkizunak S.L.- Donostia
7. Sánchez Carrión, J.M. (1974).- "Bilingüismo, Diglosia, Contacto de Lenguas".- *Anuario de Fil. Vasca "Julio de Urquijo" VII*: 3- 81 orr. Sn.
8. UZEI (1982).- *Hizkuntzalaritza I. Diglosia, Elebitasuna, Hizkuntz interferentzia, Hizkuntz menpekotasuna, Hizkuntz ukipena kontzeptuak*. Elkar. Donostia
9. Saizarbitoria, Ramon (1987).- *Egunero hasten delako*.- Erein. Donostia
10. Agirre, Txomin (1966, 4. arg.).- *Garoa*.- Arantzazu.- Oñate
11. Bernaola, I.(1989).- *Zugarramurdiko kontesa*.- Elkarlanean.- Donostia
12. Diario Vasco. Zabali, 1987/X/11.-Donostia
13. Zenbait Autore (140 zkia., 1988/XI/1).- *HABE aldizkaria*.- Habe.- Donostia
14. Zenbait Autore (116-117 zkiak.,1987/ X/1-15).- *HABE aldizkaria*.- Habe.- Donostia
15. Zenbait Autore (1987/X/29).- *EGUNA aldizkaria*.- Iparragirre argitaletxea.- Bilbao
16. Bertsolaritzaren gerrondotik gaurdainokoa. *RIEV XXX*
17. Dorronsoro J. (1988).- *Zergatik lana*.- Desclée de Brouwer.- Bilbao
18. Telefonikako informazio orriak.- Telefónica de España, S.A.- Madrid
19. HAAE-IVAP (1991).- *Administrazio lanerako oinarritzko euskara- ikastaroa*.- Eusko Jaurlaritza.- Vitoria-Gasteiz
20. EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea) (1994).- *Hezkuntza eta Euskara. Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak 1.991*.- Vitoria- Gasteiz
21. Euskaldunon gida komertziala (1996).- *Egunkaria*.- Andoain
22. Butron, Joseba eta de Pedro, Jokin (1994).- *Euskal Hizkuntza eta Literatura 1BBB*.- Erein.- Donostia
23. Butron, Joseba eta de Pedro, Jokin (1994).- *Euskal Hizkuntza eta Literatura 2BBB*.- Erein. Donostia
24. Butron, Joseba eta de Pedro, Jokin (1996).- *Euskal Hizkuntza eta Literatura 3BBB*.- Erein. Donostia
25. Elgoibarko Euskara Mintegia (1993).- *Euskal Hizkuntza eta Literatura 1BBB-IEE*.- Elkar. Donostia
26. Elgoibarko Euskara Mintegia (1995).- *Euskal Hizkuntza eta Literatura 2 BBB-IEE*.- Elkar. Donostia
27. Beasaingo Euskara Mintegia (1988).- *Ulermen ariketak BBB3-UBI*.- Elkar.- Donostia
28. Sánchez Carrión, J.M., Txepetx (1991).- *Un futuro para nuestro pasado, claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*.- Txepetx.- Lizarra
29. Butron, Joseba eta de Pedro, Jokin (1995).- *Euskal Hizkuntza eta Literatura UBI*.- Erein. Donostia
30. Pagola, R.M. (1984).- *Euskalkiz euskalki*.- Eusko Jaurlaritza.- Vitoria- Gasteiz
31. Pikabea, Josu (1994).- *Euskara guztiok. Literatur euskalkietako irakurgai hautatuak*. Alberdania. Irun